Ama lurraren zaindari lumadunak: herri indigenak nazioartean

Joseba I. Arregi Orue



ueu

© Udako Euskal Unibertsitatea
© Joseba I. Arregi Orue

ISBN: 978-84-8438-434-2
Lege-gordailua: BI-2236-2012

Inprimategia: PRINTHAUS S.L., Bilbo
Azalaren diseinua: Igor Markaida
Hizkuntza-zuzenketen arduraduna: Ander Altuna Gabiola

Banatzaileak: UEU. Erribera 14, 1. D BILBO telf. 946790546 Faxa. 944793039
Helbide elektronikoa: argitalpenak@ueu.org
www.ueu.org

Elkar Banaketa: Igerabide, 88 DONOSTIA

Galarazita dago liburu honen kopia egitea, osoa nahiz zatikakoa, edozein modutara delarik ere, edizio honen Copyright-jabeen baimenik gabe.

Aurkibidea

SARRERA 7

GAIAREN GARRANTZIA GAURKO NAZIOARTEKO TESTUINGURUAN 11
1. HERRI INDIGENEN IKUSEZINTASUNA ETA EGOERA AKADEMIKOA ..11
    1.1. Estatuan eta Euskadin inkerketa gutxi 13
2. HERRI INDIGENEN DEFINIZIOAK 16
    2.1. Eztabaidaren gakoa eta ikuspegi ezberdinak 17
        2.1.1. Definizio mugatzailea 18
        2.1.2. Definizio zabalak eta unibertsalistak 19
            2.1.2.1. Definiziorik ez 19
            2.1.2.2. Ikuspegi aniztuna 20
                2.1.2.2.1. Erica Daes-en ekarpena 20
            2.1.2.3 Beste definizio batzuk 22
3. LAUGARREN MUNDUA: INDIGENAK HERRI INDIGENAK DEFINITZEN 22
4. LIBURUAREN EGITURA 25

ERRAUTSEN GAINEAN ERAIKITAKO MUNDU BERRIA 27
1. OPAROTASUNAREN KONTINENTEA 27
2. GURUTZEA ETA EZPATA 28
3. JAINKOA ETA IRABAZIAK 28
4. GIZARTE BERRIA MUNDU ZAHARREAN ERAIKITZEN 29
    4.1. Etnokrazioaren ezarpena 29
    4.2. Diskurtso zibilizatzailearen sorkuntza eta garapena 30
5. INDIGENA GAIZTOAREN IRUDIKATZEA 31
    5.1. Atzerapen telnologikoa 32
        5.1.1. Kolonoaren indar eraikitzailea 32
        5.1.2. Txiroak aberastasunaren lurraldean 33
6. ERRUKIZKO MENDERAKUNTZA 35
7. IPARRALDEKO HITZARMENAREN BIDEA 36

ESTATU-KOLONIZAZIOA ETA HERRI INDIGENEN DOMESTIKAZIOA..... 39
1. BERDINTASUNAREN IZENEAN ANIZTASUNA ZANPATZEN 39
2. «ANAIA GORRIA» «UME GORRIA» BIHURTU ZUTENEKOA 40
3. MODERNOTASUNA ETA ETNOZIDIOA..... 42
3.1. Etnozidioaren politikak 43
3.2. Indigenismoa eta asimilizazioa 44
3.2.1. Jabego pribatu eta ekonomiaren zabalkundea 45
4. BARNE-KOLONIALISMOA..... 46

GLOBALIZAZIOAREN KOLONIALISMOA 49
1. MUNDU-EKONOMIAREN MEHATXUA..... 49
2. AMAZONIAREN KONKISTA 51
3. KOLONIALISMO MOTA BERRIAK..... 53
3.1. Kontserbazioa konfiskazioren bitartez..... 53
3.2. Exotismoaren kolonizazioa 55
3.2.1. Marco Polo garaikideak 55
3.2.1.1. Indigena produktu..... 56
3.3. Irudiaren galera eta kulturaren krisialdia 57
4. BIOPIRATERIA: ALTXOR BERDEAREN BILA..... 57
4.1. BBK: erauzketa-markoa ezartzen 59
4.2. Biolapurretarako lasterketa 60

ERBESTE-EKINTZA INDIGENAREN HISTORIA LABURRA 1975-2007 . 63
1. NAZIOARTEKO AKTOREA BERRIA: AURREMODERNOA ALA POSTMODERNOA?..... 63
1.1. Paradiplomazia indigena..... 64
2. HISTORIA ETA MUGARRI NAGUSIAK..... 66
2.1. Aurrekariak 66
2.2. XX. mendean: herri indigenak irauteko borrokan 67
2.3. Indigenismo gizatiarraren hamarkada..... 69
2.4. Mundu mailako mugimendu baten hasiera 71
2.5. Laugarren mundua: paradiplomazia indigenaren agerpena 74
2.5.1. Indigenen aldeko erakundeen sorrera 74
2.5.2. George Manuel: kontzeptuaren sortzailea 75
2.5.2.1. Paradiplomazia indigenaren lehenengo urratsak..... 76
2.7. Mugimendua sendotzen 77
2.7.1. 169 Hitzarmena: hamarkadako aurrerakuntza nagusia..... 84
2.8. Nazioarteko aktoretza sendotu zutenekoa..... 86
3. GAI INDIGENEI BURUZKO FORO IRAUNKORRA..... 95
3.1. Giza eskubideen eremutik haratago..... 97

GIZA ESKUBIDEEN BIDETIK HERRITASUNA JORRATU 101
1. IKUSPEGI HISTORIKO LABUR BAT 101
1.1. Giza eskubideak eta nazioarteko ordena berria..... 102
2. HERRI INDIGENEN ALDEKO MARKO BATEN ERAIKUNTZA..... 103
2.1. Nazioarteko partadietzaren hasiera 105
2.2. Zabalduriko bidea sendotzen 107
2.3. NLE 169 Hitzarmenaren inguruko hausnarketa batzuk..... 107
3. ERRONKA ETA AUKERA BERRIAK.....113
3.1. Giza eskubideen batzordea eta errelatore berezia.....114
4. ALDARRIKAPENAREN INGURUKO ESTATUEN OLDARTZEA 116
4.1. Autodeterminazio-eskubideari buruz..... 124

HERRI INDIGENEN EKARPENAK GARAPEN IRAUNKORRAREN ERRONKAN 131
1. GARAPEN IRAUNKORRA ETA HERRI INDIGENEN NAZIOARTEKO AITORPENA..... 131
1.1. Indigenen aldeko markoaren sorrera..... 133
1.2. Aitorpen instrumentalistaren argi-ilunak 134
2. BASOAREN PATUA, HIL EDO BIZIKO BORROKA 136
2.1. Herri indigenak, nazio-iraupena eta ingurumen-segurtasuna 137
2.1.1. Segurtasuna, ekologia eta herri-iraupena uztartzen 138
2.1.2. Bizitzeko basoa versus produzitzeko basoa..... 139
2.1.3. Herri-lurrak eta gobernu indigenaren garrantzia 141
3. GI INDIGENENTZAKO MARKO BERRIA 141
3.1. Burujabetasuna lantzeko leiho bat 142
4. GARAPEN IRAUNKORRERAKO PROPOSAMEN INDIGENA..... 144
4.1. Autodeterminazioa kontserbazio-ahaleginaren muinean..... 145
4.1.1. Esangura bereziko lurralde eta ekosistemen babesa..... 146
4.2. Biopirateriaren aurkako borroka latza 147
5. COP BILTZARRAK: GATAZKA ETA ELKARLANA BIODIBERTSITATEAREN INGURUAN..... 150

SUMAK KAWSAY: MUNDU GIZATIARRAGO BAT ERAIKITZEKO PROPOSAMEN INDIGENA..... 157
1. DESKAHEH-REN BIDETIK 157
2. ERABATEKO PROPOSAMEN INDIGENA..... 158
2.1. Kultura indigenetan erroturik..... 160
2.1.2. Kosmoikuskera indigena, kultura eta lurraldea 161
3. SMK ETA XXI. MENDEKO SOZIALISMOA. ELKARRIZKETA ALA BESTERENTZEA? 164
3.1. Indigenek egindako kritika 165

ERABILITAKO AKRONIMOAK 167

UNE GARRANTZITSUEN KRONOLOGIA 169

BIBLIOGRAFIA 171

BIDEO-MATERIALA 209

Unai Belaustegi, Aritz Ipiña eta Jon Kortazar Billelabeitia diren lagunei. Burujabe eta buruaske izan nahi dugunak asko garelako munduan

Sarrera

Liburu honen ideia 2012an sortu zen doktorego-tesian zein ikerketan landuriko gai batzuen inguruan (liburu hau posiblea izan da Ikerketa Taldean egindako lanari eta bere laguntzari esker. Ministerio de Ciencia e Innovación. ref. HAR2011-24072). Horrekin batera, Irakasle Eskolan irakatsitako ikasgaiek sorturiko burutazio eta esperientzien ondorio ere bada esku artean duzun liburua. 2012an Ciencias Sociales y Educación para la ciudadanía zein Gizarte Zientzien Didaktika II kurtsoa irakatsi egin nuen. Bertan gizarte-zientzia ezberdinen ekarpena lantzea, demokraziaren historia jorratzea, giza eskubideekin loturiko aukerak eta erronkak aztertzea eta gaur egungo euskal gizarteak nola munduak oro har aurrean dituzten krisialdiak aurkeztea zen helburua.

Askotan, globalizazioarekin eta herritartasun kosmopolitarekin loturiko diskurtsoa oso teorikoa da eta urrun xamar gelditzen da, berez nazioarteko gaiak eta horrekin lotuta dauden erakundeak eta aktoreak oso urrun gelditzen zaizkigulako. Horretaz jabe izanik eta urruntasunak sortzen duen haustura psikologiko hori apurtu nahian, herri indigenen kasuan zentratu nuen nire ahalegina. Are gehiago gaur egun, XXI. mendean, oso zaila gertatzen da mundu mailan globalizazioaz, pobreziaz, bazterkeriaz, gatazka etnikoez, giza eskubideez, ekologiaz, garapenaz, demokraziaz, zein kultur aniztasunaz hitz egitea herri indigenei erreparatu gabe. Testuinguru horretan globalizazioak eragindako kezka agertu didate ikasle askok. Hain zuzen ere, herri txiki eta kultura gutxituen etorkizunari buruzko ardura erakutsi dute. Kezka horri erantzuteko herri indigenen kasua erabiltzeko asmoa gauzatu egin dut liburu honetan. Globalizazioaren ikuspegi osoago bat lortzeko herri indigenen ekarpenak, diskurtso eta esperientziak interesgarriak izan daitezkeela uste dut. Herri indigenen atzoko eta gaurko esperientzien bitarteaz globalizazioaren alde iluna, modernotasun industrialistaren kritika, herritartasun kosmopolita, giza eskubideen historia eta gabeziak, demokraziaren erronkak, nazio-estatuaren eraikuntza-prozesuak nahiz garapenak egindako mota askotako triskantzak landu daitezke. Alde distiratsuan, ostera, giza eskubide eta ekologiari egindako kontribuzioa, estatu gabeko nazioen paradiplomazia nola garatu duten, sistema kapitalista globalizatuari egindako

erronka zertan datzan eta *Sumak Kawsay* antzeko proiektuak aztertu daitezkeela uste dut. Gainera hau guztia gizarte-zientzia ezberdinen ekarpena erabiliz burutu daiteke diziplinen arteko elkarreragin argi-argia ikusten delarik.

1492tik aurrera herri indigenek globalizazioaren ondorio ezkorrak pairatu dituzte. Horri aurre egiteko asmoz, XX. mendean nazioartera jo zuten euren eskubideak baliarazteko. Nazioartera jotzeaz aparte, gai izan dira Laugarren Mundua izeneko mundu mailako mugimendua sortzeko eta berezko diplomazia burutzeko. Gainera, Laugarren Munduan estatu barruan bizi diren nazio kapsulatuak daudela eta autodeterminazio-eskubidea erabiltzeko aukerarik izan ez dutenak direla aldarrikatu dute. Definizio horren barruan Euskal Herria sartzen dute. 1974an sorturiko definizio horretan herri indigenak ez ezik, nazio-herriak ere (estatu gabeko nazioak ere gure terminologia eurozentrikoan) aurkituko ditugu.

Prozesu hau deskribatzeko metafora moduan paradiplomazia lumadunaren irudia erabiliko dut. 1923an Deskaheh Genevara joan eta Nazioen Ligara hurbildu zenetik, indigenek harro erabili dituzte euren jantzi nazionalak. Guretzat txapela dena eurentzat luma da. Lumek lotzen dituzte nortasuna eta lurraldea, herria eta espiritualtasuna, luma izan da gizon gorriaren marka eta lumak erabiliz irudikatu eta barregarritzat hartzen ditugu indigenak. Gainera, NBEn daudenean maiz erabiltzen dituzten lumak euren irudia markatzeko.

XXI. mendeko indigenak euren tokian tokiko mugetatik atera eta gure mundu garaikidean partaide ditugu. Munduko aniztasun kultural eta biologikoaren aldeko borrokak munduko herri indigenak ditu kasu askotan protagonista. Are gehiago, gaur egun ditugun hainbat arazoren aurrean indigenek euren aldizkatzea dute eta, ahozko kulturak direnez, eurak ezagutarazteko mila esaldi, kondaira, metafora, kantu eta mezu esanguratsu dituzte. Hauek gure eskoletan herritartasun kosmopolita lantzeko material ederrak izan daitezke.

Gainera, euskaldunekin loturiko arrazoi anitz daude. Laugarren Mundua proposamen moduan hasi zenetik, estatu gabeko nazioen mugimendu modura ikusi dute partaide eta ikertzaile askok, tartean euskaldunok. Euren egitekoan herri indigenek kontuan izan dute nazio-herrien esperientzia. Gainera, gaur egungo erronkei aurre egiteko orduan gero eta gehiago dira indigenak aintzat hartzen dituzten euskaldunak.

Horretaz gain, Laugarren Munduak bere proposamena gauzatzeko orduan ama lurrarekin duen harremanari eman dio oinarri-oinarrizko tokia. Harreman berezko horrek ezberdintzen ditu herri indigenak munduko beste herrietatik. Halaber, harreman hori dugu protagonista herri indigenen diskurtsoetan eta euren ekimena, giza eskubideen arloan zentratzeaz gain, ekologiarekin loturiko gaietan kontzentratu da. Hori horrela da nahiz eta bi alor horiek modernotasunaren kategoriak diren. Herri indigenen ikuspegian banaezinak dira eta herria zein natura biziaren sarearen parte dira.

Aipaturiko arrazoiak direla medio, XXI. mendean herri indigenak protagonista dira hainbat eta hainbat arlotan. Errealitate hau bai nazioarteko erakundeek, estatuek zein indar altermundistek onartu egin dute. Hauek guztiek aitortu dute herri indigenak eragile politiko sormenezko eta eraginkorrak direla XXI. mendeko politikan. Baita nazioarteko gizarteak babesturiko eskubideen subjektuak ere. Errealitate hauek herri indigenek egindako lan, partaidetza eta sormen politikoaren fruitu dira. Eurak, azken berrogei urteetan euren estatuetako errealitate ezkutuak, ikusezin eta herritartasunik gabekoak izatetik XXI. mendeko herritar kosmopolita gorpuztera pasatu dira. Horretaz gain, asko dira Latinoamerikan euren konstituzioetan herri indigenei mota bateko edo besteko aipamenak egin dizkietenak. Baina zalantzarik gabe, are inportanteagoa da guretzat 2007an gertatukoa: herri indigenen eskubideak onartu zituen aldarrikapen unibertsala (hemendik aurrera HIGEA) ontzat eman zuela NBEko Batzar Nagusiak.

Aldaketa-puntu horretan kokatzen dugu liburu honen hasiera. Herri indigenen agerpena nazioarteko subjektu politiko bezala, gatazka eta tentsio luze baten isla baita. Batetik botere kolonialek eta estatuek eragindako domestikazioa (Martinez, 1999) eta ikusezintasuna ditugu, eta, bestetik, herri indigenek horien aurka buruturiko erresistentzia luzea. Erresistentzia eta erresilentzia Laugarren Munduaren sorreran eta herri indigenen nazioarteko proposamen eta praktika politikoaren muinean aurkituko ditugu. Liburu honetan indigenek egindako ahaleginak euren hitzetan eta ahotsetan aurki daitezke.

Liburuak iturburutzat NBEren dokumentu asko erabili ditu, baita euskarri honetan dauden testu akademikoak ere. Baina saiakera handia egin da Interneten eskuragarri diren materialak erabiltzeko, baita haien ahotsa zuzen-zuzenean ekartzen diguten bideoak txertatzeko ere. Lanabes digitalik gabe ezin baita indigenek lorturiko arrakasta ulertu gaur egun. Eta nonbait indigenak aurrez aurre aurkitzeko erreza bada, Interneten da, diplomazia lumaduna gehienbat ziberdiplomazia izan delako.

Gaiaren garrantzia gaurko nazioarteko testuinguruan

1. HERRI INDIGENEN IKUSEZINTASUNA ETA EGOERA AKADEMIKOA

Indigenei buruz mintzatzen garenean, oso zaila da indar kolonizatzaile bakoitzak sorturiko irudi eta estereotipoak gainditzea. Estalketaren alde sortutako diskurtsoa oso hedatua eta ondo errotuta dugu gure artean. Diskurtso horren ondorio nagusia herri indigenen ikusezintasuna da (Spicer, 1992: 47). Ikusezina diogu zeren indigenak baliorik gabeko kulturatzat hartu eta, gainera, ez baitzaie pareko nazio-estatusik onartu. Irudi nagusi horren arabera, indigenak barbaroak, periferikoak, basatiak, primitiboak eta modernotasunaren aurrekoak balira bezala aurkeztuko zaizkigu. Desagerturiko indioa (vanishing Indian) delakoaren diskurtsoa da hori (Deloria, 1999; Arregi, 1994). Diskurtso horri jarraituz, herri indigenak estali (Dussel, 1996) edota ezkutatu egin dituzte. Indigena ikusteko ezintasuna estatuek praktikaturiko domestikazioaren (Martínez, 1999) edota estatuan integratzeko (Duneway, 2003) estrategiaren ondorioa dugu. Beraz, indigenak diskurtso eta praktika politiko nagusitik kanpo gelditu dira, bai estatu barneko bai nazioarteko politikan.

Deskribaturiko indigenak ikusteko ezintasuna gobernu eta populuaren artean ez ezik, akademiko, GKE, nazioarteko aholkulari eta gobernuetako teknikarien artean ere gertatzen da. 1950etik aurrera, indigena «garapen-arazo»tzat agertzen zaigu definituta (Rodríguez-Piñero, 2005). Izan ere, garapenari buruzko pentsamendu nagusiak laguntzaren onuradunen artean dagoen kategoriatzat jotzen du indigena, haien miseria, marjinaltasuna eta beharra azpimarratzen direlarik (Arregi, 1993). Horrexegatik, estatuaren politiken objektu eta haren politika asimilatzaileen helburu agertu zaigu orain gutxi arte. Horixe baita indigenei oraingoz toki askotan aplikatzen zaien ikuspegi nagusia. Modu batean edo bestean, indigenak kanpoko aktore eta prozesuen eragina pasiboki jasaten duten objektu gisa agertzen dira, horrexegatik ukatu egiten zaie garaikidetasuna, modernotasuna, autonomia eta subjektu politikoa izateko tasuna. Are gehiago, haien kultura tradizional, lokal eta estatiko gisa irudikatu da eta erraz ondorioztatu da haien ezintasuna mundu modernoan integratzeko. Ikuspegi honek ez du aintzat hartzen herri indigenen aktoretza, ekimen politikoa, ezta, are gutxiago, beraiek pairaturiko erasoen aurrean buruturiko erresistentzia.

Gauzak horrela, ez da harritzekoa, orain gutxi arte, herri indigenen hain esperientzia gutxi agertzea ikerketa akademikoan. Hala ere, gauzak zertxobait aldatu dira, emeki-emeki herri indigenak eta haien aktoretza politikoa ikergai bihurtu

dira azken bi hamarkadetan. Aktoretza indigena hori Latinoamerikan iragarri da bereziki (Martí i Puig, 2000) eta gizarte-mugimendu berrien barruan kokatu. Latinoamerikako kasuan, herri indigena zehatzei edo konfederazio zein erakunde pan-indigenei loturiko ikerketa ugaritxo aurki ditzakegu azken bolada honetan. Ikerketa monografikoak eta tokian tokiko mugimenduei buruzkoak nagusi dira. Gatazka etnikoa edo mobilizazio politikoa aztertzen dituzten ikerketak gehienbat antropologo, soziologo eta politikako adituen lana izan dira.

Antropologoek nortasun indigena berriaren agerpenari, tradizio/modernotasunari eta giza eskubideei loturiko gaiak jorratu dituzte. Soziologoek, aldiz, mobilizazio indigenaren nolakotasunak, agenda eta antzekoak, eta politologoek, azkenik, estatu zein nazioarteko markoek eskainitako aukerak eta planteaturiko eragozpenak aztertu dituzte.

Jorraturiko gaiak ditugu: mobilizazio etnikoa, ohiko lurren galera, ekosistemen ustiaketa, lurralde indigenen militarizazioa, genozidio, etnozidio eta gainerako giza eskubideen bortxaketa, etab. Gainera, ikerketa asko erdaraz dago baina ikertzaile amerikanoek sortua. Espainian herri indigenei buruzko ikerketa, gehienbat, historialari eta antropologoen gauza da (Gómez, 2001), eta soziologo eta politologo gutxi batzuk sartzen ari dira orain gutxi.

Tokian tokiko mobilizazio indigenari buruzko ikerketa loratzen hasi bada ere, ez da antzekorik gertatzen nazioartean indigenek buruturiko mobilizazioa helburu duen ikerketarekin. Izan ere, indigenek sorturiko nazioarteko mugimendu pan-indigena, berarekin lorturiko ikusgarritasuna, eta indigenen eskaerak aurkitzen dituen oztopo eta aukerak ez dira horrenbeste ikertu. Horren arrazoia zera dugu: herri indigenak estatu barneko arazotzat kontsideratu direla oraintsu arte. Indigenekin loturiko ikerketan, oro har, maila tokian tokikoa nazioarteari gailendu zaio. Ikerketan eta ondorengo literaturan eremu lokalak duen pisua indigena aborigen edota autoktono modura identifikatzeko orduan antzeman daiteke. Horrelako definizioek pisu handiagoa ematen diote lokaltasunari. Gainera, bakoitzak testuinguru eta diskurtso historiko zehatzei egiten die erreferentzia.

Esanak esan, orain uler dezakegu zergatik herri indigenen nazioarteko esperientzia garaikideak ez duen horrenbesteko interesik sortu akademikoen artean (Sobero Martínez, 2003). Gauzak aldatzen hasi dira, eta mundu anglofonoan gero eta gehiago dira herri indigenen nazioarteko mobilizaziori erreparatzen diotenak. Nazioarteko abokatuak, aritu internazionalistak, antropologoak, soziologoak eta politologoak ari dira bidea zabaltzen, gehienbat (Anaya, 2006). Egindako ikerketek kasu zehatzak aztertu dituzte eta nazioarteko zuzenbide berriak giza eskubide, ekologia edo garapenaren arloetan eskaintzen dituen aukerez zein oztopoez arduratzen dira. Hala ere, aipaturiko egile horiek oso gutxitan erreparatu diote herri indigenen nazioarteko mugimendu honen sorrera eta garapen historikoari.

1.1. Estatuan eta Euskadin ikerketa gutxi

Nazioartean herri indigenengan dagoen interesa eta ikerketa kopurua gorantz badoa ere, ez da gauza bera Espainia gertatzen. Bartolome Clavero-k eta haren jarraitzaileek egindako lanez gain, urriak dira egindako lanak, emeki-emeki kopurua handitzen doan arren. Egoera hori ez da hobea Euskadin, non herri indigenen errealitateari buruzko ezagupen eza eta idealizazioa nagusi diren. Ezjakintasuna are larriagoa da gure artean estatu gabeko nazioen esperientziari buruzko interesa dagoelako. Adibidez, Gurr (2000), Riggs (1998) edota Trejo-k (2000) gatazka etnikoa eta herri indigenak lotzeko egindako saiakerek ez dute inolako oihartzunik izan. Ondorioz, gatazka etnikoez arduratzen den ikerketa gehiago zentratzen da estatuekin tirabiran dauden etnonazionalismoetan, gatazka armatua dagoen kasuetan (Trejo, 2000) edota estatu independentea sortu nahi omen duten mugimenduetan (Corntassel 2003); Euskadi, Quebec, Flandes, Ipar Irlanda, Katalunia dira, besteak beste, gehien azterturiko kasuak.

Paradoxa zera da: estaturik gabeko etnonazionalismoaren kasuek ez dutela euren eskubideekiko inolako nazioarteko aitorpenik lortu, eta literaturan bizi diren estatuarekin duten gatazka dela aztergai. Espainian, gatazka etnikoa aztertzen duten ikertzaile batzuek apurtu egin dute joera hori eta hasi dira herri indigenen eta estatu gabeko herrien arteko harremana aztertzen, eta interesa zuzendu dute estatu gabeko nazioek indigenen artean izan dezaketen ahalezko eraginera (Barrientos, 2005; Gibernau, 1996).

Akademian ez bezala, gizartean, eta batez ere gizarte zibilaren eta mugimendu aldizkakoen barruan, indigenen presentziari eta berezitasunari buruzko kontzientzia handitzen doa. Beste inon baino gehiago indigenen presentzia ekologiaren inguruan kokatzen da. Izan ere, indigenak bai populuaren artean bai komunikabideetan ekologia eta «moda berdea» deitzen den horrekin lotuta aurkituko ditugu, batik bat (Arregi, 1993). Hainbat talde ekologistaren ikuspegietan (Friedman, 1999), «New Age» mugimenduen esanetan (Aldred, 2000) edota komunikabide batzuek bultzaturiko mezuetan indigenak «homo ecologicus» gorpuzten agertzen dira (Arregi, 1993). Zalantzarik ez «basati onaren» mitoaren bertsio gaurkotu baten aurrean gaudela (Arregi, 2006).

Europako erakundeek herri indigenen garrantziari erreparatu diote, eta haien garrantzia jorratzen duten erabakiak hartu eta ekimenak garatu dituzte. Erabaki eta ekimen horiek Laugarren Munduak irabazitako nazioarteko aktoretza indartsuaren lekuko dira.

Nazioarteko joera honi jarraituz, Euskadin ere herri indigenen aldeko ekimenak hartu izan dira, horien artean, aipamen berezia merezi du honako honek: 1996tik aurrera Euskadiko Garapen Laguntzarako Deialdi publikoak lehentasuna handiko taldetzat izendatu ditu herri indigenak (Gonzalez, 1998: 18).

Erakunde mailan gertaturiko joera honetaz gain, egon badaude Euskadik indigenekiko dituen ezaugarri berezi eta aipagarri batzuk: batetik, egon badagoelako herri indigenekiko kidetasun sentimendua, eta (Arregi, 1994; Landaburu, 1998), bestetik, estatu gabeko nazioek egindako kanpo-politikan euskaldunok dugun interesa. Indigenekin izandako harremana aspaldikoa da, bai Ameriketako Iparraldean mi'k maq -ekin modu baketsuan (McKeen, 1995; Esteban, 2006; Usereau, 2003) bai Hegoaldean konkista-garaian eman baitziren. Baina indigenekiko euskal elkartasunaren aurrekariak Sabino Arana-Goirik kolonialismoaren aurka idatzitakoetan aurkitu ditzakegu (Larronde, 1977: 295-296 eta Clavero, 1998: 35). Azken urteotan egon badago herri indigenekiko garatu den herri zaharren arteko kidetasun bat (Landaburu, 1998). Hau da, batetik herri zaharrak izanik, euren historian zehar «kultura primitibotzat/ez modernotzat» kontsideratuak izan direnekiko kidetasun-sentimendua antzeman daiteke. Landaburuk (1998: 83) «egoera agoniakoan dauden herrien kulturen arteko elkartasuna» deitu dio horri.

Argudio horri gehitu egin behar diogu ondoko errealitate hau: Euskadik garatu duen erabakigune autonomoa erreferentzia bat dela herri indigenentzat (Díaz Polanco, 1997: 116-118). Beraz, kasu honetan lotura psikologikoari euskaldunon zein indigenen arteko interes praktikoa lotu behar zaio. Lotura psikologiko horren beste aurpegi bat hizkuntzak jasandako zapalkuntzari lotuta edo ohiko sistema politikoak jasandako zanpaketari lotuta aurki daiteke. Horrekin batera, kultur eta nazio gutxituek jasandakoari gehitu egiten zaio ekologia, garapen desarrollistaren aurkako borroka eta giza eskubideak konbinatzen dituen ikuspegi garaikidea. Indigenak globalismo kolonialistaren aurka borrokatzen diren herri gisa irudikatzen dira eta haiengan inspirazioa bilatzen da globalizaziori aurren egiteko orduan. Izan ere, indigenak idealizatu egiten dira, eta globalizazio zanpatzailearen irudia den Goliat-en aurka borrokatzen diren David txikiak bezala irudikatzen dira, finean «basati onaren» bertsio gaurkotua eginez (Arregi, 2006). Idealizazioari buruz Landaburuk (1998: 81) sentimendu horrek duen indarra aipatzen du indigenekiko jarrera berria eragin duten zioen artean.

Idealizazioa hasiera batean positiboa izan badaiteke ere, gerora begira arazo asko sor ditzake. Landaburuk argi uzten du herri indigenekin izan beharreko harremanean ezinbestekoa dela saihestea askotan gertatzen den «paternalismo y la intromisión indebida». Horren adibidea eskaintzen digu Clavero-k (2009) deskribatu eta baloratu egiten duenean 2009ko Munduko Gizarte Foroan gertaturiko pasarte bat. Pasarte horretan Claverok salaturiko abangoardismoa 2009an Arkonada kazetariak Palacín izeneko politikari indigenari egindako elkarrizketa batean agertzen da. Ematen du lidergoa modu automatiko eta naturalean gertatu zela kronikarien iritziz.

Horrelakoak etorkizunean saihestu nahian, tokian tokiko errealitateak eta kulturen arteko berezitasunak eta ñabardurak errespetatzeko asmoz, indigenekiko interesa eta errespetua erakutsi behar dela uste dugu. Hau da, herri eta kultura gutxituen arteko antzekotasunak hortxe badaude ere, prozesu historikoak eta

helburuak ezberdinak izan dira eta horrela diraute gaur egun. 1993an Gregg Morrisek esan zidanez, herri indigenen (*indigenous peoples*) eta estatu gabeko nazioen (*nation people*) arteko solasaldia positiboa eta beharrezkoa da, ikuspegiak eta esperientziak hainbat arlotan trukatzeko, baina ahaztu gabe errealitate ezberdinak direla. Errealitate ezberdinen arteko solasaldiaren beharra eta elkarlanerako jarrera Palacín-en hitzetan aurkitzen dugu, baita Euskadi eta Kataluniaren errealitatearen ezagupen urriaren zantzuak ere.

Aipaturiko solasaldia burutuz etnonazionalismoaren ikuspegi osoago bat, Euroamerikatik haratago doana, eta benetan mundu mailakoa dena izango dugu, horrela egoera hobean egonik ulertzeko etnonazionalismoaren eskaerek XXI. mendean duten garrantzia. Berriz ere Palacín-en hitzetan, nazio-herrien eta herri indigenen arteko solasaldia posible eta beharrezkoa da guztiok elkartzen dituelako paradigma berria sortzeko beharrak eta ondorengoak.

Errealitate hau abiapuntutzat hartuz, eta jakinik herri indigenen kasua garrantzitsua izan daitekeela estatu gabeko nazioen nazioarteko politikan interesa duen edozeinentzat, abiatzen gara. Herri indigenen nazioarteko lan politikoari gutxitan erreparatzen zaiola ikusirik, nazioarteko aktore berri honen aurkezpenean kokatzen dugu gure kontribuzioa. Gure lanak nazioarteko mugimendu berritzaile honi buruzko klabe nagusiak eskaini nahi ditu: sorrerari, berau lagundu zuen une historikoari (pull factors), lorturiko errekonozimenduei eta nazioarteko alorrean zabalduriko ekintza-eremu politiko berriei, eta prozesu honetan ezaguturiko muga eta oztopoei buruzko informazioa emanez. Era horretan herri indigenekiko nagusi den alterofobia edota alterofiliatik haratago (Arregi, 2006) joan nahi dugu, eta nazioartean garatu duten izate politikoan oinarritu haiei buruzko ezagupen berria ezagutarazteko.

Hau guztia garrantzitsua da oso, batetik, Laugarren Mundua euroamerikarrak ez diren estatu gabeko nazioek osaturiko nazioarteko aliantza berritzaile baten kasua erakusten digulako. Bestetik, nazioartean bere agenda era arrakastatsuan bultzatu duen eragile etniko berri baten kasua eskaintzen digulako. Gainera, Laugarren Munduak estatu eta nazioen arteko harreman berri bat defendatzen du, horretarako autodeterminazioari heltzeko beste modu bat proposatuz. Estatu-apurketarik gabeko autodeterminazio honek hirugarren bidea posible dela baieztatu du, horrela, gatazka etnikoa ikertzen duten adituen artean nagusi den asimilazioaren eta sezesioaren arteko eztabaida gaindituz.

Laugarren Munduaren agerpen indartsuak nazioarteko aktore geopolitiko berri baten existentzia eta agenda erakutsiko digu. Horren garrantzia handiagoa da gaur egungo munduan, non estatuak, estatu gabeko nazioak, multinazionalak eta beste aktore batzuk elkarren aurka aurkitzen ditugun. Gaur egungo nazioarteko agendan gatazka etnikoek duten inportantzia handia da oso, eta berauei loturiko ikerketek herri indigenen garrantzia erakutsi dute (Ryser, 2001; Gurr, 2000). Gatazka hauek

estatu barnekoak dira eta intentsitate gutxikoak (Clay, 1994). Hauetan eta hein handi batean ekosistema indigenetan dauden baliabideen gaineko kontrola da jokoan dagoena (Murphy, 2003). Are gehiago, Williams-ek (2003) estatu barneko gatazka askoren iturburua estatuek indigenekiko duten jokaera dela diosku. Horrexegatik, indigenak euren lurralde eta kulturak desagertzeko zorian jarri dituzten estatuen aurka aurkituko ditugu borroka bizian.

2. HERRI INDIGENEN DEFINIZIOAK

Historikoki herri indigenek euren izen propioak erabili dituzte euren buruak definitzeko. «Quechua», «Aymara», «Sami», «Inuit», «Lakota», «Dene», «Kuna» jatorrizko izenak dira bakoitza herri bakoitzaren esperientzia historiko, kultural eta politikoaren isla izanik. Kasu guztietan izen hauek dimentsio geografiko inportante bat dute, lurralde eta ekosistema zehatzekin estuki loturik aurkituko ditugularik. Hala ere, XX. mendean izandako kontzientzia eta mobilizazio politikoaren ondorioz, europarrek emandako «indigena» deitura berreskuratu eta mespretxuzko definizio horri buelta emanez borroka antikolonialista eta askatzailearen sinbolo bihurtu dute (Caravante, 1999). «Herri Indigenen» nortasun pan-indigena baten deitura da hein handi batean. Intelligentsia indigenaren eta estatu, aditu, GKE eta NBEren artean izandako elkarreraginaren ondorioa da. Definizioa nazioarteko konferentzia eta biltzarretan sortu eta NBEren Giza Eskubidearen Azpi Batzordeak antolaturiko ekimenen babespean loratu dela gogoratzen digu Daes-ek (2001).

Indigena ez direnek egindako definizio hauek kasu batzuetan kutsu kolonialista garbia dute eta gehienetan etnozentrista izanik jatorrizko izenen tokia hartu dute. Are gehiago, kasu askotan herri indigenentzat iraingarriak dira «Apache» (etsaia), eskimal (okela gordina jaten duen jendea) etab. Aldiz, taldea izendatzeko orduan «indios», «indígenas», «nativos», «tribus», «minoría tribal», «pueblo nativo», «aborigen», «pueblo autóctono», «primeras naciones», «nacionalidades indígenas», «pueblos indígenas», eta «Cuarto Mundo» (Sobero Martínez,2003) erabili dira. Izen horiek europar zibilizazioak sorturiko ikuspegi eta kategorietan oinarriturik daude.

Testuinguru honetan deitura eta definizioen arteko talka topatzen dugu eta eztabaidaren gibelean zibilizazioen arteko ika-mika dago. Ondorioz, gaur egun ez dago unibertsalki onarturik dagoen herri indigenen definiziorik. Batetik, estatuek, nazioarteko erakundeek eta adituek definizio orohartzaile bat egiteko asmotan diraute. Bestetik, gai honek eztabaida franko sortu ditu indigenen artean eta ez dago erabateko jarrerarik. Esate baterako, Asiako herri indigenak definizioaren alde agertu dira estatuek inposatzen dieten estalketari aurre egiteko asmoz (Sobero Martínez, 2003); beste kontinente batzuetakoak, aldiz, autodefinizioaren alde lerrotu dira. Corntassel-ek (2003) identifikazioak sortu dituen arazo eta kategoriak aztertu ditu. Bere aburuz, akademian eta gobernuek sustaturikoak daude, aditu, erakunde indigenek eta GKEek sorturikoak eta, aldiz, nazioarteko erakunde berezituek sustaturikoak daude.

Gauzak horrela, aurkezten den proposamen bakoitzak eztabaida bizia sortzen du. Eztabaida politiko hau gori-gorian aurkituko dugu, batez ere, nazioarteko zuzenbidearen inguruan gertatzen denean. Lege-testuinguru batean ezinbestekoa baita eskubideen jabea nor den argitzea, jakin ahal izateko nor sar daitekeen kategoria horretan, eta nor ez, jakiteko nori dagozkion babesak eta onurak, eta nori ez.

2.1. Eztabaidaren gakoa eta ikuspegi ezberdinak

Laugarren Munduarekin loturiko auzian pil-pilean dagoen ika-mikarik gogorrena herri indigenen «herri» (Peoples) ala «populazio» (People) izaeraren inguruan sortu da. Arazoa deitura soila baino askoz inportanteagoa da. Definizioaren inguruko eztabaidak nazioarteko legediari eta haren garapenari jarraitzen die. Ezin dugu ahaztu gauza askoren gainetik estatuek sorturiko eta bultzaturiko eztabaida dugula hau, eta haren benetako garrantzia sistema normatiboan izan dezakeen eraginean aurkituko dugu.

«Herriak» izendatzearen aurka Lehen Munduko eta, bereziki, Hirugarren Munduko, estatu asko aurkitzen ditugu. Haien ustez horrelako izendapen bat berorri nazioarteko legedian dagozkion autodeterminazio-eskubidea eta estatu berri bat eraikitzeko eskubidea aitortzea litzatekeelako.

Euren historia paradiplomatiko osoan «populazio» edo «gutxiengo» deitura indar osoz borrokatu dute herri indigenek. Deitura/kategoria hauek eurentzat historikoki pairatu duten diskriminazio eta arrotzen inposatzearen marka bat direlako. Indigenen ustetan, «gutxiengoek» bizi diren estatuaren gehiengoarekin bat egiteko borondatea erakutsi dute. Ez da horrelakorik gertatu itun bereziak eta nazio-tratamendua izan dituzten hainbat herri indigenaren kasuan. Haiek domestikazio-politiken eta barneko kolonizazioaren ondorioak jasan dituztelako, nazioarteko zuzenbidean beste kategoria bat dagokiela defendatu eta lortu dute.

Populazio ala herri eztabaida hau nazio/herritasuna mugatzeko zentzuan gertatu da. Era berean HIGEAren onuradunen kopurua murriztu nahi da (Sanders, 1999). Historian hainbat aldiz gertatu den bezala, «indigena» zein den eta honi zer eskubide dagozkion indigena ez direnak erabakitzen ari dira. Hori horrela da nazioarteko sisteman eta haren erabaki-esparruetan estatuek dutelako nagusitasuna. Maila lokalean eztabaida honek ez du izateko arrazoirik. Aldiz, nazioartera jauzi egiten duenean, herrien arteko eztabaidaren testuinguruan gai potolo bihurtzen da. Are gehiago eskubideak baldin badaude jokoan.

Esaterako NLE 169 Hitzarmenean, «herri indigena» deiturarekin batera ohar mugatzaile bat agertzen da. Oharrak argi uzten du bere erabilerak ez dakarrela kategoria honi nazioarteko zuzenbidean onartzen zaizkion eskubideen onarpena. Joera honen beste adibidea dugu 1993an onarturiko «UN International Year of the World Indigenous People». Ahalegin sendoa egin da «herriak» izenburua saihesteko. Indigenek eta estatuek topo egin duten foro guztietan eztabaida piztu da. Estatuen

beldurra antzua zela erakutsi zen 2002ko Johannesburgoko Aldarrikapenak eta hari loturiko Ekintza Planak «herri indigenak» deitura erabili zutenean. Hori horrela onartu zen eta 100 estatuburuek baietsi zuten. Hala ere, eztabaida honek herri indigenekin loturiko praktika politikoa eta eztabaida akademikoa baldintzatu ditu harik eta 2007an Nazio Batuetako Batzar Orokorrak Herri Indigenen Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala onartu duen arte. Izenburuan nabaria den moduan, Laugarren Munduarentzat erreferentzia den dokumentu horrek «Herri Indigenak» dio eta ez «Populazioak» aurreko bertsioek zioten bezala.

Era batean zein bestean, definizioa eta herri ala populazio deitura erabiltzeko ika-mika ikuspegien arteko talka sakon baten erakuslea da: batetik estatuak eta haien aldekoak, bestetik erakundeak indigena eta haien aliatuen aurka.

Definizioaren arazoari heltzeko eginiko lehenengo saioen artean, zalantzarik gabe, Martínez Cobos-ek bere ikerketan egindako definizioa daukagu. Bera da beharbada onartuena gaiari buruzko literaturan. Bertan kolonialismoa baino lehen hantxe bizi ziren kulturekin harreman zuzena izatea edo hauen ondorengoa izatea, berezko etnikotasuna mantentzea, bazterkeria pairatzea zein gizarte-aginteguneetatik at egotea aipatzen dira. Baita ere euren kulturak mantentzeko eta euren ohiko kultura, lurraldeak, baliabideak eta sistema politikoak zein honi lorturiko nortasuna ondorengoei helarazteko desio sendoa edukitzea. Horiek erabiltzen ditu erakusle gisa bere definizioa eraikitzeko orduan.

2.1.1. Definizio mugatzailea

Definizioaren inguruan sorturiko eztabaida dela-eta, ikuspegi hau osatzeko saiakerak egin dira. Alde batetik, Miguel Alfonso Martinez-ek bere 1999ko txostenean definizio historiko mugatzaile baten aldeko apustua egin zuen Cobos-en definizioan ia edozein sartuz.

Ikuspegi honen aldekoek, definizioa egiterakoan europarrek sorturiko nazionalismoaren mundu-sistemaren garapenari begiratuko diote eta eurek sorturiko «indigenaren» definizio historikoari. Amerika, Australia eta Zeelanda Berrian gertatutakoa hartzen da kontuan eta europarrek indigenatzat zituzten herriak kontuan hartuko ditu. Martinez-ek (1999) ezberdindu egiten ditu hurbileko lurretan izandako zabalkuntza-zapalkuntza (kasu honetan zapalduak gutxiengoak direlarik) kasuak, eta urruneko itsasoz haraindiko lurretan gertaturikoak. Martinez-ek europar kolonizazioaren biktima izatean aurkituko du indigenaren nolakotasun garrantzitsuena. «Blue water» printzipioari helduz, distantzia geografikoa egonez gero, herri indigenen kasuan geundeke, bestela «gutxiengo» baten aurrean.

Deskolonizazioa burutu zenean, «estatu indigenak» sortu zirelako, bertan herri indigenez ezin dela hitz egin defendatzen du egile horrek. Haren ustez ezin da argudiatu batzuk besteak baino indigenagoak direnik. Beraz, haren aburuz, Hirugarren Munduko estatu berrien kasuan hobe da «gutxiengo» kategoriaz mintzatzea.

Jarrera horrekin Martinez-ek G-77 hitzarmendun herri indigenen aldeko laguntza lortu nahi zuen, Afrikan edo, batik bat, Asian horrelakorik dagoela ukatzen duen heinean. Txina eta Asiako beste herri batzuek gogoko dute ikuspegi hau euren lurraldeetan indigenak daudela ukatzen baitu (Kingsburi, 1997). Hirugarren Munduko estatu batzuentzat herri indigenen kasua kolonialismo historikoarekin loturik aurkitzen dugu eta ez gaur egungo prozesuekin. Bostwana eta Namibiak, Afrikako estatuen izenean hitz eginez, horrelako argudioei heldu zieten 2006ko abenduan HIGEAren onarpena NBEko Batzar Nagusiak gelditzeko.

Gure ustez, Guda Hotzaren arrastoak aurki daitezke eztabaida honen gibelean. Esate beterako, herri indigenen auziak AEBk praktikatzen duen giza eskubideen tratamendua kritikatzeko parada ematen dio Kubari (1999) eta Hirugarren Munduko beste batzuei (2006). Horrela, Lehen Munduak arlo honetan egindako salaketak itzultzeko eremu aproposa eskainiz. Esate baterako, Martinez-ek errelatore kubatarrak bere txostenean eraso gogorra egiten dio AEBri Hawaiiko kasua gogoratuz. 1993an AEBko Kongresuak *Apology Act* pasatu zuen eta onartu Hawaiiko erresuma boteretik kentzea legez kontrakoa izan zela. Hori dela-eta, Martinez-ek deskolonizatzeko dauden NBEko herri deskolonizatuen zerrendara itzultzea eskatu zuen bere txostenean.

Ikuspegi horrek tirabira asko sortu zituen NBEra joandako indigenen artean. Mugimenduaren batasuna eta mundu mailako zabalera kolokan jarriz, hala ere, askok ezetza eman zioten Afrika eta Asiako indigenak bakarrik uzteari.

Jokoan dagoenak berebiziko garrantzia du estatuen erasoa pairatzen ari den edozeinentzat. «Herri indigena» edo «gutxiengo» kontsideratua izateak, metafora bat erabiliz, kirol eta zelai zeharo diferenteak aukeratzea delako, eta ezberdintasun horrek jokoaren arauetan, arbitroaren jarreran eta publikoaren harreran erabateko eragina izango duelako. Finean, kategoria bakoitzari nazioarteko diplomaziak aitortzen dizkion eskubideak eta tratamendua ezberdinak direlako.

Nazioarteko definizioarekin bat egiteak ekarriko luke herri indigenek sortu duten nazioarteko laguntza-sarean sartzea edo ez, herri indigenek NBEn zabaldu duten eremuan parte hartzea edo ez, eta nazioarteko zein barneko abantaila politiko eta legal guztiekin nazioarteko erakundeek herri indigenei zuzentzen dizkieten tokian tokiko zerbitzuetan parte hartzea edo ez (Kingsbury, 1997).

2.1.2. Definizio zabalak eta unibertsalistak

2.1.2.1. Definiziorik ez

Aukera honen aldekoa agertzen da Patrick Thornberry. Haren ustez, herri indigenek ez dute nahi eta ez dute horrelako definizio bat behar. Thornberry-k definizioaren aldeko argudio erabatekorik ez dagoela dio eta horrelako saiakerak prozesua lagundu baino gehiago oztopatu egiten duela diosku. Herri indigenak prozesu politiko eta diplomatikoen konplexutasunetatik at uztearen aldekoa da eta

definizioaren mamia herri indigenen erabilera eta esperientzia praktikotik lortuko dugula dio. Azken finean, herri indigenen kontzientzia eta mugimendua bera zapalkuntza eta injustizia-esperientziez jabetzetik baitatorkie.

Definizioaren auzian hainbeste zalaparta egonik, askok ahaztu egin dute gutxiengoen kasuan ez dagoela unibertsalki onarturiko «gutxiengoen» definiziorik eta horrek ez du orain arte lana eragotzi (Enriksen, 1999). Beraz, herri indigenei gauzak aurrera ateratzeko definizio bat inposatzeko nahia hainbat aldiz salatu egin duten bereizkeriaren adibidea dugu. Nahi dena da eskubideak eta eskubideen jabe direnen kopurua mugatzea eta nazioarteko ikustatze-sistema estatuetatik kanpo mantentzea.

2.1.2.2. Ikuspegi aniztuna

Daes, Burger edo Kingsbury-k, besteak beste, kontzeptuaren unibertsaltasuna, dinamismoa eta birdefinizioa azpimarratzen dituzte, kolonialismo mota berriei eta herri indigenek pairatzen duten egungo egoerari hobeto erantzuteko asmoz. Egile horientzat auziaren gakoa, beraz, jatorriz Ameriketan jaiotako kontzeptua munduratzeko orduan planteaturiko arazo politikoan aurkitu beharko dugu, eta horrek nazioarteko «status quo»ari planteatzen dion erronkan.

Definizioaren auziari heltzeko "International Alliance of Indigenous-Tribal Peoples of the Tropical Forest" (1999) artikuluan definizio aniztuna defendatzen da, ingelesez «polithetic» deitzen dena. Honi jarraituz, Kinsbury (1997) erakusle-zerrenda baten alde agertzen da. Proposaturiko sistema konplexu eta korapilatsu horretan erakusleen artean aurrebaldintza direnen eta garrantzizko diren erakusleen artean bereizi beharko litzatekeela diosku. Ikuspegi orohartzaile honen arabera herri indigenen arteko antzekotasunak (kolonialismoek eragindako sufrimenduen esperientzia zein Lantaldean partaide izatea) hartzen dira kontuan.

Ikuspegi aniztasunari heltzen dioten adituen artean, lan garrantzitsua eta sakona egin duelako, begira diezaiogun Erica Daes-ek (1996) egindako kontribuzioari. Gaiaren konplexutasunaz eta garrantziaz jabetuta erreferentziazkoa den ikerketa burutu zuen Populazio Indigenen Lantaldearen presidentea zenean. Daes-ek definizioaren ikuspegi zabala, geografikoki eta historikoki mugatuta ez dagoena defendatzen du, eta garrantzi gehiago ematen dio estatu eta herri indigenen arteko harreman motari historia eta kolonizatzaileen jatorriari baino.

2.1.2.2.1. Erica Daes-en ekarpena

Ikuspegi historiko bati helduz, Daes-ek ondokoa diosku: «herri indigenak» deiturak lurralde zehatz batzuetan bertakoak izanik arrotzen meneko bihurtu diren herriei egiten diela erreferentzia. Indigenaren definizioa historikoki aldatu egin da eta Daes-ek ez du arazorik ikusten deitura hori deskolonizazioaren osteko munduari aplikatzeko.

Daes-ek (1996) gai honetan erreferentzia den bere ikerketan, «indigena» deituraren eta haren bilakaeraren ikuspegi historikoa ematen digu. 1884ko Berlineko Konferentzian, adibidez, kategoria hori europar ez ziren afrikar guziei aplikatzen zitzaiela dio. Nazioen Ligaren garaira etorrita indigena deitura kolonialismo pean bizi zein independentzia lortu ez zuten herriei aplikatzen zitzaiela gogoratzen digu. Kasu horretan lurralde geografikoari ematen zitzaion lehentasuna. Daes-ek gogoratu egiten digu Belgikako gobernuak 1952an proposamena egin zuela «indigena» deitura populazio eta herri kolonizatuei ez ezik, estatu independenteen mugen barnean bizi ziren populazio indigena atzeratuei ere luzatzeko. Hori ez zen onartu eta «blue water» printzipioa bultzatu zuten Latinoamerikako gobernuek (Clavero,1994) indigena kategoriaren aplikazioa mugatzeko. 1957an NLEren 107 Hitzarmenak zentzu horretan deskribatzen ditu «tribuak» eta azpigaratutzat hartuko ditu. Geroxeago, Batasun Panamerikarrak Ameriketako bertako herriez jarduteko erabili zuen. NBEren sorrerarekin aldatu egingo da Nazioen Ligaren garaian zuen esanahia: lurraldeari garrantzia ematen zionak indarra galduko du eta herri-izaera gehiago azpimarratuko da. Garai horretan herrien auziak garrantzia irabazten du eta Harreman Adiskidetsuen Aldarrikapenak (1970) onartu egiten du estatu batean herri bat baino gehiago bizi daitezkeela. Aitorpen horrek berebiziko garrantzia du «herria»ren eta «estatua»aren artean bereizten duelako.

Bilakaera historikoa eskaintzeaz gain, Daes-ek «gutxiengo» eta «herri indigenen» arteko ezberdintasunaren auziari heltzen dio. Haren ustez, herri indigenek lurraldearekin lotura sendoa dute eta lurraldearekiko lehenengo eta bertako herriak dira.

Daes-ek ukatu egiten du europarrek eta beste herri batzuek egindako kolonizazioak oso ezberdinak direla indigenei dagokienez. Gainera, ezberdintasun kulturala distantzia kontua dela eta hurbilekoen artean, estatu barnean batik bat, balio partekatu eta komuneko esperientziak daudela aurresuposatzea leporatu dio tesi historiko-kolonialistari. XX. eta XXI. mendetako gatazka etnikoek eta Laugarren Munduaren nazioarteko mobilizazioak Daes-ekin bat egin eta barne-kolonialismoaren garaikidetasuna eta larritasuna erakutsi dute.

Daes-ek, bere aldetik, ezaugarri hauek proposatzen ditu: (1) lehentasun historikoa bai kokapena zein lurraldearen erabilera kontuan harturik; (2) ezberdintasun kulturalaren iraupena; (3) autoidentifikazioa eta beste talde batzuek buruturiko identifikazioa, eta (4) baztertua izatearen esperientzia.

Daes-en aburuz «indigena» kategoria unibertsala da. Haren ustez, herri baten lurrak kolonizatzaileak inbaditzen dituenean kolonizatzailearen eta indigenen arteko haustura markatzen da. Horrek ez du zerikusirik kolonizatzailearen jatorriarekin. Era horretan, Daes-en definizioak Asia eta Afrikako herriak indigena modura definitzeko bidea zabaltzen du, nahiz eta aitortu kontinente horietan herri indigenak eta gutxiengoak nahastu egiten direla.

Aipaturiko egile hauek euren definiziotan «herri indigenen» garaikidetasuna, izaera dinamikoa, unibertsaltasuna eta nazioartekotasuna azpimarratzen dituzte. Herri askok estatuekin duten gatazkan aurrera egiteko asmoz, indigenen bidea hautatu, Laugarren Munduko nortasuna, agenda eta diskurtsoa bereganatu, eta mobilizazioan parte hartu dute. Beraz, testuinguru honetan uler dezakegu nola euren burua herritzat dutenek aproposagoa dirudien esparru indigenara joko duten. Kasu horretan indigenatasuna nazioarteko erkidegoak ahalbidetzen duen espazio politikoak eta bertan garaturiko praktika politikoek baldintzatuta etorriko da. Hemen zapalduen pragmatismo politikoa dugu nagusi. Ondorioz, herri indigenen zerrenda XXI. mendean luzatu egingo da nazioarteko erkidegoak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatu egingo dituztelako eta kategoria honi loturiko borroka politikoa gauzatuko da. Prozesu hau are nabariagoa da Asiako, Afrikako eta Sobiet Batasuna izandako herri indigenen kasuetan.

2.1.2.3. Beste definizio batzuk

Hemen herri indigenen ikuspegia dugu, non autodefinitzeko apustua egiten den. Laugarren Munduaren aldetik hau dugu jarrera historikoa. Gogoratu behar dugu nola Herri Indigenen Munduko Batzarraren 1978ko bigarren bilerak ebazpen bat onartu zuen: herri indigenek bakarrik esan dezakete indigenak nortzuk diren (Werther, 1992: 1). Orduz geroztik, behin eta berriz mantendu egin dute euren buruak definitzeko eskubide osoa eta mugagabea, horrela estatuen erasoei aurre egiteko asmoz. Historikoki arrotzek definitu dituztenean galtzaile atera dira. Azken finean, nazioarteko zein adituen erkidegoan eurozentrismoa nagusi delako. Autodefinizioaren aldeko jarrera sendo eta irmo hau mantendu da nazioarteko agerpenetan eta horrela onartu egin da PIL zein NLEren 169 itunean (Corntassel, 2003), baita indigenen eguneroko praktikan ere.

Beste kategoria batean, eztabaida honetatik aldendu nahian, EB, Munduko Bankua edo NLE erakundeak, besteak beste, gai izan dira euren lanak burutu ahal izateko definizio praktikoak egiteko. Definizio horiek ez dute zama politikorik eta berau saihesteko saiakerak dira.

3. LAUGARREN MUNDUA: INDIGENAK HERRI INDIGENAK DEFINITZEN

Liburu honetan Laugarren Mundua zein «herri indigenak» izen baliokide gisa erabiliko ditugu. Bietariko edozein erabiliz, munduan bizi diren 300 milioi indigenek bizi duten egoera eta erresistentzia-esperientzia aurkeztu nahi da. Indigenak munduko populazioaren % 5 inguru besterik ez dira, baina munduko kultur aniztasunaren % 90 eta biodibertsitatearen % 80 dute euren lurraldeetan (Indigenous Peoples' Caucus, 2001).

Laugarren Munduaren ideia George Manueli zor diogu. Manuel Shuswap herriaren buruzagia, aktibista eta pentsalaria zen. Laugarren Munduaren ideia

nazioarteari eta garai batean honen erakunde nagusia izan zen Herri Indigenen Mundu Batzarrari (HIMB) loturik agertzen zaigu. Are gehiago, nazioartean egindako lehen ahaleginak izenburu horrekin egin ziren. Kontzeptuak erreferentzia egiten zien garai hartan indartsu ari zen Hirugarren Munduari eta haren deskolonizazioari. Indigenek deskolonizazio bera eskatzen zuten eurentzat (Pino-Robles, 1996). Gainera, Peang-Meth-ek (2002) gogoratzen digun bezalaxe, 1981ean proposamen bat aurkeztu egin zen izen hori erabiltzeko munduko herri indigena guztiei aipamena egiteko. Gero 1980ko hamarkadan herri indigenek erabili zuten Hirugarren Munduko indigenen kasua ez eragozteko (Stavenhaguen, 2010).

Wilmer-entzat (1993) Laugarren Mundua amaitu gabeko deskolonizazioren azken atala da, eta horrexegatik beharrezkoa da Hirugarren Munduari egindako erreferentzia ondo ulertzea, baina kontuan hartzea borrokatzen dutena kolonialismo historikoa zein barne-kolonialismo garaikideak direla.

Beraz, Laugarren Munduko kideak Manuel-en ustez, bai kolonialismoaren zapalkuntza pairatu baita euren lurraldeen okupazioa zein euren ekosistemen gaineko kontrola galdu zuten herriak dira (Manuel eta Posluns, 1974: 40).

Manuel-ek iradokitako proposamen honi jarraituz, Laugarren Munduko kidea izateko beharrezkoa da: 1) konkista gertatu aurretik bertan ziren herrien ondorengo izatea; 2) herri horietako kultura iraunkorrarekin lotura izatea; 3) marjinazio politikoa pairatuz erabaki-hartze prozesuetatik at egotea, eta, azkenik, 4) egoera larrian dauden herriak izatea.

Manuel-en definizioak, gainera, mahai gainean jarri du akademizistagoak diren beste ikuspegiek hartzen ez duten beste erakusle bat, benetan ezberdintasuna markatzen duena: naturarekiko lotura berezia (George Manuel, Burger-ek aipatua, 1990: 18-19). Naturarekiko harremana ezinbestekoa gertatzen da Laugarren Munduaren izatea eta egitea ondo ulertzeko, bi arrazoirengatik, hain zuzen ere: 1) herri indigenen lurraldeak eta ekosistemak izan dira historikoki kolonialismoaren helburu; 2) naturarekin duten harremana euren nortasunaren muina eta euren mundu-ikuskeraren ardatza da.

Ikuspegi indigenaren arabera mundua «biziaren sarea» da eta sistema ezberdinen arteko oreka konplexu baten ondorioa. Haien aburuz, herri indigenei dagokie sistema hauek zaindu eta babesteko mandatua. Indigenek planetan bizi garen guztiok harreman sistemikoan gaudela uste dute. Konplexutasun handiko sistemen arteko harremanean eta beraren gestio egokian jartzen dute euren izate eta egitearen funtsa. Laugarren Mundukoek naturarekiko harremana ez erasokor batean sinesten dute. Ama lurrarekiko errespetuzko sinismen horrek herri indigenek gorpuzten duten aniztasunari batasuna ematen dio, indioen zibilizazioa deitzen duen horren funtsa osatzen duelarik (Bonfill-Batalla, 1990).

Naturarekin duten harremanaz gain, beste erakusle inportante bat autodefinizioa da, honek autokontzientzia sendoa erakusten duelako. Batetik herri autoktonoak

eta zaharrak izatearen kontzientzia. Bestetik lurralde zehatza eta berezko gobernua duten herria izatearena, kasu batzuetan horrela onartu zitzaielako sinaturiko itunetan. Gainera herri-izaerari loturiko burujabetasunaren eta autodeterminazio-eskubidearen aldarrikapena erakusten dutelako HERRI indigenak direla esatean. Azkenenik, herri izatearen kontzientzia hau Laugarren Munduak Hirugarren Munduari egiten dion erreferentzian ikus daiteke.

Azkenik, Laugarren Mundua definitzen duen erakusle garrantzitsuena haren izaera internazionalista da: nazioarteko erakundeetan arituz, nazioartean zabaldu diren esparruetan egotea eta nazioarteko gizarte zibilaren sareetan aktiboki parte hartzea. Hirugarren Munduko herriek lortutakoa eskuratu nahian, errekonozituak eta errespetatuak izateko asmotan, Laugarren Mundukoek nazioartera jo dute beste herri eta estatuen laguntzarekin beren eskubideak betearazteko asmotan.

Laugarren Mundua nazioartean esku hartzeko eta bertan garaturiko kontzeptua dela diosku honetan jakintsua den Daes-ek (2001). Haren ustez, nazioarteko nortasun indigena eta haren diskurtsoa munduko herri indigenek eta nazioarteko gizarteak izandako elkarreraginaren ondorioa da. Beraz, Laugarren Mundua, tokian tokiko herri indigenek nazioartean aritzeko erabiltzen duten komeni den izena dela argiago izan behar dugu.

Ikuspegi horrekin bat dator Smith (1999: 7), berak «herri indigena» deitura munduko herri indigenak bere baitan hartzen dituen txapela erraldoi baten antzekoa dela esaten du. Baina, kolonizazioaren biktima izateaz gain, nazioarteko sare baten partaide direla ere aipatzen du. Smith-en definizioan nazioarteko sare baten partaide izateak euren tokian-tokiko testuinguru eta esperientzia gainditzeko aukera eta askoz globalagoak diren helburuak eskatzeko parada eman die.

Laburbilduz, Laugarren Mundua herri indigenek nazioartean aritzeko sorturiko mundu mailako sarea dugu. Errealitate garaikidea, modernoa, dinamikoa da eta bere garapena nazioarteko erkidegoak azken 30 urteetan ezaguturiko aldaketei lotuta aurkitzen dugu.

Liburu honetan erabilitako Laugarren Munduaren definizioa Bobiwash-ek (2001) emandakoa da.

> Laugarren Mundua munduko herri indigenen mundu gisa definitzen da —Ameriketako eta beste eskualdetako bertako jendea, euren lurraldeetan marjinatuak izan direnak, gizarte zibiletik kanporatuak, aukera ekonomikoak ukatuak izan dituztenak eta «Konkistaren mitoak eta Aurkikuntzaren Dotrinak» estigmatizatu egin dituztenak—, hauek erori dira garapena izeneko determinismo ekonomikoak eraikitako eskailera faltsuaren azken mailaraino. Laugarren Munduko herriak —Andeetako goi-lurraldeetan, tundra eta Antartikoan, Amazoniako oihanetan, Australiako lurralde urrunetan, Siberiako taigan edota munduko hiri nagusien basamortu antzeko kaleetan, bai New York, Sao Paolo, Jakarta edo Nairobin aurkitzen direnak— globalizazioaren biktimak dira eta euren komunitateak neoliberalismoaren aurkako erresistentzia-guneak ditugu (ibid.).

4. LIBURUAREN EGITURA

Liburu honen oinarrizko egitura bi bloke tematikok osatzen dute.

Lehenengo blokeak kolonialismo mota ezberdinek eragindako domestikazioa eta ikusezintasuna deskribatu eta aztertuko ditu. Hurbilketa historikoa izanik, II., III. eta IV. kapituluetan herri indigenen eta indigena ez direnen arteko harremana baldintzatu duen marko kolonialaren historia laburra eskainiko da, eta honek ezarritako zapalkuntza-patroi nagusiak aurkeztuko dira. Kapitulu bakoitzak uhin kolonialista bakoitzaren azterketa egingo du. Bigarren kapituluan, konkista eta gizarte etnokratikoaren zabalkundearen historia labur bat eginez, egundaino heldu eta herri indigenekin izandako harremanak baldintzatzen dituzten jarrerak eta diskurtsoak zeintzuk diren azpimarratuko dugu. III. kapituluan, kolonialismo errepublikanoak erabilitako estrategiak, argudioak eta indigenei eragindako ondorioak aurkeztu eta aztertuko ditugu. Kapitulu honetan AEBko esperientziari emango diogu lehentasuna, herri indigenenganako politikak zein herrien irudia eraikitzeko orduan izandako garrantziagatik. IV. kapituluan garrantzi handia emango zaie XXI. mendean inportanteak izango diren natur baliabideekin loturiko kolonialismo mota berriei (garapen iraunkorraren mozorropean daudenei zein bioteknologiari).

Bigarren blokeak erreparatu egingo die nazioarteko aktore berriaren sorrerari eta nazioartean egindako lanari. V., VI. eta VII. kapituluetan, mobilizazio indigenaren historia eta hura posible egin duen nazioarteko marko instituzionala aurkeztuko dugu, ikuspegi deskriptibo-analitiko batetik. Kapitulu hauetan hautaturiko metodologia historiko-interpretatzailea dugu, eta nazioarteko mugimendu indigenek nazioarteko mugimendu sozialen teoria eta praktikara ekartzen duten berrikuntzari erreparatu nahi diogu.

V. kapituluak herri indigenek abian jarritako HIKEren historia laburra aurkeztuko du, bere garapenean izandako helmuga nagusiak markatuz. Helburua izango da argi uztea nazioarteko erkidegoan, XX. mendearen azken herenean, indigenekiko jarreran gertaturiko eboluzioa, neurri handi batean, HIKEren ondorioa dela eta ez nazioarteko erkidegoak egindako oparia.

VI. kapituluak HIKEk giza eskubideen eremuan egindakoak aztertuko ditu. Historikoki hemen aurkitzen dugu HIKEren ekimen-eremu nagusi bat. Ahalegin horretan dauden aukerak eta, gaur egun, ugariago diren oztopoak ikusiko ditugu. Gure egitekoan erreparatu egingo diogu asimilazioaren arbuiatzeari, kultur indigenen balioztapenari, autodeterminazio eta baliabide indigenen gaineko kontrolari buruzko ika-mikari.

VII. kapituluan indigenentzat hain lagungarria izan den garapen iraunkorrari (GI) helduko diogu. Herri indigenek GIri egindako kontribuzioa eta honek egindako aitorpena aztertuko ditugu. Garrantzi handikotzat dugu kapitulu hau, azken urteotan lurralde indigenen okupazioa garapenaren izenean gertatu delako. Gainera, ekologia

eta biziaren sarearekiko harremana agenda indigenaren bihotzean dagoen gaia da. Zalantzarik gabe funtsezko gaia dugu hau. 1990etik aurrera eta nazio-eraikuntzarekin hain estu loturiko «desarrollismo»ari alternatiba egiten dion GIk indigenen agendak aldarrikaturiko hainbat gai eta ikuspuntu integratu ditu bere proposamenean. Hortxe ditugu segurtasunaren definizio berria, herri-lurren sistemaren defentsa, talde-eskubideak, deszentralizazio eta partaidetza zein indigenen ekarpenari eta garrantziari egindako aitorpena. Kapitulu honetan indigenek hainbat forotan izandako partaidetza aztertuko dugu. Era berean, GIn nagusitu den aitorpen instrumentalak dituen arriskuak eta mugak aipatuko ditugu. Azkenik, estatuek GI garatzeko nazioarteko hainbat ekimenetan indigenen partaidetza eragozteko jarritako oztopoei zuzenduko diegu gure analisia; horretarako, biopirateria eta ohiko jakituriaren gaineko eskubideen inguruko eztabaidan zentratuko gara.

VIII. kapituluan, Sumak Kawsay delako proposamena zertan datzan ikusiko dugu. Nazioartean egindako lana aprobetxatuz, globalizazioarekin loturiko garapenari egindako kritikaren gainean eraikitako alternatiba indigena hau jorratu eta XX. mendeko sozialismoak berau integratzeko eginiko ahaleginak ere komentatuko ditugu.

Errautsen gainean eraikitako mundu berria

1. OPAROTASUNAREN KONTINENTEA

Ameriketako kolonizazioak kontaktu intimo eta bereizezinean jarri zituen bi zibilizazio. Horrekin batera, indigenen eta europarren arteko harreman dialektiko bati eman zitzaion hasiera. Harreman hori garrantzi handikoa da aktore etnikoek nazioarteko harremanetan izan duten presentzian interesa duen ororentzat. Elkartze honen historiak askotasun etniko eta biologiko konplexu zein ezezagun batekin izandako talkaren berri ematen digu. Baita gabezia batena ere: bestea den indigena, ezberdina izan arren, berdina bezala, bere eskubide propioekin, ikusteko ezintasuna (Todorov, 1992: 42). Hori horrela zen ordukoek berdintasuna euren antzekoa izatearekin parekatzen zutelako, eta ezberdina zenari eskubiderik ukatu, eta zibilizatuen (gu) eta basatien (besteak) arteko hierarkia ezarri zitzaielako (Padgen, 1993; Todorov, 1992; McGrane, 1989). Todorov-en esanetan, jarrera bikoitz horrek bere horretan dirau eta Laugarren Munduak pairatu izan duen egoeraren muinean dago.

Orduko Ameriketako kulturek erdietsiriko maila politikoa, soziala, kulturala, ekonomikoa eta teknologikoa altuak ziren. Errealitate hori hobeto ikusteko bertako gizarteek eraikitako hiriei erreparatuko diegu eta ondoko datua kontuan hartuko: kontinenteko populazioaren zati handi bat hirietan bizi zela, garaiko Europan bezalaxe Gure europar pentsamendurako sofistikazio eta modernotasunaren eramaile diren hiriak izatea garrantzizkoa da egiten ari garen hausnarketarako.

Biztanle gehienak hirietan bizitzea eta nekazaritza (Wright, 1994) zein merkataritzari ahalegin handiena dedikatzea ez zen Erdialdeko eta Hego Amerikan gertatu soilik, Iparraldean Cahokia eta Etowa-ren kasuek (Sturtevant, 1991) hirien inguruan sorturiko herri indartsuak bazirela erakusten dute. Adibidez, Etowa-k 40.000 biztanle zituen eta XIII. mendean Cahokia-k garaiko Londresek edota Parisek adina biztanle zituela gogorarazten zaigu (Wright, 1994: 117).

Hirien existentziak ondo erakusten du europarrak heldu zirenean kontinentea beteta zegoela eta bertan herri, nazio eta inperio osoak zeudela, bakoitza bere historia eta gizarte-egiturarekin, eta jakintzarekin. Era berean, ageriko gauza da kontinente hartan pilaturiko giza esperientzia luzea eta konplexua zela, hainbat arlotan.

2. GURUTZEA ETA EZPATA

XV. mendearen amaieran egon bazegoen lurralde berrien konkista laguntzen zuen nazioarteko testuingurua. Errege zein elizarako lurrak, aberastasunak eta mirabe berriak lortzea herri eta nazio kristau-zibilizatuen betebehar ia sakratua zela uste zuten garai hartakoek. Haien ikuspuntutik, konkistarako gerra haiek, hau da, orduko erresuma fedegabeen kontra egitea, zilegiak ziren (Taylor, 1987). Beraz, arrazoi politiko, erlijioso eta ekonomikoek bat egin zuten garaiko konkista bultzatzeko orduan.

Lurralde berrien konkista bide lasterra zen banakoen ondarea eta estatuen boterea handitzeko. Orduko gizarteek ondo ulertzen zuten hau. Praktikan, gizarte oso baten ekimena eta indarra mobilizatzeko ahalmena zuen konkistaren ideiak. Ameriketako oparotasunari buruzko kondairak arin zabaldu ziren eta biztanleen aberastasun-gogoa piztu egin zuten.

Konkista posible egin zuen beste faktore bat ekintza militarrari aplikaturiko aurrerakuntza teknologikoa dugu. Orduko europar potentziak botere-lehiaketan jaioak ziren eta izan bazuten euren nagusitasuna segurtatzen zuen teknologia, bai eta antolamendu eta produkzio-sistema hobeago bat (Martinez, 1999). Maila teknologikoan aurreratuago egonik eta nagusitasun militarra edukirik, zein gaixotasuna zabalkuntza (Crosby 1986), posible izan zuten gudu-zelaian askoz ugariagoak ziren arerioak menderatzea eta konkista burutzea.

3. JAINKOA ETA IRABAZIAK

Botere eta aberastasunaren egarriarekin batera, erlijioa ere garrantzi handiko faktorea dugu. Are gehiago, Aita Santuak emandako legitimazioa funtsezkoa izan zen Ameriketako kolonizazioaren lehen uhina ulertzeko, bera baitzen orduko erresuma kristauek osatzen zuten nazioarteko erkidegoaren burua.

Urruneko lurren konkista bultzatzeko lehen kasua Nikolas II.ak 1452an Portugaleko Alfontso V.ari eman zion «*Romanus Pontifex*» Bulan aurki dezakegu. Berorren arabera, kristauek deklaratu zieten jentil-herriei gerra, eta espresuki bultzatu ziren herri jentilen konkista eta kolonizazioa. Aita Santuaren erabaki hori itsasoz bestaldeko herrien konkistarako pizgarria izan zen. Muga bakarra lurraldeak beste erresuma kristau baten esku ez egotea zen.

1493ko «*Inter Cetera*» Bulak Espainia eta Portugaleko erresumei Aita Santuak babesa eman zien aurkituriko lurraldeak konkistatzeko eta gerora aurki zitezkeen lurren gaineko jabegoa eskuratzeko. 1493ko Tordesillaseko Hitzarmena izan zen Eliza eta erresumen arteko aliantza horren lehenengo nazioarteko fruitua. Itun horrnek Espainia eta Portugaleko botere-eremuak finkatu zituen. Eremu mugaketarekin batera, Aita Santuak sinaturiko hitzarmen horrek konkistaren legeztatzea ekarri zuen Ameriketako lurralde osoa *«Terra Nullius»* deklaratu zuenean. Era horretan

Erregeak mirabe berriak irabazten zituen eta Aita Santuak kristauak. Horrela, ezpata eta gurutzearen arteko aliantza onetsi zen (Keal, 2003).

Hegoaldean izandako konkistan erlijioak garrantzi handia izan bazuen ere, funtsezko faktorea izango dugu Iparraldeko kasuan, bertara joandakoak jazarkunde erlijiosotik ihesean heldu baitziren. Kasu batean zein bestean eragindako etnozidioa zibilizazio aurreratuago bat eskuratzeko ahaleginean gertaturiko urrats tamalgarri baina beharrezkotzat hartzen da. Zibilizazioa eta erlijio kristaua mundu berrira ekarri izana konkistaren alde distiratsua azpimarratzeko erabiliko da, eta alde ilunenak ezkutatzeko edo erlatibizatzeko. Ikuspegi horrek, Amerikari buruzko historiografian nagusia duguna, kontinente berrian kristau erlijioaren zein Mendebaldeko kulturaren ekarpenak eta lorturiko handitasuna goraipatu ditu behin eta berriz.

4. GIZARTE BERRIA MUNDU ZAHARREAN ERAIKITZEN

Europarron agerpenak, funtsean, erabateko krisialdia ekarri zien euren agintepean erori ziren herriei (etengabeko inbasioa, bortxa, gaixotasuna, lurren galera, bizi-iturrien eta kulturaren galera, asimilazioa, mendekotasuna eta etengabeko txartze fisiko zein psikologikoa) (Deloria, 1992). Porrot militarraren ostean, okupazioa gertatu zen. Herri indigenen aginte politiko, kultural eta ekonomikoak zuzentzen zituzten egituren ezabaketa gauzatzearekin batera, okupatzaileek gizartea eraldatzeari ekin zioten (Calvet, 2005). Europarrok gizarte-eredu propioaren zabalkundea inposatzeko erabakia harturik zeukaten eta ez zieten gehiegi erreparatu aurkitu zituzten herriei.

Politika honen ondorioak larriagoak izan ziren aginte-egitura bertikalak zituzten herri indigenentzat. Bat-batean bizimodu politikoa, ekonomikoa, soziala eta kulturala, ekologikoa zein erlijiosoa arautzen zituzten instituzioak eta aginte-irudiak desagerrarazi zituzten. Ondorioz, gizarte indigena osoa krisialdi gorri-gorrian sartu zen. Konplexu eta sofistikatuak zirenak aginterik erreferentziarik gabe gelditzean gobernatzeko errazago ziren oinarrizko gizataldeetara mugatuta gelditu ziren.

Gizarte zaharraren porrotak eta berriaren gailentzeak Ameriketako bertako herri autonomoen subiranotasunaren galeraren mugarria eta indigenen mendeko izaeraren hasiera-puntua markatu zuen. Horrek mendetasun politikoa eta ekonomikoa sortzeaz gain, maila kultural eta pertsonalean mendetasuna eta krisia ekarri zien Ameriketako herriei (Dieterich, 1989).

4.1. Etnokraziaren ezarpena

Arraza-bereizkeria botere kolonialaren tresna bihurtu zen, eta eremu askotan aplikatu zen, hala nola lege-munduan, gizartean, hezkuntza-sisteman, ekonomian, erlijioan eta politikan (Bauman, 1997). Beraz, gizarte koloniala etnikoki mailakatua sortu zen. Mailakatze horrek etnien arteko isolamendua eta behin-behineko kontaktuak bultzatu zituen. Gizartean ez ezik, geografian ere aurkituko dugu egitura

horren isla: europarrak hirietan bildu ziren (gunea) bitartean, indigenak landa-eremuetan (periferian) pilatu ziren (Olaechea, 1992). Modu horretan talde etnikoen arteko haustura geografiko-ekonomiko-kulturala eta bazterketa politikoa sustatu zen, indigenak haien motakoei zegozkien herrietan pilatu zituzten haiengan kontrol handiagoa izateko.

Eredu honi jarraituz «indioen errepublika» direlakoak sortu ziren indioen gaineko kontrola erraztuz. Horrela herri indigenen bazterketa eta periferializazioa burutu zen. Zalantzarik ez koloniaren aurrerakadak herri eta gizarte indioaren atzerakada ekarri zuela ia eremu guztietan (Esteva, 1989). Hirietan, aldiz, ekonomia, erlijio, hezkuntza eta hizkuntza berriak nagusitu ziren.

4.2. Diskurtso zibilizatzailearen sorkuntza eta garapena

Gizarte etnokratikoak ezinbestekoa zuen erraz identifikatzen ziren ezaugarri fisiko, kultural zein moralak garatzea menekoa ondo definitzeko (Etxebarria, 1997). Diskurtso kolonial-etnokratikoak definizio orohartzaile bat eraiki zuen: indioa. «Indio» kategoria orohartzaile, murriztaile eta homogeneizatzailea da. Hau da zalantzarik gabe, Ameriketako errealitatean europarrek eragindako aldaketaren erakuslerik nabariena, eta betirako herri indigenei sufrimendu handiz inposaturiko kolonialismoaren marka.

Indioa sortzearekin batera historia berri bat sortuko da. Historia kolonialaren helburua gizarte kolonialaren botere-egituraren ongitasun, handitasun eta zilegitasunaren aldeko diskurtsoa eraikitzea izan da (Wilson, 1999). Europar nagusitasunaren istorio honetan europar epopeia kontatu eta berari loturiko mitoak zabalduko dira. Diskurtso kolonial honek gizarte zaharraren ordezkatzea defendatu eta gizartearen mailakatzearen onura zein herri indigenek pairatzen zuten menekotasunaren zergatiak esplikatzen dira.

Historia koloniala kontrol-tresna psiko-soziologikoa bihurtu zen. Horrela, mundu ezberdin eta posible baten oroimena erauztea, kultur askotasunari loturiko kultur harrotasuna desegitea eta erresistentzia posibleak itotzea lortu zuten. Kultur askotasunak sorturiko giza esperientziaren balioa ukatuz, bizirik zirauen esperientzia historikoaren aurkako oldartzea antolatu zen (Gonzalez, 2007). Helburuak hauexek ziren: gizarte- eta botere-egiturak, espazioa, lurraldea, natura eta ekonomia berrantolatuz jendearen nortasuna, oroimena eta honekin loturiko mundu-kodifikazioa berregitea.

Ahalegin horretan, Ameriketako bertako zibilizazioen historia ezkutatu eta historia koloniala inposatu zen errealitate eta baliozko erreferentzia bakar legez (Wright, 1994). Beraz, diskurtso kolonialistak zaila egingo du indigenek beren hausnarketa marko zapaltzaile honetatik at egitea. Historia koloniala europarrak protagonista dituen epopeia izango da, eta, beraz, irabazleen ikuspuntua argi eta zabal hedatuko du, galtzaileen ikuspuntuei toki gutxi emanda.

Konkistatzaileen marka diskurtso historikoan ez ezik, maila geografikoan, sinbolikoan eta hizkuntzan zein garaiko ezagupenean ere islatuko da. Ohiko izenak, bertako hizkuntzetan emanak, desagertu egin ziren eta berriak agertu, europar hizkuntzetakoak. Era horretan ezabatu egin zen kultur askotasunak sorturiko historia eta giza esperientzia. Mundu berriak zaharra ordezkatzeko beste urrats bat bete zuen horrela.

Historia bihurturiko diskurtso kolonizatzaile honentzat behar-beharrezkoa zen indigenaren irudi ezkor bat sustatzea. Kolonia-garaian sorturiko irudiek baldintzatu egin dituzte gaur arte heldu zaizkigun indigenei buruzko estereotipoak, eta diskurtso kolonial-arrazistaren zutabea dira. Orduko gizartea alterofobiaren eta alterofiliaren artean mugitu zen eta bi joera horiek bizirik iraun dute gaur arte (Arregi, 2006). Arrazoi hauengatik deskribatu sakondu egingo dugu.

5. INDIGENA GAIZTOAREN IRUDIKATZEA

Kultur inposizioa zilegi egiteko eta berau zibilizazio-bide bihurtzeko, nahitaezkoa zen basatiaren irudia sustatzea konkista arazo etikorik gabe burutu ahal izateko (Hanke, 1949).

«*Indio Cerdo*» izenez ezaguturiko diskurtsoan Ameriketako bertako herrien primitibokeria eta makurkeria aipatuko dira bereziki (Hanke, 1949), haien gizatasuna ukatuz. Ikuspegi honek kolonialismoaren alderik basatiena eta ilunena islatzen du, zapalduei inolako errespeturik aitortzen ez diena, alegia. Eredu honek gerra-okupazioa-lapurreta-esklabotza sustatu zituen. XVI. mendeko Juan Lopez de Palacios Rubios idazlea dugu joera honen defendatzaile. Aita Santuak *«Terra Nullius»*-en aldarrikapena eta fedegabeen gainean bere gobernua ezartzeko gaitasuna ontzat eman ondoren, «*requerimiento*» asmatu eta indigenen aurkako gerra eta konkista defendatu zituen (Morris, 1992). Geroxeago, Sepulveda jakintsuak bere egin zuen ikuspegi hau. Sepulveda kolonizazio-prozesuaren alderdirik krudelena defendatu zuen garaiko intelektuala dugu.

«*Indio Cerdo*» ikuspegiaren jarraitzaileak gizarte berrian indigenek zuten mendeko lekua esplikatzen saiatu ziren. Hori bai, bultzaturiko irudia zeharo iluna eta ezkorra izango da: basatikeria, nagikeria, gobernu eza eta zibilizazio eza, naturari loturiko bizitza eta nomadismoa, bortxa-zaletasuna, etab. Hankek (1949: 99) deskribatzen du garaiko irudi ezkor hau, zeina gerora zabaldu eta gizarte askoren buruan sakonki errotu den.

Indigenek umekerietan erortzeko joera zutela aldarrikatu eta gai ez zirela esanez, tutoretzaren beharra argudiatu zuten. Hala ere, tutoretza hori ez dute guraso eta seme-alaben arteko harreman gisa ulertzen, jabeek eta animaliek duten antzeko harremanaren eran baizik. Konkista burutu arte aske eta bere burua gobernatzeko gauza zirenak, porrotaren ostean, euren buruak gobernatzeko gai ez direla esango

da idatzi kolonialetan. Indigenak zibilizatzeko zeregin horretan oinarrituko dute konkistaren onura eta herri indigenen gaineko gobernuaren zilegitasuna. Gobernu kolonialak libreak zirenak morroi bihurtu ondoren egoera berriaren ongitasunaren zergatiak erakusteko basatiak eta zibilizatzeko bidean zeuden indioak kontrajarri zituen. Lehenengoa basatia eta gaiztoa, eta bigarrena, ordea, ona eta domestikatua.

Historia kolonialaren arabera, indar zibilizatzaileek derrigorrezkoa zenean erabiltzen zuten indarra indio odolzaleen aurka. Hil edo biziko borroka horretan zibilizazioa hedatzeak etsaiaren desagerpena eskatzen zuen.

Aldi berean, indigenei ukatu egiten zaie defentsa-eskubidea. Horretara jotzen dutenean euron odolzaletasun eta maltzurkeriari nahiz zibilizazioaren aurkako joerari buruzko aipamenak egiten dira maiz. Bortxaren zilegitasunaren eta zilegitasun gabeko erresistentziaren aipamenak nagusi dira historia kolonialaren hizkuntza eta terminologian.

Gauzak horrela, indigenak kristau bihurtzeko agindua kolonizazioa legitimatzeko argudio izan da hasieratik. Horrekin batera kolonizatzaileen nagusitasuna defendatzeko orduan nagusitasun teknologikoa (Restall, 2003) eta lurraldeari gorengo onura ateratzeko gaitasuna aipatuko dira sarritan (Wilson, 1999).

5.1. Atzerapen teknologikoa

Europarrok asmaturiko indigena primitiboaren irudiari lotuta euren atzerapen teknologikoa aipatzen da sarritan. Aurreiritzi horren erakusle dugu Acosta (1576); berak, munduko herrien hierarkia egiteko saioan, tokirik baxuenean jarri zituen indigenak, nomadekin parekatuz (Morris, 1992). Behin eta berriz indigenak Europako behialako jentilekin parekatuko dira (Williams, 1990), beren kulturari edozelako balioa ukatuz eta zibilizazio kolonialaren ongitasuna defendatuz. Diskurtso hau zabaltzen ari zen une berean konkistatzaileak eta kolonoak herri indigenen jakinduriaz baliatu ziren konkista bultzatzeko: euren janari, sendagai edota jakintza geografikoaz baliatu ziren.

Herri indigenen irudi estatikoa hedatzeko orduan, atzerapen teknologikoa azpimarratu eta kultura hauek ezagupen sofistikaturik ez zutela eta berari loturiko garapena ezagutu ez zutela azpimarratzeko idazteko sistemarik ez izatea leporatu zaie. Atzerapenaren beste erakusle bat naturarekiko mendekotasuna izan da. Hau da natura gizonaren nahietara makurtzeko nahirik eza (Martínez de Bringas, 2003).

5.1.1. Kolonoaren indar eraikitzailea

Izaera basati eta atzerapen teknologikoarekin batera, kolonoek buruturiko hobekuntzaren mitoa agertuko zaigu diskurtso kolonialean. Hau oso inportantea izan zen bereziki XVII. eta Ilustrazio garaian, XVIII. mendean, Ipar Amerikan egindako konkista defendatzeko ahaleginetan. Ipar Amerikako kasuan ez ditugu Hegoaldean

bezala inperio handiak aurkituko, beren inguruarekin harreman estuan ari ziren talde txikiak baino. Gizarteen arteko kontraste handia gertatu zen europarrentzat, eta hauek gizarte basati primitiboak zirela ondorioztatu zuten. Mundua gobernatzeko zientzia garatzen ari zen garai hartan. Mostesquieu eta Adam Smith-ek munduaren ikuspegi hierarkizatua defendatu zuten (Keal, 2003), non europarrok goian eta indigenak behean baitzeuden (Clavero, 1994). Locke eta Adam Smith-ek, edota beste batzuek bide beretik jarraituz, estatu modernoen oinarri zen gizarte-hitzarmena sinatu aurretik ziren erkidego naturalekin identifikatzen zituzten Ipar Amerikako indigenak, era horretan desjabetze eta konkistarako bideak prestatuz. Haien zibilizazioa natura gobernatzeko gaitasunean zentratzen zuten, europarrontzat naturarekiko harreman estua basatiaren marka zen. Euren antzeko gizarte- eta ekonomia-antolaketarik aurkitu ezean, basatien aurrean ari zirela ondorioztatu zuten agudo. Era horretan indigenen zapalkuntzarako bidea prestatu zen zalantzarik gabe.

Pentsaera horri jarraituz, indigenei uko egiten zaie estatu-estatusa, eta estatu aurreko sofistikazio txikiko tribu gisa definitu ziren. Horrela ez ziren garaiko nazioarteko erkidegoaren pareko partaidetzat kontsideratu, eta ondorioz ez zitzaizkien aplikatu kategoria berorri aitorturiko legeak eta babesak (Martínez Bringas, 2006).

5.1.2. Txiroak aberastasunaren lurraldean

Ameriketako konkista ekologikoa konkistaren alderik ezezagunetarikoa da. Herri indigenen ikuspegian herrien zanpaketa ekosistemen konkistarekin batera burutu zen. Bi horiek ezin dira banatu, elkarri estu lotuta egonik indigenen ikuspegian eta oroimenean. Gauzak horrela izanik, Cronon-en (1983) lana iraultzailea zen, Ameriketako ekosistemaren konkistaz jabetzeko, naturarekiko harremana ulertzeko eta ondorengo bi munduen arteko talka bortitzaz hobeto jabetzeko

Europarren begietan indigenen moduak ez ziren inola ere egokiak eta haien ustez indigenak inguruko aberastasunez baliatzeko gauza ez ziren herri txiro eta atzeratuak ziren; gainera indigenek zeramaten bizimodu sinpleak topo egiten zuen lurrak erakusten zuen oparotasunarekin. Europarrek behin eta berriz errepikaturiko leloa izan zen indigenak ez zirela gauza inguruan zegoen aniztasuna eta oparotasuna modu produktiboan ustiatzeko.

Europarrek, oparotasun hura basatia zela argudiatuz, begien aurrean zituzten lur jabe bakoak, hartzeko libre *«Terra Nullius»* zirela aldarrikatu zuten. Euren pentsaeraren arabera, jendea ez bazegoen bertan bizitzen, eta indigenak nomadak izanik ehizan bakarrik zeharkatzen bazuten lurraldea, ondorioztatu zutena honako hau izan zen: herri indigenek ez zutela inolako jabetza-eskubiderik, eta, beraz, ez zegoela inolako arazorik, ez moralik ez legalik, lur haiek eskuratzeko.

Ostera, indigenen ikuspegitik, ondasuna eta aberastasuna lurrak ematen zituen fruitu, landare edota bertan bizi ziren animalietan zegoen. Jabegoa haientzat ekosistemak ematen zituen fruituen gaineko zerbait zen. Hau argi eta garbi ikusten da

ekosistemei emandako izenetan: fruituekin lotuta daude eta erabilerari egiten diote aipamena (Cronon, 1983: 65). Indigenen ikuspegian jabegoa taldearena-herriarena zen eta ezin zen inolaz ere saldu, erosi edo besterendu (Manuel, 1974).

Cronon-en arabera, indigenek bazeuzkaten azokak eta elkartruke anitz burutzen ziren kostalde eta barruko herrien artean, baina horrek ez zuen zerikusirik europarrek zituzten merkataritza-egitura sendoekin. Indigenek herri mailan kontsumitzen zituzten naturak ematen zizkien fruitu asko. Hauen balioa elikagai izatean zetzan, edota herriko jendeak zituen beharrak asetzeko gaitasunean, eta gauza gutxi erabiltzen ziren gizarte-estatusa markatzeko. Elkartrukea zegoenean ere, printzipio horri jarraitu zioten eta beste herri indigenekin janaria edo beharrak asetzeko tresnak aldatzen zituzten. Dena dela, ez zuten gauza hauen pilaketa handiegirik izaten, ez zegoelako inolako gizarte-pizgarririk horretan aritzeko.

Herri indigenek erabili eta ustiatu egiten zuten ingurunea euren gizarteek zituzten beharrei erantzuteko. Ahalegin horretan ezagupen-sistema eta ustiaketa iraunkorrerako teknologia eta modu konplexuak sortu zituzten, baina kolonoek ez ziren gauza izan horiek errekonozitzeko eta preziatzeko. *«Terra Nullius»*ek indigenek produzituriko jakinduriaz jabetzea ere ekarri zuen, baita hauek euren ekosistemekin mendeetan garatu zituzten harreman konplexuen ukazio eta ezkutatzea ere.

Europarrek beren kontzeptu kultural eta ekonomikoen arabera ikusi eta balioztatu zuten mundu berria. Garrantzi eta balio handia ematen zieten Europako merkatuetan sal zitezkeen gaiei. Testuinguru horretan jabego pribatua eta beroni loturiko etekina bihurtuko ziren jainko. Mundu-ikuskera honetan lurraren jabegoa helburu bihurtu zen.

Lurraren hobekuntza-printzipioak indigenen jabego-eskubide naturala gainditzeko eta indargabetzeko balio zuen (Cronon, 1983). Ikuspegi hau nagusi zen garaiko estatu-gizon zein intelektualen artean. Esate baterako Locke, Hobbes edo De Vattel-ek indigenen lurrak Terra Nullius (*vacant lands*) deklaratu ondoren, defendatu zuten bertan lurra ereiteak jabego eskubidea ematen zuela (Anaya 1996). Lurren ustiaketa eta hobekuntza merkatu-balioa ateratzeko izango da, eta hau zibilizazioaren aurrerakadaren erakusgarria izanik, hobeturiko lurren gaineko jabegoa bermatzen zuen (Martínez Bringas, 2003).

Gizarte berriaren aurrerakada baso eta oihanen konkistan ikus daiteke islaturik. Basoaren konkista eta ustiaketak aurre hartu zien naturarekin aritzeko beste «ustiaketa-sistema zibilizatuei», hots, abeltzaintza, nekazaritza eta ehizari. Ondorioz, baso-ustiaketan eragindako aldaketak zibilizazioaren marka bihurtu ziren eta garai hartan inork gutxik hartu zuen prozesu hura deforestaziotzat, are gehiago, basoaren eta basa-bizitzaren konkistaren erakuslea zen, zibilizazio modernoan sartzea markatuz.

6. ERRUKIZKO MENDERAKUNTZA

Sepulveda-k zabalduriko ikuspegiari aurre egin eta zapalduen eskubideez kezkatu eta gizatasunezko legeekin bat zetorren indigenen gaineko gobernu baten alde agertu zirenak ere baziren. Haien artean, bai lehenetarikoa izateagatik bai Palacios Rubios-i kontra egin ziolako, aipamen berezia merezi du Matias de Paz-ek (Morris, 1992). Bi horien arteko ika-mika «Burgoseko debateak» izenez ezagutzen da. Giza eskubideen historian toki berezia merezi du, izan zituen ondoko ondorioengatik.

Indigenen existentziak europarrek orduan zuten nazioarteari buruzko irudiaren krisialdia ekarri zuen. Ordu arte, munduan jentilak eta kristauak, zibilizatuak eta barbaroak soilik zeuden (Williams, 1990). Herri indigenek gorpuzten zuten «beste» berri horrek garaiko nazioarteko harremanak birplanteatzera eraman zituen europarrak. Intelektual espainolen eztabaida indigenak europarren munduan integratzeko ahalegin moduan ulertu behar dugu. Eurozentrismo gorritik egina bazen ere, balio handikoa izan zen indigenekin harremanak bideratzeko orduan (Martínez eta Santamaría-Benz, 2004).

Indigenak europar mundu sisteman integratzeko ahaleginean nabarmendu egin ziren Vitoria eta Las Casas. Etxebarriak (1997) dioenez, eztabaida ez zen saio bat izan kolonialismoa bera birplanteatzeko edo herri indigenak berdintzat hartzeko (Clavero, 2002). Horrekin bat etorriz, Landabururen (1998) ustez, aldeko jarrera ez da idealizatu behar, onartzen zen legedi bakarra koloniarena delako eta indigenek berezko legedia izan dezaketenik ukatu egiten baita.

Hala eta guztiz ere, gaur egun, europar eta europar jatorriko askoren buruan bizirik dauden ikuspegiak islatzen ditu eta eztabaida horren ondorioak herri indigenen aldekoak izan ziren, gure gairako interesgarria den mugarri bat ezarriz. Indigenen gizatasuna eta honi zegozkion eskubideak izan ziren eztabaidagai. Funtsean, herri indigenekin izan beharreko harremana eztabaidatu zen (Martínez Bringas, 2006). Horrek berebiziko garrantzia izan zuen, orduko gizarteak indioekin zuen harreman genozida zeharo aldatu zuelako. Las Casas-ek Sepulveda-rekin izandako eztabaida gizartean zeuden bi pentsaeraren isla zen.

Vitoria-k egindako lanak eragin handia izan zuen Pablo III.arengan: 1537an «Sublime Deus» bultzatu zuen indigenen gizatasuna aitortuz, eta debekatu egin zuen haiek esklabo egitea eta haien lurraldeak zein jabegoa lapurtzea (Martínez Bringas 2003). Modu horretan erromatarren zein Erdi Aroan oso finkatuta zeuden «aspaldiko jabego» (*native title*) zein «bertako herri subirano»en printzipioak onartu ziren, eta konkistaren ideologiari zilegitasuna kendu.

Las Casas saiatu zen orduko bidegabekeriak zuzentzen eta tratamendu hobea ematen bertako herriei. Ondorio praktikoetara etorriz, auzian zegoena indigenak nola kontaktatu eta gobernatu zen. Las Casas-en ikuspegian, arrazoiaren eta erlijiosoen lana zen, eta Sepulveda-ren ustez, gerra eta soldaduen lana (Murillo, 1992).

Las Casas-ek inoiz ez zuen kristautasunak edota europar moduek inposaturiko nagusitasuna auzitan jarri, eta inoiz ez zuen herri indigenen izaera subiranoa eta honi loturiko erlijioa, kultura, hizkuntza, hezkuntza zein ekonomia garatzeko biderik egokiena hautatzeko eskubidea defendatu (Clavero, 2002; Martínez Bringas, 2003). Haren ustez, askatasunaren gainetik kristautzeko beharra baitzegoen. Erlijioaren bidean hezteko behar horrek ematen zien espainolei indioen gobernua beren esku izateko eskubidea, euren konbertsioa lortzeko asmoz. Las Casas eta Vitoria-k bultzaturiko bidea paternalista dugu, nolabaiteko eliz kolonialismoari lotuta zegoena, eta barbaroaren irudiari lotuta agertzen zaigu. Indioak basagizonak ziren, kultura gabekoak, biluzik ibili eta inozenteak izanik, erregearen eta Aita Santuaren mirabe onak izango zirenak (Clavero, 1994; Etxebarriak, 1997). Bortxa eta krudelkeria arbuiatu eta horren ordez Las Casas-ek konkista zilegitzat jotzeko bide baketsua eta konbertsioa defendatu zituen (Martínez eta Santamaría-Benz, 2004).

XVI. mendeko kolonialisten begietan, basati, ahul eta txiroa zen (Clavero,1994.) Indioaren gaineko tutoretza gobernuaren zeregin bihurtuko da (Hanke, 1949), eta indigenen berezko ahulezian oinarrituriko gobernua ezarriko da.

Las Casas-en ahaleginak posible egin zuen 1542an «*Leyes Nuevas*» izeneko legedi berria indarrean jartzea. Legedi horri esker, XVII. eta XVIII. mendeetan erregearen tutoretza ezarriz, ahalbidetu zen gehiegikeriak mugatzea eta herri indigenen populazioa handitzea.

Aipaturiko debateak garrantzi handikoak izan baziren ere, ez zuten praktikan aldaketa handirik eragin. Diskurtsoa eta haren eraginak maila intelektualean gelditu ziren eta ez zuten egunerokotasuna baldintzatzeko horrenbesteko indarrik (Martínez Bringas, 2003). Hori bai, ezarri egin zuen Erregimen Zaharraren gizaldietan honen marka izan zen harreman paternalista bat, non maila ezberdinetan, baita nazioartean ere, euren babeserako mekanismoak existitzen ziren (Clavero, 2002).

Eragindako aldaketei jarraituz, banaketa fisiko eta kulturala burutu zen «republicas indias» direlakoen bidez. Hemen kulturen arteko banaketa eta ia erabateko bereizketa fisikoa, politikoa, ekonomikoa eta kulturala burutu zen (Martínez Bringas, 2003). Hori bai herri indigenentzat euren iraupen fisikoa eta neurri batean euren kulturak babesteko baliozkoa izan zen (Landaburu, 1998).

7. IPARRALDEKO HITZARMENAREN BIDEA

Orain arte, deskribatu egin dugu Hego Amerikan garaturiko eredua; honek asko zor zion Espainiak lorturiko egoera hegemonikoari. Iparraldean, aldiz, egoera ez-hegemonikoan burutu zen kolonizazioa, eta horrek beste eredu bat ezarri zuen, Laugarren Munduaren garapenerako hain garrantzitsua den itun-bidea ekarri zuena, hain zuzen.

Iparrera helduriko indarrak gutxiago zirenez gero, ohikoaren alboan zegoen gizarte berria eraikitzeari ekin zioten. Haiseran elkarbizitza bazen ere, laster baliabideak kontrolatzeko gatazka bihurtu zen. Horrexegatik, europarrok euren presentzia, natur baliabideen ustiaketa eta haren gaineko jabego berria zilegi egiteko hitzarmenak sinatu zituzten. Hitzarmenak kolono eta herri indigenen eta botere europarren arteko harremanak kudeatzeko balio izan zuten.

Hitzarmenen bideak, gehienbat, botere kolonialen arteko harremanak eta botere-borroka kudeatu zituen. Horrela gertatu zen, potentziek, botereen arteko borroka baten testuinguruan, ez ziotelako indar armatuari horrenbesteko zilegitasuna ematen, armez lortutakoa armez kendu zitekeelako.

Bigarren eredu honetan, eragin handia izan zuen orduko nazioarteko testuinguruak. Europan indar hegemonisten eta anti-hegemonisten arteko borroka gertatu zen eta haren eragina hedatu egin zen Ameriketako agertokira. Egoerak aginduta europarren eta herri indigenen arteko harremanak, nazio libreen artekoak ziren.

Nazio libreen arteko itunen adierazgarria dugu ondokoa: Ipar Ameriketako herri indigenek aliatu moduan parte hartu zuten botere-borroka hauetan. Irokesak aktore estrategiko nagusi izatera heldu ziren gainera. Frantzia, Holanda eta Britainia Handiko gobernuek sinatu egin zituzten irokesekin hitzarmenak (Dowd, 2005) eta horien ordezkariek Europako hiriburuak bisitatu zituzten (Zinn, 1980; Woo, 2003). Garai horretan indigenak «anaia gorri»tzat hartu eta hitzarmen-bidea erabili zen nagusiki haiekin. Hala ere, orduko botere europarrek indigenekin sinaturiko hitzarmenak ez zituzten «pareko nazioarteko erkidegoko kide batekin sinaturikoak» bezala hartu, orduko intelektualek zein diplomatikoek ez zituztelako «errepublika» kontsideratu (Clavero 1994), basatiekin egindakoak baizik.

Nazio-tratamendua europarron aldetik botere-korrelazioak inposaturiko zerbait zen. Indigenek herri subiranoen artean sinaturiko hitzarmenak zirela uste bazuten ere, eguneroko praktikak kontrakoa erakutsi zien. Indigenek hitzarmena sinatu ondoren ez ziren gauza izan euren lurren eskualdaketa-prozesuen gaineko kontrola bermatzeko (Wilmer, 1993; Keal, 2003; Watson, 1992). Izan ere, sinaturiko hitzarmenek okupatzaileek egindako eskualdatzeak zilegi egiteko balio izan zuten. Gainera, kolonizatzaileen ikuspegitik, indigenek erregearen babesa onartzen zuten momentuan euron subiranotasunari uko egiten zioten. Babes horrek erresumaren lege eta agintearen meneko bihurtu zituen herri indigenak. Horrela gauzatu zen domestikazioaren lehen fasea. Lursail berrien gose zen koloniarentzat indigenen lurrak hazkunde eta zibilizazioren aurrerakadarako behar-beharrezkoak ziren. Gose horri gehitu behar diogu beste faktore bat: XVIII. mendean jaiotzear zegoen Europako erresumek osatzen zuten nazioarteko erkidegoak, «nazio zibilizatuen familia» deitua, herri indigenak barbarotzat hartu zituen, ez zituen bere barruan onartu, eta, are gehiago ukatu egin zizkien euren kideei onartzen zitzaizkien eskubideak (Wilmer,

1993; Keal, 2003; Watson, 1992). Nazioarteko erkidegoan kide moduan ez egotea erabat kaltegarria gertatu zen herri indigenentzat.

1763an Iparraldean Britainia Handiko erregeak onarturiko legedia, kolonizazioa mugatu eta herri indigenen lurraldeen osotasuna onartzen zuena, maiz aipatzen da Ipar Amerikako Iraultza piztu zuten arrazoien artean, kolonoek lurralde haiek konkistatu nahi baitzituzten (Landaburu, 1998).

Estatu-kolonizaizoa eta herri indigenen domestikazioa

1. BERDINTASUNAREN IZENEAN ANIZTASUNA ZANPATZEN

XIX. mendean zehar mugen barneko herri indigenen aurkako erasoa burutzearekin batera, mugaz bestaldeko lurren konkistari ekin zioten errepublika berri askok. Lur haiek beharrezkoak ikusten baitziren nazio-estatuaren ekonomia-garapenerako eta nazio-eraikuntzarako. Beraz, herri indigenek euron independentzia borondatez askatzen ez dutela ikusirik, konkista militarra arerioekin erabiliz eta pazifikaturiko indigenekin hitzarmena eta legea erabiliz burutuko da (Weyler, 1984).

Mundu mailan kasurik ezagunena delako eta populuaren irudimenean nonahi agertzen delako, AEBko kasua erakutsiko dugu, hura baita ezagunena eta aztertuena seguru asko. Urruneko lurren konkista-hauspoa izen zen AEBko «*Manifest Destiny*». Are gehiago, Fennimore Cooper-ek *Azken mohikanoa* idatzi ondoren: estatu berria epopeia horren pertsonaia nagusia da, argi dago kolonialista europarrak zein indigenak behialako errealitateak direla. Botere berriaren aurrean gelditzen den irudia desagerturiko indioarena izan zen (Stafford, 1994).

Diskurtso mesianiko horrek, amerikano zurien nagusitasuna aldarrikatuz, lurralde indigenen konkista sustatu zuen (Bronw, 1970). Are gehiago, zabalkunde bortitz eta konplexu horri eginbehar zibilizatzailea deitu zitzaion (Ferro, 1997). AEBko orduko mugetatik mendebalderantz ziren lurren konkista ezinbestekoa zen AEBrentzat zabalkundea, modernizazioa eta hobekuntza bermatzeko. Iparramerikarrek zibilizazio-eramaile ikusten zuten euren burua; finean zibilizazio eta unibertsaltasuna zabaldu nahi zuten konkistaren bidez (Wrobel, 2006). Mendebaldeko lurralde indigenen konkista nazio-eraikuntza proiektuaren zutabe nagusia zen. Nazio berria gizabanako libreek, berdinek eta jabedunek osoturiko gizartea da, homogeneoen arteko mundu hau euroamerikar ereduari atxikiz eraikiko da (Scheckel, 1998). Zuriak gehiago eta indigenak gutxiago zirela zioen mitoa zabaldu eta sakonki sustraitu da (Yellow Bird, 2004), horrexegatik indigenen desagerpena zibilizazioaren aurrerakadaren prezioa izango da, gaur egungo terminologian albokalte esango genuke.

Ez zen, beraz, onartu indigenek inolako eskubiderik zutenik. Berriz ere berria zaharraren, primitiboaren errautsen gainean eraiki zen. Ez zen arazo handirik egon onartzeko prozesu zibilizatzaileak oso inzibilizatua zen bestearen desagertzea eskatzen zuela (Scheckel, 1998).

Estatuaren gorengo interesaren leloari helduz, 1816tik 1848ra AEBko gobernuek, euren legeak erabiliz mehatxuz edo indarrez, kanporatu egin zituzten AEBko ekialdeko indigenak (Robertson, 2005), eta haien lurrak eskualdatu. Jackson presidentearen aginduz, haien lurretatik kanporatu egin zituzten 1838an nazio zibilizatuak izenez ezaguturiko ekialdeko indigenak, eta haiek protagonizaturiko tragediak, «*Trail of Tears*» delakoak, mugarria ezarri zuen. Modu horretan, indigenak periferiara bultzatuz, lurralde arrotzean moldatzera behartu eta beste indigena batzuekin borrokatzera derrigortu zituzten ekialdeko indigenak. AEBk 1848tik aurrera Mississippitik haratago zeuden lurren konkista hitzarmenak zein bortxa erabiliz burutu zuen lekuaren arabera. Hortxe dago AEBko inperialismoaren jaiotza (Hall eta Fenelon, 2004) eta errepublika liberalek buruturiko herri indigenen konkistaren hasiera.

Estatuen garapen-prozesuak beharrezkoa zuen lur indigenen konkista. Helburua zen estatu modernoa eraikiz ekonomia kapitalista moderno-industriala martxan jartzea. Ipar Amerikan gertaturiko konkista ezagunagoa egiten bazaigu ere, Txile eta Argentinan maputxeen aurka izandako gerrak, Mexikoko iparraldean zein Perun burututakoak, edota Errusiak buruturikoak, ez ziren makalak izan (Delgado, 1996; Gonzalez, 2007; Wilhelmi, 2005).

Errepublikanoek zituzten populazio altuak eta indar militarrak ia ezinezkoa bihurtu zuten herri indigenen erresistentzia. Ondorioz, herri indigenen konkista zanpaketa, subiranotasuna galtzea, lurren lapurreta eta birkokapena gertatu ziren. Konkista eta lurraren eskualdatzea lortu ondoren, kolonoen etorrera gauzatu zen, zeinek erabateko aldaketa sustatu zuten, gizarte berriaren moduak ekonomia, kultura, politika eta ekologian ezarriz.

XIX. mendeko azken aldera konkista amaitu eta lurraldearen gaineko kontrola ezarriz, nazio-estatuek zuten helburu bikoitza lortuko da lur-konkistarekin: batetik, nazio-estatuaren lurraldea eta mugak finkatzea; bestetik, lur horietan egon daitezkeen baliabideen kontrola estatuaren ekonomia bultzatzeko.

2. «ANAIA GORRIA» «UME GORRIA» BIHURTU ZUTENEKOA

Kolonia-garaian zein ondorengo errepublika-garaian, herri indigenekin egindako hitzarmenak nazio independente eta subiranoen artean ziren (Martínez, 1999). Hala ere, sinaturiko hitzarmenek askotan ez zuten izaten gutxieneko garantiarik herri indigenentzat, eta prozedura bera ere arrotzen hizkuntza eta interesa defendatzeko egin zirelako froga franko daude (Martinez, 1999: 58). Lege-trikimailuak erabiliz, estatuek subiranoak ziren herri indigenak meneko eta estatu barneko populazio deklaratu zituzten. Horri domestikazio deritzo Martínez-ek (1999).

> Así se inició el proceso que el Relator Especial ha preferido llamar (sin ninguna pretensión de originalidad) la «domesticación» de la «cuestión indígena», es decir el proceso por el que todos estos problemas se sacan de la esfera del derecho internacional y se ponen directamente bajo la competencia exclusiva de la jurisdicción interna de los Estados no indígenas. En particular aunque no exclusivamente, esto se aplica a todo lo relacionado con documentos jurídicos que ya habían sido acordados o negociados más adelante) por los Estados colonizadores originales y/o sus sucesores y los pueblos indígenas (ibid.: 191-192).

Hori lortzeko subiranotasuna posible egiten duten lau osagarriren aurkako erasoa gertatu zen.

> … un proceso de retrogresión, mediante el cual se les ha privado o reducido en gran medida de tres de los cuatro atributos esenciales en los que se basaba su situación original como naciones soberanas, es decir su territorio, su capacidad reconocida de suscribir acuerdos internacionales y sus formas específicas de gobierno (ibid.: 105).

Lurraldea galdu, gobernua indargabetu, populazioa nabarmen murriztu eta beste nazioekin akordioak sinatzeko gaitasuna indargabetu ondoren, indigenek ez zuten nora joan. Orduko, nazioarteko gizartea zibilizatuen familia izanik, basatiei ez zien euren kideei onarturiko eskubiderik edota babes-mekanismorik onartzen. Adibidez, zenbait herri indigenak Bretainia Handiarekin sinaturiko akordioek ez zuten ezertarako balio. Egoera horretan argi gelditu zen herri indigenak estatu kolonizatzaileen menekoak zirela, eta berauei zegokiela haien ardura. Nazioarteko jarrera horrek ontzat eman zituen kolonizatzaileek inposaturiko domestikazioa.

«Gizon gorriak» gobernuko «ume gorriak» bihurtu zituen domestikazio-prozesuaren adibiderik argiena AEBko Gorengo Epaitegiaren Chief Marshall-ek harturiko erabakietan aurkitu dezakegu: 1823ko (Johnson vs M'Intosh) kasuan AEBko gobernuak herri indigenen lurren jabe absolutua zela ondorioztatu zuen, eta indigenei europarren lege-tradizioa, kontzeptuak eta jabego pribatua inposatu zitzaizkien orduz geroztik. 1831n (*Cherokee Nation vs the State of Georgia*) Marshall-ek erabaki zuen indigenak estatuaren menpeko zirela, eta indigenek estatuekin babes-tratatuak sinatu ondoren, subiranotasunaren galdu zutela aditzera eman zuen. Vitoria-ren ikuspegiari berriz helduz, indigenen eta estatuaren arteko harremana menekoen eta jaunaren artekoaren antzekoa dela dio «*resembles that of a ward to his guardian*» (Robertson, 2005). Ondorioz, estatuen mugen barnean ez da onartuko estatuaren subiranotasuna mugatuko duen beste aktorerik. Indigenak meneko nazioak (*dependant nations*), AEBko babes eta borondateari lotuta daudenak kontsideratuko dira. AEBko gobernuak modu horretan ukatu egin zuen, alde bakarretik, behialako tratatuek zuten nazioarteko izaera. Domestikazioaren filosofia inon baino argiago agertzen da *1871 Indian Appropriation Act* delakoan.

> That hereafter no Indian nation or tribe within the territory of the United States shall be acknowledged or recognized as an independent nation, tribe or power with whom the United States may contract by treaty; Provided..., That nothing herein contained shall

> be construed to invalidate or impair the obligation of any treaty heretofore lawfully made and ratified with any such Indian nation or tribe (aip. Ryser, 1995).

Lurraldetasuna galduta, ohiko gobernurik ez eta nazio-eskubideak balioztatzeko kanpoko laguntza erakartzeko ahalmenik gabe, herri indigenak bitartekorik gabe zeuden euren burua defendatzeko. Aro modernoan bizi zirenak bat-batean mendeko bihurtu eta erreserbetan bizitzera kondenatu zituzten.

3. MODERNOTASUNA ETA ETNOZIDIOA

Nazio-estatu berriek modernotasuna eraikitzeko aldaketa sakonak bultzatu zituzten, horrela zapalkuntza modernotasunaren zabalkundearekin lotzen delarik. Frantzia eta Britainia Handia erreferentetzat zutenentzat (Sosa, 2007), ekonomia berriaren helburuak oztopatzen zituen edozein sinismen edo ohitura kultural desagerraraztea zen helburua. Modernotasunaren gustuko ez zirenak uxatu eta bultzaturiko balio berriak gizabanako liberal eraikitzailearenak izango dira. Heckman (1983) eta Noguerol-ek (1999) deskribatu dute modernizazioaren osagarri etnozida hori. Etnozidioaren kultura gizarte errepublikanoaren eremu guztietan gertatuko da, baina are nabariagoa izango da estatu-erakundeetan, erakunde erlijiosoetan eta hezkuntza-munduan.

Estatuak behar-beharrezko zuen industrian aritzeko ezinbestekoa zen hezkuntza-sistema bateratu bat, ezagupen zientifikoan oinarritua eta errepublika berriaren nortasun nazionala, sinboloak, kultura komuna eta hizkuntza nazionala sustatzeko balio zuena (Sosa, 2007). Estatuek indigena zen guztia ukatzearekin batera kultura nazionala eta industrializazioa bultzatzen zuten estrategiak ezarri zituzten. Hots, nekazaritzan aldaketa teknologikoa eraginez, maila politikoan aginte politikoa arrazionalizatuz eta zentratuz, ahaidego-lokarrien apurketa sustatuz; bai eta gizabanakoen aurrerakuntzarako meritokrazia jarriz; ohiko kulturaren tokian alfabetizazioa sustatuz, zein zenbaki-kulturan oinarri duen ezagupen zientifikoa ezarriz. Horiekin batera, indigenentzat hain inportantea zen natura eta erlijioaren arteko lokarria apurtu egingo da, erlijio indigenak debekatu, euren toki sakratuetan sartzea murriztu egingo da. Azkenik, natura neurri ekonomikoetan bakarrik balioetsiko duen ikuspegia eta balio sorta ezarri zen. Are gehiago, harreman hau gabezia eta garapen gabeko kulturen erakusle gisa sustatu zen.

Finean, herri indigenek gorpuzten zuten aniztasuna estatuaren areriotzat ikusiko zen, haren asimilazioa xedea izanik. Francis Leupp´s komisionatuak zioen bezala: indigena betirako hiltzea baina gizona salbatzea (*kill the Indian, spare the man*) formulari atxikiz (Churchill, 1997: 245). Beraz talde-nortasuna suntsitu eta gizarte nagusiaren gustuko den gizabanako domestikatua sortu. Asimilazio-politikari «*the great pulverazing engine for breaking the tribal mass*» (ibid.)·deitu zitzaion. Estatuak ez zuen konpetentzia egin ziezaiokeen herri-nortasunaren arrastorik onartu. Berdintasun, hazkuntza ekonomiko eta modernotasunaren leloari helduz errepresio

zuzena, zeharkako gobernuak, indoktrinazio ideologikoa, asimilazio soziala, kulturala, hezkuntza- eta hizkuntza-inposatzea nahiz erlijio-debekua erabili ziren tokian tokiko nortasun indigenak erauzteko. Kolonialismoa nagusi zuen mundu horretan «asimilizazioa» eginbehar «zibilizatzailea» zen. XX. mendeko lehen herenekoen pentsaera islatzen dute Burke goi-mailako politikari estatubatuarraren hitzek: «It is not consistent with the general welfare to promote [American Indian national or cultural] characteristics or organization» (Churchill, 1997: 245).

3.1. Etnozidioaren politikak

AEBk mendebaldeko konkista burutzearekin batera, indigenekin aplikaturiko modeloa nazioarteko erreferente bihurtu zen (Urban eta Sherzer, 1993). Modelo horren esportazioan inportanteak izan ziren bi gertakari (Clavero, 1994: 32-33): batetik, 1906an sortu berria zen «Carnegie Foundation». Horrek nazioarteko zuzenbidearen klasikoen lanak —Vitoria, Smith, De Vattel— argitaratzearekin batera, indigenen aurkako iritziak zabaldu zituen. Bestetik, 1921ean AEBko Estatu Departamenduaren enkarguz egindako lana, *The Question of Aborigenes in the Law and Practice of Nations,* erreferente bihurtu zen garaikoentzat. Bertan Snow-ek indigenak izendatu zituen «*as the wards and pupils of the nation and of the society of nations».* Egile horrek estatuen eta indigenen arteko harremana «trusteeship» (Clavero, 1994: 33) modukoa izan behar zela baieztatzeaz gain, asimilazioa defendatu zuen helburu nagusi, indigenak zibilizatzeko ahaleginean. Halaber, estatu kolonialek indigenen lurretan zeuden baliabideak kontrolatzeko eta kudeatzeko eskubidea arrazoitu zuten. Azkenik, Snow jaunak «to discourage tribal organizations and to deal with aboriginals as individuals» (ibid.: 34) gomendatu zuen. Bere eragina handia izan zen orduko nazioarteko erkidegoan, eta indigenekiko harremanak zuzentzeko orduan pentsamendu nagusia izatera heldu zela esan daiteke. Urte batzuk geroxeago John Collier-ek, Rooselvet presidentearen Gai Indigenetarako komisionatuak, 1934ko *«Indian Reorganization Act»* delakoaren muina deskribatzean britainiarrek erabilitako «zeharkako gobernua»ren sistemari egingo dio erreferentzia (Churchill, 1997), hura baitzen orduko potentzia kolonialek gogokoen zuten gobernu modua. Protektoradoa izango da, beraz, kasu hoberenean inposatuko den bertsioa. Horrelako egiturak hitzarmendun herriekin praktikatuko dira. Gainerako kasuetan, indigenekin izandako politikek asimilazio gordina eta lurraldeen kontrol zuzena bultzatuko dute.

Kultur askotasuna ezabatzeko ahalegin horretan, herri indigenen existentzia, persistentzia eta erresistentzia arazo bihurtu zen modernotasuna eta garapena bultzatzen zuten indarrentzat. Hori konpontzeko asimilazioa zen bidea. Estatutik bultzaturiko asimilazioak gizarte indigenaren desagerpena eta modernotasunarentzat derrigorrezkoak ziren balio-aldaketak inposatzea bilatu zuen (Calvet, 2005). Hezkuntza eta hizkuntza nazionalak, indigenen adimena eta bihotza konkistatzeko (Mar-Molinero, 2000), hau da, borroka ideologikorako tresna bihurtu ziren (Carretero, 2001). Gauzak horrela, indigenen hizkuntzen desagertzea, euren arima eta kulturaren irenstea, glotofagia deitu dena (Calvet, 2005), helburu bihurtu zen. Horrekin batera

ohiko jakinduria basatitzat hartu eta haren ordez hezkuntza zientifikoaren ezarpena bultzatu zen (Seini, 2003), eta zientziek, batez ere gizarte-zientziek (Noguerol, 1999), berebiziko rola eduki zuten etnozidioa legitimatzeko orduan.

Asimilazioa eta hari loturiko kultur ordezkapena zilegi egiteko, basati, pobre, arkaiko eta ez-modernoaren irudia zabaldu zen eskura zituzten bitarteko guztiak erabiliz. Hau bihurtu zen estatu eta aliatuen buruetan pentsamendu nagusia, eta hau izango da munduratuko den irudi nagusia.

Estatuak horren indartsuak ez ziren garai batean gizartearen laguntza funtsezkoa zen indigenen asimilazioa erdiesteko: gizarte nagusi osoa, garaiko zientzia zein eliza, katolikoak zein protestanteak, bat etorri ziren eurentzat iraganeko aztarnak ziren herrien asimilazioa bultzatzeko orduan (Lewis, 1998). Gauzak horrela, eurak, komunikabide eta arteen (batez ere literatura eta zinemaren) laguntzarekin (Alia eta Bull, 2005) arduratuko dira asimilazioaz eta kultur ordezkapenaz. Asimilazioa ez da bakarrik XIX. edo XX. mendeen lehen erdiko gauza izan, Australia eta Kanadaren kasuetan ume indigenak haien familietatik urrun eraman eta indigenak ez ziren familiekin jartzeko politika 1970era luzatu zen: horrexegatik bi estatu horietan belaunaldi lapurtuez edota galduez hitz egiten da. Era berean, hamarkada horretan ere aurki ditzakegu indigenen hazkunde demografikoa kontrolatzeko ahaleginak (Lawrence, 2000), mediku eta osasun-erakundeen aldetik.

3.2. Indigenismoa eta asimilazioa

Etnozidio gordina bultzatzen zuten politikekin batera, estrategia bigun gisa, kolonialismo errukitsuaren ereduari jarraitzen zion indigenismoa bultzatuko da hainbat tokitan, batez ere Latinoamerikan (Cojti, 1997). Anglosaxoien «apartheid» sistemaren aurka, Mexikon Vasconcelos-ek «arraza kosmikoa»ren ideia bultzatu eta arraza-nahasketatik sorturiko akulturazioa defendatuko du, herri-nahasketa helburu modura ikusiz (Sosa, 2007). Mestizoa erreferente zuen diskurtso ofizial horretan herri indigenen izatea eta kontribuzioa aitortu egiten zen, gehienetan ikuspegi historiko batetik, anglosaxoitik bereizteko (Gossen, 1992). Giro horretan desagerturiko basatia (*vanishing indian*) goraipatzen hainbat ekimen burutu ziren. Alde batetik desagerturiko indigenei, hots, azteka eta inkei zuzenduriko ikerketak, indigenismoa izendaturiko genero literarioa eta hainbat liburu agertuko dira Latinoamerikan. Museoek ere berebiziko pilaketa-lana egingo dute iraganeko kulturen ondarea babesteko eta antropologo, etnologo, historialari eta museo-egileek izan zuten berebiziko papera hildako indigenari zuzenduriko mirespen hau eraikitzen. Aldi berean, bizirik zirauten indigenentzat desagerpena defendatu zen (Díaz-Polanco, 1997). Mestizajearen diskurtsoa estatu askorentzat politika ofiziala bihurtu zen 1940ko Pazcuaroko Aldarrikapenetik aurrera. Mexikoko ereduari jarraituz, Institutu Indigenistak sortuko dira Latinoamerikan. Erakunde horien aitorturiko helmuga Vascelos-en «arraza kosmikoa» erdiestea zen Gamio zein Aguirre de Beltranen ikuspuntu eta politikei atxikiz (Sánchez 1999). Jarrera politiko-intelektual nagusi honi

jarraituz Mexiko (1917), Peru (1920 edo 1933) edota Guatemalako konstituzioetan ikuspegi paternalista eta indigenen gutxiengo-estatusa eta asimilaziora abiatzeko gogoa erakutsiko dira. Horrelakoak bultzatzeko politikak indigenistak ezarri ziren Latinoamerika osoan.

3.2.1. Jabego pribatu eta ekonomiaren zabalkundea

Hezkuntza-mailan sustaturiko etnozidioarekin batera, ohiko lurraldearen eta berau kudeatzeko ahalmenaren galera izan zen indarrean jarri zen beste politika bat. Herri indigenentzat lurraldea euskarri fisikoa, kokalekua eta bizirauteko beharrezko hornidura bermatzen duen tokia da; bai eta nortasunaren marka, ondorengoei igorri beharrekoa eta arbasoekin lotura duena ere.

Indigenen kasuan, lurraldeak haien kulturaren garapen fisiko nahiz espiritualarekin estu lotuta daude; lurra galtzean oroimena, nortasuna eta kultura bera kolokan jartzen dira erabateko krisia sortuz. Modu horretan, arrotzek lortu egin zuten kolpe batez indigenek herri nahiz gizabanako mailan zuten autonomiaren euskarria apurtzea eta dependentziazko egoera inposatzea. Horrela izan da XX. mendean, eta horrela da XXI. gizaldian.

Lur-jabego pribatua ezartzea helburu ekonomikoak eta politikoak batera lortzeko tresna gisa erabili zuten. Herri-lurren sistemaren suntsipena herri indigenak modernitatera ekartzeko modurik eragingarrientzat jo zuten gobernuek, eta nazio indigenak domestikatzeko prozesuan paregabeko tresna efektiboa bihurtu zen. Latinoamerikan, bide jakobinoa jorratuz, pribilegiotzat hartu zituzten kolonia-garaiko indioei aitorturiko eskubideak. Konstituzio berrian jasota ez dagoena ez da onartzen, eta kolonia-garaiko lege-babesak desagerrarazi zituzten (Anaya, 1996). Horrekin batera, XVII. eta XVIII. mendeko kolono liberalek egin zuten bezala, errepublikanoek legea erabili zuten herri-lurren sisteman zein erreserba-sisteman zeuden lurrak eskuratzeko (Martínez, 1999). Latinoamerikan hori «*desamortizaciones*» izenarekin izan zen ezaguna (Díaz-Polanco, 1997).

Indigenei mendeetan gauzatu zuten ustiaketa-sistema eta ekonomia burutzea ezinezkoa gertatu zitzaien, ez zutelako ohiko lurren gaineko kontrolik ez esplotazioa euren erara egiteko aukerarik, eta, gainera, ohiko lurretan sarrera debekatuta zutelako. Erreserban eta euren moduei lotuta jarraitzea aukeratu zutenek aurre egin behar zieten lege-sistema berriek jartzen zizkieten oztopoei. Euren lurrak izandakoetan ohiko sarrera debekatua zuten, ehiza nahiz arrantza ezin zuten egin, beharrezkoak zituzten landare nahiz belarrak edo basoko fruituak ezin zituzten eskuratu aginte berriaren baimena lortu gabe (Martínez, 1999). Ironikoa bada ere, kontserbazioaren jomugak eta gaur egun ikurrak diren parke asko indigenen lurren gainean eraiki ziren.

Estatuek lurralde indigenetan zeuden baliabideen ustiaketa modu intentsiboan burutu zuten. Naturak garapen industrialistaren inpaktua jaso zuen. Estatuak bultzaturiko ekonomian kanpoko merkatuak eskatzen dituen jakiak eta lehengaiak

ekoitzi ziren. Tabakoa, azukrea, bananak, kautxua, urregorria, zilarra edota kobrea estatuen ekonomia bultzatzeko erregai bihurtu ziren. Horrekin batera, lur asko abeltzaintzarako erabili eta behi zein ardien ustiaketa masiboak antolatu ziren. Bestalde, ezin dugu ahaztu garraio-azpiegituren inpaktua, garai hartan trenbideak, errepideak eta urtegiak zein ibaiak garraiobide gisa erabiltzeko eraikuntza-lan erraldoiak egin zirelako. Honek guztiak berebiziko inpaktua izan zuen ekonomian, gizartean eta ingurumenean. Industrializazioa, bide zein urtegi erraldoien eraikuntza, hirien garapena, eta abar garapen-erakusleak ziren, eta haien aurkako edozein jarrera estatu-garapenaren aurkakotzat hartu zen.

Lurra galdu ondoren, herri indigenei eskaintzen zitzaien etorkizuna hau zen: ekonomia berrian nekazari edo behe-mailako langile aritzea. Bestela, haien kulturen itzala zen erreserbako errealitateari lotuta jarraitzea. Erreserban, behin eta berriz, irabazleek galtzaileei inposaturiko errealitate eta irudia errepikatzen zuten indigenen autoestimuaren aurkako eraso bortitza eginez. Erreserbak ziega antzeko egiturak bihurtu ziren etorkizunik gabeko populazio batentzat.

4. BARNE-KOLONIALISMOA

Deskribaturiko egoerak barne-kolonialismoaren existentzia erakusten digu, honetan kolonialismo tradizionalean ez bezala, kolonoen estatua (*settler state*) delakoa izango dugu aktore nagusia (Nietschamnn, 1993). Errepublikek kultur askotasuna nagusi zen herrialdeetan, zentro-periferia modeloari jarraituz, arrazismoa nagusi izanik, nazioen arteko harreman bertikala ezarriz, inperioaren antzeko egitura bat inposatu zuten (Stavenhaguen, 1990; Clay, 1993). Pino-Robles-ek (1998) komentatu egiten ditu inuit eta miskitoen kasuak eta deskribatu kapitulu honetan deskribaturiko prozesua, barneko kolonialismoa sortzen duena. Haren hitzetan barneko kolonialismoa Hirugarren Munduko herrien kasuan eta Lehen Mundukoen artean «*welfare colonialism*» dagoela diosku. Biak dira txanpon beraren bi aldeak.

Finean, zentroek, zibilizazio eta garapenaren izenean, periferiako herriek osoturiko barne-koloniei beren bitarteko ekonomiko, politiko, kultural, sozial eta espiritualen gaineko kontrola ezarri zieten. Modu horretan, izateko eta egiteko (Pino-Robles, 2002), ezagutzeko (Smith, 1999) eta ukaiteko (Seini, 2003) modu berriak eta indigenentzat arrotzak zirenak inposatuz. Estatua bere mugen barruan botere hegemonikoa bihurtuko da. Ematekoduna gobernua izango da eta hartzekoduna periferiako herri indigena. Estatuen egitura kolonial horretan ustiaketa-bitartekoak (ekonomikoak), hondamendirako bitartekoak (militarrak), aginte-bitartekoak (politikoak), sortzeko bitartekoak (kultura) eta komunikazio-bitartekoak (garraioak eta hedabideak) gizarte nagusiaren esku daude.

Antzekotasunak antzekotasun, Feagin-ek (1989) gogoratu egiten digu kolonialismo tradizionalaren ezaugarri batzuk izanik, urruntasunaren (ur gazituaren printzipioa delakoa) baldintza betetzen ez duen fenomenoa dugula. Are gehiago

hurbiltasunean dagoela gakoa egiztatzen du. Xehetasun horrekin batera, beste ezaugarri nagusia konkistak sorturiko etnokrazian datza: hau da, eta XIX. mendean eta XX. mendeko lehen erdian mundu-sistema europarraren sasiperiferia ziren estatuek euren periferia esplotatu zuten kapitalismo industrialak beharrezko zituen produktuez hornitzeko, horrela indigenen esplotazioa inoiz baino efikazagoa izan zen (Wright, 1994). Stavenhagen-ek (1973) herri indigenen kasuan egon badagoela beste ezaugarri bat gogoratzen digu: martxan jarritako modeloek produkzio modu kapitalistaren aurreko eta haren meneko diren pilaketa moduak erabili zituztela gogoratu behar dugu. NLEk «*peonaje*» edo sasiesklabotza kasuak ikertzeko ekin zion indigenen kasuak aztertzeari

Kulturen arteko haustura, tentsioa eta mesfidantza gizarte-egituraren ezaugarri bihurtu zen (Martínez Bringas, 2003) barne-kolonialismoa praktikatzen duten errepubliketan. Kolonizatuek ez dute gizarte nagusiaren instituzio nagusietan parte hartuko, arrazismoa nozitu dutelarik (González Casanova, 1969). Gauzak horrela, barne-koloniak uharte bihurtu ziren estatuen baitan, zentroko nagusiek eragindako boterearen objektu pasiboak izanik.

Errepublika liberal-inperialek eraikitako modeloa eta portaera neurri handi batean internazionalizatu egin zen XX. mendeko lehen erdian, indigenekin aritzeko eredu nagusi bihurtu arte. Bide horretatik jo zuten deskolonizazioaren osteko estatu berri askok XX. mendean, laugarren kapituluan ikusiko dugun bezalaxe.

Globalizazioaren kolonialismoa

1. MUNDU-EKONOMIAREN MEHATXUA

Aurreko kapituluetan Europako botere kolonialek eta Ameriketako errepublika berriek eraikitako egitura zapaltzailea eta herri indigenei aplikaturiko politikak ikusi ditugu. Hauek ez ziren gehiegi aldatu II. Mundu Gerrak sorturiko nazioarteko erkidego berrian; izan ere, herri indigenen aurkako erasoa eta etnozidio-ahaleginak biderkatu egin ziren ondoko urteetan.

1950etik 1990era munduak deskolonizazioaren bigarren eta hirugarren uhinak ezagutu ditu. Baina gauzak ezer gutxi aldatu ziren indigenentzat. XIX. mendeko errepublikanoek egin zuten bezalaxe, XX. mendeko Hirugarren Munduko deskolonizatuek muga kolonialen gainean eraikitako estatua onartu zuten oinarrizko egituratzat. Horrekin batera, estatua goiburu zuten nazioarteko kide bihurtu ziren. Era horretan, estatua esperientzia eta egitura unibertsala bihurtu zen (Del Arenal, 2002). Estatu berriek nazio-estatu industrializatuaren garapenaren ideia helburu bihurtu zuten eta kristau berrien oldartzearekin ekin ere fede berriari. Estatu berriek, XIX. mendeko errepublikek egin zuten legez, Mendebaldeko estatuek eraikitako bideari jarraitu zioten.

Ondorioz, estatu-mugen barruan bizi diren indigenei inposatuko zaie garapena eta tokian tokiko nazio-estatuaren eraikuntza. Nazioarteko merkatuan bere burua txertatzea helburu duen estatuaren garapenak sustatu du «urruneko lurren konkista» XX. mendeko bigarren erdian (Hyndman, 1987; Nietschmann, 1987). Haren mesedean, XIX. mendeko mezuak eta ikonografia jarriko dira martxan (kolonoen epopeia, basalurren eta azken mugaren ideologia) (Hyndman, 1987; Maderuelo, 1986; Churchill, 1992; Maybury-Lewis,1992) XX. mendeko komunikabideak eta teknologiak erabiliz.

Estatuen askoren hazkuntza herri indigenen lurretan dauden baliabideak ustiatuz burutu da. Prozesu hori II. Mundu Gerra amaitu zenetik gauzatu da etengabe. Gerra osteko ekonomiek hazkuntza hasteko zuten lehengaien beharra nabaria zen (zura, mineralak eta, batez ere, energia hidroelektrikoa, etab.). Eskuratzen errazak ziren lehengaien eskaintza agortzeko zegoenez, beharrezkoa egin zen urrunago ziren lurralde eta produktuen esplotazioa burutzea. Zientzia eta teknologiaren nahiz garraiobideen garapenak posible bihurtu zuen urrun egon eta arriskutsuak ziren

lurraldeetan zeuden baliabideen esplotazio komertziala gauzatzea. Kontsumo behar horrek ordura arte periferia sakonean bizi ziren lurraldeetako baliabideak (Burger, 1990: 79) herri industrializatuek osatzen duten zentroaren begietara ekarri zituen. Ondorioz, Alaska, Amazonia, Siberia edo Australiako barneko lurraldeak miatu egin ziren lehengaien bila. Eragile industrialak ordura arte menturazaleen lurraldeak zirenak arakatzen hasi ziren (Burger, 1990). Izan ere, mundu osoko herri indigenen aurkako oldartzea areagotu egin zen 1970etik 2000ra.

Gertakizun horrek ondorio larriak eragin zizkien ordura arte urruneko lurraldeetan, isolaturik, modernotasunaren kontroletik at zeuden herri indigenei. Ondorioak are larriagoak ziren nazioarteko iritzi nagusia honen aldekoa eta indigenen kontrakoa zelako. Estatu-eliteak eta nazioarteko adituak bat zetozen garapena nazio zibilizatu guztien helburua zela esatean. Nazio berriek nazio-estatua oinarrizko instituziotzat duen nazioarteko sistema politiko, estrategiko eta ekonomikoaren parte izatea aukeratu zutenean, NBEren laguntza jasotzeko egoeran aurkitu ziren. Gauzak horrela, estatuen interesen aldekoa zen Nazio Batuen Erakundeak (NBE) Mendebaldeko gizarte-egiturak, balioak eta produktuak inoiz baino indartsuago zabalduko ditu mundu mailan.

Testuinguru horretan, 1970eko hamarkadan Hirugarren Munduko estatuek Nazioarteko Ordena Ekonomiko Berria defendatu zuten. Modu horretan, Hirugarren Munduko nazioek bizi zuten menekotasun ekonomikoarekin amaitu nahi zuten eta euren ekonomiak garatu. Ahalegin horretan, Hirugarren Munduko estatuak kolonizatzaileak bihurtuko dira eta multinazionalekin batera, nazioarteko lege- eta laguntza-markoaz baliatuz, globalismo harrapariaren bultzatzaile petoak egingo.

Garapena bultzatzeko NBEk 1960, 1970 eta 1980ko hamarkadak «Garapenaren Hamarkadak» izendatu zituen. Nazio-estatu moderno, sendo eta nazioarteko merkatuan ondo txertatua erdiestea izan zen xedea, eta horretan laguntzeko mundu mailako jakintza eta baliabideen transferentzia gertatu zen (Von Laue, 1987). Von Laue-k prozesu horri deituko dio «*the world revolution of Westernization*» eta harekin herri indigenei buruzko irudiak eta politikak munduratu egingo dira.

1960-80ko garapen-teoriak Rostow-en (1961) modelo eboluzionistan oinarritu ziren, horrek herri indigenei buruzko estereotipo tradizionalak integratu egin zituen; hain zuzen, herri indigenak herri primitiboei dagokien kategorian kokatuz. Izan ere, garaiz kanpoko gizarteak bezala itxuratu zituzten, berriz ere, baina orain pobreziaren estigma gehituz (Arregi, 2006). «Txiro-behartsuarena» da orain nagusituko den estereotipoa. Adibidez, Munduko Bankuko ikerketek errealitate hori herri indigenen ezaugarri nagusi bihurtuko dute (Psacharopoulus eta Patrinos, 1994). Hazkuntza eta modernizazioaren paradigma nagusi honetan pobreziaren errua tradizioari leporatu egin zaio, eta berari eusten dioten herriak izango dira euren atzerapenaren errudun nagusiak.

Rostow-en ildotik jo zuen Hardin-ek (1968) «herri-lurren tragedia» hipotesiarekin. Sona handikoa bihurtu zen garapenaren arloko adituen artean. Hardin-ek berreskuratu zuen aurreko mendeetan herri-lurrak pribatizatzeko erabilitako argudioa, lurraren hobekuntzak ematen duen jabego eskubidearen bertsio modernoa. Berriz ere, egitura modernoak indigenenen gainetik jarriko dira diskurtso honi esker. Izan ere, XIX. mendeko aditu modernista askok uste zuten (modernizazio-garapen-paradigma nagusiaren jarraitzaileek) herri indigenak garapena erdietsi ahala desagertuko zirela.

Kolonizazio garaikide horri Nietschmann-ek (1986: 2) «economic development by invasion of indigenous nations» deitu dio, hau ekonomia globalizatuaren testuinguruan gertatu delarik. Estatuak nahiz nazioarteko aktoreak, bakoitza bere arrazoi propioekin, bat etorriko dira estatuek natur baliabideen ustiaketa intentsiboa behar dutela defendatzean. Hots, natur baliabideen ustiaketa intentsiborako laguntzak Munduko Bankuak edo Nazioarteko Diru Funtsak egindako negoziazioen eta proiektuen parte inportantea izango dira (Burger, 1990).

Nazioarteko erakundeek eta estatuek sustaturiko indigenen lurraldeen konkista garaikideak, batez ere Hirugarren Munduan, herri indigenen aurka bortxa, barne-kolonialismoa eta derrigorrezko asimilazioa sustatu ditu (Churchill, 1992; Swerdlow, 1999; Schechla, 1993). Konkista deskribatzeko Amazoniako kasua erabiliko dugu irakurleari ezagunagoa egingo zaiolakoan Hala ere, antzeko prozesuak oihan tropikalak dauden munduko alde guztietan gertatzen ari dira eta garapen-proiektuen parte dira.

Estatuek nazioarteko garapen-proiektu erraldoiak erabiliz, baso tropikalen konkista, urruneko lurraldeen kolonizazioa nola burutzen duten ikus daiteke, eta herri indigenen eskubideak eta existentzia bera nola mehatxatu den antzemateko balioko digu. Estatuek eta beste aktore batzuek sustaturiko erasoen aurka herri indigenen erresistentzia modu ezberdinetan burutu da.

2. AMAZONIAREN KONKISTA

Aurreko kapituluan deskribatu egin dugu errepublika liberalek egindako konkistak: mendebaldeko azken muga (*last frontier*) AEBren kasuan, edo Argentina edo Txilen «basarmortukoak», kasu guztietan indigenen lurren okupazioa eta kontrola. Konkistak nazio-eraikuntzaren mugarria ezarri zuen, eta indigenei ez zitzaien gelditu epopeia nazional horretan gainditu beharreko oztopoak izatea besterik. Antzekoa aurkituko dugu Amazonian XX. mendean. Kasuak beste askoren antza du mundu mailan. Lurralde erraldoi hori estatu batzuen artean banatuta dago eta 60ko hamarkadatik hona haren konkista garapenaren sinonimo bihurtu da batzuentzat; beste askorentzat, ordea, desarrollismoaren ikurra. Brasil natur baliabideetan aberatsa izanik, garapena duen estatuaren mitoa gorpuztu du. Gainera, aldaketa klimatikoaren beldur garen garai honetan bertan dagoen oihana estrategikoa da munduko klima-orekari eusteko.

Amazoniak hain zuzen azken mugaren kondaira mitiko-tragikoa erakusten digu eta bertan kolonialismo historiko eta berriaren trazak aurkitu egiten direlako aukeratu dugu kasu interesgarri gisa. Gainera Amazonian gertaturikoak, munduko beste tokietan, ohian tropikalen konkista-prozesuetan gertaturikoaren berri emango digu.

Azken lau hamarkadetan Amazonian basoko milaka akre birrindu egin dituzte, eta urtegi erraldoiak, meatzeak, errepideak, petrolioa bilatzeko zuloak, plantazioak... zabaldu egin dira nonahi (Clay, 1998; Berraondo, 2006). Horrekin milaka indigenen birkokatzea gertatu da, Amazonia osatzen duten estatuen errealitatean asimilatzeko ahaleginean.

Amazonian aplikaturiko garapen-programek lurraldearen errealitate demografikoa, ekonomikoa, soziala eta kulturala errotik aldatu egin dute. Aktibitate ekonomiko berriak sortu dira. Horiek deituta kolono-populazioak bertaratu dira hiriak eta herri moderno berriak oihanean barrena eraikiz. Baina hasitako kolonizazio honek arrazoi ekonomikoak eta sozialak ez ezik, politikoak ere erabiliko ditu. Amazoniako lurraldeari, «azken muga» (*last frontier*) tratamendua aplikatu zitzaion, hau da, zibilizaziorik gabeko basalurra eta haren kolonizazioa nazio-eraikuntzaren parte garrantzitsu bat (López, 2006) kontsideratu zen. Amazoniako konkistak etekin ekonomiko ugari eskaintzeaz gain, herri xeheak zituen arazo ekonomiko eta sozialei aterabide berri bat eskaini zien, Amazoniako konkistak pobre ziren nekazariei lurra eskaintzen zien aberatsen lurrak ukitu gabe.

Kolonizatzaileen begietan jaberik gabeko lur asko zeuden. Bertara joan eta hartu. Hori da enpresari eta pobre askoren buruan zegoena. Gobernuak bere bitarteko guztiak erabili ditu kolonizazio-prozesua bultzatzeko, enpresariak erakartzeko eta Amazonia kolonoen begietan toki erakargarria egiteko.

1966an Brasileko presidentea zen Castelo Blancok Amazoniako zona inportanteetan garapen-guneen sorrera iragarri zuen. Hura lortzeko opor fiskalak, lurematek, diru-laguntzak eta kontratu komertzialak jarri zituen kolonizatzaileen esku. Horrekin batera presidenteak Brasilgo beste lurraldeetatik etorritako emigrazioa bultzatzeko neurriak hartu zituen. Herri berriak eraikitzeko asmoak iragarriko dira. Ekonomia eta populazioaren hazkuntza errepide berriak eraikiz zein nekazaritza eta abeltzaintza garatuz lortuko zela agindu zen. Baita ere, planak Amazoniako lurraldean mineralen eta ur-baliabideen nahiz zur-baliabideen potentziala modu egokian esplotatzeko garatuko dira (Hecht eta Codeburn, 1989).

Politikoek bertako baliabideen esplotazioan oinarrituriko hazkuntza ekonomikoa agindu zuten. Amazoniako konkista kostaldeko txiroentzat ere konponbide ona izan zen, hirietan bizi zuten eguneroko miseriari agur esan, eta bizitza berri eta hobeago baten ametsari egiteko aukera irudikatzen zuelako (Lopez, 1995). Amazoniako konkistaren inguruan gizarte nagusiak zentsu zabalean zeukan kontzentzu baten isla aurkituko dugu: Amazonia *«Terra Nullius»* eta populazioz gainezka zeuden hirietako biztanleentzat hura «aginduriko lurraldea» zen (Calvo, 1990).

Azken mugaren ideiaren arabera, Amazonia konkistatu eta makurtu beharra zegoen eta enpresa hori gauzatzeko beharrezkoa zen estatu, multinazional eta nazioarteko laguntza ekonomiko eta teknologikoa. Ekimen koordinatu hauen bidez basalurra zena zibilizazio bihurtuko da. Amazoniako paisaian errepideak, herriak, elizak, errantxoak eta urtegiak nagusitzen direnean burutuko da lurraldearen garapena. Ikuspegi honetan interes ekonomikoak bat egiten du politikoarekin kolonoaren irudi erromantikoa bultzatzerakoan. Kolono brasildarra, «bandeirante» delakoa, gizarte modernoaren eraikitzailea eta bitarteko nagusia bihurtuko da Amazoniako konkistari esker.

Nazio-eraikuntza eta garapena bultzatzeko plan hauetan herri indigenak oztopo balira bezala agertuko dira. Amazonia indigenak «segurtasun-arazo» legez tratatzera heldu ziren (Hyndman, 1994). Bide militarra aukeratu zen lurralde-kontrola segurtatzeko, mugak dauden inguruetan batik bat, eta kontrola ziurtatu ondoren herri indigenen asimilazioa burutu zen (Maybury-Lewis, 1992: 119).

3. KOLONIALISMO MOTA BERRIAK

Aurreko kapituluan XIX. mendeko errepublikek buruturiko baliabideen esplotazioa deskribatu dugu. Antzeko eskemak, baliabideen ustiaketa intentsiboa burutzen dutenak aplikatu dira Amazonian, eta munduko beste oihan tropikaletan. Hori bai ustiaketa askoz efektiboagoa izango da XX. mendeko zientzia eta teknologiak lagunduta. XX. mendean mundu-ekonomiaren hazkuntzak eragindako kaltea mundu-mailakoa ere bihurtu da. Kolonizazioaz ari garenean, berritasuna 1990eko hamarkadan garapen iraunkorraren (GI) agerpenarekin helduko zaigu. Honek nazioarteko diskurtsoan lorturiko sonak ohiko ustiapen moduak aldatzera bultzatu ditu hein handi batean. Ondorioz, paradigma berri honi loturiko kolonialismo modu berriak agertu dira.

3.1. Kontserbazioa konfiskazioren bitartez

1992tik aurrera hainbat kasutan, herri indigenen aurkako kolonialismoa garapen iraunkorraren izenean garatuko da (Adams eta Mulligan, 2003). Betiko mamua jantzi berriekin. Estatuek diskurtso berdea erabili dute lurralde indigenen gaineko kontrola ziurtatzeko (Nietschmann, 1990). Are gehiago, sarritan kanporaketa eta ondorengo lur-okupazioa aldarrikatu da ingurumenaren babesa burutzeko (Andrade, 2001). Horrelako proiektuak, estatuko erakundeen bidez, kanpoko nahiz barneko enpresak erabiliz gauzatuko dira (Ramachandra, 1997). Ondorioz, herri indigenek ohiko lurren gaineko kontrola galdu egin dute. Askotan, indigenak ezin dira euren lurraldeetan sartu eta ezin dituzte biziraupenerako beharrezko dituzten baliabideak betiko moduan erabili (Rodriguez, 2000). Gainera, arrotzek euren parajeetan kontrola nola ezartzen duten dakusate. Eginkizun hauek kasu batzuetan nazioarteko GKE eta talde ekologisten laguntzarekin egin dira.

Kontserbazioa bultzatzeko parkeen eraikuntzan aliantza ikus daiteke estatu eta GKE batzuen artean. Andrade-k (2001) kontserbazioa konkisfazioren bitartez (*conservation through confiscation*) deitu dio okupazio mota honi. Irakurritakoa ez da harritzekoa kontuan hartzen badugu AEBko Yellowstone parkea indigenen lurraldeak okupatuz sortu zela eta neurri handi batean indigenen aurka (Spence, 1999). Gainera Igoe-k (2005: 6) 1872-1961 bitartean parkeen sorrera kolonialismoarekin lotzen du zuzenean. Prozesu historiko honen bertsio garaikide honetan mendeetan zehar euren ingurumena mantentzeko gai izan diren indigenei kanpotik etorritako ikuspegiak eta moduak inposatuko zaizkie (Rodriguez, 2000). Ezaguna zaigun eredu kolonialari jarraituz, berriz ere, arrotzek erabaki egingo dute indigena nor den (Dumoulin, 2005), zer den baliozkoa bere kulturan, zer mantendu, zer sustatu behar den eta zer ez, horrela etnofagia burutuz, (Díaz-Polanco, 2005) eta azkenik nolakoa izan behar duen euren lurraldeen gainean eraikitako parkeetan jarraitu ahal izateko beharrezko den «portaera ekologiko» berriak (Hames, 2007). Gainera parkeetako zona askotan giza presentzia mugatua edo erabat debekatuta egongo da (Igoe, 2005). Igoe-k gotorlekuaren antzeko kontserbazioa (*fortress conservation*) deitzen dio horri. Beraz, tokian tokiko herriek bizirauteko egiten zituzten ohiko ekintza batzuk mugatu edo bertan behera utzi beharko dituzte, eta bakarrik erabili zona horiek aurreikusitako moduetan.

Zonen banaketa-sistemak ez du kontuan hartuko ekosistema hauen mendeko diren herrien bizitza ekonomiko, politiko eta kulturalean izan dezakeen eragina. Berriz ere, arrotzek, lurraldea banatzeko irizpideak ezarriz eta zona bakoitzeko erabilera inposatuz, bakoitzari dagokion erabilera erabakiko dute.

Babes-zonen diseinuan herri indigenen ikuspegia eta erabilerak ukatzeaz gain, naturarekin izandako harremana balioztatzeko orduan Mendebaldeko zientzia eta teknologien erabilera ezinbestekoa izango da (Seini, 2003). Bertan bizi diren herri indigenei euren lurraldeetan aurkitzen den aniztasuna eta ekosistemak gestionatzeko erak kanpotarrek erabiltzen dituzten tresnak eta kategoriak erabiliz deskribatzea eta birdefinitzea eskatuko zaie Horrela, Mendebaldeko gizonak errekonozitu dezakeen modu batean egin behar dute euren jakinduriaren aurkezpena. Era horretan modernizazioaren moduak inposatu eta neurriz kanpo balioztatu egiten dira. Ondorioz, herri indigenen jakinduria, ikuspegiak eta ohiko moduak bigarren maila batean mantenduko dira, eta ez dute modu zientifikoaren mailako baliorik izango «ustiaketa ekologiko egokia» burutu dutela frogatu arte (Warren, 1994). Zientifikoen hizkuntza edo haien onespena lortzen duten teknika eta ezagupenak soilik aterako dira «sineskeria» edo efizientziarik gabeko tekniken multzotik (Ford, 2000). Egoera honek berebiziko arazoak planteatzen dizkio «ohiko ezagupen sistema»ri gazteek sistema zientifikoaren aldeko apustua egin eta ohikoari uko egingo diotelako gehienetan. Gauzak horrela, euren lurren gaineko jabego-eskakizuna egiteko orduan, euren ekosistemaren balioa frogatzeko, edota aspaldi erabilitako sendagaien egokitasuna frogatzeko, derrigorrezkoa izango dute «sistema zientifikoan» jantzita

dauden teknikoen laguntza, horrek mendetasun mota berri bat ezartzen badu ere. Horrela indigenak etnofagia bidean jartzen dira.

3.2. Exotismoaren kolonizazioa

Munduko kulturak elkarri lotuak diren garaian bizi gara. Kultura, lurraldeak, moda, artisautza eta sinesmenak produktu bihurtu dituen gaur egungo mundu-ekonomian turismoak garrantzi handia du (Honey, 1998). Turismoak bere produktua modu erakargarriago batean saltzeko maiz erabili ditu herri indigenak. Izan ere, indigenak exotismo eta primitibismoaren erakargarritasuna gehitzen dio eskaintza turistikoari (Rossel, 1988). Azken urteetan natura eta bertan bizi diren kulturekin errespetuzko harremana bultzatzeko asmoz, ekoturismo edo etnoturismo deituriko pakete bereziak eta garestiak eskaintzen dira (Young, 1995). Etnoturismo edo turismo ekologikoaren gorakadak gaur egungo gizaki globalizatuok munduko bazter guztiak ezagutzeko eta arakatzeko beharrarekin du zerikusi handia. Gainera, gizarte zein banako mailan urruneko kulturei buruzko informazioa kontsumitzeko grina sortu da. Exotismo gose hori ez da gaurkoa, Levi-Strauss-ek (1988) ondo gogoratzen digun bezalaxe, baina orain edozeinen aukera bihurtu da. Gaur egun menturazalea izatea guztion esku dago, eta asko bihurtu dira Marco Polo berriak.

> Hoy, ser explorador es un oficio; oficio que no sólo consiste, como podría creerse, en descubrir, al término de años de estudio, hechos que permanecieron desconocidos, sino en recorrer un elevado número de kilómetros y acumular proyecciones, fijas o animadas y si es posible en colores, gracias a lo cual se colmará una sala durante varios días, con una multitud de oyentes para quienes vulgaridades y trivialidades aparecerán milagrosamente transmutadas en revelaciones, por la única razón de que en vez de plagiarlas en su propio medio, el autor las santificó mediante un recorrido de 20.000 kilómetros…¿Diremos entonces que nuestros modernos Marco Polo traen de esas mismas tierras, ahora en forma de fotografías, libros y relatos, las especias morales que nuestra sociedad sintiéndose naufragar en el hastío necesita con mayor apremio? (Levi-Strauss, 1988: 42).

3.2.1. Marco Polo garaikideak

Turismoaren hazkundea 1970eko hamarkadaren azken zatian eta 1980ko lehen urteetan gertatu da (Chavez, 1999). Garapen-estrategien bila zeuden hainbat gobernuk turismo bultzatzeari ekin zioten lana sortzeko ona eta kanpoko dibisak eskuratzeko hobea zela ikusirik. Gainera, 1992tik aurrera Munduko Bankuak (MB) eta Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) turismo iraunkorra bultzatzeko jarritako dirua eskuratzeko modua ikusi zuten. Biodibertsitatea mantentzeko eta garapena bultzatzeko estrategietan toki berezia eskaini zaio turismo ekologikoari (AECI, 1997).

3.2.1.1. Indigena produktu

Multinazionalak Hirugarren Munduko herriek eskaintzen duten kultura exotikoez, natur aberastasunaz, eskulanaren kostu merkeaz eta bizimoduaren kostu baxuaz profitatzen dira (Carling, 1998).

Normalean, ekoturismoaz ari garenean gailentzen den irudia eta ikuspegia estatuek nahiz multinazionalek bultzatzen dutena izaten da. Ekoturismoko proiektuak garatzen dituztenean, kontsumitzailearen ikuspegitik heltzen diote gaiari, eta ez indigenen ikuspegitik. Ondorioz, ez zaie behar bezalako garrantzirik eman turismo mota honek sorturiko mota guztietako kalteei.

Euren lurrak turismoak okupatu ondoren, bertako herriei, babesturiko zonetan gertatu den bezalaxe, sartzea debekatuko zaie. Trask-ek (1998) bertako herritar baten testigantza eskaintzen du turisten eta bertakoen arteko borroka erakusteko. Larriena zera da, turistentzat aisialdirako direnak indigenentzat bizirauteko baliabideak direla

Kontuan hartzen ez den beste gaitz bat herri indigenen biodibertsitatearen eta jabego intelektualaren lapurreta da. Herri indigenekin loturiko lurrak, ohiturak, artisautza, diseinuak, kantak (Seeger, 1991) eta sinismenak turismoa erakartzeko gai bihurtu dira (Daes, 1997). Produktu turistikoak kultura indigenen azaleko irudi folklorikoa ematen du eta gutxi dago ikusi dugun kulturari buruzko informazio sakona, are gutxiago eurek euren ahotsez sortua. Modu horretan kalteak ugaritu egiten dira. Turismoak sor zezakeen etekin ekonomikoa ez jasotzeaz gain beste mota bateko etekina, hots, kultura indigenaren errespetuzko tratamendua ez da gertatuko.

Herri indigenen kultura, erlijioa, bizimodua, mundu-ikuskera eta ekonomia modernotasunak bere aisialdian kontsumitzen duen gaia bihurtu da. Turismoarekin loturiko beste gai bat erlijio indigenen bortxaketa da. Erlijio indigenak eta euren tradizioak Aro Berria «*New Age*» delako literaturan sarritan agertzen dira. Horren inguruan indigenek serioski salatu duten «plastikozko xamana»rekin loturiko kolonizazio mota berria agertzen da (Aldred, 2000). «Alternatiboak» diren hainbat europarrek kontsumitu egiten dute indigena exotikoa, ekologikoa eta mistikoa nahasten dituen korronte hau (Aldred, 2000). Kultur manifestazioak, euren testuingurutik atera, gure errealitatera ekarri eta moldatu egiten dira hobeto kontsumitu daitezen, azkenean kultura indigenaren lapurreta, besteganatzea gertatzen delarik. Era honetan herri indigenen kultura desitxuratu eta idealizatu egin da edo gizabanako anomikoentzako produktu bihurtuz (Noguerol, 1999).

Askotan euren ahaleginak ondorio latzak izango ditu herri indigenen kosmos-ikuskeran, haien lurren zein sinismen erlijiosoen bortxaketa dakarrelako. Toki sakratuen okupazioa eta euren ohitura sakratuen behaketa hainbat pakete turistikoren parte da gaur egun. Horrek guztiak Laugarren Munduaren ekimena kolonialismo mota hau salatzera eraman du.

Kasu hauetan turisten etorrerak ohiko erlijioa praktikatzeko eskubidearen bortxaketa eragin du. Baina txarrena zera da, guztia, herri indigenei inolako baimen, iritzi edo partaidetza eskaini gabe edota ateratako etekinen ezer eman gabe egiten dela. Beraz, indigenek ez dute euren kulturak kolpatu eta kontsumitzen duen prozesu honetan inolako parte-hartze positiborik. Are larriago dena, euren lurren gaineko eta bertako toki sakratuen gaineko kontrola galdu egin dute, eta ikusi beharra dute nola kanpotarrei eskaintzen zaien eurei ukatzen zaien bitartean.

3.3. Irudiaren galera eta kulturaren krisialdia

Turismoan erabilitako herri indigenei buruzko irudiek zerikusi handiagoa dute nazioarteko turismoak edo Hollywood-ek (Curchill, 1992) sorturiko estereotipoekin (Riverwind, 2007). Auzi honek berebiziko garrantzia du irudiari jarraitzen dion mundu batean, nolako irudiak halako turistak erakarriko dituelako. Argi dago egon badaudela bertako kulturentzat benetako etsaiak izan daitezkeen irudiak. Kanpoan saltzen den irudiaren kontrol-galtze honen testigantza eskaintzen digu Das-ek (1998) turismoak Sri Lankaren irudia homosexualen paradisu gisa bultzatu egin duela kritikatzen duenean. Beste ondorio bat turismoak sorturiko arrazismoa izango da. Beltz kolorekoa arbuiatu egiten den bitartean, zuri kolorekoa goraipatu egingo da. Beraz, tradizioa berraldatu egiten da eta Sri Lanka saltzen duten argazki eta bidaia-katalogoetan azal argiago duten pertsonak erakutsiko dira.

Honelako portaerekin euren burua eta kultura aurkezteko eskubidea bortxatu egin da (Alia eta Bull, 2005). Euren kulturatik zer eta nola erakusten den kanpotarrek erabakitzen dute. Modu horretan euren irudiaren gaineko kontrola galdu egiten da. Turistari moldaturiko gezurrezko errekreazio kultural honetan, ezer gutxi adierazten zaie turistei, gaur egun, herri indigenek bizi duten errealitateaz, arazoez eta gaur egungo egoeraz. Ostera, jarraitu egiten da irudi «tradizional» bat eskaintzen, modernotasunarentzat harrigarriago gertatzen diren berezitasun kulturalak azpimarratuz.

Turismoaren eraginez, arrotzen moduek sarrera izango dute eta gizarte-egituraren krisialdia sortzen da, euren inguru, kultura, ekonomia zein gazteei asko eginez, batik bat min. Gazteek jasoko dute nortasun-krisia eta euren burua ohikoaren eta berriaren artean harrapaturik aurkituko dute. Gainera, turismoak sorturiko ekonomian sartu egiten dira, baita turismoaren inguruan sorturiko gaizkile ekonomian ere.

4. BIOPIRATERIA: ALTXOR BERDEAREN BILA

Chambers-ek (1983) Ohiko Jakinduria (OJ) sistema orohartzailea dela dio. Bertan kontzeptu, sinismen eta pertzepzioak aurkituko ditugu, baita herrien jakinduria mantentzeko, pilatzeko, eskuratzeko, handitzeko eta igortzeko sistema bat ere. Gainera, OJk berebiziko garrantzia izan du orain arte munduko biodibertsitatea mantentzeko, eta etorkizunean ere ezinbestekoa gertatuko da (Sinngh, 1997).

OJ zertan datzan antzemateko hobe dugu hura Mendebaldeko ezagupen zientifikoarekin kontrajartzea (Semali eta Kincheloe, 1999). Ezagupen zientifikoa eskuragarria da, liburu zein beste euskarrien bitartez, munduko edozein bazterrean komunikatzeko edota irakasteko erraza izanik (Seini, 2003). Nekazarien jakinduria, ostera, ez da arrotzentzat eskuratzen erraza, literatura etnografikoan. Kode antropologiko itxian aurkituko dugun informazioa da, estudiatuz bakarrik eskura daitekeena (Warren, 1989). Aukera bakarra, nekazaritza inguruan egitea, bertan behaketa eginez eta bertakoen irakaskuntza-sistemak erabiliz, soilik ikas daiteke. Toki zehatza izate honek bere abantailak eta mugak ditu. Azken boladan, tokian tokiko ekosistemei loturiko ezagupena kulturen iraupenerako argudioa bihurtu da. Beraz, OJren abantaila toki batean beha daitekeen horretan aurkituko dugu. Bertako herrientzat garrantzitsua izanik, euren bizitzak era zuzenean baldintzatzen dituen informazioan du oinarria. Warren-en (1994) iritziz, OJk ingurumenaren funtzionamenduari buruzko ikuspegi sistemiko eta orohartzailea eskaintzen digu. Ezagupen-sistema honek dimentsio asko ukitzen ditu: linguistika, medikuntza, psikologia klinikoa, botanika, zoologia, etnologia, ekologia, nekazaritza, abeltzaintza eta artisautza, besteren artean (Shahidullah, 2007).

Adibidez, medikuntzan, osasun-aditu indigenak medikuntza modernoaren periferian ari dira euren eginkizuna burutzen. Arrantza, baso-kudeaketa, ur-baliabideen kudeaketa eta aberezaintzan ere tokiko aditu asko aurki daitezke, abilezia handia eta informazio egokia dutenak izanik. Aditu horiek burutzen dituzten lan asko zientifiko modernoek egiten dutenarekin dute antza: eurek berezitu, izena eman, inguruan daudenak kontuan harturik deskribatu, klasifikatu, behatu, konparatu, aztertu, esperimentatu egiten dute eta aurreikuspen-lana egiten saiatzen dira (Chambers, 1983).

Brundtland txostenak, (1987) herri indigenek euren ingurumena mantenduz munduko aniztasun kulturala eta biologikoa sostengatzeko egindako kontribuzioa onartzearekin batera, herri indigenen ekosistemen balioa eta ohiko jakinduriaren garrantzia aitortu zuen. Mendeetan zehar, euren ohiko kulturen balioa ukatuta ikusi ondoren, lehenengo aldiz, bai herri indigenek bai euren kulturei nahiz naturarekiko harremana ulertzeko moduari balioa nola aitortu zaien ikusiko dugu. Munduko zientifikoen artean OJrekiko dagoen interesaren lekuko da.

Garapen iraunkorra lortzeko OJ ezagupen zientifikoarekin modu sinkretiko batean konbinatuz gero, herri indigenen eta munduko gizarte guztien onurako izan daitekeela uste dute askok. OJk Mendebaldeko zientziak teknika iraunkorragoetara jotzeko ahaleginean lagundu dezake eta industria bioteknologikoak lortu dezakeena handitu, erraztu eta arindu.

Aitorpen honekin, bat-batean, indigenak garapen iraunkorraren aurreko lerroa eta ekologismoa gorpuztu eta erakutsi dezaketen kulturak bihurtu dira askorentzat. Miguel Alfonso Martinez-ek (1999b), ironiaz, aldi berean modernotasunaren

aurreko eta osteko (pre-post modernos) bihurtu dituztela dio. Horrela da garapenaren esparruan ari diren teoriko eta praktikoek ez baitute oraindik asmatu non kokatu eta zelan jokatu haiekin. Orain iraunkortasuna lortzeko ahaleginean bertako kultura aldagai independentetzat onartzea eskatuko zaie. Aldagai etniko baten existentzia onartze honek aldaketa ekarriko du garapen-plangintzan eta teorian.

Gauzak horrela, estatuek biodibertsitatearen gaineko ustiaketa-baimenak eman ditzakete beste edozein baliabiderekin gertatzen den bezalaxe. Egoera berri honek sekulako mehatxuak eta aukera berriak sortzen ditu herri indigenentzat.

4.1. BBK: erauzketa-markoa ezartzen

Munduko biodibertsitateari eusteko zein garatzen ari den bioteknologia-rentzat OJk daukan garrantzia argi eta garbi gelditu zen Biodibertsitateari buruzko Konbenioan. 1992ko maiatzean Nairobin izandako «*Convention on Biological Diversity*» delakoan, 1992ko ekainean *«UN Conference on Environment and Development»* Rio de Janeiron, eta, azkenean, 1993an sinaturiko Biodibertsitateari Buruzko Hitzarmenean (BBK) biodibertsitatea zein bertan aurkitzen diren baliabide bioteknologikoak kontserbatu egin behar zirela baietsi zen. Biodibertsitatearen ardura guztion ardura dela onartu zen, nazioen erkidegoak nahiz nazio bakoitzak banaka burutu behar duten betebeharra. Konbentzioaren garrantzia berebizikoa da: 1) lehenengo aldiz jorratzen da biodibertsitatea espezifikoki, eta lehenengo aldiz ere, mundu mailako hitzarmen baten muinean aurkitzen dugu. Eta lehenengo aldiz ere, biodibertsitatearen iraupena gizateria osoaren ardura dela onartzen da; 2) teknologia eta bioteknologia ukituz alderdi guziak besarkatzeko gogoa erakusten du eta herri txiroei laguntzeko mekanismoak martxan jartzeko konpromisoa erakutsi.

Konbenio horrek biodibertsitateari eta haren sostenguari buruzko informazio egokiena Hegoaldean dagoela diosku. Gauzak horrela, BBKk biodibertsitatea mantentzeko, kooperazioa eta informazioa trukatzeko nahiz etekinak konpartitzeko markoa eskaintzen du. Gainera, BBKk bultzatu egiten du biodibertsitatearen babesa eta baliabide ekologikoen erabilera iraunkorra. Hain konplexu eta arlo anitzekoa izanik, eginbeharreko zehatzak nazio mailan, are gehiago, udal mailan burutu beharko dira (IUCN, 1994). «*In situ*» egindako kontserbazioaren garrantziak ez die herri indigenei euren baliabideen gaineko kontrola ekarri. BBKren bidez, ordura arte gizateriaren jabegoa zen munduko biodibertsitatea estatuaren jabegoa soilik izatera pasatuko da. Are gehiago, estatuaren lurraldean dagoen biodibertsitatea ustiatzeko eskubidea estatuarena dela esaten da, eta ez beste inorena. Hainbat aldiz gertatu den moduan nazioarteko erkidegoak estatuen eskuetan jartzen ditu biodibertsitatearen gaineko jabetza, eskubideak eta erantzukizunak. Herri indigenek 8j artikuluan errekonozimendua lortzen badute ere, ez dute inolako eskubiderik lortzen estatua nagusi duen eskema honetan.

4.2. Biolapurretarako lasterketa

1992tik aurrera biodibertsitatearen garrantzia onartzearekin batera, ohiko jakinduriarekin loturiko lapurreta eta baliabide bioteknologikoen kontrola bultzatuko dira. Ingurumenari aplikaturiko betiko zapalkuntza eta erauzketa-teknikak zelula eta kate biologikora eraman dira. Kolonialismo berri honen oldartzeak kolokan jarriko ditu orain arte bizirik iraun duten herri indigenak, haien nortasuna, instituzioak eta balioak erasotu dituelako eta, gainera, ezin imajina daitekeen arazo konplexua jarri die aurrean.

1992an onarturiko garapen iraunkorraren (GI) kontzeptuak garapen-prozesua, neurri apal batean, birbideratzeko balio izan badu ere, honi loturiko kolonialismoa agertu da azken hamarkadan: urre berdearen egarria duen ekolonialismoa, alegia. Kolonialismo berri honek, bioteknologiak aurrera egiteko ezinbestekoak diren gaien gaineko kontrola ziurtatu nahi izango du. Aitorpen horrek indigenen lurraldeetan dagoenari balio ekologikoa suposatzeaz gain, balio handiko etekinak atera daitezkeela suposatzen du Iparraldean indartsu den industri bioteknologikoarentzat.

1995ean Alemanian, Frantzian, Italian, Espainian, Britaina Handian eta Holandan saldutako belar-botikak 7 bilioira heltzen dira (Gupta, 2000: 64) eta merkatua handitzen ari delako bioaniztasun-mendekotasuna areagotzen ari da. Bermejok (2001) 1997an botika-produktuen % 40 belarretatik ateratzen dela gogoratzen digu eta horren balioa 120.000 milioi dolarrekoa dela esan.

Jokoan dagoena horren handia izanik, eta bioteknologiaren beharrei hobeto erantzuteko asmoz, etnofarmakologia delako zientzia berria sortu da (Elisabetsky, 1991). Etorkizuneko botikak eta medikuntza garatzeko diziplinen arteko azterketa zientifikoa egingo duten adituak prestatzeko. Ohiko kulturek landareei eta ekosistemari buruz duten ezagutza sakona aprobetxatuz, sektore honetako industriek euren lana hobetu, prozesua arindu eta kostuak jaitsi egin dituzte, aberastasun handia sortuz.

Bioteknologiak hain beharrezko duen germoplasma pilatzeko, biodibertsitatearen sekretuak lortzeko, biobilaketa (*bioprospecting*) delakoari ekin dio. Horretarako, tokian tokiko beharrezko aleak eskuratuko dituzten unibertsitate edo GKE-ekin elkarlanean arituko dira. Lan modu hau 60ko hamarkadan AEBko gobernuko erakundeak zertzen hasi ziren Nigerian ohiko sendakuntzan erabilitako landareak aztertzean (Gupta, 2000). Multinazionalen artean Merck & Co., Smithkline Beechcam, Monsanto, Sterling eta Bristol Meyers aurkitu ditzakegu (Daes, 1997: 13-14). Biobilaketaren ahalegin nagusia medikuntzarekin loturiko gaietan kontzentratu da. Aniztasun biologikoaren eta XXI. mendeko medikuntzaren arteko harremana maisuki erakutsi dute Chivian eta Bernstein-ek (2008). Haien lanean harreman horri osasun-zientzien ikuspegitik heltzen diote, eta sakondu egiten dute Colfer-ek (2008 eta 2006) eta Chivian-ek esandakoa (2002). Zientzialariek orain baieztatu egin dute indigenenek erabilitako hainbat botika eta sendagairen balioa, eta horrek multinazionalen interesa erakarri du.

Gainera, Daes-ek gogoratzen duen bezala biobilaketa indartu egin da 1986tik aurrera, batez ere HIESA agertu ondoren, Mendebaldeko nazioek dituzten gaixotasunak sendatzeko egiten delako nagusiki, minbizia edo bihotzeko gaitzak, beste batzuen artean (Daes, 1997: 98). Biobilaketa-taldeak diziplinen arteko adituek osatzen dituzte, eta bertan ez dira abokatuak falta. Biobilaketan, belargileak helburu nagusia izaten dira. Tokian tokiko jakintsu horiek, populazio, ingurumen eta mundu espiritualaren arteko orekaren jagoleak dira kultura indigenarentzat. Kanpotarrentzat, aldiz, biodibertsitatea mantentzeko zer egin behar den eta ekosisteman dagoena zertarako erabili hoberen dakitenak dira. Lehen Munduko botanikoek, zoologoek eta beste hainbatek onartu egiten duten Hirugarren eta Laugarren Munduko biodibertsitatea estudiatzerakoan, hobe dutela jakintsu indigena bat erabiltzea, denbora eta energia euren kaxa gastatzea baino (Simpson, 1997). Geroxeago, germoplasma eta bertan dagoen informazio genetikoa identifikatu ondoren, mundu garatuaren laborategietara eraman eta bertan prozesatu ondoren, garrantzizko printzipio aktiboak isolatu eta hauen gainean egindako balio handiko produktu berriak aterako dituzte (Kloppenburg, 1991).

Pilaturiko informazioarekin Iparraldean dauden gene-bankuak ondo hornitzea eta ondorengo ikerketarako beharrezkoak diren gaiak eskuragarri izatea posible egingo da. Informazio genetikoaren pilaketa honetan herri indigenek ez dute inolako etekinik, informaziorik edota aurrerapen teknologiko edo laguntza medikorik jasotzen. Herri indigenen lurretan dagoen bioinformazioaren lapurreta honi biopirateria esaten zaio (RAFI, 1995).

Erakunde ekologistak ere parte hartzen ari dira biopirateria-saiakera honetan, askotan GI diskurtsoa erabiliz, baina herri indigenei ezer gutxi emanez (Jhonston, 1999). Gene-bankuak, *«in situ»* dagoen biodibertsitatea mantentzeko eta eskuratzeko aldizkako bide bat izanik, behar-beharrezkoak gertatzen dira bioteknologiarentzat. Industria horrek garatzeko ezinbestekoa du abere, landare eta hazien germoplasma izatea produktu berriak garatu ahal izateko. Gene-bankuetan, aleak kontrolpeko tenperatura eta hezetasuna duten eraikuntzak daude eta bertan material genetikoa pilatu eta mantendu egingo da, hobekuntza eta ikerkuntza prometan erabili arte. Gene-banku hauek hornitzeko mota guztietako germoplasma bilatzen eta pilatzen ari dira munduko hainbat gobernu, unibertsitate, GKE, multinazional eta nazioarteko erakunde.

Zalantzarik gabe, kolonialismo berri baten aurrean gaude. Biobilaketak eta ekokolonialismoak bultzaturiko eskema honetan: 1) jakinduria eta germoplasma erauzi egiten dira; kontrola galtzen da eta bizitzarako, osasunerako nahiz ekonomiarako beharrezkoak diren baliabideak galtzen dira eta lurrak zein baliabideak desjabetzeko presioa areagotu egiten da; 2) jakinduriarekin loturiko sakratuaren zentzua eta nortasunaren galpena; eta azkenenoz 3) ezagupena, bioteknologia eta natur baliabideak produktu bihurtzen dira, OJk daukan osotasuna eta elkarketa apurtu egiten da, kanpokoekin harreman esplotatzailea hasten da, antzeko harremanak

sortuko dira komunitateren barnean eta, azkenekoz, natur baliabideen birrintzea eta biodibertsitatearen galera gertatuko da (Colchester, 1995: 5).

Erbeste-ekintza indigenaren historia laburra 1975-2007

1. NAZIOARTEKO AKTORE BERRIA: AURREMODERNOA ALA POSTMODERNOA?

Aurreko kapituluetan erakutsi dugun moduan, herri indigenen konkista eta kolonizazioak, bereziki XIX. eta XX. mendeetan gertaturikoa, herri indigenen «domestikazioa» (Martínez, 1999) ekarri zuen. Domestikazioak zera dakar: historian zehar hainbat hitzarmenetan naziotzat aitortutako herriak, esate baterako irokesak (Woo, 2003), nazioarteko agertokitik desagertu egiten direla (Anaya, 1996), eta estatuen menpeko izatera pasatu. Hau prozesu konplexu eta etengabea da, gehienbat XIX. mendean gertatu zena, baina munduko herri indigenekiko diskurtso nagusi eta praktika nagusiaren parte izatera helduko dena (Tilley, 2002). XIX. mendean Ameriketako indigenei aplikaturiko estigma munduratu egiten da eta bihurtu egiten da orduko nazioarteko gizartean baztertzeko irizpide (Daes, 1996). Horren arabera, erabateko aitorpen politikoa eta nazioarteko zuzenbidearen onurak eta babesak bakarrik errekonozituko zaizkie «nazio zibilizatuei» (Del Arenal, 2001-2002). Eskubide guztiak dituen «gizarte zibilizatu» eta ia eskubiderik gabeko munduko «basati»en arteko ika-mika. Orain dagoen «West» eta okzidentalizaturiko estatuen sorta (193 estados), «Rest» (Laugarren Mundua eta gutxiengo nazionalak) delakoaren aurka. Zibilizatuen eta basatien arteko haustura erradikal hori herri indigenek pairatu duten nazio-eraikuntza eta zabalkunde kolonialen prozesuen mamian aurkituko da, baita hauei loturiko XX. mendeko garapen-politiken barruan ere. Halaber, II. Mundu Gerraren nazioarteko gizartearen muinean aurkituko dugu. Gerra osteko deskolonizazioak mugarri historiko bat ezarri zuen, neurri batean estatuen nazioarteko gizartearen humanizazioa eta unibertsalizazioa gertatuko da.

Gure ustez, aipaturiko unibertsaltasun hau ez da ez zuzena ez osoa, estatuak bakarrik hartzen dituelako aintzat. Estatuen ordena da, estatuek sortua estatuentzat, eta estatuak jarraitzen du erreferentzia nagusia izaten. Laugarren Munduaren agerpena estatu eta estatu gabeko herri indigenen arteko berdintasun ezaren printzipioak jartzen ditu mahai gainean. Era horretan gaur egungo nazioarteko gizarte heterogeneo eta konplexua gertuago egongo litzateke aldarrikatu duten unibertsaltasun erreal horretatik. Hau da nazioarteko gizartearen unibertsalizazioa Laugarren Munduak bere deskolonizazioa burutu eta nazioartean toki propioa lortzen duenean gertatuko da.

Gauzak horrela, Laugarren Munduaren existentziak arazo interesgarri bat planteatzen digu herri indigenen nazio-aktoretzari buruz: «agertu berri diren aktore berriak» edo «itzuli diren aspaldiko aktoreak». Beste kasuetan ez bezala, Laugarren Mundua osatzen duten herri asko iraganean gizarte osoak eta independenteak ziren, euren gobernu-egitura propioak zituzten, lurralde zehatz eta populazio jakin batekin, eta izan bazuten, ongi erabili zutelako, «estatu zibilizatuekin» nazioarteko harremanak izateko gaitasuna. Baina, estatuek eragindako domestikazioa zein euren borondatez soilik inposaturiko «nazio independenteak» kategoria indargabetzeko ahaleginak, nahiko al dira euren izate politikoa eta historikoa desagerrarazteko? Eta izate horri dagozkion eskubideak indargabetzeko? Geuk ezetz uste dugu, eta horrekin bat egiten dugu herri indigena askorekin eta Laugarren Munduarekin.

Nazioarteko gizarteari buruz eta berorren zilegitasun eta moraltasunari buruz planteatzen zaizkigun galdera hauek munduko elite guztiek erdietsi nahi duten modernitatea, aurrerakuntza eta justizia gaurko egunean nola gauzatzen diren birpentsatzera garamatzate. Laugarren Munduak helburu duen basatiaren gizatasunak interpelatu egiten gaitu, argi erakutsiz beharrezkoa dela nazioarteko ordenaren eta justiziaren artean oreka ezartzea (Martínez Bringas, 2006). Garcia Segura-k (2005: 65) honako hau funtsezko gaia dela diosku.

Beraz, testuinguru honetan baieztatzen dugu Laugarren Munduaren garrantzia, nazioarteko aktore berriak izanik, inportantzia handiagoa duelako gaur egungo nazioarteko gizartea hobetzeko egindako kontribuzio kritikoaren bidez. Hark egindako kritika Del Arenal-ek (2002) esandako ildoari jarraitzen dio, argi erakutsiz gaur egungo sistemak bere barnean duen injustizia, esklusioa eta dependentzia.

Gure iritziz, herri indigenek pairaturiko okupazio eta domestikazioak ez dakar haien desagertzea entitate subirano gisa, ez dutelako amorerik eman eta erresistentzian jarraitu dutelako, nahiz eta nazioarteko gizartean ikusezinak bihurtu. Beraz, aktore pre-post moderno baten itzuleraren aurrean gaude, ala, benetan aktore berri baten agerpenaren aurrean? Biak elkartzen dira Laugarren Munduen, baina ez gaude herri indigena batek indibidualki egindako saio baten aurrean, 1923ko irokesen kasuan legez, ez, kasu honetan aktore-izaera pan-indigena duen aktore kolektibo berri baten aurrean gaude. Horrek esperientzia indigena mundu mailan zabaldu du, indigenak bizi diren estatuen zilegitasuna kolokan jarriz, eta, aldi berean, nazioarteko erkidegoarena.

1.1. Paradiplomazia indigena

Nazioartean diplomazia klasikoa praktikatzen duten aktore westfalianoak aritzen diren aktoren berrien existentziak hauek burutzen duten ekintza motaren izena planteatzera garamatza.

Gure proposamena paradiplomazia hitza erabiltzea da, nahiz eta jakin oso eztabaidatua izan den izena dela, eta deitura horren azpian aktore askotasun ikaragarria

dagoela, bertan biltzen direlarik estatua ez diren asko eta asko. Soldatos-en arabera (Aguirrek aipatua, 2003: 207) paradiplomaziak paraleloari, konplementarioa denari, batzuetan estatuen diplomaziarekin topo egiten duenari erreferentzia egiten dio. Izen hau 80ko hamarkadan agertu zen.

Izendapenak duen kutsu paralelo honek sortzen du kezka eta kontzeptuaren bikoiztasuna salatzen duten eztabaidak sortu ditu. Horrek esanahiaren egiazkotasuna planteatzera garamatza. Argitzeko behar hau are nabariagoa egingo zaigu paradiplomaziari buruzko bibliografia gehiena Gobernu Zentral ez diren Gobernuetan zentratzen delako, eta sistema federalei egiten dienean erreferentzia (Kanada, AEB, Mexiko, Alemania, etab.), gehienbat nazioarteko sistemari dagokion neurrian sistema hauetan gobernu zentralen eta periferikoen artean sorturiko tentsioak aztertuz (Cornago 1999; Keatin 1999; Aldecoa 1999). Kritika gehienak dauden kasuetan azpimarratu egiten duten aktore zentral hauek gobernua ez direla. Gehienetan ez dagoelako estatuko gobernuarekin benetako gatazkarik, salbuespena Québec izanik. Estatuari egindako erreferentzia hau Soldatos eta Dechacek-en lanetan era aurkitzen da. Egile horien aburuz, paradiplomaziak nazioarteko ekimen deszentralizatu bati egiten dio erreferentzia. Hori ona, osagarria eta estatuarentzat arrisku gabea litzateke. Ostera, onartzen dute beste ekimen bat dagoela, deszentralizatua izanik ere, gatazka-sorburua eta estatuentzat arriskutsua dena; azken honi protodiplomazia deitu diote eta independentzia izango luke helburua. Argi dakusagunez, berriz ere aktore diplomatikoen ekimena baldintzatzen duen erreferentziazko kontzeptu gisa.

Paradiplomazia estatuari lotuta ez dagoela dioten kritikoen artean Der Derian-ek (1987) ondokoa diosku: gobernuz kanpoko eta paraleloa dela estatuen diplomaziarekin aldenduz gero. Haren iritziz nazioartean buruturiko ekimen mota hau estatua ez diren aktoreek gauzatzen dute. Kategoria honetan nazioarteko enpresak, langileen nazioarteko erakundeak, erkidego etnikoak, linguistiko eta erlijiosoak, GKEak, nazioarteko komunikabideak, zientzialarien sareak eta gizabanakoak sartzen dira. Aktore hauek bitartekaritza burutzen dute elkarrengandik urrun dauden errealitateen artean (*estranged*). Gainera, honek ez du Soldatos eta Dechacek-en protodiplomaziak duen kutsu subertsiboa, ez baitute helburutzat diplomazia eta nazioarteko ordenaren eraldatzea. Baltasar (1999) bat dator planteamendu honekin, eta azpimarratu egiten du paradiplomazia eta protodiplomazia bereizteko beharra, baita ere, diplomazioa mota honek duen garrantzia aitortzea, subiranoa ez den entitate batek ez baitu estatu subirano osoa helburu.

Hau guztia esan ondoren, uste dugu paradiplomazia dela izendapenik egokiena. Laugarren Mundua ez baita gobernuaren egituraren zati eta aktore berria dugulako, batzuetan gatazkan baina gehienetan osagarria den ekimena deskribatuz. Aguirre-k (2003: 221) bat egiten du ikuspuntu honekin eta zera baieztatu, Laugarren Mundua/ Herri Indigenak paradiplomazioa kasu garbi-garbia dela. Horrexegatik esan daiteke Laugarren Mundua dela mugaz gaindiko mugimendua, pan-indigena, berria,

izaera erreformista duena, paradiplomatikoa eta ez protodiplomatikoa, eta aktore ezberdinekin harremanak dituena

Izan ere, «gobernuarena ez den diplomazia» da, batzuetan estatuen gobernuekin aritzen dena, beste batzuetan Gobernu ez Zentralekin: hau da harreman biziak ditu nazioarteko gizarte zibileko kideekin, eurengan ondorioak dituzten gaiak tratatzen dituzten nazioarteko erakundeetan, enbaxadekin sarritan kontaktuak dituzte, eta nazioartean propaganda zabaltzen dute Laugarren Munduaren errealitatea eta arazoak erakutsiz. Hau guztia egiten dute giza eskubideen babes-erregimen bat erdiesteko eta nazioarteko gizarteak kidetzat onartua izateko.

Hau esan ondoren argi utzi behar dugu Laugarren Munduak sarritan erabili dituela estatuen sinboloak eta propioak diren diskurtsoak (herri berezi batzuen ordezkaritza, gainera kasu batzuetan errekonozituak zirenak), baita diplomaziarenak (berezko pasaporteak, aldarrikaturiko hitzarmenak) ere. Niezen-ek (2003) horrelako berezitasunak azpimarratzen ditu, zeinek nazioarteko beste aktore batzuengandik bereizten baitute Laugarren Mundua.

2. HISTORIA ETA MUGARRI NAGUSIAK

2.1. Aurrekariak

Nazioarteko joko politikoak aspaldidanik baldintzatu ditu herri indigenen eguneroko errealitatea eta jokaera. Europarrek suposatzen zuten mehatxuari aurre egiteko herri indigenen arteko batasuna ezinbestekotzat zela aurreikusten zutenen artean Miantomonoren kasua dugu aipagai. Berak argi asko ikusi zuen herri eta kultur iraupena lurraldearen gaineko kontrolari lotuta zegoela eta horretan zetzala europarrekin izandako gatazka (Cronon,1983: 163).

Diplomazia indigenaren adibideak Ipar Amerikan XVIII. mendean gertaturiko frantses eta ingelesen arteko gerretan aurki ditzakegu aisa (Dowd, 2005). Garai horietan irokesek lortu egin zuten nazio-tratamendua izatea eta XVIII. mendean sarritan joan ziren Paris edo Londresera diplomazia egitera (Schneider eta Furmanski, 1992; Cooper, 2004). Ana erregina (1710), George II.a (1730) eta George III.arekin (1762) bildu eta bakezko eta anaitasunezko itunak sinatu zituzten (Dowd, 2005). Errepublika berriak sortu aurreko garai horretan aipamena merezi du Pontiac-en kasuak, bera saiatu baitzen mugimendu pan-indigena bat sortzen kolonizatzaileei aurre egin ahal izateko (Middleton, 2006)

3. kapituluan aipatu dugun moduan, AEBko errepublikaren sorrerak Britaina Handiak sinaturiko hitzarmenen indargabetzea ekarri zuen. Britainiarren alde eta estatu berriaren aurka borrokatu zirenen artean eta pan-indigenismoaren aurrekaria dugu Tecumseh (1768-1813), shawneen aitzindaria. Tecumseh-k XIX. mendearen lehen urteetan euroamerikarrei aurre egiteko konfederazio indigena zabala egiteko proposamena egin eta helburu horri dedikatu zion bizitza.

Nazioarteko ikuspuntu batetik hau da erkidego pan-indigena sortzeko aurrekaririk interesgarriena. Tecumseh-k bateratu egin baitzituen euroamerikarrei aurre egiteak sorturiko genozidioa eta beroni aurre egiteko aliantza pan-indigena sortzeko beharra. Gainera, Bretainia Handiarekin elkartu zen AEBko aurka egiteko 1812ko gudan. Haren asmoak aurrera egin izan balu, suposa zezakeen AEB erdi-ekialdean estatu indigena baten sorrera (Hall, 2003) baina britainiarren traizioak ezinezkoa egin zuen asmo hori. Tecumseh-ren oroimena AEBko indigenenentzat eta Laugarren Mundukoentzat erreferentzia bat da.

2.2. XX. mendean: herri indigenak irauteko borrokan

XIX. mendearen amaieran eta XX. gizaldiaren hasieran ikusiko ditugu euren egoera zuzentzeko nazioartera jotzeko lehenengo ahaleginak. Sanders-ek (1980) dioskunez, maoriek 1882, 1884, 1914 eta 1924an saiatu egin ziren Bretainia Handiko errege-erreginekin batzartzen kolonietako gobernuekin zituzten auzietan bitartekaritza burutzeko. 1909an British Columbiako nishga herriak jo zuen Britainia Handiko erregearengana bere bitartekaritza edo *Judicial Comite of the Privy Council* delakoarena lortzeko, azken hori Inperio Britainiarrean zegoen azken eta gorengo apelazio-gortea zen. Kasu guztietan ahaleginek huts egin zuten, etxera itzultzeko eta euren arazoak bertako gobernuekin hitzartuz konpondu zitzatela esan zitzaien. Adibide hauek, kale egin bazuten ere, jomuga bihurtu ziren geroxeago Laugarren Mundua bihurtuko zen horrentzat, erakutsi egin zutelako hirugarren instantzia baten aurrean eztabaidatu zitezkeela gaiak, eta horiek aliatu potentzialak izan zitezkeela, kasu hoberenean, edota txarrenean tokian tokiko gobernuak baino ulerkorragoak.

XX. mendearen lehenengo hamarkadetan herri indigenen borrokaren ardatz nagusia lokala bazen ere, Nazioen Ligaren jaiotzarekin batera nazioarteratzeko lehenengo ahaleginak ikusiko ditugu. Ligaren sorkuntzaren inguruan zegoen proposamen idealistak herri indigenen interesa erakarri zuen. Bertan bakea sustatzeko eta nazioarteko zuzenbideak gidatuko zuen ordena berria eraikitzeko gogoa plazaratu zen. Horretaz gain, autodeterminazioari buruzko Wilson presidentearen proposamenaren 5. artikuluak indigenen arreta piztu zuen.

Ligaren sorreran gutxiengoen auzia garrantzi handikoa izan zen, eta argi zegoen honelako egoerak konpontzeko prozedura bereziak ezarri behar zituela nazioarteko erkidegoak. Horretaz jabetuta, 1923an Chief Deskaheh irokesak eta Chief Ratana maoriak, negoziazioa eta hitzartutakoari errespetua indigenek mantenduriko aspaldiko printzipioak izanik eta euren hitzarmenak nazioartekoak zirela mantenduz Genevara jo zuten (Schneider eta Furmanski, 1996). Bertan Haudenosaunee aitzindaria zen Deskaheh-k bi urte eman zituen lobbya egiten (Delgado *et al.,* 1996: 2). Ekintza honekin hasi zen XX. mendean herri indigenek egindako lehen ekintza paradiplomatikoa. Deskaheh-ri, batez ere Holandako gobernuak, baina baita ere Irlanda, Estonia, Panama eta Persiako gobernuek baietza eman zioten, baina Britainia Handiak ezetz biribila. Lehen Mundu Gerratik ateratako botere nagusietariko bat

izan zen Britainia Handiak indigenen arazoak arazo domestikoak zirela, eta ez nazioartekoak, inposatu zuen (Khosravi, 2006).

Beraz, Ligak ez zuen haien aldeko erabakirik hartu. Nazioen Ligak indigenekin loturiko auziak «barne-arazo»tzat kontsideratzea erabaki zuen. Izan ere, 22. artikuluan indigenak nazio aurreratuen erantzukizunaren eta babesaren pean gelditzen zirela aldarrikatu zuen Nazioen Ligak, *«sacred trust of civilization»* (Clavero, 1994: 23) deklaratuz. Argi gelditu zen Wilson-ek aldarrikaturiko autodeterminazioa eta gutxiengoei omen zegokien babesa Europan bizi ziren taldeei soilik aplikatu zitzaiela.

Estatuen artean lortu ez zuten arrakasta, Suitzako gizarte zibilarekin eta botere lokalekin lortu zuten (IITC, 1997). Baina gobernuekin zuten gatazka konpontzeko, euren hitzarmenak balioztatzeko ahaleginean, nazioarteko gizartearen laguntza eta bitartekotza lortzeko ahaleginak alegia, porrot egin zuen. Hala ere, porrot politikoa mugarri sinboliko bihurtu zen eta erreferentzia. Mezuaren burrunba indigena askorentzat inspirazioa izan zen. Harrezkero, nazioarteko arautegia eta gobernua sortu nahi zuten erakundeetan parte hartu behar zutela ikusi zuten indigenek.

II MG osteko testuinguruak ez zituen gauzak asko aldatu. Aliatuen printzipioak biltzen zituen eta NBEren Kartaren aurrekaria den Atlantic Charter delakoak autodeterminazio-eskubidea eta deskolonizazioa bultzatzeko deliberoa erakutsi zuen. Roosvelt-ek modu horretan Wilson presidentearen idealismoari jarraipena eman zion (Von Laue, 1987). Gainera, nazien politikaren eraginez, arrazismoaren kondena eta minorien babesa printzipio modura bultzatuko dira nazioarteko erkidego berrian (Weyler, 1984; Niezen, 2003), nazio eta gizabanako guztien berdintasuna defendatuz. Ondoko NBEren sorrera eta Giza Eskubideen Aldarrikapenak tokian tokiko mugimendu indigenen arreta erakarri zuen. Erakunde horiek testuinguru berria sortu zuten eta giza eskubideen defentsa eta promoziorako egitura berria ezarri, baita euren babesa ziurtatzeko jarraipen mekanismoak ere. Era berean, 50eko hamarkadan, eskubide zibilen eta deskolonizazioren aldeko borrokak nazioarteko garaiko ordenaren zutabeak gogor astindu zituen. Bi prozesu horiek gutxiengo etnikoek bizi zuten kultura-zapalkuntzari buruz kontzientzia berri bat sortu zuten. Beste alde batetik, asimilazio-politiken porrotak hainbat tribu eta herri batzen zituen nortasun berria loratzea ekarri zuen (Minde, 1999; Jull, 1998; Niezen, 2003).

Hala ere, 50eko hamarkadan indigenek ez zuten lortu nazioarteko erakundeen aldetik inolako aitorpen berezirik. Mende honetan, bigarrenez, nazioarteko legearen babesak kanpo utzi zituen indigenak, eta koloniek bizi zuten arazoaren konponbiderako autodeterminazioa agintzen zen bitartean, indigenentzat garapena defendatzen zen, Latinoamerikako estatuek horrela aldarrikatuta (Rodríguez-Piñero, 2005). Aipaturikoa gertatzen zen bitartean, hopiek nazioarteko testuinguru berrian giza eskubideen eremuari loturiko aukera berriak zabaltzear zeudela ikusi eta berauek aprobetxatzeko borondatea agertu zuten. Hopiek 1950ean Truman presidenteari euren eskaerak eta salaketak NBEra eramateko abisua egin zioten (Weyler, 1984: 213).

2.3. Indigenismo gizatiarraren hamarkada

Laugarren Munduak tokian tokiko estatu, erregio eta kontinenteetako erakunde, gobernu zein gizabanako indigenak biltzen ditu bere baitan. Laugarren Mundukoak mugimendu etniko handi bateko kide dira nazioarteko politikan parte hartzeko, euren artean kontaktuak dituzte sarri askotan, eta nazioarteko eremuan, NBEn bereziki, modu koordinatuan borrokatzen duten nortasun-agenda komuna garatu dute.

Prozesu honen guztiaren hasiera 60ko hamarkadan aurkituko dugu mundu mailan emandako borrokei jarraituz eta, batez ere, giza eskubideen eta eskubide zibilen alde zein arrazakeriaren kontra gertaturiko borrokei jarraituz. Ezin dugu ahaztu 60ko hamarkadako mundu-ekonomiak edo lasterketa militarrak beharrezkoak zituzten baliabide estrategikoak lortzeko mundu mailako lasterketa egon zela. Hori dela-eta, herri indigenen eskubideen defentsa gehienbat lurraldearen inguruan, erreserba edo «*ayllu*»-aren inguruan kokatuko da. Lehenengo munduko indigenek kulturaren defentsan eta arrazakeriaren aurkako eskubide zibilen aldeko mugimenduetan inspirazioa aurkituko dute hemen (Minde, 1995). Toki horietan guztietan erakunde indigenak sortuko dira euren eskubide zibilak defendatzeko eta zeudenak indartzeko. Aldi berean, orduan bizi zen deskolonizazio-prozesua izango dute beste erreferente nagusia. Lurraren eta kulturaren defentsaren inguruko mugimendu hauetan hasi zen «gizon gorria»ren ideologia garatzen.

Hirugarren Munduan, aldiz, askatasuna lortu berri zuten estatuak garapena eta estatu-eraikuntza zabaltzeko politikak buru belarri aplikatzen ari ziren. Garapen-prozesuak bideratzen gobernu ez-demokratikoak izango ditugu nagusi munduan. Aniztasun kulturala nazio-eraikuntzaren aurkako mehatxutzat hartuz, asimilazioa zen bultzaturiko politika ofiziala. Barne-kolonialismoa, sarraski ekologikoa eta giza eskubideen bortxaketa nagusitu ziren munduko lau bazterretan, herri indigenak askotan biolentzia horren biktima zirelarik. Egoera horretan, herri indigenen saiakerak ezkerreko mugimenduei lotuta, ikasle- eta, batez ere, nekazari-mugimenduei lotuta ikusiko ditugu Hego Amerikan.

Guda Hotzaren gatibu ziren Lehen eta Bigarren Munduak proiektu erraldoiak eta azpiegitura-lana bultzatzen ari ziren nonahi. Lehen Munduan Eskandinavia, AEB eta Australia, Zeelanda Berrian eta Kanadan indigenen azken lurrak besterenganatzeko saiakerak etengabeak izan ziren. Saiakera horien aurka mugimendu indigena indartsuak sortu ziren, esate baterako Kanadan «White Paper» delakoaren aurka. Horrekin batera, deskolonizazioa izango da «gizon gorriaren ideologia» elikatuko duen beste iturria. Are gehiago, indigenek ikusten dutenean Hirugarren Munduko nazio berriak ere euren lurretan dauden baliabideen egarri direla eta nazio-estatu homogeneizatuak sortzea dutela helburu. 60ko hamarkadan desarrollismoaren hasiera markatzen da. Garapen-proiektuek eragindako genozidioak eta etnozidioak, batez ere, herri indigenen kasua nazioarteko orduko gizarte zibilaren begietara ekarri zuten eta Amazonia bihurtuko da modernotasunak eragindako sarraski

genozidaren ikurra. Amazoniak herri indigenen sufrimendua eta injustizia erakutsi zuen estreinakoz.

Hamarkada horretan hasita eta hurrengoetan areagotuta, garapen-proiektuak bitarteko Amazoniako hainbat herri indigena desagertzeko zorian egon ziren. Brasilen bereziki, hil edo biziko borroka gertatu zen askorentzat eta genozidioaren eta etnozidioaren errealitateak GKE-en ekintza piztu zuen, batez era eliza kristauekin loturikoena (Puig, 2004). Iraupen kulturala eta herri indigenen lurrak babesteko eskubidea garrantzizko auzi bihurtu zen Iparraldeko GKE batzuentzat (Coates, 1996). Haien laguntzari esker, Shuar-ek lehenengo konfederazioa sortu eta nazioarteko kontaktuak edukiko dituzte euren lurrak eta kultura defendatzeko asmoz. Kasu horretan, Shuar herriak lokarri etnikoa erabili zuen ahaidegoetan banaturiko komunitateen arteko ekintza-batasuna eragiteko. Gainera, Shuar herriak trebezi handia erakutsi zuen euren helburuak erdiesteko ahaleginean indigena ez ziren erakundeak konprometitzeko (Weiss, 2000; Stavenhagen, 1997). Shuar-ak agertzen dira askotan globalismo harrapariaren aurka herri indigenen mobilizazioa kode etnikoan burutu zuen lehenengo kasu bezala (Morris, 1992).

Hamarkada horretan, «indigenismoa», hau da, indigenak ez diren aktoreen nagusitasuna izango dugu herri indigenen eskubideen aldeko borrokan nagusi. Esker oneko antropologoak, akademikoak eta kristau-elizaren erakundeak dira protagonista. Haien ahaleginak indigenak bizi ziren estatuetan «gutxiengo» integratuak lortzeko egin ziren. Borondate oneko indigenista haiek mundu modernoaren inposaketa ekidinezina zela uste zuten, eta saiatu egin ziren prozesuaren gogortasuna moteltzen. Estatuetako erakunde bereziak, nazioarteko garapen-erakundeak, NLE eta antzekoak izango dira haien egoeraz arduratuko direnak. Hala ere, NBEn giza eskubideez arduratzen diren erakundeek ez dute indigenen ardurarik izango. Mundu mailan herri indigenen egoerak «garapen-arazoa», eta giza eskubideei dagokienez barne-arazoa, izaten jarraituko du.

Garai hartan indigena miseria gorrian bizi denaren irudiarekin lotuta ikusiko dugu gehienbat. Beraz, indigena garapen- eta ongizate-politiken «objektuak izango da. Politika hauek salbaziorako asimilazioa bultzatzen zuten eta modernotasunaren aurrean irtenbiderik ez zegoela mantentzen zuten. Gauzak horrela, eginbeharrekoa trantsizioa ahalik eta hoberen, bigunen, egitea zen.

Jarrera horri Ryser-ek (1986) «gezur izugarria» deitu dio eta konkista eta menekotasuna arrazionalizatzeko eta bultzatzeko tresna izan dela diosku. Hamarkada horretan indigenentzat gutxiengoei zor zitzaien errespetua eskatzen zen, baina errespetu hori gizabanako mailan eta estatuen ardura gisa ikusten zen. Inolaz ez herri ezberdin bati zor zitzaion errespetu gisa.

Indigenismoaren ikuspegitik indigenak euren egoera hobetzeko ekimen ezberdinen «objektuak», onuradunak ziren, baina inoiz ez subjektuak. Erantzukizun osoa indigena ez zirenei zegokien. Beraz, nazioarteko erkidegoan indigenen

«gabezia» izango dugu nagusi. Euren arazoak tratatzen direnean, indigena ez direnei zuzenduriko programen barruan aurkituko ditugu indigenak. Mundu indigenari buruzko informazioa indigena ez direnen eskutik helduko zaigu (Gonzalez, 1998).

Nortasun propio baten gabezia Lehenengo, Bigarren nahiz Hirugarren Munduko estatuek martxan jarritako politika eta ekimen politikoetan ikusi daiteke. Indigenak indigena ez direnek definituriko helburuak lortzeko bitartekotzat izango dituzte.

2.4. Mundu mailako mugimendu baten hasiera

Hamarkada honetan gauzak dezente aldatuko dira eta «askapen-objektu»en matxinada isila jarriko da abiadan.

Aurreko hamarkadan hasitako errebindikazio-prozesuak sendotu eta «gizon gorria»ren ahotsa nazioartean urratsez urrats aurrera egiten hasiko da. Hamarkada honetan Guda Hotzak bere horretan jarraitzen badu ere, egon badaude nazioarteko testuinguruan aipamen berezia merezi duten gertakizunak. Deskolonizazio-prozesuaren gailurra lortzen da eta Hirugarren Munduko nazioek nazioarteko erkidegoan euren indarra NBEn sentiarazi egingo dute «Herri ez Lerrotuen Mugimendua»ren bitartez. Hamarkada honetan ere, Hirugarren Munduko petrolio-ekoizleek «petrolioaren krisialdia» eragin zuten. Krisialdi horrek gogor aztindu zuen orduko nazioarteko erkidegoa. Nazio boteretsuek argi ikusi zuten nolakoa zen baliabide eskazia. Kontzientzia horrek gainditu zuen «nation building» orduko politika, eta hasiera eman «global interdependence» primatzen zuen hurbilketa bati. Hurbilketa berri horretan nazioarteko erakunde eta beste aktoreen partaidetza handitu egingo da. Nazioarteko erakundeak zein multinazionalak, Hirugarren Munduan batik bat, garapena zelan erdietsi definitzen eta dibersifikazio ekonomikoa lortzeko ahaleginetan laguntzen ikusiko ditugu. Beraz, bereziki Hirugarren Munduan estatuaren internazioanalizazioa aurkituko dugu. Gero eta gehiago NBE familiako edota nazioarteko beste aktore batzuek estatuari inposatuko dizkiote garapena lortzeko errezetak.

Petrolioaren krisialdiak Lehenengo eta Bigarren Mundua bultzatu zituen euren barneko baliabideak gehiago ustiatzera. Barneko baliabideen gaineko presioa areagotu egingo da, eta ordura arte urruneko lurraldeen konkista intentsifikatu egingo da (Coates, 1996).

Testuinguru horretan, deskolonizazio-mugimendua inspirazio bihurtuko da herri indigenentzat. Esperientzia kolonialistan oinarrituz, hamarkada honetan «barne-kolonialismoa»ren ideiak aurrera egingo du indigenen artean. Kolonialismo eta arrazakeriaren aurkako mundu mailako iritzia sendotu egingo da nazioarteko diskurtso eta praktikan. Indigenek Hirugarren Munduko herrien laguntza jasoko dute. Aldi berean, Helsinkiko akordioak sinatu ziren 1975ean, eta funtsezkoak izan ziren Laugarren Munduaren sorrerako nazioarteko marko eta aukera berriak sortu zituzelako (Ryser, 1992 eta 1995). 37 estatuk onarturiko lanerako marko berria

zen. Akordioetan segurtasuna, harreman ekonomikoak, herri eta nazioen arteko harremanak, giza eskubideak eta nazioarteko portaera bideratzeko printzipioak ezartzen ziren. Nahiz eta betetzeko derrigorrezkoak ez izan, pisu moral handikoak dira gobernu maila goreneko onarpena jaso zutelako. Azken erabakiak 4 ardatz nagusi ditu, 3 sekziotan banatu zirenak. 1. sekzioak segurtasun-auziei heltzen die bi partetan banaturik. Lehenengoa 10 printzipio dituen aldarrikapena da estatuen arteko harremanak bideratzeko. Bigarrenean, estatuen arteko segurtasun-konfiantza sortzeko neurriak aurreikusten dira. 2. sekzioan kooperazioari buruzko gaiak ekonomian, zientzian, teknologian eta ingurumenean. 3. sekzioa giza kooperazioari zuzenduta dago. Ryser-ek garrantzizkotzat jotzen ditu marko berria sortu zutelako estatuen arteko ekintza kolektiboa posible eginez, era horretan aukera eta dinamika berriak sortu ziren herri indigenen partaidetzarako. Era berean, akordioen konplimendua jarraitzeko nazioarteko mekanismoak sortu ziren. Aipatzekoak diren berrikuntzen artean, Nixon Administrazioak aplikatu zuen autodeterminazio-printzipioa herri indigenen eta AEBren arteko harremanak bideratzeko: Ryser-en arabera (1995), AEBk bidalitako1979ko txostenak dio harremanak erregulatzen dituzten printzipioak VII (gutxiengo nazionalen eskubideak) eta VIII (autodeterminazioa) direla. Era berean, idazle horrek gogoratu egiten digu Europan Segurtasun eta Lankidetzarako Batzordeak AEBri eskatu egin ziola txosten berezi bat emakume indigenen esterilizazioari buruz, eta auzi horrek bere isla izan zuen 1977ko AEBk aurkeztu zuen Helsinkiko akordioen jarraipen-txostenean.

Horrekin batera, Carter Administrazioak, giza eskubideen alde egindako apustua sustatuz, nazioarteko testuinguru politikoan aldaketa eragin zuen (Hegoafrika, Rhodesia edo Txilen gertatutakoak giza eskubideak estatuen ardura ez ezik, nazioarteko erkidegoaren ardura ere badirela frogatuz).

Herri indigenen kultura eta lurraldeen defentsak mobilizazio indartsu bat bultzatu zuen erregio nahiz nazioarteko mailan. Horrek «*status quo*»ekin kritikoak ziren indar asko bildu zituen bere inguruan. Mobilizazioa, bai asimilazioaren eta garapen etnozidaren aurka bai herri indigenen eskubideen alde izan zen. Ikuspegi-aldaketa horretan paper handia izan zuten antropologo, abokatu eta mota zein jatorri guztietako profesional kritikoek.

Giza eskubideekin loturiko gaiak nazioarteko agendaren puntu garrantzitsu bat bihurtuko dira. Estatu baten irudia zikintzeko indarra izateko eta GKE-en interesa eta ekintza mobilizatzeko gauza izango dira. Egoera berri honek nazioarteko zein GKE-en eginkizunetan aldaketa bultzatuko du eta mugak ezarri estatuek zuten nagusitasunari.

Nazioarteko testuinguru berri honek berebiziko ondorioak izango ditu herri indigenetan eta haien mobilizazio-ahaleginak areagotu eta tinkotu egingo ditu. Asimilazio-politikaren aurkako indigenen erresistentzia areagotu egingo da Lehenengo zein Hirugarren Munduan. Lurraren defentsa eta desarrollismoaren

aurkako borroka herri mailan ez ezik, nazioarteko erakundeetan ere gertatuko da, bitarteko eta estrategia ezberdinak erabiliz.

Testuinguru horretan ordezkari indigena batzuk hasi ziren euren antzekotasunen kontzientzia garatzen eta elkarrekin lan egiteko beharraz jabetzen. Antzekotasunen artean aipagarria dugu mundu osoko indigenak batzen dituen kolonialismoaren esperientzia (Minde, 1995). Hori berebiziko erakusle etnikoa bihurtu da, batetik Laugarren Munduak duen nortasun eta proposamenaren berezko elementua delako, eta, bestetik, erresistentzian dauden herri bezala irudikatzen dituelako.

Asimilazioaren aurkako eta lurraren gaineko eskubideen aldeko borroka funtsezko gaia izango dugu AEBn, Kanadan Australia, Txilen, Mexikon eta Paraguain. Indigenen borrokek giza eskubide mailan zein ekologian aritzen diren erakundeen interesa piztuko dute eta harremanak sendotu egingo dira herri indigenekin. Herri indigenek Hirugarren Munduko askapen-mugimenduekin harremanak hasi eta eskubide zibilen mugimenduetan inspiraturiko erakunde berriak sortu zituzten, intsumisio zibilari loturiko estrategiak eta politikak martxan jarriz. Testuinguru horretan «modernotasuna»ren eta desarrollismoaren kontrako diskurtso indigena independentea garatzen joango da. Bertan, ekozidio, genozidio eta etnozidioaren aurkako jarrera eta giza eskubide zein ekologiarekin loturiko gaiak herri indigenen autodeterminazioarekin lotuta agertuko dira. Naturarekiko lotura, lurrarekikoa, naziotasuna eta honi dagozkion eskubideak, nazio barneko zein arteko diskurtso indigenaren oinarri bihurtuko dira.

Herri indigenek bizi zuten egoera aztertzeko 1971n NBEk Txosten berezi bat agindu zion Cobos jaunari. Bestetik, iraultza isil honen beste pasadizo garrantzitsu bat Kariben gertatu zen. Elizen Mundu Batzarrak (WCC), 1971n Barbadosen herri indigenekin loturiko gaiak aztertzeko elizak, antropologoak eta mota guzietako adituak batu zituen. Biltzar horren emaitza nagusia Barbados I delako aldarrikapena izan zen, bertan herri indigenek bizi zuten egoera kolonialetik askatzeko deialdia egin zen eta salatu egin ziren orduko estatuek, erlijiosoek eta antropologoek izandako erantzukizuna zapalkuntza horretan. Gainera, aldarrikapenak herri indigenek euren bide propioa egiteko eta autogobernua izateko duten eskubidea ere defendatu zuen. Horretaz gain, Barbados I-ek indigenak euren askapen borrokaren protagonistak zirela eta eurei lehentasuna eta ahotsa eman zitzaiela ondorioztatu zuen. Ondorio hauek eragin handikoak gertatu ziren herri indigenentzat. Batetik, «euren aldeko zuri»en eta gizarte zibilaren egitekoak birdefinitu egin zituelako; bestetik, garrantzi handia eman zitzaiolako herri indigenen protagonismo politikoa bultzatzeari eta euren ahotsa entzunarazteko bideak sortzeari. Finean, historikoki eraikitako herri indigenen gabezia konpontzeko beharrezkotzat jo zen herri indigenek euren boza eta euren diskurtsoa berreskuratzeko laguntza eskaintzea. Neurri handi batean, indigenen irudia, errealitatea eta diskurtsoak transmititzen zituen «borondate oneko zuria»ren protagonismoarekin amaitzea erabaki zen. Hain zuzen ere, Europara edo

munduko beste eskualdetara etortzeko eta euren errealitatea eta itxaropenak zuzenean helarazteko bideak lantzea suposatzen zuen.

Nazioarteko gizarte zibilaren eta indigenen arteko elkarlanaren hasiera markatu zuen Barbados I.-ek. Horrek sorturiko dinamikak posible egin zuen gizarte zibilak eskainitako bitartekoak erabiliz erakunde indigenak sortzea eta Europa zein AEBra bidaiak egitea. Aurrez aurreko harremanak bultzatu egin ziren. Garai horretan, gizon gorriaren ideologia zabalduko zuen salaketa-diskurtso politikoa izan zen nagusi. Indigenek «errudun-sentimendua» eta erromantizismoa bultzatu egingo dituzte, laguntza eta mota guzietako bitartekoak eskuratu nahian. Anayak (1991) azpimarratu egiten du herri indigenen nazio-izaera azpimarratzen duen diskurtsoaren garrantzia. Diskurtso horren arabera, nazio-izate horri dagozkion eskubideak onartu behar zaizkio eta gaur egun bizi duten egoeragatik ordainak zor. Diskurtso horrekin batera, giza eskubideekin loturiko diskurtsoa bultzatzen hasiko dira eta talde-eskubideak eskatzen. Hamarkada honetan paradiplomazia indigena bideratzeko erakunde bereziak sortuko dira, hasiko dira kanpora joten, nazioarteko interesa erakartzen, nazioarteko gizarte zibilarekin harremanak sendotzen, eta NBEren mailan lehenengo harremanak izaten.

2.5.Laugarren Mundua: paradiplomazia indigenaren agerpena

Barbados I-ek berebiziko oihartzuna eta eragina izan zuen Ipar Amerikako, eta Europako zirkulu akademikoetan; batez ere, herri indigenekin lanean edo ikerketan ari ziren antropologo eta haien erakunde profesionaletara heldu zelako. Prozesu luze horretan berebiziko garrantzi izan zuen 1972an ekologiarekin loturiko Estokolmoko Munduko Gailurrean gertaturikoak. Bertan, Kanadako ordezkaritzan partaide George Manuel zegoelako eta, gainera, hopien beste 10 buruzagik parte hartu zutelako. Haiek Hirugarren Munduan estatua lortu berri zutenen laguntza eta elkartasunaren bila joan baziren ere, aurki behialako kolonialismoaren aurkako buruzagiak estatu-politikariak bihurtu zirela, eta «modernotasuna»rekin konpromiso erradikala zutela ikusi zuten. Bertaratu zirenek Hirugarren Munduko gobernuen teknologia, zientzia eta industrializaziorako grina ikusi eta balio espiritualez eta natura errespetatzeko euren diskurtsoaz nola trufatzen ziren ikusi egin behar izan zuten.

Weyler-ek dioskunez esperientzia horren ondorioz, Hirugarren Mundukoak ahaztu eta mugimendu etnonazionalistei begira hasi ziren aliatu berriak eta egokiagoak bilatzeko, aipaturikoen artean euskaldunak geundelarik (Manuel, 1974: 11).

2.5.1. Indigenen aldeko erakundeen sorrera

1970eko hamarkadan Amazoniako herrien inguruko kezka izan zen nagusi mundu mailan (Ekins,1992) eta alde horretan bizi diren herri indigenak laguntzeko burutu ziren hainbat ekimen. Kopenhagen IWGIA sortuko da. Haren helburua herri indigenek mundu mailan bizi duten egoeraren ikerketa plazaratzea izanik. Londresen

Survival International sortu zen, herri indigenek pairatzen dituzten gehiegikeriak eta praktika genozidak salatzeko. AEBn Harvard-eko antropologoek herri indigenen lurrak eta kulturak babesten laguntzeko Cultural Survival sortu zuten.

Nazioarteko gizarte zibilean sorturiko erakunde horiekin batera, herri indigenen artean ere nazioartekora batera ekiteko World Council of Indigenous Peoples (WCIP) (1975) eta International Indigenous Treaty Council (IITC) (1974) sortu ziren Ipar Amerikan. 1974an AEBko 100 nazio indigenak autodeterminazioa eskubidearen aldeko apustua egin eta Subiranotasun Aldarrikapena sinatu zuten (Ryser, 1992). Autodeterminazioa bihurtu zen ondoko urteetan lau haizetara zabaldu zen mugimendu pan-indigenaren marka.

Horrela, nazioarteko politikan aktore izateko borondate sendoa zeukan aktore berria jaio zen: Laugarren Mundua. Mugimendu berri honek agonia-egoeran dauden estatu gabeko herri indigenak izango ditu protagonista. Munduko periferian, modernotasunaren ertzean bizi zirenak, nazioarteko zentro politikoan zegoen NBEra hurbiltzeko abiadan jarri ziren.

2.5.2. George Manuel: kontzeptuaren sortzailea

Mugimendu pan-indigena sortzeko ahaleginean aipamen berezia merezi du Chief Joseph Manuel-ek. Chief Joseph Manuel-ek nazioarteko sustatzailearen papera bete zuen eta Laugarren Munduaren diskurtsoa eta nazioarteko sarea sustatu zituen. Ahalegin horrekin haien agenda eta arazoei heltzeko aldeko nazioarteko plataforma sortu eta haien arazoak haien ahotsez planteatzeko espazioa bilatu nahi zen. Manuel boomerang efektua indigenen mesederako posible egin zuen gizona dugu.

Aitzindari honek Kanadako National Indian Brotherhood of Canada (NIBC) delakoarentzat egin zuen lan, baina bere nazioarteko lanaren ondorioz, pan-indigenismoaren beharra ikusi eta errealitate honi nazioarteko erkidegoan zegokion toki politikoa errebindikatu zuen. 1974an Manuel-ek «Laugarren Mundua»ren ideia aurkeztuko du. Berak argi utziko du Laugarren Mundua munduko indigenek osatzen dutela eta ez bakarrik Ameriketakoek. Manuel-ek Europa, Ozeania eta Asiako indigenekin izan zituen kontaktuak eta pairaturiko barne-kolonialismoak sorturiko arazo komunen kontzientzia hartu (Dyson, 2004).

Definizio horretan herri indigenen marka diren gaiak aurkitzen ditugu. Haien naziotasunaren ukapena, arrotzak balira bezala tratatuak izatea, modernotasunak buruturiko kolonizazioaren biktimak izatea (Survival International, 1992), estatu barruan pairaturiko marjinazioa, indar politikorik eza, haien lurraldeetan dauden baliabideak kudeatzeko ezintasuna, lurralde bakoitzean lehenengo herria izatea. Halaber, naturarekiko harreman berezia aipatu zen, zeina kosmos-ikuskera ezberdin baten existentzian oinarrituta dagoen. Proposamen honek indigenen eta indigena ez direnen arteko mugak markatu ditu.

2.5.2.1. Paradiplomazia indigenaren lehenengo urratsak

1973an, Manuelek Artikoko herriek Kopenhagen antolaturiko konferentzia batean parte hartu zuen. Bertan Groelandia eta Kanadako inuitak, Eskandinaviako samiak, Kanadako dene eta metiak petrolioaren krisiaren erdi-erdian batzartu ziren horrelako krisialdiak euren lurraldeetan izango zituen ondorioak aztertzeko, periferiako lurren kolonizazioaren alde iluna erakutsiz. Jull-ek (1998) hemen identifikatu du nazioarteko mugimendu garaikidearen sorrera-puntua. Batzar horretan auzi indigenei buruzko mundu mailako konferentzia antolatzea adostu zen, eta indigenek kontrolatua izan behar zuela. 1974an Manuelek proposamena bota eta beste kontinenteko erakunde indigenekin hasi zen lanean. Manuelek 1974an «*World Council of Curches»* delakoarekin batera hasi zen Herri Indigenen Nazioarteko Konferentzia sustatzen. Urte horretan Guayanan bidea prestatzeko konferentzia bat antolatu zen eta bertan «herri indigenen» definizio politiko pan-indigena bat sortu zen (Sanders, 1980: NET). Guda Hotzaren erdian munduko herri indigenek osatzen zuten Laugarren Mundua aurkeztu zen. Aktore berri horrek beste blokeekiko independentzia eta bere izaera eta eskaeren berezitasuna aurkeztu zion nazioarteko erkidegoari.

1975ean Kanadan Herri Indigenen Nazioarteko Konferentziaren ondorioz, WCIP-Herri Indigenen Munduko Batzarra (HIMB) sortu zen. Port Albert-en indigenen ordezkaritza zabala egon zen, gobernu-ordezkari batzuk eta komunikabideak. Konferentziak ondoko gaiak aztertu zituen: 1) NBE mailan zuten ordezkaritza. 2) Herri Indigenen Mundu Batzordearen fundazio-gutuna. 3) Herri indigenen egoera politiko, sozial, ekonomiko eta justiziazkoarekin loturiko auziak. 4) Nortasun kulturalaren bermatzea, eta 5) herri indigenen lurra eta lurraldearen babesa. Erakunde hori IITCrekin batera HIKEren gune eta erreferente nagusi bihurtuko da. Nazioarteratzeko prozesu honetan beste urrats inportante bat NIBCek NBEren aholkulari-estatusa jaso zuenean gertatu zen, horrelakorik jasotzen zuen lehenengo munduko erakunde indigena izanik. NIBCek zuen NBEren aholkulari-estatusa HIMBri pasatu egin zion eta Port Alberni-n erabakitako autodeterminazioa erdiesteko konpromisoa hartu zuen horrek. NBEren sorrera-aldarrikapenean esandakoa kontuan harturik, *«We the indigenous peoples of the world…vow to control our destinies»* aldarrikatu zuen WCIPek. Gaur egungo NBEn nagusi den estatuen arteko sistema benetako nazioarteko sistema bihurtzeko mundu mailako mugimendua martxan zegoen.

Herri Indigenen Munduko Batzarra agertzearekin batera, aipatzekoa da ere beste nazioarteko sustatzaile baten lana. Jimmie Durham, eskultore txerokia, 60 eta 70eko hamarkadetan Genevan bizi zen. Haren emazteak Elizen Mundu Batzarrarentzat lan egiten zuen eta mundu osoko askapen-mugimenduekin zuen harremana, adibidez Hego Afrikako Kongresu Nazional Afrikanoarekin, SWAPOrekin, etab. 1974an American Indian Movement delakoarekin bildu eta International Indian Treaty Council (IITC) sortzeko konbentzitu zituen (Dunbar-Ortiz, 2006). AEB barruan,

AIM mugimendu indigena erradikalak, pairatzen zuen egoera gogorra lehuntzeko modu bat legez ikusten zen nazioartera jotzea. Durham-en proposamenak bat egin zuen Deloriak ere defendatzen zuen nazioartera jotzeko beharrarekin (Dyson, 2004), ondorioz 1975ean sortu zen paradiplomaziarako erakunde indigena hau. Haren helburu nagusietarikoa AEBren kontra lotsaren politika (*policy of embarrassment*) erabiltzea zen (Minde, 2007: 18-19).

Mundu osoko indigenek bat egin zuten Laugarren Munduaren ideiarekin, eta nortasun pan-indigena gisa erabili zuten euren gobernuekin negoziatzeko, baita nazioarteko sistemari babesa eskatzeko eta bizi zuten egoera ekonomiko, sozial eta kulturala hobetzea eskatzeko. Horri jarraituz, batzarrak, aldarrikapenak, batzar paraleloan antolakuntza izan ziren edonon. Horren guztiaren bidez, nortasun berri eta agenda pan-indigena komuna garatu zen.

NBEren mailako presentzia indigena handitu egingo da 1977an IITCek aholkulari izaera jaso zuenean. Bi erakunde horiek bihurtu ziren HIKEren aitzindariak, koordinatzaile eta bultzatzaile nagusiak hamarkada honetan. HIKE koordinatzeko eta egituratzeko nazioarteko, erregio mailako edo gai zehatzen inguruan egindako konferentziak eta bestelako ekintzak erabili zituzten. Erakunde hauek pan-indigenismoaren mundu mailako erreferente bihurtu ziren, eta paradiplomazia eta nazioarteko prozesuetan partaidetza bultzatzea izango da helburu nagusia. Partaidetza eta presentzia bultzatzeko modua herri indigenen arazoak tratatzeko nazioarteko konferentziak sustatzea izango da. Konferentzia hauek GKE ez indigenekin batera egingo dira. Era honetan Manuel-ek (1974: 261) esandakoa eredu bihurtuko da: *«I have set down here our own needs as Indian peoples for the Fourth World. We know that we cannot move very far in that direction unless you (non-Natives) also choose to move»* eta finkatu egingo dute HIKEren ezaugarri garrantzitsu hau.

«*Discrimination Against Indigenous Populations in the Americas»* izeneko Biltzarraren ondorioen artean aipagarria dugu *Draft Declaration of Principles for the Defense of the Indigenous Nations and Peoples of the Western Hemisphere* egin zela. Dokumentu horretan onartu egiten zen nazio indigenak eta herri indigenak daudela eta errealitate horiei moldatzeko nazioarteko legedi berria behar zela. Aldarrikapen hori, 1985ean egindakoarekin batera, oinarrizko dokumentu eta aurrekariak izango dira HIGEA diseinatzeko orduan. Dokumentu horietan defendatu egiten da nazioarteko aktore berri baten existentzia eta kategoria honi dagozkion eskubideak bermatzeko eskakizuna egiten da.

Nazioarteko diskurtso honi esker, nazioarteko gizarte zibilaren laguntza izanik, herri indigenek sendotu eta berrindartu egin zituzten euren tokian tokiko diskurtso politikoak eta alternatiba kulturalak. Era horretan, belaunaldietan zehar sorturiko eta mantenduriko ikuspegi, mezu eta eskaerak plazaratu egingo dituzte. Baita estatuei nahiz legea goiburu duen nazioarteko erkidegoari euren eskubideak errespetatzea eskatu ere. Eskubide horien artean autodeterminazioa, herri ezberdin modura

irauteko eskubidea, euren bizimodua mantentzeko zein herri-garapena euren asmoei jarraituz nahiz eurak protagonista izanik lortzeko eskubidea aurkituko ditugu.

Ideia horri jarraituz erakunde indigenak nazioartera abiatuko dira, batetik euron gobernuarekin duten negoziatzeko ahalmena sendotzeko, bestetik, gobernuaren kontroletik at dagoena esperimentatzeko eta elkarlanerako eremu autonomo bat izateko non beste aktoreekin estrategia komunak landu daitezkeen (Carruthers, 1996).

2.7. Mugimendua sendotzen

Hirugarren Munduan inportazioak ordezkatzeko estrategiek porrot egin zuten. Nazioarteko Diru Funtsak eta Munduko Bankuak Hirugarren Munduko estatuen kanpoko zorra ordaintzeko egitura ekonomikoa doitzeko programak jarri zituzten martxan. Gauzak horrela, aurreko hamarkadetan hasitako herri indigenen lurraldeetan aurkitzen ziren baliabideen ustiaketak gora egin zuen.

Hirugarren Munduko estatuek zein nazioarteko erakundeek sustaturiko erasoei erantzuteko mobilizazio indigenak indarra irabazi zuen, eta jarraitu egingo die Munduko Bankuaren eta beste nazioarteko erakundeen aurka 1970eko hamarkadan emandako urratsei. Beraz, hamarkada honetan Laugarren Munduaren ekimena sendotu egin zen eta globalismo harrapariari aurre egiteko gauza bihurtu (Delgado, 1996).

Hamarkada honetan ere, ekologiak nazioarteko agendan aurrera egin zuen. Garai honetan hasiko dira herri indigenen eskubideak eta ekologia lotuko dituzten analisiak egiten (Delgado, 1996). Aurreko hamarkadetan garapena gidatu zuen paradigma nagusiaren kritika bizia egingo da, eta herri indigenen rola berraztertu ekologiarekin eta giza eskubideekin loturiko gaiek indarra hartzen zuten heinean.

Indigenek akademikoen artean eta eurei loturiko komunitate epistemologikoen artean ospea irabaziko zuten (Gupta, 1999), eta horrek baldintzatu eta erraztu egingo du haien aldeko jarrera. Garapen alternatiboa, ekologia, giza eskubideak eta herri indigenak (Nugkuag, 1995) lotzen dituen ikuspegi alternatiboak aurrera egin zuen nazioarteko aditu, gobernu teknikari, akademiko, GKE zein, azkenik, politikoen artean.

Akademikoen artean aipagarria da herri indigenek nazioarteko sare epistemiologikoen laguntza jasoko dutela. Antropologia, Ekologia, eta Giza Eskubideetan zein gatazka-prebentzioan adituak direnek lagundu egin zituzten indigenak, Komunitate hauek oso inportanteak dira, askotan estatuek eta nazioarteko erakundeek euren deliberoak hartzeko erabiltzen duten marko ideologikoa baldintzatzen dutelako (Salomón, 1992; Haas, 1992: 35).

70eko hamarkadan Laugarren Munduko aktibista eta ideologoek defendatu egin zuten herri indigenen nazio-izaera eta autodeterminazioa gorpuzteko era egokiena herri indigenen gobernu modeloak indartzea zela. Horrelako proposamenak borroka

indigena laguntzen hasten diren kolektibo ezberdinetan sustraitu ziren. Haietariko batzuk hasi ziren Laugarren Munduaren izaera alternatiboa azpimarratzen. Akademian antzeko zerbait gertatu zen Nietschmann-ek (1985) bere lanak argitaratu zituenean eta indarrean zegoen Guda Hotzaren ideologiari ikuspegi berri bat gehitu zionean. Ikertzaile horrek estatuak eta herri indigenak elkarren aurka zituzten gatazkak ezin zirela Guda Hotzaren testuinguruan bakarrik ulertu esan zuen, eta Laugarren Munduaren existentziaz eta Laugarren Munduko gerrez hitz egin zuen. Soka beretik jarraituz nazioarteko aktore berri baten sorrera iragarri zuen.

Akademiko eta aktibisten lan konbinatuak argi utzi zuen estatuen gaur egungo mugak ez datozela bat herri indigenen muga «imaginatuekin», eta salatu egin zuten herri indigenek galdua zutela euren lurretan zeuden baliabideen gaineko kontrola eta beraiek erabiltzeko aukera. Nietschman-ek (1994) gainera, salatu egin zuen nazio-eraikuntzaren beste aldea nazio-desegitea zela, eta desegite hori askotasun biologikoa eta kulturala etengabe murritzen ari zela. Nietschman-en lana Nikaragua eta Guatemalan zentratu zen nagusiki, baina era berean hamarkada honetan bizi ziren gatazka asko Laugarren Munduko gerrak zirela erakutsi zuen (WCIP, 1984: NET).

Hamarkada honetan Laugarren Mundukoek kuestionatu egingo dituzte existitzen diren eta indigenak bizi diren estatuen muga geopolitikoak, batez ere muga horien barnean nazio bakarra dagoela dioen pentsamendu ofiziala (Minde 1995). Garai honetan Laugarren Munduak arrakasta lortu zuen estatuen barruan herri indigenek duten espazio eskasa salatzen, baita domestikazio- eta asimilazio-politiken aurkako iritzia indartzen (Wilmer, 1992).

Hamarkada honetan Laugarren Mundua oso efektiboa izan zen Mendebaldeak herri indigenen aurrean erakusten zuen nagusitasuna kritikatzen. Horrexegatik bilatu egin zuen diskurtso kolonialak sorturiko irudi ezkorretatik askatzea, indiotasuna zerbait positiboa dela ezarriz. Gainera, lortu egin zuen erakustea munduan zeuden gatazka politiko, militar, kultural eta ekologiko asko ezin zirela konpondu herri indigenen eskubideak aitortu eta indarrean jarri arte. Gainera, Laugarren Mundua agertu egin zen globalizazio harrapariaren aurka ziharduen aktore geopolitiko sendo eta indartsu gisa (Delgado, 1996: 1).

Beraz, Hirugarren Munduan gertaturiko mobilizazio indigenak mundu mailako erreferente bihurtuko ziren gizarte zibil zein akademikoentzat, komunikabide eta politikoen arreta erakarriz (Shiva, 1998). Amazonia, Narvada edo Chipckon gertaturiko mobilizazioak globalizazio neoliberalaren aurkako sinboloak bihurtu ziren eta aldaketa sozial eta politiko baten beharra erakutsiko dute. Kasu horietan ekologistekin batera izandako protagonismoak indigenei ikusgarritasuna eman zien. Ekologistentzat indigenak globalizazio neoliberalaren aurkako erresistentzian lehenengo defentsa-lerro bihurtu ziren (Cultural Survival, 1993). Indigenak eta ekosistemak lotzen dituen ikuspegia indarra irabazten hasiko da hamarkada honetan. Etnoaniztasunik gabe ez dagoela bioaniztasunik argi gelditu zen (Shiva, 1989).

Indigenek zuten mugen etikak indigena ez ziren askoren interesa lortu zuen (Martínez Bringas, 2006), baita nazioarteko mugimendu ekologistarena ere. Egoera horretan, Laugarren Mundukoek genozidio, «etnozidio» eta «ekozidio»ri alternatiba modura defendatzen zuten autodeterminazioa sostengua irabazten hasi zen.

Beraz, ekologismoak eta garapen alternatiboaren indarrek mundu politikoan zein akademian aurrera egiteak indigenentzat mesedegarri gertatu zen. Lehenengo Munduan alderdi berdeek espazio politikoa lortu zuten eta alderdi tradizionalen alternatiba bihurtu ziren hainbat herritan. Hirugarren Munduan pobreen ekologismoa agertuko da neoliberalismoak martxan jarritako hainbat proiekturen aurka mobilizatuz. Ekologismoa eta garapen alternatiboa helburu zuen nazioarteko gizarte zibila herri indigenen aliatu bihurtu zen.

Herri indigenen mugimenduaren zabalkundeari dagokienez, hamarkada hau Asiako herri indigenen hamarkada izango da zalantzarik gabe. Aurreko hamarkadan Lehenengo Munduko indigenen protagonismoa nagusi zen batez ere Amerika, Australia eta Ozeanian (Bose 1996, Kingsbury, 1997). Mugimendu hauek demokrazia jaio eta garatu egin ziren. 80ko hamarkadan, berriz, Asiako mugimenduak diktadura gogorrei aurre egiten agertuko dira. Asiako herri indigenen hamarkada izango da (Bose, 1996). Asian 150 milioi indigena bizi dira Bangladesh, Burma, Txina, India, Indonesia, Japonia, Malaysia, Pakistan, Filipinak, Sri Lanka edo Tailandia bezalako herrietan (Pritchard, 2001). Asiako herri indigenen garapen-programen aurkako mobilizazioa indartu egin zuten, eta Asian barneko kolonialismoak hasitako hainbat gatazka non etnozidioa eta ekozidioa bateratzen zirela erakutsi zuten (Peang-Meth 2002).

Filipinetan Cordillera People Bangla Desh-en Chittagon Hill Tracks-eko jendea, Malasian Sarawak-eko Penan edota Indonesian Dayak-en kasuak aipagarriak dira, egoera larrian bizi ziren toki horietako herri indigenak euren defentsarako erakundeak sortzeaz gain nazioartera jo zuten. Asiako erakunde indigena horiek PILera joko zuten euren errealitatea erakusteko eta nazioarteko erkidegoaren laguntzaren bila. Latinoamerikan aurreko hamarkadan gertaturiko gatazkei Asiakoak, Ozeaniakoak edo Afrikakoak gehituko zitzaizkion. 1989an estreinakoz erakunde afrikar baten partaidetza lortzen da Moringe Ole Parkipuny Tanzaniako masaiak Populazio Indigenen Lantaldean parte hartu zuenean (Hodgson, 1994).

Amazoniarekin batera Asiako basoen defentsa munduko herri indigenen eta ekologisten ikur bihurtuko da. Testuinguru horretan aniztasun ekologikoa mantentzeko kultur aniztasunak duen garrantzia gizarte zibilaren printzipioen artean sendotu egingo da. Akademia mailan OJri garrantzia ematen hasiko zaio eta Brundtland txostenak erakusten duen bezala, ingurumen eta gizarteen arteko harremanari, kulturaren garrantzia ingurumena mantentzeko zein partaidetza eragiteko orduan batik bat gehituko zaio.

1970eko indigenen mobilizazioa nazio-errebindikazioan zentratu bazen ere, 1980ko hamarkadan nazioarteko agendan agertzen ziren gaiei loturiko lana burutu zuten. Indigenak argi ikusi zuten nazioarteak bizirauteko beharrezko laguntza eman zezakeela. Hain zuzen ere, euren ahotsa kanpoan entzunarazteko eta kanpotik laguntza eta baliabide gehiago erakartzeko gaitasuna bihurtuko da mugimendu indigena garaikidearen marka (Niezen, 2003).

Aurreko hamarkadan pilaturiko esperientzia aprobetxatuz, indigenek nazioarteko erakundeen mailan parte hartzea sendotu egin zuten. Nazioarteko sistema, gobernatzen dituen sistema normatiboa ezagutzeko eta erabiltzeko balioaz jabetu eta trebeziaz erabili zuten. Erakunde indigenak Herri Indigenen Eskubideak defendatzeko nazioarteko aldarrikapen baten beharra defendatzen hasiko dira. Aurreko hamarkadako Kirunan erabakitakoari helduz, Martinez Cobos NBEko adituak egindako txostenaren bidetik joz eta giza eskubideekin loturiko beste tresna juridikoei erreferentzia eginez euren eskaerak planteatu zituzten.

Kontinente guztietan, euren indarra hobetzeko asmoz, herri indigenak estatu mailako erakundeak edo erregio mailako erakunde pan-indigenak sortzen hasiko dira. Erakunde berri horiek nazioarteko gizartean aktore aktiboak diren erakunde-kideak izango dira. (Martí i Puig, 2004; Pieck, 2006), Latinoamerikan, aldiz, erregio mailako erakunde pan-indigenen sorrera ikusiko dugu. Aurreko hamarkadan sorturiko erakundeak *Confederación de Naciones Indígenas de la Amazonia Ecuatoriana* (CONFENIAE), *Asociación Indigena de la Selva Peruana* (AIDESEP), *Consejo Regional Indigena del Cauca* (CRIC), *Confederación Indigena del Oriente Boliviano* (CIDOB), UNI (Brasil) eta hamarkada honetakoak *Organización Nacional de Indígenas de Colombia* (ONIC) bateratu egingo dira eta *Confederación de Organizaciones de la Cuenca Amazónica* (COICA) (1984) sortu zuten.

Herri Indigenen Munduko Batzarrak hamarkada honetan egindako lana ikaragarria izan zen. Manuel bost kontinenteetan zehar bidaiatu eta bertako indigenekin aritu zen (Sanders, 1980). WCIPren inguruan bilduriko erakundeek 1980an herri indigenek genozidio, ekozidio eta etnozidioaren salaketa burutu zuen «Bertrand Russel Tribunala» antolatu zuten. Bertan, herri indigenek pairaturiko genozidio, etnozidio, ekozidio eta gainerako bortxaketen nahiz errudunen deskribapen gordina egin zen. Laugarren Munduak lortu egin zuen Norvegiaren laguntza Russel Tribunalaren ostean. Horrekin batera Groenlandiako gobernuak emandako laguntza eta sostengu intelektuala oso inportantea izango da, eta Laugarren Mundua ordu arte ezezagunak zituen mailetara heltzeko gai izango zen (Minde, 1995). Garai horretan mugimendu indigenak egindako nazioarteko aliantzek lagundu egin zioten euren indar politikoa sendotzen eta globalizazio harrapariaren ondorio ezkorrei aurre egiten.

Urte bat geroago 1981ean UNESCOk Meeting of Experts on Ethno-Development and Ethnocide in Latin America izeneko biltzarra antolatu zuen Costa Rican. Biltzar horretan etnozidioren salaketa eta etnogarapenaren aldeko apustua egin ziren. Hori

garrantzi handikoa suertatu zen, herri indigenek pairatzen zuten errealitateari heldu ziolako. Ordu arte, asko ziren etnozidioaren existentzia ukatzen zuten adituak eta asimilazioa zen jarraitu beharreko politika ofiziala. UNESCOren bilerak asimilazioa zalantzan jarri eta alternatiba gisa etnogarapena defendatu zuen. Urte berean GKE-ek antolaturiko International NGO Conference on Indigenous Peoples and the Land izeneko deialdian indigena asko bildu ziren, 1977ko biltzarrean baino gehiago, eta lehenengo aldiz «Laugarren Mundu izendapenaz NBEn aurkeztu zuten euren burua (Pino-Robles, 1999). Giza eskubide eta ekologiarekin loturiko gaiak eztabaidatu zituzten: energia, mineral, nekazaritza-industria, jaki edo nazioarteko droga-trafikoarekin loturiko gaiak, alegia.

Urte horretan ere garrantzi handiko beste gertakizun bat gertatu zen Douglass Sander-ek, eta Manuelen aholkulari eta zuzenbide-irakasleak, Herri Indigenen Munduko Batzarraren bilera batean nazioarteko konbentzio baten zirriborroa aurkeztu zuenean, hau izan zen herri indigenen eskubideak zaintzeko nazioarteko estandar baten proposamena egin zen lehenengo aldia (Minde, 2007: 27). Konbentzioa estatuek eta herri indigenek onartu beharko zuten.

HIKEren beste bi mugarri 1982an gertatuko dira. Lehenengoa, Munduko Bankuak *Tribal Policy* onartu zuen. Dokumentu horretan herri indigenei eskubide batzuk onartu egiten zaizkie. Era horretan, Bankuaren politika barruan zegoenez maileguak eskatzen zituzten gobernuei presioa egiteko beta aurkitu zuten indigenek. Nahiz eta *Tribal Policy* horrek kutsu asimilazionista izan, garapen-proiektuek herri indigenetan dituzten ondorio genozidak, etnozidak eta bestelakoak saihesteko borondatea agertu zuen. Bankuak horrelakoak saihestea iradokitzen zaie Bankuaren zerbitzuak eskatzen dituzten gobernuei. Horrenbesteko garrantzia duen erakunde batek martxan jarritako ekimena dugu hau eta hemendik eratorria den arautegiak parada eskainiko die indigenei euren estatuei presioa egiteko nazioarteko legedia eta iritzi publikoa erabiliz.

Garrantzi handiko beste mugarria 1982an NBEk, herri indigenek egindako presioei zein berak aginduriko Martinez-Cobos-en txostenari erantzunez, Populazio Indigenen Lantaldea (PIL) onartu zuenean gertatu zen. Era horretan urteetan NBEren aldetik indigenek pairaturiko interes eza amaitu egin zen. PILek Laugarren Munduaren partaidetzarako, haien arazoez arduratzeko eta hauei erantzuteko nazioarteko legedia egiteko saioan parte hartzeko atea zabaldu zuen. PIL HIKEren bilgune nagusia bihurtu zen eta herri indigenen ekintza paradiplomatikoa sendotzeko, sustatzeko zein koordinatzeko balioko zuen. Ahalegin horretan, herri indigenek, indigenak ez ziren aldeko hainbat GKEren laguntza izan zuten. GKE horien lana funtsezkoa izan zen NBEko HIKE aurrera eraman ahal izateko.

PIL sortu zenetik, indigenen ekimen nagusia eremu honen inguruan kokatu da, bere *locus* nagusia izatera heldu delarik. Foro horretan munduko herri indigenek bizi dituzten arazoei buruzko aurrez aurreko testigantzak eskaintzeko parada lortu zuten. Horrelakoak entzun ondoren, NBEko adituen laguntzarekin gobernu, herri

indigenak eta nazioarteko erakunde eta aktoreen arteko negoziazioak gertatu ziren. Horrekin batera, agindu egin ziren indigenek pairatzen zituzten arazo nagusiei heltzen zieten txosten bereziak. Izan ere, txostenetan iradokitako proposamenetan legedi berria egiteko aukerak biderkatu egin ziren PILen existentziarekin. Izan ere, PIL elkarren berri izateko, arazo eta ikuspuntu komunak identifikatzeko, estrategi-alternatiboak diseinatzeko eta proposamenak presentatzeko toki nagusia bihurtuko zen (Clavero, 2006). Horretaz gain, parada emango die nazioarte, erregio edo estatu mailako sare informalak sortzeko (Garcia-Alix, 2006). Baita gobernuekin banaka zein taldeka lobbya egiteko edo GKE-en laguntza lortzeko ere (Burger, 1999). Modu horretan euren mezuak zabaltzeko, euren erakundeak sendotzeko baliabide politiko, tekniko eta ekonomikoak eskuratzeko eta garapen-proiektuak zein beste mota bateko proiektuak bultzatzeko laguntza erdiesteko aukera izan zuten. Lantaldeak ahalbidetu egin zien herri indigenei euren presentzia sentiaraztean, estatus politikoa handitzea, etxean gertatzen diren tentsio politikoetatik urrun egonik, gobernuekin kontaktu eta negoziazio zuzenean sartzea, eta nazioarteko zuzenbidearekin kontaktu zuzenean egonik eta bere moduetan bustitzea. Gainera, egoera larrian dauden herri indigenei egoera katartikoa eskaini die euren arazoa plazaratzeko eta parada eman antzeko arazoak bizi dituzten herri indigenen elkartasuna modu zuzenean sentiarazteko, euren herrietan bizi zuten isolamendua apurtzen zelarik. Baita ere, erreferente positiboak eskaini zizkien euren agenda osatu ahal izateko (Stavenhaguen, 2006: 24).

Nazioarteko konferentzia eta PILen babespean nahiz aukeraturiko ekintza-eremuetan (issue-arena) parte hartuz Laugarren Munduak estatuak baldintzatzeko gaitasuna garatu zuen, lobby ekintzak eginez, eta arazo indigena helburu duten txostenak bultzatuz. Era berean, biderkatu egin ziren proselitismoa egiteko aukerak eta sare indigenak zein aldekoak (Stavenhaguen, 2006). Geroxeago, informazioa trukatzea eta estrategia komunen garapena etorriko ziren. Gauzak horrela, hamarkada honetan NBEren mailan HIKEren ahalegina Herri Indigenen Giza Eskubideen Aldarrikapena (HIGEA) sortzeko errebindikazioaren inguruan zentratu zen. Horrekin batera bultzatu egingo dira herri indigenentzat garrantzitsuak diren gaien inguruko txostenak. Hauen artean aipagarriak dira herri indigenek pairaturiko arrazakeria aztertzen zuen txostena. Horrek jorraturiko bide beretik jo zuten beste txosten batzuek eta arrazakeriaren aurkako aktibismoa Laugarren Munduak jorraturiko ekimen-eremu bihurtu zen. Hasierako mezu politiko sendoak ezagutarazteko ahaleginak tokia utziko dio askoz teknikoagoa, gai zehatzetan zentraturiko eta proposamenak egiteko zen ekintza paradiplomatikoari. Euren eskubideak errebindikatzeko hamarkada honetan praktikan jarritako agitazio politikoa eta legala konbinatzen duen HIKE jarri zen martxan (Sanders, 1980: NET). HIMBk Panaman 1984an egindako bileran Camberran onarturiko Sanders-en zirriborroa onartu zen, bertan 17 artikuluz osaturiko proposamena onartu zelarik. Panaman adostutakoari jarraituz, 1985ean NBEren lanaren nondik norakoak argitzeko asmoz *Declaration of Principles on the Rights of Indigenous Peoples* onartu zuten NBEn parte hartzen ari ziren erakunde indigenek eta aldeko GKE-ek.

Nazioarteko eremuan izandako partaidetzak, zein ekologista, akademiko eta garapen alternatiboaren aldeko aliatuekin egindako lanak lagundu egin zuen herri indigenen aktoretza politikoa eta haien kulturaren balioaren aldeko iritzia sortzen. Hamarkada honetan akademian zein nazioarteko instituzioetan jatorria duen herri indigenen aldeko literatura indartsua agertuko da. Bertan, herri indigenen kasua giza eskubideen mailan baina batez ere, euren ohiko jakinduriak ingurumenaren babeserako zuen garrantzia hasi ziren modu indartsu batean zabaltzen. Sutherland-ek (1995) aipatu egiten du herri indigenek gobernu eta akademikoekin landuriko kontaktuek erabat baldintzatu egin zutela ekologiarekin loturiko nazioarteko agenda. Egile horren ustez, eragin hau are nabariagoa da ohiko jakinduriari loturiko debate eta ikerketan. Adibide gisa, munduko etnobotanikoak, biologoak, biokimikoak eta indigenak bateratu zituen *First International Congress of Ethnobiology* delakoak. Biltzar hori Brasilgo Belen-en egin zuten eta bertan indigenen ohiko jakinduria erabiltzeagatik konpentsazioaren bat jaso behar zutela defendatu zen. Horrelako batzarrek indigenak hamarkada honetan sare epistemologikoekin, aktibista zein gobernuekin aliantzak sortzeko eta gai zehatzei loturiko nazioarteko sare zabalak lortzeko gaitasuna erakusten digute.

Herri indigenen aktoretza politikoa, euren kulturaren balioa munduko biodibertsitatea mantentzekoa nahiz euren kulturaren jarraipena bermatzekoa, bai HIGEAren proposamenean zein 1989an UNICEFek bultzaturiko Haurren Konbentzioan aurkituko dugu. Munduko umeentzat hain garrantzitsua den konbentzio horretan lortu egin zen haur indigenei euren kultura mantentzeko zuten eskubidea 30. artikuluan aitortzea. Artikulu hori NBEren mailan herri indigenei zuzenduriko lehena da (Burger, 1999) eta ama-kulturaren aldeko eskubide hau garrantzitsua da euren umeek jasan dituzten politika asimilatzaileei aurre egiteko.

Herri indigenen aktoretza eta kulturen aldeko hamarkada honetan gertaturiko sona handiko beste gertakizun bat NLEren 169 Hitzarmenaren onarpena izan zen.

2.7.1. 169 Hitzarmena: hamarkadako aurrerakuntza nagusia

Aurrerago aipatu dugun bezala, NLEk bultzaturiko 107 Hitzarmenak munduko herri indigenen egoera zertxobait hobetu zuen, baina asimilazio-bidean jartzeko gomendioa berebiziko mehatxua zen herri indigenentzat. Indigenenentzat asimilazioa heriotza zen. Jokoan zegoena horren garrantzitsua izanik, mugimendu indigena asko mehatxu horri aurre egiteko sortu ziren. Garapen-prozesuaren hastapenak birplanteatzeko, haien herri-izaera defendatzeko, politika eta proiektuetan aldaketa eragiteko, asimilazioa uxatzeko nahiz haren ordez kultura eta herri/nazioen arteko elkarrizketa ezartzeko lan politikoari ekin zioten. Ezaugarri asimilazionistarekin batera indigenek ez zuten maite 107ak gobernuei euren arazoen gainean nahiz euren etorkizuna erabakitzeko ematen zien erabateko boterea. Beraz, asimilazioaren aurkako eta burujabetasunaren zein deszentralizazioaren aldeko mugimendua sustatu zuten hamarkada honetan. Deskribatu dugun bezalaxe, euren presentzia eta

eragina indartu egin zen nazioarteko eremuan, gobernuen arteko erakundeen artean zein gobernuz kanpokoen artean.

1986an WCIPek etnozidioaren aurkako jarrera hartu, 107ren eragin ezkorra salatu eta konbenioan aldaketa eskatu zuen (Anaya, 1996). Goi-mailako eztabaidetan modu zuzenean izan ez bazen ere, langile-sindikatuen bidez edo gobernu-ordezkaritzetan parte hartuz lortu egin zuten euren ikuspuntuak mahai gainean jartzea (Tomei, 1997). NLEk, zegoen egoeraz jabetuta, 107 Hitzarmena berraztertzeko kontsulta batzuk egin zituen, batez ere Latinoamerikan, eta indigenek parte hartu zuten. Hala ere, inportantea da argitzea indigenen partaidetza eskasa izan zela eta zeharkako bideak erabili behar izan zituztela euren ikuspuntuak balioztatzeko. Baina arrakasta izan zuten komunikabide eta gizarte zibilarekin asimilazio-politikaren ondorio ezkorrak erakusten, horrela Nazioarteko Lan Erakundea (NLE) bere jarrera birplanteatzera eramanez. Horrexegatik 169 sorreran zegoen ebaluazio-lantaldera ordezkari indigena batzuk gonbidatu zituen. Khosravi-ren (2006), arabera 107 Hitzarmenaren aurkako kritika eta aktibismo asko lantaldean sortu ziren. Horri erantzunez, NLEk adituen batzorde bat deitzea erabaki zuen, eta hor sartu ziren. Herri Indigenen Munduko Batzarrak eta Survival International-ek lehen aldiz parte hartu zuten nazioarteko foro batean aditu bezala. Horretaz gain, egon egon ziren langileen ordezkaritzat lagunduta indigenak ikusle (Tomei, 1997). Gobernuen, langile ordezkarien eta enpresa ordezkarien arteko negoziazioen ondorioa izan zen 169 ituna. Hitzarmen honek aurrekoaren hizkuntza asimilazionista arbuiatu eta kulturen arteko errespetu eta duintasunaren alde egiten du. Ondorioz, NLEk 1989an herri indigenen eskubideak aitortzen zituen 169 Hitzarmena onartu zuen. Modu horretan NBEren familiako erakunde nagusi batek herri indigenek egindako ekintza paradiplomatikoaren fruituak onartu eta txertatu egin zituen nazioarteko garrantzi handiko itun batean.

Indigenen partaidetza eskasa izan bazen ere, ituna herri indigenen eskubideak onartzen dituen maila gorena duen ituna izanik, hurrengo hamarkadan gertaturiko hainbat errebindikazio indigenaren protagonista izan da (Anaya, 2006), estatu zein nazioarteko aktoreekin izandako negoziaketetan erreferentzia bihurtu delarik. Latinoamerikako hainbat herritan herri indigenen presioei erantzunez euren aldaketa konstituzionaletan aintzakotzat hartu zuten hitzarmen hau, eta indigenen egoera hobetzeko ahalegin askotan protagonista izan dugu.

169aren inguruko prozesuan parte hartuz Laugarren Munduak bere presentzia eta eraginkortasuna sendotu egin zuen hamarkada honetan. Izan ere, bidea prestatu zuen hurrengo hamarkadan gertaturiko aurrerakuntzak ahalbidetzeko. Zeharka zein zuzenean, ikusiko ditugu herri eta nazio indigenak estatu zein nazioarteko erakundeekin harreman zuzenean. Gainera, jarrera historiko luze batekin apurtuz onartu egin zen estatu eta gizabanakoaren artean eskubide bereziak dituzten herri indigenak daudela. Nahiz eta eztabaida handiaren erdian izan, indigenek lortu egin zuten euren ahotsa eta presentzia nazioarteko politikan finkatzea.

Bestalde prozesu honetan parte hartu zuten erakundeek euren estatusa goratu zuten eta esperientzia honek sare diplomatiko propioa zabaltzeko balio handikoa izan zitzaien. Prozesu honen adibide ona dugu COICA. Erakunde indigena horrek NBEk antolaturiko batzarretan parte hartuz eta NLEren 169 Hitzarmenaren inguruko negoziaketan partaide izanik. Era horretan, erakunde indigena Europako hainbat aktore berrirekin harremanetan jarri zen eta komunikabideekin kontaktuak lortuz aliatuak nahiz nazioarteko baliabide ekonomiko ugari lortu zituen. COICAk egindako bisitaldiek baldintzatu egin zituzten ondorengo politikak ofizial zein ez ofiziala asko. Erakunde horrek Amazoniako gaietan bere pisu politikoa nazioarteko erkidegoan nahiz erregio mailan tinkotu egin zuen.

2.8. Nazioarteko aktoretza sendotu zutenekoa

1992tik 2007ra indigenek aurreko 500 urteetan izan ez zuten ikusgarritasuna lortu dute mundu mailan. Haien presentzia eta diskurtsoa nabaria da haien Amerikaren Aurkikuntzaren 500. Mendeurrenean (1992), garapen iraunkorra (GI) munduratu zuen Rioko Gailurrean (1992), Giza Eskubideei Buruzko Vienako Mundu Konferentzian (1993), Herri Indigenei Nazioarteko Urtean (1993) eta hauei zuzenduriko hamarkadan (1994-2004), matxinada Zapatistan (1994) edota Seattle, Genova edo Porto Alegreko Globalizazioaren Aurkako Biltzarretan, bai eta Arrazismo eta Xenofobiaren Aurkako Durban-eko Bileran (2001) edo Rioko 10 urteren osteko Johannesburg-eko II. Mundu Gailurrean (2002), Tunez-ko Informazio Gizarteari buruzko Gailurrean, eta, azkenik, Balin (2007) Klima Aldaketari buruzko Gailurrean. Biltzar horietan zein bertan sorturiko goi-mailako dokumentuetan herri indigenak presente egon dira. Horretaz gain, 2000n gertaturiko Herri Indigenen Foro Iraunkorraren sorrera eta 2007an Herri Indigenen Eskubide Unibertsalen Aldarrikapenaren onarpena.

Horrelako ekimenekin lortu egin zuten euren ahotsa mendeetan isilean eta ezkutuan mantendu zituen eta sarritan arbuiatu ere egin zituen nazioarteko gizartean. Presentzia horrek nazioarteko zuzenbidean oraindik dagoen ideologia kolonialistaren dekonstrukzioaren eta kritikaren jomuga markatzen du (Ryser, 1996). Ideologia horrek herri indigenekiko bizirik dagoen nagusitasunezko sentimendua islatzen du (Cirkovic, 2006).

90eko hamarkadan aurreko hamarkadetako nazioarteko erkidegoa biziki baldintzatu zuen Guda Hotza amaitu egin zen. Bigarren Munduak ezaguturiko inplosioak nazioarteko paradigma eta egituren erabateko aldaketa ekarri zuen. Metafora bat erabiliz, zera esan dezakegu, Guda Hotzak sorturiko izotzak agenda indigena zanpatu eta blokeen arteko gatazkaren gatibu mantentzen zutela, izotzak desagertu ahala gai indigenek gora egin zuten, eta hamarkada honetan mugimendu indigenaren benetako loraldia gertatu zela esan dezakegu, inolako ezbairik gabe. Guda Hotzaren osteko eszenatokian globalismo eta interdependentziarekin loturiko gaiek garrantzia irabazi zuten nazioarteko agenda berrian (Del Arenal, 2002).

Nazioarteko ordena berria deitu zen horretan indigenek maite zituzten gaiak, hots, giza eskubideak, demokraziaren sustapena, ekologia, demokrazia eta partaidetza nahiz gatazka-prebentzioa aurkituko ditugu.

Hamarkada honetan, multilateralismoa eta nazioarteko erakundeen garrantzia, ekimena eta presentzia mundu mailako arazoei aurre egiteko ezinbestekotzat ikusten zen (Cleveland, 1993). Giro berri honetan eta Sobiet Batasunean gertaturikoa ikusirik gatazka-prebentzioen aldeko apustu sendoa egin zen. Gatazkak oro har eta batez ere gatazka etnikoak konpontzeko eta prebenitzeko elkarlana, negoziazioa eta gatazken zergatiak ulertzeko eta mekanismo berriak ezartzeko beharra nagusitu zen (Ryser, 1993).

Giro horretan gatazkak prebenitzeko eta konpontzeko ekimenek nazioarteko erakunde politiko eta akademikoen agendetan aurrera egin zuten (Bercovich, 2003). Giro berrian Laugarren Munduak bere partaidetza eta kontribuzioa gauzatzeko bide berriak aurkitu zituen. Aurreko hamarkadan egindako lanari esker, gatazka zein hondamendi ekologikoari aurre egiteko bibliografian areagotu egin zen haien presentzia, nazioarteko ahaleginean derrigorrezko partaide gisa aipatzen zirelarik Era horretan akademiko eta adituen artean aurreko hamarkadan lortutako eragina handitu egin zen.

Garai honetan aurreko hamarkadan hasitako bake-prozesuek aurrera egin zuten eta bakea ikusiko dugu Salvador, Guatemala, Nikaragua, Bangla Desh, Timor edo Perun. Munduan zehar demokraziaren haizeak indartsu jo zuen eta diktadura anitz erori ziren. Hainbat tokitan gobernu demokratikoak izango ditugu diktadurak edo etnokraziak zeuden tokietan. Txile, Hegoafrika, Filipinak edo Indonesia, gutxi batzuk aipatzeagatik, dira prozesu horren lekuko. Demokraziaren hedapenak mobilizaziorako aukera berriak sortu zituen herri indigenentzat (Dunaway, 2003).

Nazioarteko testuinguru berri honek Laugarren Munduaren mobilizazioa erraztu egin zuen eta posiblea egin Mexikon, Bolivian, Txilen, Ekuadorren edo Guatemalan herri indigenek irabazitako protagonismo politikoa. Testuinguru berri honi eta aurreko hamarkadan herri indigenen aldeko nazioarteko lortutakoari jarraituz eta herri indigenek egindako barne-presioari erantzunez, Latinoamerikako estatu batzuek herri indigenen eskubideekin konstituzio-aldaketak egin zituzten, gehienbat eskubide kulturalak sustatu nahian: Nikaragua (1986), Brasil (1988), Ekuador (1994 eta 1998), Nikaragua (1995), Kolonbia (1991), Mexiko (1992 eta 2001), Guatemala (1992), El Salvador (1992), Paraguay (1992), Peru (1993), Bolivia (1994), Argentina (1994), Bolivia (1994), Venezuela (1994) eta Australian (1992). Modu batean zein bestean, herri indigenen eskubide kulturalak eta zabalera ezberdineko lurraldearen gaineko eskubideak onartu ziren, baina oso gutxitan onartu ziren estatuaren nazio-aniztasuna edota lurraldeen gaineko kontrola edo gobernu autonomoak (Gonzalez, 2007).

Hamarkada honetan herri indigenek gorengo ikusgarritasun politikoa irabazi zuten, eta haien aktoretza nazioarteko erkidegoan, baina bereziki NBEren baitan finkatu zen. Aurreko hamarkadetan egindako presio politikoari erantzunez, NBEk herri indigenen partaidetza ahalbidetzeko bideak eta ekimenak bultzatu zituen hamarkada honetan. Hori dela-eta, HIKEren loratzea ikusiko dugu, inoiz baino gehiago, eta inoiz baino sarriago agertuko baitzaizkigu indigenak nazioarteko aferetan parte hartzen. Nazioarteko partaidetzak aurreko hamarkadetan egindako ahalegina sakondu eta biderkatu egin zuen. Gainera hamarkada honetan indiotasuna mundu mailako nortasun eta arazo bihurtuko da. Aurreko hamarkadetan ezagunak egin zaizkigun aktoreei Afrika eta Sobietar Batasuna izandakoaren herri indigenak gehitu zitzaizkion. Modu horretan, Laugarren Munduaren agenda eta identitate kolektiboa mundu mailako fenomeno bihurtu zen kontinente guztietara zabaldurikoa.

Aipatu dugun bezala, orduko nazioarteko agenda berrian ekologia eta garapen iraunkorrarekin loturiko gaiak interes handikotzat hartu ziren. Giro berri honetan, asko hasi ziren botere-kontzentrazioaren arriskuak salatzen. Kritiko hauen aburuz, ingurumen-krisialdia eta giza eskubideen bortxaketa botere politiko eta ekonomikoaren kontzentrazioarekin lotuta zeuden. Kontzentrazioaren aurka nazioarteko gizarte zibila «*Grass Roots Diplomacy*» agertu zen ahots alternatibo gisa multinazionalei eta haien meneko ziren gobernu laguntzaileei aurre egiteko. Aliatu horren presentziarekin batera, komunikabide-teknologian gertaturiko aurrerakadek posible egin zuten nazioarteko mugimendu pan-indigenaren sendotzea eta zabaltzea (Arregi 2006).

Faktore hauek guztiek posible egin dute Laugarren Munduak planteaturiko nortasun pan-indigena eta haren agenda, nazioarteko politikan ez ezik, komunikabideetan eta Interneten ere indartsu agertzea. Mendeak isiltasunean eta ahazturik egon ondoren, indigenek euren aktoretza politikoa, errealitate aktiboa eta erresistentziazko historia ekarri digute begi aurrera. Indigenek inoiz baino gehiago fenomeno garaikide, moderno eta globala direla erakutsi digute. Are gehiago, herri indigenen kulturen kultura deitu den horrekin gure zibilizazio industrial, arrazionalista eta teknokratikoei kontrajartzen zaien mundu-ikuspena dagoela erakutsi dute.

Aurreko hamarkadan bilduriko esperientzia aprobetxatuz eta aukera berriez baliatuz HIKE bere goi-mailara eramango duen intelligentsia pan-indigena sortu zen aurreko hamarkadan ohiko aitzindarien protagonismoa hartuz. Intelligentsia horrek nazioarteko erkidegoan nagusi ziren joera eta jarrerei hoberen moldatzen zitzaien diskurtso eta praktika politikoa burutu zuen, inoiz baino teknikoagoa. Helburua zen Laugarren Munduari dagokion tokia lortzea nazioarteko erkidegoan eta bertan aktoretza aktiboa burutuz parekoei dagokien tratamendua jasotzea.

Mundu berriak pairatzen zituen erronkei erantzuteko asmoz, NBEk ikuspuntu berriak hartu eta herri indigenei lagungarri gertatu zitzaizkien aldaketak jarri zituen martxan. Hamarkada honetan, 40 urtez nazioarteko politikatik kanpo egon ondoren

«Laugarren Munduak» aurkitu egin zuen bere tokia. Are gehiago, onartu egingo zaio bere protagonismoa eta bere arazoei hobeto erantzungo dien nazioarteko sistema batera abiatzeko proposamena kontuan hartu zen. Helburu hori erdiesteko negoziaketa eta presio politikoa izan zen. HIKEren helburu nagusia zen nazio, estatu eta nazioarteko erakundeekin negoziazioak burutzea, herri indigenen arazoei hobeto erantzuten dien nazio barneko nahiz nazioarteko marko normatibo eta politiko berria lortzeko. Hamarkada honetan negoziazio politikoa tresna eta helburua izango da. Indigenek mundu akademikoan, nazioarteko gizarte zibilaren eta nazioarteko adituen artean aliatuak lortu bazituzten ere, argi zuten nazioarteko eta estatu barneko sektore nagusiekin elkarrizketa eta negoziazioa beharrezkoak zirela.

Printzipio horri jarraituz, herri indigenek euren ikuspuntua aurkezteko balio handikoak izan ziren zenbait forotan parte hartu zuten hamarkada honetan. NBEren babespean antolaturiko txosten, ikerketa, tailer, konferentzia eta antzekoek aukera ezin hobeak eskaini dizkiete herri indigenei euren ahotsa entzunarazteko eta euren prestakuntza, erakunde-sendotasuna zein partaidetza nazioarteko erkidegoan hobetzeko. Era berean, haiei zuzenduriko ekimenen kopurua herri indigenek irabazitako presentzia eta garrantziaren testigu bihurtu da. Gainera, NBEn gauzaturiko partaidetza haien arazoak konpontzeko negoziazio eta nazioarteko legediaren alde egindako konpromisoaren froga bihurtu da. Negoziazioa eta legearen errespetua, beraz, izango dira bizi dituzten arazo larriak konpontzeko bidea; kasu berezietan matxinada, hots, Chiapas, Chittagon Hill Trucks edo Burman zein Papua Ginea Berrian.

1990eko hamarkadan ia ezinezko gertatuko zaigu giza eskubideez, ekologiaz, garapenaz, sakontze demokratikoaz eta gobernu egokiaz (Cleveland, 1993; Martí i Puig, 2004), justiziaz, kultura-aniztasunaz, gatazka etnikoaz (Gurr, 1994), demokraziaz eta nazioarteko gizarte zibilaz hitz egitea herri indigenei erreferentziarik egin gabe (Dunaway, 2003). «Laugarren Mundua»ren presentzia biderkatu egingo da hamarkada honetan eta inoiz baino gehiago izango dira nazioarteko politikan zabalduriko leihoak, zeinak euren arazoak eta proposamenak kaleratzeko aprobetxatuko baitituzte herri indigenek. Hamarkada honetan NBEren mailako partaidetzak puntu altuena lortuko du 1999an 1.000 pertsona inguru bildu zirenean PILen 17. saioan. Modu horretan, euren ekimenez aurreko hamarkadan sorturiko esparru politikoa sendotu eta finkatu egingo da. Aurreko hamarkadetan prozesua hasi zuten erakunde historikoekin batera, maila lokaleko GKE indigenak edo herri indigenen ordezkaritzak ikusiko ditugu hamarkada honetan nazioarteko politikan esku hartzen. Lehenengo Munduko eta Amerikako ordezkaritzek prozesuan zuten erabateko nagusitasuna osotu egin zen Asia, Afrika eta Pazifiko eta Sobiet Batasuna zenaren ordezkarien partaidetzarekin.

Errealitate honek mugimenduaren izaera dinamikoa erakusten du eta enbido egin NBEn europar botereen kolonizazio historikoa eta «indigena» lotzen dituzten definizioei. Indigenek «ur gazituaren printzipioa»ri kritika gogorra egin, berau

bertan behera uztea eta «barne-kolonizazioa» integratzen duen kontzeptu berri baten beharra defendatu dute (Cojti,1997). Barne-kolonialismoaren kontzeptua indigenak ez diren intelektualen lanetan ere aurkituko dugu. Hots, Stavenhaguenek (1990) erabili egingo du herri indigenen egoera mundu mailan deskribatzeko eta hurrengo hamarkadan zenbait egilek Afrikako (Kabunda 2005, Caranci,2005) egoera deskribatzeko erabili egin dute.

Nazioarteko oihartzuna ukan eta nazioarteko sarea eraikitzeko balio zuten ekimenen artean aipagarria da 1991n UNESCOk Otawan egindako «500 urteak baino harantzago espiritua sendotzen» biltzarra. Bertan 800 partaide bildu ziren eta Ameriketako ordezkariak ez ezik, Filipinak, Australia, Eskandinavia, Errusia eta Afrikako ordezkariak egon ziren. Bertan bildutakoak etnozidio, akulturazio, hezkuntza elebidun eta kulturen arteko harremanei buruz mintzatu ziren. UNESCOk zabaldutako bide horri jarraituz, San Cristobal de las Casas-en (1991) eta Oaxacana-n (1993) hezkuntza eta kulturarekin loturiko gaiak aztertu ziren.

Horrekin batera, Munduko Bankuak 1991n 420 herri indigenekiko politika berria onartu egin zuen. Arautegi horrek herri indigenen definizioa eskaini, partaidetza-eskubidea defendatu eta haien lurretan Munduko Bankuak lagunduriko proiektuak daudenean «herri indigenen aldeko garapen-planak» izatea agindu zuen. Gainera, ondorio ezkorrak saihesteko eta babesa emateko gogoa erakutsi egin zuen eta mekanismoak ezarri proiektuen inguruko prozedura guztietan herri indigenak integratzeko. Erabaki horretan pisu handia izan zuten 1980ko hamarkadan Bankuak berak bultzaturiko proiektuen aurka mundu mailan egindako mobilizazioek. Geroxeago, bide honi heldu zioten Banku Interamerikanoak eta beste nazioarteko finantza-erakundeek. Hau garrantzi handikoa gertatu zen horrelako erakundeek kontuan hartu dituztelako herri indigenak.

Herri indigenen nazioarteko presentzia eta ikusgarritasunari dagokionez, 1992a izango da, ezbairik gabe, arrakastaren urtea. Urte horretan Amerikaren Aurkikuntzaren Bosgarren Mendeurrenaren aurkako inguruko mobilizazioak gertatu ziren. Espainia eta Vatikanoarentzat fundazio-mito inportantea ospatzen zen eta horrek ekarri egin zuen indigenen mundu mailako erantzuna, Ameriketan handiagoa izan bazen ere. Gogoratu egin behar dugu 1977ko konferentzian indigenek eskatu egin zutela urriaren 12a «Nazioarteko elkartasun eta Doluminaren eguna izandatzea» (Ortiz-Dunbar, 2004). Herri indigenek eta euren erakundeek, horietariko asko ekintza horren inguruan sortutakoak, protagonismoa lortu eta politikari zein munduko komunikabide guztien arreta lortu zuten (Van Cott, 1996). Mendeurrenaren inguruan prestaturiko ospakizun zein salaketek herri indigenen partaidetza izan zuten. Gertakizun historiko horren inguruan buruturiko hausnarketa kolektiboan kulturen arteko komunikazioari atea zabaldu eta historia ofizialari kritika egin zitzaion. Zapalduen ikuspuntua, euren ahotik entzutea posiblea izan zen.

Aurreko hamarkadetan herri indigenek giza eskubideak eta ekologia uztartzen zituen ekimenaren fruituak mundu mailako onarpena lortu zutenean. Urte honetan hasten da euren gorengo presentzia eta aktoretza nazioarteko harremanetan. Munduak aurpegi indigenak, mezu indigenak eta protagonista indigenak ikusi zituen lehenengo aldiz agenda global berriaren auziak eztabaidatzen NBEko foro batean eta estatu-ordezkarien aurrean.

Herri indigenek, egindako kritika eta proposamenen bidez, modernotasunak garapenaren norabidea eta ingurumenarekin zuen harremana aldatzeko debatean protagonismoa irabazi zuten. 1992ko Rioko Munduko Gailurretik hasita, eta handik eratorriak diren Konbentzio eta ekimen guztiak, modu batean edo bestean, herri indigenen paperaren aitorpen eta partaidetzaren beharraz aritu ziren. Lorturiko nazioarteko errekonozimendu honek sendotu egin ditu ekologiarekin loturiko gaiak, HIKEren ardatz nagusietako bat izatera pasatu zirelarik.

Gailurrean lorturiko arrakastaren atzean, Kari-Oca-ko biltzar indigena eta paraleloan egindako «Lurraren Gutun Indigena» zegoen. Rion GIren nondik norako nagusiak eztabaidatzeko eta negoziatzeko estatuburu, diplomatiko, aditu eta antzekoak bildu ziren bitartean, Kari-Oca-n indigenak eta gizarte zibilaren ordezkariak bildu ziren, GIri buruzko eztabaida honi euren kontribuzioa egiteko. Mobilizazio indigena honen ondorioz, Riotik ateratako Agenda 21ek bere 26. artikulua «herri indigenei» eskaini zien, haien garrantzia eta egokitasuna munduko arazo ekologikoak jorratzeko eta prebenitzeko orduan goraipatuz. Hori gutxi balitz, gailur horretan lehenengo aldiz ordezkari indigena batek plenariori hitza zuzentzeko aukera izan zuen (Anaya 1997).

Garapena eta ekologia bateratzen zituen GIn indigenak nazioarteko estrategietan aktore gisa agertu ziren lehen aldiz. Gainera, Riotik eratorriak diren itun eta dokumentuetan haien kulturen balioa, natura kudeatzeko trebetasuna aitortu egiten da, indigenen autogarapena bultzatzeko eta eskubideak bermatzeko deialdia eginez. Modu horretan GI bultzatzeko politika eta programen (*major group*) helburu bihurtuko dira. Beraz, indigenak lagundu eta indartu beharreko aliatu gisa agertuko zaizkigu. Lur-eskubideak eta kulturaren balioa sustatzeko nazioarteko deialdia hedatuko da. Ondorioz, nazioarteko legedia zein printzipio hauek integratzen dituzten estatu mailako legediek indigenak babesteko mandatua bere gain hartu zuten.

Historian zehar behin eta berriz euren kulturen balioa ukatuta ikusi ondoren, indigenek nazio industrializatuei zer kontribuitzerik badutela ikusi zuten munduko estatuek, beren nazioarteko sistemak eta berau osatzen duten erakundeek.

Arlo horretan ezaguturiko arrakasta aprobetxatuz, ekologiarekin lotuta zabaltzen ari zen eremuan benetako presentzia eraginkorra izateko gai zehatzei loturiko nazioarteko erakunde indigenak sortu ziren, adibidez, basoen defentsan zentraturiko mundu mailako, International Alliance of Indigenous –Tribal Peoples of the Tropical Forest sortu zen. Erakunde horrek Laugarren Munduaren ideologiari

jarraituz biopolitikarekin loturiko arloetan erregio mailako erakundeak, GKE eta adituak bilduko ditu. Sortu zenetik arlo horretan erreferentziazko erakunde bihurtuko da.

Urte honetan gertaturiko azken mugarria Rigoberta Menchú-k Bakearen Nobel Saria jaso zuenean gertatu zen. Horrela, herri indigenek azken 500 urteetan gauzaturiko erresistentzia eta borrokaren zilegitasunaren aitorpena jaso zuten.

1993an Vienan egin zen Giza Eskubideei buruzko Mundu Mailako Konferentzian presente egon ziren. Ia dozena bat ordezkari izan genituen hitza osoko bilburari zuzentzen (Khosravi, 2006). Indigenen herri-izaeraren aitorpenak eta haiei loturiko autodeterminazio-eskubideak aurrera egin ez bazuten ere, Foro Iraunkorra sortzeko herri indigenen eskaera bultzatu egin zen. Halaber, euren nazioarteko zein estatu barneko partaidetza areagotzeko eta sendotzeko deialdia egin zuen Konferentzia inportante horrek.

Deialdi horri jarraituz, NBEk 1993ko urtea izendatu zuen «Munduko Populazio Indigenen Urtea». Indigenek nahi zuten 1992a izendatzea baina AEB eta Espainiak 1993ra atzeratu zuten (Minde, 1995). Urteetan zehar mobilizazio pan-indigenaren helburu bat bete zuen: honelako urte bat izatea munduko herri indigenek bizi zuten egoera larriaren gainean munduko arreta eta interesa erakartzeko. Gura errealitate bihurtu zuen NBEk 1993ko urtea zeregin honetarako izendatu zuenean. Urte horren xede nagusietariko bat herri indigenek bizi zituzten arazoei aurre egiteko nazioarteko kooperazioa sendotzea zen. Jorraturiko alorrak giza eskubideak, ingurumena, garapena, hezkuntza eta osasuna izan ziren, eta aukeraturiko slogana «Herri Indigenak: Aliantza Berria». Horretaz gain, Rigoberta Menchú urte horretarako NBEren borondate oneko enbaxadore izendatu zuten.

Horrekin batera, 1993an ere, 48/163 Ebazpenean NBEko Batzar Orokorrak onartu egin zuten 1995-2004 hamarkada herri indigenen hamarkada izendatzea. Hamarkada horren helburua, herri indigenekin nazioarteko kooperazioa bultzatzea zen. Era horretan herri indigenek pairatzen zituzten arazoei (giza eskubideen, osasunaren, ingurumenaren eta garapenaren alorretan batik bat) aurre egin ahal izateko. Hamarkada horri laguntzeko Hamarkadarako Borondatezko Kontribuzioen Funtsa sortu zen. Funts horretan UNDPren ordezkari bat, hiru gobernu emaileen ordezkariak, Populazio Indigenen Lantaldearen burua eta Herri Indigenen bost ordezkari biltzen dira ordudanik. Horretaz gain, komunikazio- eta kontzientziazio-mailan laguntzeko abuztuaren 9a herri indigenen nazioarteko egun izendatu zen. Baina seguru asko benetako mugarria HIGEren azken zirriborroa onartu zenean lortu zen.

Hori onartuta gero, 1994an WCIP inguruko jendeak beste herri eta ordezkari indigenekin batera HIGEAri alternatiba egiteko Herri Indigenen Nazioarteko Konbentzioa proposatu zuten. Alternatiba hau indigenek propio buruturikoa da.

HIGEA azpibatzorde gisa 1993an onartua izan ondoren, 1995ean zirriborroak bere bidea egin zuen. Giza Eskubideen Batzordeak talde berezia sortu zuen HIGEAren proposamena eztabaidatzeko. Estatuen eragina berehala sentiarazi zen. Hasieratik prozedurak luzatu, negoziazioak bihurritu eta indigenen partaidetza eta estatuek onartutakoa berridazteko intentzioa azaldu zuten. Zirriborroaren osotasunaren defentsa HIKEren beste ardatza bihurtu zen hamarkada honetan.

Bestalde, 1995ean Herri Indigenen Foro Iraunkorra sortzeko lehenengo bilera egin zen Kopenhagen Laugarren Munduaren partaidetzarekin. Foro Iraunkorraren iradokizuna NBEren sistema indartzeko eta Laugarren Munduaren partaidetza gauzatzeko beste pauso inportante bat izan zen.

NBEtik kanpo 1996an Kopenhagen Visions Abya Yala delako nazioarteko erakunde eta ordezkari indigenen bilera gertatu zen. Amerikako herri indigenen ordezkariek aukera izan zuten Europako herriei, zuzenean, NBEren mailan zein estatu bakoitzean gertatzen ari ziren prozesuei buruzko informazioa emateko. Bilera hori garrantzi handikoa izan zen egungo arazo eta prozesuei erantzuteko herri indigenek euren proposamenak kaleratu zituztelako. Jorraturiko gaien artean autodeterminazio eta lurraldetasuna, biodibertsitatea eta jabego intelektuala, hezkuntza eta kultura, espiritualtasuna eta erlijioa, emakumea, nazioarteko hitzarmenak, nazioarteko kooperazioa eta garapena, komunikazioa, osasuna eta ohiko sendakuntza egon ziren. Bilera horretan jorraturiko gaiak eta ikuspuntuak bilduz «Kopenhageko aldarrikapena» atera zen. Bertan Laugarren Munduak buruturiko HIKEren ardatza diren gaiak aurkitu daitezke, baita nazioartean aritzeko proposamenak eta lan ildo nagusiak ere.

1997an aitzindari indigenak NBEren giza eskubideen sisteman trebatzeko programa onartu zen. Prozesuaren bultzatzaile izango den belaunaldi berri baten gaitasuna hobetzeko egin zen eta Afrika, Asia zein Sobiet Batasuna izandako ordezkarien partaidetza bultzatu egin zen. 2000tik gaurdaino NBEren programa honen barruan eta Eusko Jaurlaritzaren finantzazioaz, Deustuko Unibertsitatean Latinoamerikako aitzindarientzat trebatze-saio berezia egiten da gaztelaniaz *Programa de Formación en Derechos Humanos para Pueblos Indígenas de Latinoamerica* izenarekin. Hasierako formakuntza Bilbon jaso ondoren azken saioa Genevan egingo dute, eta NBE sistema eta bere inguruko GKEen artean trebakuntza amaituko dute. Ingelesez bakarrik irakasten zen programa hau 2006an gaztelaniaz, frantsesez eta errusieraz egiten da munduko zenbait tokitan.

1999an HIKEk bultzada handia jaso zuen Miguel Alfonso Martinez-ek *Estudio sobre los tratados, convenios y otros acuerdos constructivos entre los Estados y las poblaciones indígenas* indigenek sinaturiko hitzarmenei buruzko txostena aurkeztu zuenean. Txosten horretan Martinez-ek domestikazio-politika gogor kritikatu egin zuen. Martinez-ek argi utzi zuen indigenekin sinaturiko tratatuak nazioartekoak zirela eta direla indargabetu aldebakarki. Izan ere, egindako subiranotasun indigenaren

ukapena legegabekotzat eman zuen eta gogoratu Hawaii antzeko kasuak daudela. Hawaii-k deskolonizaziorako herrien artean egon beharko lukeela zioen Martinez-ek. Azkenenik, azpimarratu egin zuen sinaturiko hitzarmenek ahalmena handia dutela indigenen eta indigena ez direnen artean XXI. mendeko harremanak bideratzeko.

1992an hasita, herri indigenek NBEk antolaturiko nazioarteko mundu mailako gailur inportante guztietan presentzia izan zuten, eta eremu horretan sorturiko aldarrikapen eta ekintza-prometan aipatuak izatea lortu zuten. Hots, Vienako Giza Eskubideei buruzko Konferentzia (1993), Kairoko Populazioari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentzia (1994); Kopenhageko Gizarte Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentzia; Beijingeko Emakumei buruzko 4. Nazioarteko Konferentzia; Arrazismo, Arrazakeria, Xenofobia eta Intolerantziari buruzko Durbaneko Mundu Konferentzia (2001); Johannesburgoko WSSD Gailurra (2002) eta Tunezko Informazio Gizarteari buruzko Mundu Konferentzia dira aipagarrienak. Aipaturiko kasu hauek nazioartean duten presentzia eta haien alde zabalduriko iritzi eta joeraren erakusleak dira.

Nazioarteko biltzarretan izandako partaidetzarekin batera, aipatzekoak dira indigenek egindako aldarrikapenak, adibidez, 1996an Kopenhageko aldarrikapenak aurretik jorraturiko bidetik abiatu eta osatu egin zituen aurretik gertaturikoak: hala nola Kari-Oca-koa (1992) garapen iraunkorrari buruzkoa, Mataatua-koa (1993) jabego intelektual, biopirateria eta eskubide kulturalei buruzkoa; Phoenix-koa(1995) Giza Genomari buruzkoa, Leticia-koa (1997) basoei buruzkoa, Seattle (2000) eta Bonn (2004) klima-aldaketari buruzkoa.

Paradiplomazia indigenaren arrakasta honek, NBEren adituek bultzaturiko aldaketarekin batera, eraman egin zituen NBEren sistemaren barruan dauden hainbat erakunde herri indigenekiko politika eta ekimen-ereduak berriz aztertzera. Adibidez, WIPO, UNESCO, UNDP, WHO, Nazioarteko Diru Funtsa edota Munduko Bankuak eta haren kideek (*Banco de Desarrollo Iberoamericano, Banco de Desarrollo Asiático*) politika bereziak bultzatu zituzten. Halaber Europar Batasunak edota Amerikako Estatu Batuek bat egin zuten nazioarteko joera horrekin.

Nazioartean lorturiko onarpenek hainbat estatu 169 Hitzarmena sinatzera eraman zituzten. Kanada, Australia eta Zeelanda Berrian *«Terra Nullius»* alboratzeko ekimenak hartzen dira. Era berean, lege-ekimen berriek *Native Title* onartu eta herri indigenekin negoziatzeko beharra eta itun zaharren inguruan kontzentzu berriak lortzeko apustua egiten dute. Horretarako, akordio berriak edo gaurkotze-formula juridikoak erabil daitezkeela defendatzen da. Itunen bidea erabiliz, estatu, erregioetako gobernu, multinazional eta herri indigenen arteko gatazkak bidera daitezke (Martínez, 1999). Hala ere, estatuek nahiago dute akordio berrietara heldu. Hori horrela da itunetan «*nation-to-nation*» estatusa onartzen delako, eta horrek atea zabaltzen duelako nazioarteko zuzenbidearen bidea jorratzeko (Short, 2003).

Aipaturiko bidetik abiatuz, Latinoamerikako hainbat konstituzio berri herri indigenei zuzenduta daude eta eskubide kultural batzuk onartu zatzaizkien. Asian ere Filipinak, Kanputxea eta Malaysiako gobernuek legedi berria eta aurrerakoiagoa jarri zuten martxan, herri indigenei nolabaiteko aipamenak eginez. Europan (Norvegia) eta Errusian ere herri indigenen singularitatea onetsi zen. Afrikan Etiopia, Kamerun, Uganda, Argelia eta Hegoafrikan antzeko ekimenak sustatu ziren. Herri indigenak onartzeko joera honek bere isla izan zuen nazioarteko itunetan eta hainbat prozesutan. Hala eta guztiz ere, aitorpen horietariko asko oso mugatuak dira herri indigenak gutxiengo nazionaltzat dituztelako, euren eskubideak estatuek emandako zerbait balira bezala.

1990eko hamarkada honetan gertaturiko aurrerapenik handienak, hala ere, hondoko bi hauek dira: Herri Indigenen Foro Iraunkorraren (hemendik aurrera HIFI) sorrera (2001) eta Giza Eskubideen Batzordearen barruan Gai Indigenen errelatore baten izendapena (2002). Bi eremu berri horien onarpenak indigenek nazioarteko erkidegoan lorturiko onarpen-mailaren zein NBEren egituran gorengo mailan kokatzeko gaitasunaz testigantza eskaintzen digu.

3. GAI INDIGENEI BURUZKO FORO IRAUNKORRA

NBEren mailan herri indigenak partaidetza iraunkorra eta NBEren mailan ahalik eta toki gorenean izateko aspirazioa aspaldiko kontua da. Kapituluaren hasieran Deskaheh-ren esperientzia dugu aitzindari eta aurrekaria, gero 1980ko hamarkadan eta 1991ko Nuukeko mintegian egindako eskaerak aipatu ditzakegu. Eskaera horrek Laugarren Munduak duen nazioarteko erkidegoaren aldaketarako (*system transforming*) ekimenerako, funtsezko auzia da. Horrelako gune batek nazio eta estatu-ordezkarien presentzia eta elkarlana ahalbidetzen duelako, batik bat.

Foroaren ideiaren gibelean, NBEren mailan erakunde sektore eta batzordeen artean banatuta dauden herri indigenei buruzko ekimena, programa eta abarren koordinazioa sustatuko zuen gunea lortzea zen. Hau HIKEren helburu nagusietariko bat bihurtu zen 1990eko hamarkadan.

1993an Vienan izandako Giza Eskubideei buruzko Mundu Konferentzian Danimarkako ordezkaritza zuen Groelandiako gobernuaren ordezkariak Herri Indigenen Foro Iraunkorraren aldeko (HIFI) deklarazioa egin zuen. Konferentziak ekimen hori onartu eta haren bideragarritasuna aztertzeko deialdia zabaldu zion NBEri. Urte berean NBEk 48/163an Batzar Orokorrak erabaki egin zuen Giza Eskubideen Batzarrean gai honi lehentasuna ematea. Horrek, bere aldetik, 1994an eskaera luzatu zion PILi gai hau aztertu zezan.

Foroaren bideragarritasuna aztertzeko 1995ean lehenengo tailerra egin zen Kopenhagen (Danimarkan). Bertan 21 gobernu-ordezkari, 21 ordezkari indigena eta 2 aditu independentek hartu zuten parte. Tailer horretan erabili egin zen Daes

eta Stavenhaguen adituek prestaturiko txostena eta Foroan gai nagusiak definitu ziren: NBEren egituran non kokatu; non izango zuen egoitza; nortzuk, zenbat eta zer zonatakoak izango ziren partaide indigenak, nolako iraupena izango zuten karguan; zer gai eta nolako mandatuarekin jorratuko zituen; zer prozedurari jarraitu beharko zion Foroak eta, azkenik, nola finantzatuko. Horretaz gain, Foroa nazioarteko erkidegoan Laugarren Munduaren presentzia ziurtatzeko bidea eta indigenak partaide ziren gatazkak konpontzeko tresna zela azpimarratu zen.

Danimarkan iradokitakoari jarraituz, 1995ean azpibatzordeak, bere 47. saioan, HIFI sortzeko proposamena plazaratu zuen. Bere mandatuari buruz giza eskubideak, garapena, ingurumena, osasuna, hezkuntza eta kultura sartzea kontsideratzea defendatu zuen. Mandatua HIFIk NBEko egituran izango duen tokiaren arabera erabakiko zela argudiatu zen ere. Mandatuaren zabalera argitzeko azterketa bat eskatu zen, NBEren mailan honetaz arduratzen diren beste erakundeekin topo ez egiteko.

Urte berean, Batzar Orokorrak A/51/493 dokumentuan onartu egiten zuen ez zegoela NBEren egituran herri indigenei buruzko gaietan aritu edo interesa dutenen arteko informazioa bultzatzeko mekanismorik. Are gehiago, idazkari nagusiak herri indigenen partaidetza eraginkorra bermatzeko prozedura egokirik ez zegoela onartu zuen (Henriksen, 1997: 15).

1997an bigarren tailerraren aurretik Indigenek Foro Iraunkorrari buruzko Herri Indigenen Lehenengo Mintegia egin zuten Temucon. Bertan egoeraren analisia egin ondoren, proposatu egingo dira ondokoak: HIFI NBEren egituran ahalik eta toki altuenean kokatzea; herri indigenen partaidetza zabala eta gobernuek dutenaren parekoa izatea; eta eskubide kulturalak, zibilak, politikoak, sozialak, ekonomikoak, osasunekoak, emakume eta haurren eskubideak, garapena, hezkuntza; gatazka-konponbidea eta NBEren sistemarekin aktibitatea koordinatzea izatea bere mandatuan.

1997an bigarren lantaldea Santiagon (Txilen) egin zen. HIFI bultzatzeko prozesuan proposamen zehatzak egiteko borondatea agertu eta ECOSOCera pasatzea erabaki zen. Lantaldeak onartu egin zuen mintegian indigenek erabakitakoa. Hori bai proposatu egin zen partaidetza, mandatua zein banaketa geografikoari buruzko azterketa egitea, herri indigenak non bizi diren eta haien ordezkaritza nola berma zitekeen jakiteko.

1998an HIFIri buruzko Herri Indigenen Bigarren Mintegia Ukupseni-Iskardup-en (Kuna Yala, Panaman) burutu zen. Bertan adosturiko proposamenak aurrekoan erabakitakoari eutsi eta aurreko mandatuari gehitu egin zizkion ondokoak: biodibertsitatea, estatuen aniztasun kulturala aitortzeko konstituzio-erreformak, gatazken prebentzioa, legedi nazionalaren araudia, bizitzeko eskubidea, hondamendien inpaktua eta emergentziak. Horretaz gain, partaidetzari begira begirale eta partaideen arteko bereizketa onartu zen. Erakunde eta aditu indigenek

parte hartzeko aukera bai, baina botoa emateko aukerari ezetza eman zitzaion. 1998/20an Batzarrak onartu egin zuen Txilen tratatutakoa eta lantalde berezi bat sortzea prozesua aztertzeko. Urte berean, gaia aztertzeko Asiako herri indigenek bilera bat burutu zuten Indoren (India). Bertan idazkaritza independente bat sortzeko proposamena egin zuten. Halaber, Artikoko Herriek Genevan bildu eta deklarazio bat plazaratu egin zuten gai honekin lotuta. Mandatu zabala izatea, ECOSOCi proposamenak, txostenak eta gomendioa egiteko ahalmena izatea, etab. proposatu zen. Halaber, eskatu egingo da HIFI NBEren mailan herri indigenekin loturiko gai guztien koordinazio-gune nagusia izatea.

AITPNk, Sami Kontseiluarekin eta Auzi Indigenen Nazioarteko Taldearekin batera, herri indigenen jarrerak eta iradokizunak bilduko zituen txosten bat jarri zuen martxan. 2000. urtean helburu horrekin Kopenhagen bildu egin ziren ordezkari indigenak eta onartu egin zuten *«Recomendaciones del Sector Indigena sobre la Creación de una Foro Permanente para Pueblos Indígenas en el Sistema de Naciones Unidas».* Bertan, talde nagusiei eta begiraleen partaidetzari buruzko proposamenak egin ziren. Gobernu-ordezkariek onartu egin zuten dokumentu hori ondoko lanerako oinarritzat.

Ondorengo negoziazioetan Chakma-k (2000) salatu du herri indigenen ikuspuntuak ez zirela kontuan hartu, eta lantaldearen presidenteak gobernuekin egindako negoziazioei lehentasuna eman ziela. Egile horrek dio laguntzaile eta azpitaldeen sorrera partaidetza-zentzu faltsua sortzeko erabili zela. Finean, gobernuekin izandako negoziazio erabakigarriena estaltzeko estrategia zela salatu du idazle horrek.

3.1. Giza eskubideen eremutik haratago

Gobernuentzat indigenek egindako proposamenetan mandatuaren inguruko eztabaida eta preseskiago gatazka konpontzeko mandatuarekin loturikoak dira puntu gatazkatsuenak (Chakma, 2000). Baita ere, herri indigenen eskubideak errespetatzeko estatuetako legediak ikustatzeko asmoa. Guda Hotzaren osteko munduan estatu barneko gatazka etnikoak nagusi zirenean, Laugarren Munduak bultzaturiko eskaera honek gobernuen alarmak piztu zituen. Gobernuek HIFIk gatazka prebenitzeko eta konpontzeko mandatua izatea estatu-subiranotasunaren aurkako mehatxutzat hartu zuten. Finean, gobernuek ez dute nahi NBEn, estatuen kontrolpean dauden egituran, estatu ez den norbaiti euren arazoetan sartzeko aukera ematerik. Horrek Laugarren Munduaren aldeko nazioarteko interbentzioari ateak zabaldu egingo bailizkioke eta estatu-subiranotasuna eta honi loturiko botere hegemonikoa mugatuko.

HIGEArekin gertatutakoaren antzera HIFIren mandatua murrizteko estatuen ahalegina etengabea izan zen. Testuinguru horretan eztabaida goria egon zen ordezkariak hautatzeko prozeduraren inguruan. Estatu batzuek aukeraketa estatuen zeregina eta ahalmena zela defendatzen zuten, eta planteatu egiten zuten lantaldean

parte hartzen duten askoren «errepresentazio falta». Jarrera horrek ordezkaritza batzuen zilegitasunaren arazoa planteatzen zuen. Errepresentazioaren zilegitasunaren auzia ez da estatuek oztopatzeko asmaturiko zerbait, existitzen den kezka legitimoa baizik.

Errealitate hau aitzakotzat harturik, estatu batzuek planteatu zuten ordezkaritza indigenak estatuen baimena izatea. Horrek beto-boterea suposatzen zuen estatuen partetik. Jarrera horren bultzatzaile sutsuen artean, garaiko Espainiako Gobernuaren ordezkaria izan genuen. Espainiako ordezkariak NLEren modeloa defendatu zuen bere proposamena bultzatzeko. Horretan estatuek ordezkaritzak kontrolatzeko botere asko dute eta horrelako posibilitatea ez zitzaien indigenei gustatu. Espainiako Gobernuko ordezkariaren jarrerak eta egindako presioak erakunde indigenen eta GKE-en kritika zorrotza eragin zuten (Chakma, 1999: 419). Indigenek egindako kritikaren arabera, proposamen espainolari jaramon eginez gero, gobernuaren jarrera sostengatzen ez duten ordezkari indigenek ezin izango lukete parte hartu. Gainera, Afrika eta Asiako herri indigenak baztertzeko bidea zabalik gelditu litzateke.

Indigenek ordezkaritzaren auzia bideratzeko ekimenak garatu zituzten eta ordezkagarritasunaren auzian euren berezko prozedurak kontuan hartuz proposamen zehatzak egin. Samiek, adibidez, argi utzi dute bereizi egin behar dela gobernuetako indigenen ordezkarien eta aditu eta erakunde indigenen artean. HIFIn botoa duten ordezkari indigenak ohiko gobernuen herri-ordezkariak lirateke. Aldiz, Foroko partaideek eta bertaraturiko erakunde indigenek begirale gisa ahotsa bakarrik izan zuten (IWGIA, 1999: 94). Beraz, ordezkari indigenek ahalegina egin dute errepresentazioaren arazoa eurek konpontzeko.

Bere izenetik «Herri» izena kenduz 2000. urteko apirilaren 27an Giza Eskubideen Batzordeak Gai Indigenei buruzko Foro Iraunkorra (GIFI) sortzea erabaki zuen bere 2000/787 ebazpenean. Azkenean GIFIk, ECOSOCekiko aholkulari-izaera du, 16 ordezkari ditu (8 indigena). ECOSOCeko presidenteak mundu osoko erakunde indigenekin kontaktuan egon ondoren hautatuak dira, eta bere mandatua garapen ekonomiko eta sozialaz; kulturaz, ingurumenaz, hezkuntzaz, osasun eta giza eskubideez arduratzea da.

Onarturiko GIFIk planteatzen duen beste erronka batek ordezkaritza geografikoarekin du zerikusia: indigenek 17 zona geografiko proposatzen zituzten bitartean, 8 onartu dira. Erregio indigenak ondoko hauek lirateke: Artiko/Europa, Asia, Ipar Amerika, Erdialdeko/Hego Amerika eta Karibe, Pazifikoa, Sobietar Batasuna izandakoa eta Ekialdeko Europa, Afrika eta, azkenik, zortzigarren ordezkaria aldatu egingo litzateke Asia, Afrika eta Erdialdeko/Hego Amerika eta Karibe artean.

Horrekin guztiarekin argi gelditzen da herri indigenen partaidetza NBEn giza eskubideen alorretik haratago mugitu behar dela, eta Giza Eskubideen Batzordearen mandatutik at dauden esparruak ere ukitu behar dituela. Esate baterako, ospitale

baten eraikuntza WHO/OMS edo UNDP/PNUDren ardura izan daiteke eta horrelako bat lortzeko ez litzateke jo behar Giza Eskubideen Batzordera osasuna izateko eskubidea betetzea eskatuz. Hori bide luzeegia litzateke garapenarekin loturiko zerbait lortzeko. GIFIk horrelako kasuei arinago erantzuteko koordinazio-gunea izan nahi du. Proposamen horren arabera, lantaldea giza eskubideen gaietan gehiago zentratuko litzateke eta HIFIrekin koordinazioa izango luke. Bataren sorrerak ez du zergatik bestearen desagerpena ekarri behar. Baina aurre ikusten da oldartze bat, estatuen aldetik, lantaldeak ezarritako prozedura zabal eta demokratikoarekin amaitzeko. GIFIren onarpenarekin, beraz, espero daiteke lantaldea desegiteko ahaleginen bat. Funtzio-bikoizketa eta aurrekontu-eskasia erabiliko dira lantaldearen mandatuarekin amaitzeko. Dagoeneko GIFI bihurtzen ari dela HIKEren gune nagusi esan daiteke eta lantaldea egoera agoniakoan dagoela. Genevatik New Yorkerako pisu politikoaren aldaketa nabaria da..

Estatuen asmoa zera da, oso deseroso egin zaien lantaldearekin eta haren dinamikarekin amaitzea (Morris, 1998). Indigenek lantaldearen aldeko erabaki sendoa hartu zuten eta positiboa ikusi. Herri indigenek bizi dituzten arazoak konpontzeko eta beren eskubideak babesteko nazioarteko normatiba egiteko funtzioak (Giza Eskubideen Batzordeak, gero ECOSOC, eta Batzar Orokorrak onartu beharko dituenak) funtsezkoa izaten jarraitzen du. Erakunde indigenek lantaldearen eginbeharrean laguntzeko ohitura hartu dute eta eraginkorra ikusten dute. Gainera, GIFIren lana, aditu indigena eta indigena ez direnek ECOSOCi aholku ematea koordinatzea eta informatzea delarik, osatu egiten duelako, indigenen ustez.

Urtero 2002tik aurrera 10 egunez bildu egiten dira New Yorken GIFIren partaide diren 16 adituak, gehi herri indigenen ehunka ordezkari, GKE eta gobernu-ordezkariak. Lehenengo batzarrean urteko batzarrek gai nagusi bat izango zutela erabaki zen. Hala ere, horrekin batera herri indigenentzako interesgarriak ziren beste gai batzuk ere sartuko zirela erabaki zen. Trataturiko gaiak honako hauek izan dira: 2003an gazte eta haur indigenak; 2004an emakume indigenak eta 2005ean milenioko garapen-helburuak (I eta II); azkenik 2006an milurtekoaren garapen-helburuak: milenioko garapen-helburuak birdefinituz ikuspegi indigena batetik. Urte horretan, horretaz gain, aztertu egin ziren estatu eta gizarte zibilaren arteko partaidetza, herri indigenak eta ongizate-erakusleak, herri indigenak eta emigrazioa, BBKren aditu-taldea eta etekinak partitzeko legedia zein herri indigenen eskubideak.

PILen gertatu zen bezala, herri indigenak euren artean eta GKE zein gobernu-ordezkariekin biltzeko, negoziatzeko, gai zehatzei heltzeko, egindako lanak eta dituzten kezkak aurkezteko, martxan dauden programak presentatzeko, eta abar egiteko balio die.

Batzarrekin batera lantaldeak eta mintegi bereziak egin izan dira. 2004an herri indigenei buruzko datu berezituei buruz, 2005ean Ohiko Jakinduriari buruz eta, bestea, aurretik egindako oniritzi aske, oso eta informatuari buruzkoa. Azkenik

2007an tailer bereziak antolatu dira klima-beroketa eta ingurumena aztertzeko, eta indigenek aurkezturiko ekimenak aztertzeko, baita aitzindari indigenekin osoturiko aholkulari taldeari buruz eta NBEn duen paperari buruz ere. Tailer berezien eremuan Foroak erakutsi duen gaitasuna indartu egiten du bere lana eremu berezitu legez, eta erakutsi egin du bere indarra gai indigenak NBE mailan zein nazioarteko politikan sustatzeko.

Foroak, beraz, lortu egin du ekimen indigenaren *locus* nagusia bihurtzea eta PILekin gertatzen zen bezalaxe, batzargune aproposa bihurtu da, bertan gai indigenetan ari diren aktoreek informazioa, ikuspuntuak, ekimenak trukatu ditzakete eta euren agendak ezagutarazi.

Gainera, Foroak lortu egin du bere egitekoan txertatzea PIL eta Gai Indigenetarako Errelatore Berezia, Rodolfo Stavenhaguen lehenago eta James Anayaorain geroago. Haren koordinazio-lana dela-eta komunikazio-kanalak zabaldu egin dira NBEren sistemaren barruan gai indigenetan ari diren beste erakundeekin. Koordinazio berri horrek lehen ez zegoen informaturiko partaidetza-mekanismo baten existentziaz testigantza eskaintzen digu. Era horretan, herri indigenek aukera daukate euren presentzia sentiarazteko, eta bideak zabaltzen ditu euren proposamenak baldintzatu ditzaten NBEk hartu eta euren bizitzetan eragina duten hainbat erabaki.

Gainera HIGEAren onarpenak eragina izan du Foroaren egitekoan, bere presidentea Tauli-Corpuz-ek (2008) dioen bezala, HIGEA bere lana burutzeko markoa delako, eta horrela indigenentzat dauden aukerak biderkatu egiten dira.

Giza eskubideen bidetik herritasuna jorratu

1. IKUSPEGI HISTORIKO LABUR BAT

Hasiera-hasieratik herri indigenak eta giza eskubideak estuki lotuta aurkitzen ditugu historian eta giza eskubideei buruzko bibliografian. 1492an europarrak Ameriketako kostaldeetara heldu ziren momentutik konkistak sorturiko gehiegikeriek idazle eta pentsalari europarren kezka piztu zuten. Ondoko mendeetan gutxi batzuk izan ziren herri indigenen eskubideak defendatuko zituztenak eta haien sona eta eragina ez zen, inolaz ere, aurrekoen parera heldu.

XIX. mendean eta XX. mendeko lehenengo erdian errepublika berrien estatu-interesa nagusi izanik, nazioarteko legedia kolonizazioa defenditzeko eta zilegi egiteko bitartekoa bihurtu zen. Zuzenbide positiboaren garaian (Del Arenal, 2002) aurreko babesak desagertu egin ziren (Clavero 1994). Zapalkuntza, konkista eta kolonizazioa helburu zituen egitura horretan, indigenak domestikatuak eta desjabetuak izan ondoren, nazioarteko zuzenbidearen bazterretara botatzen zituzten, herri-eskubiderik gabeko «basati»tzat hartzen zituztelarik (Tilley, 2002).

I. Mundu Gerraren ostean sortu zen Nazioen Ligak gutxiengo nazionalak Europan babesteko mekanismoak ezarri zituen. *Covenant of the League of Nations* delakoaren 22. artikuluak argi utzi zuen kolonietan bizi ziren populazio indigenen ongizatea herri zibilizatuen betebeharra zela *«a sacred trust of civilisation»*. Beraz, estatu kolonialei emandako «jagoletza». Horretarako ezarri egin zen urtero gai honi buruz txosten bat bidaltzeko beharra. Hala ere, ez zen kontsideratu estatuetan bizi ziren indigenak horren onuradunak zirenik. Giro horretan, 1923an irokesek eta maoriek euren itunak baliarazteko egindako ahalegin paradiplomatikoek porrot egin zuten, bosgarren kapituluan deskribatu dugun bezalaxe.

Hala ere, Ligarekin lotuta zegoen Nazioarteko Lan Erakundeak (NLE) indigenak langileak kontsideratuz, pairatzen zituzten esklabotza antzeko egoerak salatu eta edozein langileari zegozkion eskubideak aitortu egin zizkien. Horrek indigenen aldeko gutxieneko lege-markoaren hasiera-puntua markatzen du (Rodríguez-Piñero, 2005). Horrelako tresna juridikoen existentziak indigenei babesa eskaini eta eman zien pairatzen ari ziren egoera tamalgarriei aurre egiteko gutxieneko babesa. Herri indigenak zirelako ez bazen ere, langile ororen egoera hobetzeko onarturiko nazioarteko legediak euren alde jokatu zuen, eta gizabanako orori dagokion babesa eman (Rodríguez-Piñero, 2005).

1.1. Giza eskubideak eta nazioarteko ordena berria

Nazioarteko zuzenbidean emandako benetako iraultza 1948an Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala onartu zenean gertatu zen (Del Arenal, 2002). Aldarrikapen horrek, mundu mailakoa izanik, historikoki herri indigenei inposaturiko europarren nagusitasuna zein hari loturiko inperialismo kulturala salatu eta kolokan jarri zituen (Minde, 1995). Gainera, aldarrikapenak nazioarteko legediaren nagusitasuna ezarri zuen printzipio gisa eta posible egin estatuaren erabateko nagusitasuna mugatuko duen nazioarteko fiskalizazio-sistema.

Ordutik hona amaitu egin da estatuen erabateko egoera hegemonikoa. Hala ere, hasiera batean, gizabanakori aitortzen zitzaizkion babesak eta eskubideak gutxiengo eta herri indigenei luzatzeko egindako ahaleginek ez zuten arrakasta handirik izan, Guda Hotzaren testuinguruan. Aldarrikapenaren urte berean 1948an NBEn herri indigenen egoera aztertzeko Boliviako gobernuak bultzaturiko proposamen bat atzera bota zuten. Hori ez da arraroa nazioarteko testuingurua ez baitzen indigenentzat lagungarria. 1948an Europa eta Latinoamerikako estatu askok ez zuten onartzen euren mugen barruan indigenak zeudenik (Eide, 2006) eta NBEren Kartak bere 73. eta 76. artikuluetan indigenekiko estatuaren «jagole-papera» defendatzen zuen (Bodley, 1982), lehen aipaturiko 22. artikuluaren bidetik. Hori horrela ikusi daiteke Rodríguez Piñerok (2005) deskribatzen duen pasarte batean: NLEren 1946ko kolonietan bizi ziren populazio indigenen egoera aztertzen ari zelarik, Ameriketako indigenek antzekoa behar zutela proposatu zenean, Mexikoko enpresarien ordezkaria, Illanes Ramos jauna, kontra agertu zen Ameriketako indigenen arazoa garapenarekin konpontzen zela esanez (ibid.: 2).

Hala ere, 1949an ECOSOCek bere 238 (IX) ebazpenean eta 275 (III) Gutxiengoen Babespenerako eta Bazterkeriaren Prebentziorako Azpibatzordeari luzaturiko gonbitean herri indigenen egoera aztertzeko deliberoa hartu zuen (MacKay, 1999). Bi txosten aurkeztu ziren delibero horri jarraituz. Horretaz gain, NBEren sisteman esklabotzari buruz ari ziren hainbat txostenetan herri indigenek bizi zituzten baldintza penagarriei egin zitzaien erreferentzia. Errealitate latz horren aurrean, NLEk 1950eko hamarkadan txosten bereziak egin eta lehenengo herri indigenen aldeko konbenioa onartu zuen 1957an. Itun horrek bizi zuten egoera larria kontuan harturik indigenei babes franko eskaini zien. Hala ere, nazioarteko erkidegoan eta euren erakundeetan nagusi ziren estatuen iritzia islatuz Nazioarteko Lan Erakundeak ere asimilazioa garapen-helburua zela zioen ikuspegia onartu egin zuen 107 Hitzarmenean. Itun horrek indigenak kolonia aurreko kulturekin lotzen ditu, eta ukatu egiten du inolako eboluzio edota kanpotarren kulturetatik maileguak egon direnik (Sobero Martínez, 2003). Gainera, 107 Hitzarmenak «sasitribala» deituriko kategoria onartzen du. Hemen ez kultura indigenean ezta estatukoan ere integraturik ez dauden gizabanako zein taldeak aurkituko genituzke (Gomez, 2006). Horiek akulturazio-prozesu baten biktima dira eta mundu bien arbuioa eta bazterketa pairatzen dute. Arazo larri hauek eta «atzerapen indigena» behin betiko konpontzeko asmoz asimilazioa defendatuko da.

Gauzak horrela, 1940 eta 1960 bitartean «herritartasun unibertsala» printzipioari loturiko politikak jarri ziren martxan, zeinek ez zuten onartzen estatuaren eta gizabanakoaren artean tartekorik zegoenik. Are gehiago, estatu indartsuak erdiesteko asmoz, integrazioa eta kultur homogeneizazioa defendatu ziren. Errepublika berriek indartsu ekin zioten politika asimilazionista gogorrak bultzatzeari. Nazioarteko garapen-politikek eta giza eskubideen aldeko politikek aurrera egin zuten neurrian, «herri indigenak» kategoria teknikoa bihurtu zen garapen-politiken onuradunak identifikatzeko. Hau guztia herri indigenen existentzia kolonia-garaitik etorritako problematzat zuen marko kontzeptual eta normatibo baten barruan garatu zen (Stavenhaguen, 1990).

2. HERRI INDIGENEN ALDEKO MARKO BATEN ERAIKUNTZA

Indigenek modu zabal batean eta ororentzat euren eskubideak babesten dituzten giza eskubideen mailan garrantzitsuak diren hitzarmenak erabili egin dituzte euren presentzia eta lana sendotzeko. Ondoan aipatuko ditugun hitzarmenek ez dute berezko aipamenik ezta eskubide berezirik aipatu ere, baina indigenek euren mesederako erabili eta haien inguruan mugitu izan dira.

1960ko NBEren Batzar Nagusiaren 1.514. ebazpenak zabaldu egin zuen bidea: «Herri guztiek dute autodeterminaziorako eskubidea», 1. artikulua. Horrek lehen aldiz Europako estatu-sistematik at zeuden herriak ere hartzen zituen bere baitan, eta argi utzi zuen eurak euren garapen sozial eta kulturalaren nondik norakoak askatasunean erabakitzeko libre zirela. Hala ere, 1960 eta 1970ean autodeterminazio-eskubidearen aplikazio errealak ez zituen indigenak ukitu. Hori horrela izan zen deskolonizazioa estatu kolonialek ondo kudeaturiko prozesua izan zelako. Eta muga kolonialen barruan eraiki zirelako estatu berriak. Hori bai, gobernu kolonialen, arrazismo eta apartheid delakoaren kondena indigenen mesederako gertatu zen. Afrikako herrien independentzia eta gizarte-eskubideen aldeko borroka AEBn eta Europan inspirazioa izan ziren herri indigenentzat (Sanders, 1981).

Gainera urte hauetan berdintasuna guztion artean sustatzea zen kezka nagusia, eta estatuek bermatu behar zuten. Estatu barruan integrazioa berdintasunean zen lelo nagusia eta horretarako bereizkeria prebenitzeko ahalegin handiak egin ziren. Testuinguru horretan arrazakeria eta bereizkeria prebenitzeko marko juridikoan hasiko dira herri indigenen aldeko lehen urratsak ematen.

1965ean onarturiko Arrazakeria Ezabatzeko Konbentzioan herri indigenen egoerari aipamen txiki bat egin zitzaion (Minde, 1995). Giza Eskubideen Idazkaritza-Human Rights Secretariat (hemendik aurrera Secretariat) gutxiengoen egoeraz kezkatzen hasi zen. NBEren mailan giza eskubideei buruzko azpikomisioa (hemendik aurrera azpikomisioa) izan zen gutxiengoen egoeraz kezkatzen hasi zena. Gai hauek aztertzeko errelatoreak bidali egin ziren eta posiblea izan zen estatuak kritikatzea giza eskubideak bortxatzen zirenean. Azpikomisioa estatuek izendaturiko

adituez osoturik zegoen. Nahiz eta diplomatikoak ez izan, estatuak kritikatzeko ahalegin gutxi egin ziren. Praktikan Secretariat eta Errelatoreak egindako lanek atea zabaldu zuten gutxiengoen arazoak aztertzeko.

Indigenen egoera aztertu zuen lehenengo kasua 1966-70era Hernan Santa Cruz diplomatikoak egindako txostenean gertatu zen. Diplomatiko txiletar horrek minorien bereizkeria ekonomiko, sozial eta kulturalari buruz idatzi zuen indigenak aipatuz. Allenderen gobernuak indigenek egindako lurraldearen gaineko eskaera batzuk bultzatu zituen (Minde, 2007) eta Santa Cruz-ek onartu egin zuen aipamen batzuk egitea (Santa Cruz, 1966). Baina txiletarrak ez zituen gutxiengoengandik bereizi eta asimilazioa defendatu zuen haien «atzerapena eta miseria» konpontzeko bide gisa. Dena dela, txiletarrak zabaldu egin zion bidea gutxiengoen txostenetik independentea izango zen herri indigenei buruzko txosten propio bati (Minde, 2008).

Aldi berean, deskolonizazioaren seme ziren estatu berrien artean gutxiengoek ez zutela babes berezirik merezi defendatzeari eta euren mugen barnean horrelakoak zeudenik ukatzeari ekin zioten estatu independente bihurturiko kide berri askok.

1966an Eskubide Politiko eta Zibilak zein Eskubide Ekonomikoak, Sozialak eta Kulturalak onartzen zituzten konbentzioak onetsi ziren (hemendik aurrera EPZESK/ICCPR). Herri indigenen kasuan, Konbentzioaren 27. artikulua izan da ekimen gehien ahalbidetu duena. Artikulu horrek gutxiengo etnikoek euren nortasuna babesteko eta mantentzeko eskubidea dutela dio eta bidea zabaldu zuen eskubide kulturalen aitorpenerako, eta indigenek asko erabili dute artikulua.

Garai horretan indigenek «gutxiengoei» aitortzen zaizkien eskubideei helduko diete nagusi ziren asimilazio-politikei aurre egiteko asmoz. Hauek baitziren sistemak zabalik uzten zizkien zirrikitu bakarrak. 27. artikuluak zabaldu egin zituen luzaroan indigenentzat itxita egon diren arlo politikoak eta kulturalak. Bide batez, herri indigenen eskubideak banaka zein taldeka defendatzeko parada eskaini zien. Errealitate horrek sortu zuen taldeen eta banakoen arteko elkarreragina, zeinak, herri indigenen kasuan, ekintza politikoa eta nortasuna baldintzatuko dituen. Etnikotasuna eta giza eskubideak lotuta agertuko dira euren nortasunean, diskurtsoan eta praktika politikoan. Indigena kolonizazioak sorturiko markoaren eta mekanismoen biktima eta giza eskubideen bortxaketa pairatuko duen baztertua izango da. Era horretan, nortasun indigena, oro har, eta Laugarren Munduaren definizioa giza eskubideen bortxarekin eta berari kontra egiteko erresistentziari lotuta aurkituko dugu (Daes, 1996).

Hemendik aurrera, indigenek HIKE gauzatzerakoan giza eskubideen hizkuntza erabili egingo dute euren diskurtsoa egiteko. Gehiago esateko, nazioarteko legediari egindako erreferentziak eta berau mantentzeko konpromisoa diskurtso indigenaren ezaugarri garaikide eta berria bihurtuko dira. Hori bai, Mendebaldeko tradizioari jarraituz garatu den nazioarteko zuzenbidearen hainbat kontzeptu hartu eta esanahia aldatu egin zaie ikuspegi eta eskaera indigenei nazioarteko giza eskubideen

diskurtsoan tokia egiteko. Jabetze horren adibide ditugu autodeterminazio, nazio, lurralde, garapen, genozidio, arraza bereizkeria eta jabego kontzeptuak. Indigenek definizioa zabaldu egingo dute euren eskaera eta honi dagokion nazioarteko aitorpen eta bermea posiblea egin dadin. Hori bai euren eskubideen defentsa egitean, eskaera «herri» eta ez «banako indigena» bezala egingo da.

2.1. Nazioarteko partaidetzaren hasiera

Hamarkada honetan erakundearen barnetik zein kanpotik, herri indigenek eta GKE-ek egindako lanari esker, Nazio Batuen Erakundea zuzenki eta espresuki herri indigenen arazoez arduratzen hasi zen. Prozesu horretan inportanteak izan ziren indigena ez ziren aditu batzuek egindakoak. Ateak zabaldu zituztenen artean aipatzea merezi du Secretariat delakoan lan egiten zuen Augusto Willemsen Díaz guatemaldarrak. Horrek samiekin harremana hasi zuen eta 1971n Giza Eskubideen Batzordearen bilera batean Carlos Garcia Bauer-ekin kontaktatu zuen. Bauer Giza Eskubideen Aldarrikapenaren aita horietariko bat zen, oso errespetatua beraz. Honek lortu egin zuen herri indigenei buruzko txosten berrian indigenak gutxiengoen saku berean sarturik ez egotea. Are gehiago, lortu egin zuen herri indigenek pairatzen zuten diskriminazioari buruzko txosten bat sustatzea. Haren aburuz, azpikomisioko adituek eta ez batzordeko diplomatikoek burutu behar zuten lan hori.

27. artikuluari jarraituz, azpibatzordeak gutxiengoen eskubideei buruzko ikerketa agindu zion Caportorti-ri, zeinak 1977an amaituriko txostenean indigenen kasua aztertzeko beste ikerketa bat behar zela idatzi zuen. Txostena, beraz, diskriminazioari eta herri indigenei buruzkoa zen, ez garai hartan politikoki oso gai konplexua zen «gutxiengoei» buruzkoa (Minde, 2007). Horrela herri indigenei NBEren ateak zabaldu egin zitzaizkien eta indigenak gutxiengoetatik bereiztea lortu zuen Willemsen Díaz-ek (Díaz Córdova, 2002).

Beraz, arrazismo eta bereizkeriaren aurkako erakundeak izan ziren giza eskubideez arduratzen direnen artean indigenen auziez estreinakoz arduratu zirenak. Haietako erralatore batek bere txostenean erakutsitako kezka eta egoerak ECOSOCen interesa piztu zuen (Díaz Córdova, 2002). Kezkari jarraituz, azpibatzordeak eta batzordeak prozesuari ekiteko ECOSOCek Martínez-Cobos-en txostenari ekiteko agindua eman zuen. 1971ko maiatzaren 21ko 1389 (L) ebazpena onartuz. Erabaki horren ondorioz, ECOSOCek herri indigenen giza eskubideen mailan *Estudio del problema de la discriminación contra las poblaciones indígenas* mugarria eta erreferentzia bihurtu den txostena agindu zion 1972an Gutxiengoen Babespenerako eta Bazterkeriaren Prebentziorako Azpibatzordeko Martínez-Cobos jaunari. Cobos-ek hamahiru urte eman zituen txostena burutzeko, Willemsen Díaz-ek txosten horretan lan ikaragarria egin zuelarik (Minde, 2008). Txostenean herri indigenek munduko talde ahulenak izaten jarraitzen zutela baieztatu ondoren, herri indigenen definizio bat eskaini eta aztertu egin zuen nazioarteko erakunde eta GKEek indigenekin egindako lana arlo honetan. Ondorioen artean eskatu egiten da giza

eskubideen eremuan aurkituriko bazterkeriaren ezabaketa, indigenak bermatzeko neurriak hartzea eta indigenei zuzenduriko berezko ekimen berezirako eremuak sortzea. Adituak aipaturiko interes handiko eremuen artean honako hauek izendatzen dira: osasuna, etxebizitza, hezkuntza, hizkuntza eta kultura, erakunde sozial, kultural eta politikoak, lurraren erabilera, lana, eskubide politikoak, eta eskubide eta usadio erlijiosoak nahiz justiziaren aurrean beharrezko berdintasuna bermatzekoak.

Hamabi ale dituen txosten potolo horrek herri indigenek bizi duten egoera, bazterkeria, orduko egoera, igurikimenak eta giza eskubideen mailan NBEn egindakoak aztertu zituen. Cobos txostena ekimen indigenen ardatza eta inspirazioa bihurtu zen ondoko aditu eta aritu askorentzat.

1974an esklabotzaren aurkako hitzaldi batean, Willemsen Díaz herri indigenei buruzko lantalde baten beharraren eta sorreraren proposamena egin zuen (Minde, 2008).

Aldi berean, azpibatzordean 1974an sorturiko esklabotzari buruzko taldeak herri indigenen kasua izan zuen aztergai. Talde honek 1977tik 1980ra egindako saioetan indigena askok jasaten zituzten gehiegizko lan-baldintzak aztertu zituen eta baieztatu egin zuen horrelako asko sarritan nozitzen zituztela. Mendebaldeko kontzientzia ikaratu zuen beste kasu bat Txilen gertatu zen. Pinocheten diktadurak maputxeak bereziki kolpatu zituen eta haien lurrak pribatizatu. Gertaturikoak kezka handia sortu zuen orduko nazioarteko erkidegoan. Gutxiengoen Babespenerako eta Bazterkeriaren Prebentziorako Azpibatzordeak 1975ean Txilen gertaturiko giza eskubideen bortxaketa aztertzeko *«ad hoc»* sorturiko taldeak maputxen kasua salatu zuen. Horri jarraituz, 1978an NBEko Batzar Orokorrak maputxen aldeko ebazpenak onartu zituen eta indigena horien aurkako gehiegikeriak salatu egin ziren.

Urte horretan bertan arrazismoa borrokatzeko egindako Mundu Konferentziak ere herri indigenen egoerari heldu zion. Hain zuzen ere Minde-k (1997: 21) hemen kokatzen du Laugarren Munduak hasitako instituzionalizazioaren hasiera. Konferentziak herri indigenak euron kultura, lurraldea eta ekonomia mantentzeko zituzten eskubideak onartu zituen eta euron baliabideak ez zituela inork hartu behar aldarrikatu zuen bere 21. artikuluan (Gupta, 1999). Ekintza-planak estatuek hainbat arlotan indigenen eskubideak onartzea eskatzen zuen: hala nola, hizkuntza eta nortasun etnikoa erabiltzeko, euren erakundeak erabiltzeko, etab. Beste puntu erabakigarri bat ondokoa da: estatuek indigenek euren ahotsez hitz egiteko eta euren esperientziak trukatzeko errepresentatiboa zen nazioarteko erakunde bat erraztu eta lagundu behar zutela. Ordutik hona herri indigenen eskubideak NBEren giza eskubideen gaineko lanerako ardura bihurtu ziren (ibid.: 22). Aslak Nils Sara samiak Norvegiako ordezkaritzan egonik paper inportantea jokatu zuen afera hauek defendatzeko eta NBEren makinerian txertatzeko orduan. Konferentzia horretatik aurrera herri indigenak eta gutxiengoak bi kategoria ezberdinetan aztertu ziren.

Arrazoi nagusia ondokoa izanik: nazioarteko Zuzenbideak ondorio ezberdinak dituela herri indigenentzat eta gutxiengoentzat.

Erabaki hauek bereziki lagungarri gertatu zaizkie arrazismoaren aurpegi berria salatzen zutelako eta herri indigenen eskaerak onartu egin zituztelako.

2.2. Zabalduriko bidea sendotzen

Hamarkada honetan presentzia eta partaidetza indigena giza eskubideei buruzko debateetan sendotu egin zen, indigenei bereziki zuzenduriko foroak eta ekimenak biderkatzearekin batera. Presentzia Laugarren Munduaren ahotsa eraman zuten erakunde indigenez gain, ezin izango da ondo ulertu berriz ere indigenak ez diren nazioarteko adituen eta aldeko gobernuen paperari erreparatu gabe. Norvegiako gobernuak aprobetxatu egin zuen 1981ean Giza Eskubideei buruzko Dibisioak lantalde bat sortzeko zuen asmoa. Norvegiak Asborj Eide aditu izendatu zuen azpibatzordeko kidea izateko. Eidek eta NGEk Willemsen Diaz lagundu zuten lantaldearen mandatuan eta NBEren sistema barruan aurrera egiteko (Eide, 1987). Ahaleginak arrakasta izan zuen eta Laugarren Munduaren partaidetza zuzena NBE mailan 1982an finkatu egin zen azpibatzordearen barruan Populazio Indigenen Lan Taldea (Populazio Indigenen Lantaldea /Populazio Indigenen Lantaldea, hemendik aurrera Lantaldea) sortu zenean. Lehendabiziko presidentea Asborj Eide izan zen.

Aurreko kapituluan aipatu badugu ere, gogoratu egin behar dugu 1977ko zenbait GKEk antolaturiko NBE mailako konferentzian aipatu egin zela PIL sortzeko proposamena. Hori Draft Declaration of Principles for the Defense of the Indigenous Nations and Peoples of the Western Hemisphere delakoan aurkitu dezakegu (Garcia-Alix eta Borras, 2006).

Sortu zenetik izan da nazioarteko mugimendu pan-indigenaren gune nagusia, partaidetza zein ekimenaren aldetik. Laugarren Munduak izan duen «think-tank» garrantzitsu hau indigenek eraikitako nazioarteko sarearen kokaleku nagusia izan da, mundu mailako sarea berorren inguruan garatu delarik. Baita ere, herri indigenek giza eskubideak sakontzeko egindako kontribuzioa hemen mamitu da neurri handi batean. Zalantzarik gabe, Lantaldearen sorrerak indigenak «gutxiengo» kategorian mantentzeko estatu-ahaleginaren porrota markatu zuen, indigenei dagokien toki propioaren eta berezitasunaren errekonozimendua suposatu zuelarik. Gutxiengoei zuzenduriko taldea eta Lantaldea azpibatzorde beraren bi adar izango dira, garapen paraleloak baina berezituak izango dituztelarik.

Lantaldearen sorrerak kolonialismo harrapariaren eta herri indigenen arteko gatazka kudeatzeko eta birbideratzeko aukera erakarri zuen hasieratik. Kulturen arteko hizketaldiaren kokaleku nagusia bihurtu zen. Gobernuak lotsaraziz «shame politics» (Minde, 1995) edota Lantaldearekin lan eginez, herri indigenek euren eskubideak defendatzeko negoziazio eta nazioarteko lege-bidea hautatu egingo dute, NBEri bitarteko eta babesle estatusa emanez.

Gogoratu egin behar dugu Lantaldearen helburuak ondokoak direla:

1) Herri indigenen giza eskubide eta oinarrizko askatasunei babespena eta sustapenari dagozkion estatu mailako gertaerak ikustatzea.

2) Herri indigenen giza eskubideei dagozkien nazioarteko arauak egitea, kontuan hartuz munduko herri indigenek dituzten antzekotasun nahiz ezberdintasunak egoera eta igurikimenei dagokienez .

Autodeterminazioa eta baliabideen gaineko kontrola afera nagusiak izanik, Laugarren Munduaren agendan eta Lantaldeak zuen legegile izate horrek hainbat estaturen ardura eta kezka piztu zuen. Horrexegatik, indigena-kategoria honen onuradunak zein ziren mugatzeko (Sanders, 1991) oldartzea hasi eta hortxe hasi zen «peoples» eta «people» arteko eztabaida antzu bezain gordin hura.

1983an Batzar Orokorrak Nazio Batuen Erakundearen Herri Indigenentzat Borondatezko Kontribuzioen Funtsa onartu zuen. Honen betebeharra erakunde eta ordezkari indigenei laguntza ematea zen Lantaldearen saioetara joan ahal izateko. Era horretan erakunde indigena zein herri ordezkaritzen partaidetza posible egin zen eta parekorik ez duen prozesua bizkortu egin zen.

Lantaldearen eta Funtsaren existentziak ahalbidetu egin du herri indigenen partaidetza zabala eta orain gutxi arte ezaguna izan dena NBEren mailan. Azpibartzordeko aditu eta partaideek arauak moldatu egin zituzten herri indigenen partaidetza ahalik eta zabalena egiteko. Beste batzordeetan aholkulari estatusa duten erakundeak bakarrik egon daitezke. Kasu horretan partaidetza zabalari ateak zabalduz erakunde indigenek, banako indigenek, akademikoek eta abar parte hartu egin dute Lantaldearen batzarretan.

Lantaldearen lehenengo saioak aipaturiko garapenen jarraipen-funtzioan zentratu ziren. Argitu beharra dugu Lantaldea ez zela salaketak burutzeko tokia eta ez zuela «gertutarikoak argitzeko» (*fact-finding*) inolako funtziorik. Hala ere, Lantaldea osatzen zuten adituek hasiera-hasieratik onartu egin zuten herri indigenen bizitzaren benetako esperientziak jasotzea hainbat kontzeptu argitzeko lagungarria izan zitekeela, baita arauak egiteko orduan ere. Hori dela-eta, indigenen partaidetza funtsezko gertakizuna izan da Lantaldearen historian. Modu horretan lortu egin da herri indigenen esperientzia historikoaren eta gaur egungo egoeraren eta errebindikazioen ezagutza hobea izatea. Ulerpen horrek Lantaldea herri indigenen eskubideen estandarra egiteko markoa izatea posible egin du. Gertaturiko gertakizun/garapenen jarraipenak Lantaldearen funtsezko egiteko bat izaten jarraitu du gaur arte.

1982tik 1994ra Lantaldearen egitekorik printzipalena HIGEAren zirriborroa bultzatzea izan zen. 1985ean Azpibatzordeak Batzar Orokorrak onartuko zuen HIGEA idaztea eskatu eta onartu zen (Eide, 2006). Hori lortu ondoren, gai zehatzak

planteatzeari eta aztertzeari heldu zion Lantaldeak. Landuriko gaien artean ondoko hauek aipagarriak dira: osasuna eta herri indigenak, herri indigenak, ingurumena eta garapen iraunkorra; hezkuntza eta hizkuntza; herri indigenak eta lurrarekiko harremana; haur eta gazte indigenak; herri indigenak eta garapena izateko duten eskubidea. Azken urteetan jorraturiko gaiak hauek izan dira: herri indigenak eta globalizazioa, herri indigenak eta gatazka-konponketa; herri indigenak eta euren jakinduriaren babes nazionala eta nazioartekoa, eta, azkenik, helburu militarretarako indigenak ez diren autoritate, talde edo banakoek egindako herri indigenen lurraldeen okupazioari buruzkoa.

1989an ECOSOCek baimena eman zion azpibatzordeari Miguel Alfonso Martínez errelatore berezi izendatzeko. Martinez-en betebeharra herri indigenek estatuekin sinaturiko itun, hitzarmen eta bestelako akordioak aztertzea zen eta iradokitzea hauexek estatuen eta indigenen arteko gaur egungo harremana birbideratzeko zeukaten gaitasuna. Iniziatiba honek onartu egin zuen historikoki indigenentzat hain garrantzitsua izan den tratatuen auzia. Baita ere, tratatuek gaur egun harremanak bideratzeko edo berriak eraikitzeko orduan duten potentziala.

1989an Haurren Eskubideen Konbentzioak gizabanakoa ez den talde baten eskubideen babespenerako espresuki sorturiko hitzarmenak bere 30. artikuluan ume indigenek euren kultura mantentzeko duten eskubidea zuen bere baitan. Tradizio etnozidari aurre egiteko bitartekoa jarri zen indigenen eskuetan eta bultzada eman zitzaien kultura propioa indartzeko eta suspertzeko ekimenei. Hezkuntza elebiduna eskatzen zuten mugimenduek nazioarteko legediaren bultzada izango dute eta honekin loturiko bitartekoak. UNICEFek 2003an Haur Indigenei Buruzko Eskubideei buruz antolatu zuen debate bat. Geroxeago, beste hitzarmen orokorrekin gertatu den bezala, Haurrei Eskubideei Buruzko Komiteak 2005ean aurkezturiko txostenetatik bederatzitan egiten zaie erreferentzia indigenei.

Giza eskubideei loturiko foro hauetan parte hartuz, lobbya egiteko aukerak biderkatu egiten dira eta GKE-en edo aditu akademikoen interesa erakartzeko nahiz mundu mailako komunikabideei gertatutakoa jakinarazteko parada ematen die. Gainera 1.235 prozeduraren bitartez aurkezturiko salaketa eta txostenen inguruko informazioa publikoa izanik, komunikabideetara heltzeko eta hedatua izateko aukera asko ditu. Modu horretan nazioarteko iritzi publikoaren begi eta belarrietara heltzen delarik.

Batzorde hauetan antolaturiko ekintzetan parte-hartzeaz gain hamarkadan zehar Lantaldeak egindako txostenetan hartu dute parte. Era horretan, NBEri bere egitekoa hobeto egiten laguntzen dioten bitartean, herri indigenek pairatzen dituzten egoera larriak eta egoerok konpontzeko egiten dituzten eskaerak, gomendioak eta proposamenak bertan daudela ziurtatu egingo dute adituen txostenek.

2.3. NLE 169 Hitzarmenaren inguruko hausnarketa batzuk

1989an onarturiko garrantzi handiko hitzarmen hau herri indigenen eskubideen mailan erreferentziazko dokumentua dugu. Zalantzarik gabe, une honetan NBEren sistema maila altuena duen herri indigenen aldeko aldarrikapena da. Gainera, itunek duten indar eraginkorra duen (García-Romeu *et al.*, 1998: 20) lanabes juridiko inportantea dugu.

107 Hitzarmenak helburu zuen «asimilazioa»ren arbuiatzea eta indigenek duten euren burua autodefinitzeko eskubidearen onarpena dira, besteak beste, hitzarmen honek egindako ekarpen interesgarri eta aipatuenak. 169 Hitzarmenak Laugarren Munduak bultzaturiko kontsentsuaren indarraren erakuslea da, kontsensu berri hori autonomia eta burujabetzaren aldeko errebindikazio indigenaren inguruan eraiki zelarik (Gomez, 2006: 135).

169 Hitzarmenak 1980an gertaturiko iritzi eta pentsamoldeen iraulketa sakon bat erakusten du. Iraulketa hori 90eko hamarkadan gertaturiko aldaketen aitzindaria izango da, bidea zabaldu zielako garapen-paradigma alternatiboei. 1970ean bizi zen desarrollismoari eta berari loturiko asimilazioari egindako kritikak, askotan indigenek bultzaturikoa, posible egin zuen 169 Hitzarmenaren bultzada. Beste arrazoi batzuen artean 107 Hitzarmenak zuen kutsu asimilatzailea gainditzeko.

1982an Lantaldea sortu zenetik, 107 Hitzarmenari egindako kritikek kezka sortu zuten NLE mailan. Ondorioz, 1985ean ekin zion debate eta berrikusketari, ekarpen nagusia 169 Hitzarmen berria izan zelarik (Rodríguez-Piñero, 2005). 1986an, horretarako sortu zen aditu taldeak 107 birpentsatu egin behar zela ondorioztatu zuen «integrakuntza/asimilazioarako» joera «ezegokia» zelako (Sobero Martínez, 2003: 18). Herri Indigenen Mundu Batzordeak eta Survival International-ek estreinakoz hartu zuten parte aditu gisa horrelako nazioarteko foro batean (Khosravi 2006). Haiekin batera, ikusle moduan, langileen ordezkariek lagunduta, beste indigena batzuk egon ziren. (Tomei, 1997). Adituok ondorioztatu zuten indigenen igurikimenak integratu eta estatu kopuru ahalik eta altuena onartu behar zuela itun berriak. Horrela bakarrik onera egin baitezake Laugarren Munduaren egoerak (Khosravi, 2006). Gainera, adituok asimilazioaren bazterketa, kulturen arteko errespetu eta elkarbizitzaren alde egin zuten, eta lurren gaineko eskubideak zein populazioen tokialdatzeak ikertzearen alde agertu ziren. Ordezkari indigenek, bere aldetik, defendatu zuten herriak zirela eta horrela izan behar zutela onartuak eta ukatu egin zuten populazioa berezi deitzea (Niezen, 2003). Hemen hasiko da indigenen eta indigena ez direnen artean edozein eztabaida baldintzatu duen gaia.

1988an NLEk 107 Hitzarmena berrikusteko konferentzia bat konbokatu zuen. Aurretik kide diren estatu guztiei galdeketa bat bidali zitzaien, proposatzen ziren gaien aurrean zuten jarrera aldez aurretik ikusteko. Hasieratik herri vs populazioen arteko gaia gatazka pizten duen horietakoa dela agertu zen. Estatuen aldetik argi gelditu zen Laugarren Munduaren autodeterminazioa aurreratuko zuen edozein

testu. Jarrera horren lekuko dugu Suediarena. Estatu horrek proposatu egin zuen formula bat, zera esanez: «herri» izena erabiltzeak ez zuela suposatzen herri indigenei autodeterminazioa indarrean jartzeko eskubidea (Sobero Martínez, 2003: 21). Gainera bai estatuetako bai enpresarien ordezkariek uko egin zioten «herria» erabiltzeari, langileen ordezkariek, adituek eta ikusle indigenek esan zutenaren kontra. Egoera gogor horretan, «*Caucus Indigena*»-k aldarrikapen bat egin zuen autodeterminazioaren erabilerak ez duela inolako estatu-apurketarik edo independentzia suposatzen adierazteko (Barsh, 1990). Blokeo-giro horretan onartu egin zen «herriak» erabiltzea indigenei deitzeko, baina gehitu egin zitzaion famatua egin den gehigarri bat non argi esaten den autodeterminazio-eskubidea eta herri-kategoriari nazioarteko zuzenbidean onartzen zaizkion eskubideak ez dituela suposatzen. (Sobero Martínez, 2003: 24). NLEk klausula hori erabili zuen eztabaida hau NBEren eskuetan uzteko, bera delako foroa eta berari baitagokio eztabaida honen inplikazioak argitzea.

Argi dago estatu eta herri indigenen arteko interes-gatazka eta tirabirak nabariak izan zirela hitzarmen honen onarpen-prozesuan. Herri indigenek ez zuten hitzarmen hau sortzeko prozesuan partaidetza zuzenik ez botorik, eta artikulu ezberdinen inguruan nabaria izan zen desadostasuna eta gobernuen ikuspuntuei emandako lehentasuna.

Nazioarteko lege-tresna honek herri indigenek berezko kultura eta herri-izaera dutela deklaratzen du. Aitortu egiten du, orobat, euren aktoretza politikoa eta euren autogobernurako eskubidea. Aitorpen horrek indigenak asimilatzeko helburuarekin amaitzen du eta kultura errespetatzeko, biziarazteko eta ondorengoei pasatzeko eskubidea ezartzen du. Are gehiago, 169 Itunak onartu egiten ditu talde-eskubideak herri indigenen eskubideen elementu berezi eta berezko gisa (McKayk, 1999: 54).

Horretaz gain, hitzarmenak, NLErentzat zein gainerako guztientzat, garatutako artikuluen bidez herri indigenek planteaturiko auziekin aritzeko arautegi minimo bat ezartzen du. Izan ere, gaurdaino, mundu mailan herri indigenen eskubideez arduratzen den tresna juridiko boteretsuena dugu. Honexegatik, hain zuzen ere, nazioarteko legedian herri indigenen eskubideak definitzeko orduan erreferentzia-marko inportantea dugu.

Besteak beste, herri-izaera eta baliabideen gaineko eskubideak onartu egin dira. Berritasunen artean aipatzekoa da lurraldearen kontzeptua onartzen duela (Gómez, 2006: 140).

Gainera, 169 Hitzarmenak bertan herri indigenak nazioarteko garapen-politikaren objektu izatetik subjektuak izatera pasatu direla aitortu zuen. Onarturiko berrikuntzen artean hondokoa: haiengan eragina duen edozein prozesutan, hasi baino lehen, haiei kontsulta eginez kontatu, negoziatu eta adostasuna lortzeko asmoz prozesuak hasi behar direla onetsi zuen. Garapen-proiektuak martxan jarri baino lehen kontsulta egin beharrak esplotazioa egin aurretik herri indigenak kontsultatzera

eta honek eragingo dituen ondorio ezkorren ebaluazioa egitera behartu egiten ditu gobernuak. Gainera, egoera kaltegarri edo galerak gertatzen diren kasuetan konpentsazioa ematera behartzen ditu gobernuak.

Kontsultaren auziak estatu askoren beldurrak piztu zituen. Askok iritzi zioten beto-boterea ematen zitzaiela indigenei eta euren subiranotasunari horma jartzea zela. Esan dugun bezala, estatuen arteko dokumentua izanik irakurketa erradikalek ez dute tokirik. Gomez-ek (2006) argitzen digunez, estatuek ezin dituzte aldebakarki aplikatu indigenen eskubideak eta askatasunak bortxatuko dituzten neurriak (ibid.: 143). Kontsultaren inguruan hautsak harrotu dituen debate bat dago aplikatu beharreko metodologiari eta honen ondorioei buruz. Onartu egiten da kontsentimendua Laugarren Munduarekin izan beharreko harremanaren ardatza dela eta hau errespetu, informazio eta partaidetza printzipioen gainean eraiki behar dela. Kontsulta auzian aldarrikapena puntu honetan esplizituagoa da, beraren derrigortasuna markatuz.

Lurraldearekiko eskubideek hitzarmenaren beste atal garrantzitsua osatzen dute. 14. artikuluan estatuak ezin dituela herri indigenen lurrak «bereak» besterik gabe deklaratu egiten da eta herri indigenen lurren erabilera motak errespetatzeko deia egiten da. Espresuki deia egiten zaio estatuari indigena ez direnek egindako lurralde-okupazioak saihesteko eta zigortzeko. Era berean, herri indigenek euren lurretan dauden baliabideekiko dituzten eskubideak errespetatu behar direla ezartzen du, eta haien erabileran, administrazioan eta kontserbazioan parte hartu behar dutela baietsi egiten da. Nazioarteko hitzarmen garrantzitsu honek defendatu egiten du, bere 15. artikuluan, garapen iraunkorretik eratorriak diren onuretan partaidetza izatea, ekosistemak kudeaketan eta kontserbazioan partaide izatea, eta herri mailan sorturiko industri eta ohiko lanen iraupena. Hori bai, lurralde hauetan lur azpian dauden baliabideek estatuaren monopolioa izaten jarraituko dute.

Hari beretik jarraituz, indigenek euren lurraldearekin duten lotura berezian oinarrituriko erlijio eta balio kulturalekiko begirunea eskatu egiten du ere. Beraz, lurraldea, natura eta kultura modu estu-estuan lotuta agertzen zaizkigu hitzarmen honetan. Herri indigenen diskurtsoan argi esan da euren lurraldearekiko eta bertan dauden baliabideekiko duten jabego-eskubidea urratu egiten denean, horrekin loturiko aniztasun kultural eta biologikoaren galera gertatu dela. Lelo horri jarraituz, 169 Hitzarmenak lurraldeak, natur baliabideak eta nortasun indigena lotu egiten ditu harreman estu eta trinko batean. Era berean, kultur askotasunaren eta biodibertsitatearen artean dagoen harremana onartu egiten da eta ohiko jakinduriaren garrantzia eta berau babesteko neurriak (Sutherland, 1995) hartu behar direla baieztatzen da. Onartu egiten da herri indigenek lurraldearekin eta naturarekin duten harreman propio eta berezia, baita kultura eta erlijioaren balioak ere. Hari honi jarraituz, itunak indigenen hizkuntza, kultura, erakunde, nortasun eta erlijioen balioen aitorpena egin eta estatua horiek babestera derrigortzen du. Hitzarmenak euren instituzioak, bizimoduak, nortasuna, hizkuntza eta erlijioa mantentzeko eta sendotzeko eskubideak onartu egiten ditu eta garapen-politikak definitzeko orduan

herri indigenak kontuan hartzera derrigortu egiten du. Horretarako, herri indigenei erabateko aitorpena eta errespetua erakutsi behar zaiela dio: euren balio, praktika sozial, kultural, erlijioso eta espiritualei zein euren instituzioei. Horretaz gain, kontsulta printzipioa ezartzen du herri indigenetan eragina izango duen edozein neurri administratiboa hartu baino lehen. Halaber, defendatu egiten du kasu hauetan herri indigenen partaidetza eta oniritziaren beharra udalerri, herrialde nahiz estatu mailan gauzatzea. Errespetua, informazioa eta partaidetza-printzipioak ezarri egiten ditu indigenekin aritzeko irizpide nagusi bezala.

Prozesu luze honetan herri indigenek arrazistatzat hartu zuten autodeterminazioa ukatzen zien klausula (IWGIA, 1989: 201) eta hori kontradikzioan zegoela 3.1 eta 35 itun beraren artikuluekin, hauek herri indigenei eskubide-berdintasuna bermatzen dietelarik. Gainera, azpimarratu behar dugu bizia piztu zuten artikuluen artean hortxe ditugu 13-19 doazenak eta 23; bertan lurralde eta baliabide natural zein kulturalen gaineko eskubideak dituztela hizpide, baita jabego intelektualarekin loturikoak ere.

Nahiz eta hasiera batean erakunde indigenek ituna kritikatu bertan ez zutelako partaidetzarik izan, erakunde indigenek, batik bat Hego Amerikakoek, euren errebindikazioen artean sartu eta arrakastatsuak izan dira gobernu batzuk onartzera bultzatu dituztenean (Anaya, 2006). Hala ere, ezin ukatu itunak duen kutsu estatozentrista. estatua baita da itunean dauden eskubideen onarpena lortu behar duena. Eta agertzen diren artikulu asko intentzioen deklarazio bat direlako, ez direlako bete (Gomez, 2006; Anaya, 2006), eta betetzea lortzeko erreklamazioetara jo behar izan da. Gainera indigenek jarraitzen dute partaidetza zuzenerako mekanismorik izan gabe eta ez dute salaketak martxan jartzeko indarrik. Estatuek, enpresarien zein langileen ordezkariek soilik dute horrelako gaitasuna NLE sisteman.

3. ERRONKA ETA AUKERA BERRIAK

1993an Batzar Nagusiak abenduko 48/163 ebazpenean Munduko Herri Indigenen Hamarkada onartu zuen. Horrekin batera, NBEk 1993a Herri Indigenei eskaini zien, herri indigenekin zuen konpromisoa erakutsiz. Halaber, 1997an herri indigenen hainbat erakunde indigenak ECOSOCek emandako aholkulari-izaera jaso zuten. Modu horretan indigenen partaidetza eta presentzia NBEko goi-mailetan ziurtatu zutelarik (Naciones Unidas, 1998: 3-4).

1990eko hamarkadan Lantaldea NBEren sistemaren barruan partaidetza gehien daukan eremuetariko bat bihurtu zen. Funtzionamendurako prozedura zabala ezarrita mundu osoko ordezkari, erakunde nahiz banako indigenek zein gai hauetan haien aldeko aditu-ikertzaile direnek parte hartu zuten bertan. Gainera, ezarritako partaidetzarako prozedurak, malgutasun handikoak izanik, posible egiten du ordezkari indigenek eta gobernuek aurrez aurreko harremana izatea; eta herri indigenei dagozkien gaiekin loturiko eztabaidan kide izatea. Era horretan, historian

lehenengoz hizketaldi positiboa gauzatu da, estatu eta nazioarteko erakundeek indigenen errealitate eta izaerari buruz zuten iritzia aldatzea lortuz.

Aurrerapen hauetaz baliatuz indigenek historian zehar inoiz izan ez dituzten foroak eta bitarteko juridikoak eskuratu dituzte, euren giza eskubideak defendatzeko eta pairaturiko erasoez babesteko. Horretaz gain, euren eskubide eta agenda politikoa diseinatzeko, sustatzeko eta lantzeko parada eskaini die eta besteekin komuntasun eta erantzukizun partitua lantzeko. Halaber, euren igurikimen eta itxaropenei loturiko nazioarteko legedi berri baten eraikuntzan parte hartuz, beste herri eta aktoreekin batera lan egiteko parada ematen die. Aurrean duten bidea luzea bada ere, lortu lortu dute dagoeneko, euren sufrimenduak eurenak ez ezik munduko askorenak bihurtzea; eta hauek konpontzeko nazioarteko erkidegoaren defentsaz arduratzen diren erakundeak so izatea eta euren patuaz kezkatzea.

Aldi berean, nazioarteko ekimenaren onuradun/objetktuak izateaz gain, herri indigenak nazioarteko erkidegoak eskaintzen dien ekimen politikorako aukerak aprobetxatu izan dituzte, eta, era horretan, nazioarteko legedia eraikitzeko ahaleginean partaide aktiboak, erabateko subjektuak dira (Barsh, 1994). Izan ere, giza eskubideen inguruko lanetan parte hartzeak nazioarteko sistemak eskaintzen dituen aukerez eta gauzak gertarazteko prozedurez jabetzea ekarri du. Beraz, iraganean ez bezala, gaur egun herri indigenak ditugu protagonista nagusiak euren eskubideen defentsan. Ekimen paradiplomatiko aberats eta konplexu honek erakutsi egiten digu lidergo berri baten aurrean gaudela, eta lider indigena gazte hauek, nazioarteko dinamikak, nazioarteko instituzioak eta politika egiteko moduak ondo ulertuz (Dyck, 1985), gai izan direla NBEren mailan eragin-eremuak aprobetxatzeko eta eskalatzeko. Aditu indigenak nazioarteko erakunde, GKE edo estatuek bidalitako delegazioetan aurkitu ditzakegu, baita hainbat gobernutako partaideen artean ere. Are gehiago, eurak dira askotan bortxaketak ikertzeko, salatzeko eta konpontzeko prozedurak hasten dituztenak. Izaera propositibo hau oso garrantzitsua da. Ildo honi jarraituz, Laugarren Munduak hamarkadan zehar Lantaldeak egindako txostenetan hartu du parte. Era horretan, NBEri bere egitekoa hobeto egiten laguntzen dioten bitartean, herri indigenek pairatzen dituzten egoera larriak eta haiek konpontzeko egiten dituzten eskaerak, gomendioak eta proposamenak adituen txostenean daudela ziurtatu egingo dute.

3.1. Giza Eskubideen Batzordea eta errelatore berezia

1996an Giza Eskubideen Batzordeak auzi indigenak bere atentzioa merezi zuen gaia zela onartu eta erabaki zuen arreta bereziko 23. puntua bere agendan izendatzea. Ordura arte herri indigenen gaiak Azpibatzorde mailan aztertzen baziren orain Batzordearen maila altuagoan. Gauzak horrela ekimen indigena Azpibatzordearen ondoko puntuetan zentratuko da: 6. (askatasun eta giza eskubideen bortxaketa), 4. (gertakizun berrien azterketa), 5. (arraza-diskriminazioa), 7. (ordena ekonomiko

berria eta giza eskubideen sustapena), 15. (herri indigenen aurkako diskriminazioa). Aldiz, Batzorde mailan 12. (giza eskubideen bortxaketa), 17. (azpibatzordearen txostena) eta 23. (auzi indigenak) izango dira ekimen nagusiak.

2000. urtean ECOSOCek Gai Indigenei buruzko Foru Iraunkorraren sorrera onartu eta 2001ean Giza Eskubideen Batzordeak herri indigenentzako errelatore berezi bat egotea baietsi egin zuen. Errelatore berria herri indigenen aurka egiten diren eskubide-bortxaketak prebenitzeko ahaleginean beste indar bat da giza eskubideen bortxaketa deskribatzeko, informazioa biltzeko, informazioa trukatzeko eta horrelakoak prebenitzeko, eta gertatzen denean horrelakoak konpontzeko nazioarteko legedia egiteko. Gainera, errelatore berezi horrek ahalmena du bortxaketa-kasuetan bat-bateko ekintza hasteko eta kasua ezagutzeko bisitaldiak egiteko.

Lehenengo txostenak garapen-programa erraldoiek herri indigenetan dituzten ondorioak aztertu zituen batetik, eta bestetik, herri indigenen eta taldeen oinarrizko eskubide eta askatasunak. Bigarren txostenak justizia-administrazioan herri indigenek dituzten arazoak eta herri indigenen ohiturazko zuzenbidea aztertu zituen. Hirugarrenak, hezkuntza-sisteman partaide izateko herri indigenek dituzten eragozpenak eta jasotako hezkuntzaren kalitatea aztertu ziren. 2006ko txostenak herri indigenen eskubideak babesteko emandako konstituzio-erreformak izan zituen aztergai.

Herri eta estatu ezberdinetan egindako bisitaldiak ere ekimen inportanteak izan dira. Bisitaldiek aukera berezia eskaintzen dute tokian tokiko errealitatea ezagutzeko, eta haien xedea tokian tokiko gobernuekin, herri indigenekin, aditu zein GKE-ekin elkarrizketa zabaltzea da. Era horretan posible da informazio zuzena eta kontrastatua izatea eta Foro Iraunkorrari zuzentzea. Errelatore bereziak 2002an Filipinak eta Guatemala bisitatu zituen, 2003an Mexiko eta Txile. 2004an Kolonbia eta Kanada. 2005ean Hegoafrika, eta Kanada eta Zeelanda Berria. 2006an Ekuador eta Kenia. En 2007 Bolivia. Txosten horietan, errelatoreak herri indigenek bizi duten egoera aztertu ondoren herri indigenekin zerikusia duten aktore guztiei zuzenduriko gomendioak egiten ditu. Errelatoreak beste mekanismo bat eskaini die herri indigenei munduari jakinarazteko euren egoera nolakoa den, euren kexak munduratuz.

Giza eskubideen esparruan aurrerapenak handiak izan badira ere, Laugarren Munduaren presentzia zein eskaerek sorturiko zalaparta ez da gaueko ahuntz baten eztula izan. Estatuen eta indigenen arteko talka hau inon baino argiago ikusten da HIGEAren inguruan izandako eztabaidetan. Eztabaida horiek estatu eta herri indigenen artean abian dagoen elkarrizketaren mugak markatzen dituzte. Bertan nazioarteko erkidegoa ulertzeko bi ikuspegiren arteko talka gori-goria agertzen zaigu.

4. ALDARRIKAPENAREN INGURUKO ESTATUEN OLDARTZEA

Estatu eta herri indigenen artean dagoen gatazka, indarren arteko desoreka erakusten duena, definizioaren inguruko auzia izan da historikoki. 169 Itunaren inguruko eztabaidan komentatu ditugu Populazioak vs Herriak izeneko eztabaida honen nondik norako nagusiak. Laugarren Munduak autodeterminazioaren erronka eta talde-eskubideen defentsa planteatuz aktore kolektibo berri baten errealitatea erakutsi dio nazioarteko erkidegoari: talde-eskubide bereziak merezi dituzten herri indigenena, hain zuzen. Errealitate hori herri indigenen kasua kategoria berria eta berezia izatean datza. Eztabaida politikoa gori-goria izan bada ere, adituek ez dute inolako zalantzarik, horrela frogatzen baitu Daes-ek (1993) egindako txostenean ondoko paragrafoetan dioenean indigenak herriak direla zentzu oso-osoan eta inolako zalantza izpirik gabe.

Herri izate hori kontuan harturik, Laugarren Munduak estatuen erkidegoari planteatzen dizkion arazo eta kontraesanak ez dira makalak. Nola onartu talde-eskubideak izaera honi dagokion herritasuna eta autodeterminazio-eskubidea onartu gabe? Nola onartu autodeterminazioa eta haren garapena gaur egun existitzen diren estatuen barruan? Nola uztartu estatuen batasuna haien barruan dagoen herri/nazio aniztasunarekin? Nola lortu hau herri indigenen interesa eta estatuen interesak errespetatuz? Nola orekatu munduko eta estatuko aniztasun kulturala eta biologikoa mantentzeko mandatua ekonomia globalak inposatzen dien errealitatearekin?

Galdera hauek guztiak indarrean dagoen status quori erronka egiten diote eta tentsio ikaragarriak sortzen dituzte. Horien isla HIGEAren inguruan sorturiko eztabaida gogorra eta luzea izan da. HIGEA Laugaren Munduaren helburu nagusia izan da azken hamarkadetan eta 1970ean hasitako prozesuaren gailurra markatzen du. Gainera, 1994an hasitako hamarkadaren xede nagusietariko bat dugu eta duen mandatu araugilearen ondorio inportanteena gainera.

Aldarrikapenak ondoko ezaugarri interesgarriak ditu: batetik, ekintza paradiplomatikoaren ondorioa izanik herri indigenen eskubideak babesteko marko unibertsala bihurtuko da; bestetik, herri indigenek beste edozein aktorerekin dituzten negoziazio-prozesuetan ezinbesteko erreferentzia bihurtu zaigu. Beste modu batean esanda, HIGEA indigenen eta indigena ez direnen artean XXI. mendean harremanak birbideratzeko eta kudeatzeko marko gisa ulertu behar dugu.

HIGEA, beraz, herri indigenek aurrez aurreko komunikazioak eginez deskribatu dituzten bortxaketa zehatzei erantzuteko egindako ahalegina dugu. Ez da aditu, politikari, legegizon edo esker oneko jendeek egindako ahalegin intelektualaren fruitu hutsa. Ez, bortxa, bazterkeria eta biolentzia eguneroko bizitzan jasotzen duen talde edota banako indigenek euren segurtasuna eta eskubideak ahalik eta hoberen defendatzeko egindako ahaleginaren fruitua dugu. Biktimek euren arazoei erantzuteko munduko nazio, estatu eta nazioarteko erakundeei egindako proposamen minimoa, eraikitzaile eta posibilista dugu. Gaur egungo nazioarteko erakundeekin lan eginez

sortu delako eta espresuki bizi dituzten gatazkak konpontzeko nazioarteko legea hautatu duelako azpimarratzen dugu. Ez du esan nahi eskubide berriak onartzen direnik (Kingsbury, 1997: 51).

HIGEA herri indigenek bizi duten egoera kaxkarra birbideratzeko eta munduko beste estatu, nazio edo GKE-ekin aritzeko gutxieneko marko normatiboa da. Bertan adosturiko minimoak agertzen dira eta horrek ez du, inolaz ere, suposatzen etorkizunean garatu daitezke eskubide berriei uko egiten zaienik. Aldarrikapen honek herri indigenek bizi dituzten arazo eta itxaropenei heltzen die, haien esperientzian oinarrituta dago eta haien partaidetza zuzenaren eta negoziazio-gaitasunaren ondorioa da. Horrelako partaidetza-prozesurik NBEren mailan ez da beste inon aurkitu (Burger, 1997).

HIGEAk herri indigenen nazioarteko agendan agertzen diren puntu nagusiak bilduko ditu bere baitan. Horretaz gain, badu beste ezaugarri garrantzi-garrantzitsua: HIGEAk bere baitan biltzen ditu beste hitzarmenetan agertzen diren printzipioak eta artikuluak, jada nazioarteko zuzenbidean onarturik daudenak. Hori funtsezkoa gertatzen da zeren, aldarrikapena izanik, betetzeko derrigortasunik normalean ez baitago, kasu honetan aipaturiko berezitasuna dela-eta.

Garrantzizko kontsideratzen dituzten gaiekin batera indigenek egindako proposamenak agertuko zaizkigu. Haien artean egon badaude kutsu indigena berezkoa dutenak, hots, 7. artikulua, etnozidioaren kondena egiten duena. Genozidioaren kondena agertu egiten da beste testu juridikoetan baina ez etnozidioarena (Burger, 1997: 105). Horretaz gain, beste dokumentuetan agertzen ez den izaera kolektiboa du, eta azpimarratu egiten du negoziazio, kontsulta eta «adostasuna»ren balioa herri indigenen eta estatuen arteko harremanak gidatzeko printzipio gisa.

HIGEA nazioarteko erkidegoa gobernatzen duen egitura birmoldatzeko proposamena ere bada, horretarako estatu gabeko herrien partaidetza zuzenagoa defendatzen duelarik. Munduko nazioek osatzen duten errealitate aniztuna kontuan hartzea eta aniztasun hori txertatzeko nazioarteko erakundeen birmoldaketa bultzatzea proposatzen da. Horretarako eta benetako kulturen arteko hizketaldiari ekiteko eta elkarrenganako errespetua bultzatzeko proposamena biltzen da aldarrikapenean. Iraganeko gaizki egindakoak gainditzeko eta nazioarteko legean eta elkarren errespetuan oinarrituriko lankidetzari ekiteko proposamena da. Aurrean dugun proposamena giza eskubideen errespetuan, unibertsaltasunean, berdintasunean, diskriminazioarik ezean, eskubideen arteko loturan eta banaezintasunean oinarrituta dago (Anaya, 1999). Ordena berri bat ezartzeko ez bada daukaguna hobetzeko indigenen kontribuzioa NBEko goi-karguek 2002. urtean egindako GIFIren lehen sesioan emandako sarrera-hitzaldietan Mary Robinson eta Kofi Anan-ek aitortu egin zuten herri indigenek euren partaidetzaren bitartez nazioarteko erkidegoari hobekuntza ekarri diotela. NBEri bere helburuak erdiesteko egin diezaioketen kontribuzioa ere azpimarratu zuten.

Hala ere, herri indigenen eskaerak hainbat estaturentzat mehatxu zuzena dira. CANZUS taldekoek (Kanada, AEB, Australia, Zeelanda Berria), Japonia, Txina, Frantzia edo Brasil ez datoz bat aldarrikapenak planteatzen dituen hainbat artikulurekin, euren subiranotasunaren gainean mugak jarri eta hau konpartitzera bultzatu egingo lituzkeelako. 1987tik 1993ra egindako presio paradiplomatikoari esker, 1994an Azpibatzorde mailan HIGEAren onarpena lortu egin bazuten ere, ondorengo bidea oztopoz josita agertu da. Ezin ahaztu biak PIL eta Azpibatzordearen adituez osoturik daudela, Batzarrean aldiz, diplomatikoak dira nagusi.

1993ko zirriborroaren proposamenen artean estatua gehien aztoratzen duen gaia 3. artikuluan ezartzen den autodeterminazio-eskubidearekin dugu lotuta. Hemen argi ikusten da NBE nazio batuen erkidegoa izatetik urrun dugula, eta, berriz ere, estatu banatuak ditugula nagusi. CANZUS autodeterminazio-eskubidea onartzearen kontra agertu eta gutxi batzuk izan ziren urte honetan, aldarrikapenean agertzen den moduan (Danimarka eta Fidji), baina nazioarteko zuzenbidean historikoki ulertu denaren interpretazio mugatua eginez. Barneko autodeterminazioaren aldeko apustua UNESCOk zein buruzagi indigena askok egingo dute. Autodeterminazio-eskubidearen ikuspegi mugatzailea ezartzeko ahalegin hau ere 31. artikuluaren «ingelesezko» edo «gaztelaniazko» itzulpenen artean dagoen ezberdintasunean eta ondorengo eztabaidan antzeman daiteke. Ingelesez autonomia ezartzeko moduetariko bat dela dioen artean, gaztelaniaz, berriz, modua, bera eta bakarra omen dena, dela dio. CANZUS aldetik 1993ko zirriborroak oposizio gogorra ezagutu arren, herri indigenek ez zuten autodeterminazioaren auzian atzera egin, eta gainera estatuaren papera eta zilegitasuna zalantzan jarri zituzten.

Estatuek 1993ko zirriborroa aldatzeko saioa 1995ean Giza Eskubideen Batzarrean lantalde berezia sortu zenean ikusi zen. HIGEAri buruzko Lantaldea (hemendik aurrera HIGEA Lantaldea) euren interesei hobeto erantzungo zien dokumentu bat lortzeko asmotan. Gertakizun horrek onarpen-prozedura trabatu egin zuen. Herri indigenek HIGEA zegoen bezala onartu behar zela eta ez zela negoziatuko esan zuten. Hala ere, aurki errealitate diplomatiko latz bati erantzun behar izan zioten: NBEn estatuak dira nagusi eta Batzordean zein Batzar Nagusian botoa ematen duten bakarrak. Negoziatu ezean, estatuek artikulu bakoitzari euren kasa botoa alde edo kontra edo emendakinak aurkeztuz burutu zuten euren asmoan, inolako eztabaida egin gabe. Hori arriskutsua oso zen indigenentzat, euren ikuspuntuak ezin izango zirelako entzun eta gobernuekin trukatu, haiengan eragina izateko eta haien jarrera aldarazteko aukera desagertuz.

Gauzak horrela, aldarrikapena aztertzeko Batzordean estatuek, NBEko egituraz eta prozeduraz baliatuz, zirriborroa aldatzeko eta ahultzeko mota guzietako trikimailuak erabili zituzten zirriborroan dagoena mugatzeko, birdefinitzeko, «zehazteko» asmoz, eta finean HIGEAren indarra moteltzeko asmoz (Barsh, 1998). Hizkuntzaren zehaztasunak aitzakiatzat erabili egin ziren dokumentu inportante honen onarpena atzeratzeko eta hizkuntza diplomatikoaren ñabardurak arma bihurtu.

Gainera, Chavez-ek (2000) deskribatzen duen bezala, herri indigenek presentzia, partaidetza eta euren boza helarazteko irabazitako eskubidea murriztu egin zen gobernu-ordezkarien arteko saio ez-ofizialen bidez. Prozedura hori gogor kritikatu zuten indigenek (IITC: 2002).

Egoera ez da izan erraza, negoziazioetan sartzea testua berridazteko atea zabaltzea baitzen. Ordezkari maximalistek zirriborroaren onarpena zegoen bezala eta aldaketarik gabe onartzea defendatzen zuten. Posibilistagoek (Artic Circle, Tetebba eta Samiak) gaur egungo nazioarteko sistemaren mugak eta errealitateak kontuan izanik harreman etikoari heltzeko proposamena egiten zuten. Kontuan hartuta eztabaidan parte hartzen ez bazen estatuek eurena egingo zutela, proposatu egin zen harreman etiko bat aldarrikapenaren mamia ahalik eta hoberen Batzar Nagusira heltzen zela ziurtatzeko. Helburua estatua heztea eta erabakiak hartzeko orduan herri indigenen ikuspegia eta alternatibak kontuan izatea zen. Coulter-ek (1997: NET) eta bere erakundeak proposaturiko bide posibilista ekintza etiko batean oinarritzen zen, non estatuei argi utziko lieketen paradiplomatiko indigenek ez dutela negoziaziorik burutuko, eta ez daudela prest eskubideetan inolako mugarik onartzeko. Modu horretan, aldarrikapena hobetzeko eta sendotzeko eztabaidak bai, baina negoziaziorik ez. Ikuspuntu hori mantentzekotan, aldarrikapena sendotzen zuten hobekuntzak bakarrik onartzeko asmoa zegoen. Eztabaidan aritzeko lan-taldeak antolaturiko bileretan parte hartzea eta estatu-ordezkariekin banaka zein taldeka lobby egitea izanik. Egon bazegoen ahalik eta sostengu zabalena lortzeko beste arrazoi bat. HIGEA nahiz eta aldarrikapena eta ez konbentzioa izan, sostengu zabalekoa izateak aukera gehiago ematen ditu «*customary law*» bihurtzeko (Anaya, 2006). Laugarren Munduak horretara zuzendu zituen ahaleginak.

Gauzak horrela, Giza Eskubideen Batzordean (GEB) 1995etik gertaturiko eztabaidan urtetan onarturiko artikulu bakarrak bi izan ziren: 5. eta 43. Biok banakoen eskubideekin loturik ditugu. 15., 16., 17. eta 18. artikuluen kasuan (kultura, hezkuntza, informazio eta lan-munduarekin loturiko eskubideak) adostasunerako bidea nahiko jorratu zen 2001eko saioan. 1., 2., 44. eta 45. artikuluak (giza eskubideekin loturiko hastapen orokorrak dira eta beste lanabes juridikoetatik datozenak) eta 12., 13. eta 14.a (kultura, eta tradizioarekin loturikoak) eztabaidatu egin ziren adostasun edo jarreren hurbiltze bat bideratzeko. Garrantzi handiko artikulu hauekin batera, ezadostasunak eta konpontzeko zailak gertatzen zirenak autodeterminazioa (3. art.) eta natur baliabideen kontrolaren gainekoak (25-30) ziren batik bat. Egoerak ez zuen hobera egin ondoko bi urteetan.

2002tik 2003ra Norvegiako gobernuak aurkezturiko proposamenak, non autodeterminazioa zehazteko estatuen batasunari buruzko artikulua gehitzen zen, aurrera egin zuen estatu horrek aitzindaritza hartu zuen neurrian. Baina benetako aldaketa 2003an Kopenhagen egin zen tailer batean bide posibilista jorratzen ari ziren indigenak batu ziren. Negoziaziorako malgutasuna eta HIGEAren kontra ziren estatuak isolatzeko eta aldekoak laguntzeko deliberoa hartu zen. Halaber

autodeterminazio-eskubidea eta herri indigenen eskubide kolektiboak ezin zirela negoziatu adostu zen. Gainera estatuen proposamenak artikulu zehatzei lotuta eztabaidatu ziren. Horrek 1994koa zegoen bezala jarrerarekin apurtzea suposatu zuen (Åhrén, 2007: 91) eta indigenek argi ikusi zuten Batzordera bidaliko zen testua Chavez-ena izango zela, estatuen erabateko adostasuna lortu ezean. Kopenhageko bilerari jarraitu zion Montrealen egindako beste bilera batek. Hemen argi gelditu zen erregio indigena guztietako ordezkariek parte hartzen zutela ekimenean. Ordutik aurrera posibilistak «Montrealgo Taldea» izenez ezagutu ziren.

2004an 1994-2004 Populazio Indigenen Aldeko Hamarkadaren helburu nagusietarikoa zen HIGEAren onarpena ez zen lortu. Urte horretako abenduan HIGEAk aurrean zituen oztopoak horren handiak izanik eta hamarkadak lorturiko helburuak hain xume-xumeak, 2005ean NBEk Bigarren Hamarkada onartzeko erabakia hartu zuen, helburuen artean HIGEAren onarpena espresuki aipatu zelarik.

30 urteko debate luzean aritu ondoren, indigenek onarpenerako bidea eta berorri loturiko prozesua trabaturik zeudela ikusi zuten argi eta garbi. Blokeoak sorturiko tentsioa eta frustrazioa salatzeko asmoz, indigenek gose-greba bat antolatu zuten Genevan hainbat estatuk jarritako oztopoak salatuz, eta HIGEAn onarturiko proposamena indargabetzeko eta berridazteko saiakerari aurre eginez. Hala ere, gauzak mugitzen hasiak ziren Norvegiako gobernuak, beste estatuekin eta Eskandinaviako indigenekin batera (samiak eta Groelandiako gobernu autonomoa), proposamen bat landu zuen HIGEAren bertsio berria CRP 1 izenaz ezagutu dena. Bertan 1994ko HIGEAri egindako hainbat zuzenketa onartu egin ziren jatorrizkoak baino hobeak zirelako. Ondorengo negoziaketetan CRP 1 erabili zen. Horrek estatuen eta indigenen arteko elkarlana erraztu zuen eta negoziazioa aurrera bultzatu (Åhrén, 2007). Aurrerapausoa Sami Council eta Sami Parlamentarian Council CRP 5 aurkeztu zutenean eman zen, horrek negoziazioetan itzal handirik izan ez bazuen ere, indigenen artean bultzatu zen eta erdietsi ere ordezkaritza indigenak euren hitzekin proposaturiko testuak bidaltzea (ibid., 2007: 96). CRP 5 estatuek egindako CRP 1 delakoari egindako alternatiba indigena bezala uler dezakegu.

Azkenean, 2005ean Norvegiak harturiko aitzindaritzari Guatemala eta Mexiko gehitu zitzaizkion eta gauzek aurrera egin zuten ustekabeko moduan. Indigena eta estatuen kontsultak areagotu egin ziren eta azkenik urte horretan HIGEAren inguruko blokeoa gainditu egin zen Chavez Lantaldearen presidenteak bere proposamena aurkeztu zuenean. Korapilo diplomatikoa askatzeko ahalegin horretan Mexikoko ordezkaritzak eragin ikaragarria izan zuen. Berak *«Taller internacional sobre el Proyecto de Declaración de las Naciones Unidas sobre los Derechos de los Pueblos Indígenas»* delako tailerra antolatu zuen, berau ezinbestekoa izan zelarik aditu, gobernu-ordezkari zein ordezkari indigenen kontribuzioak bateratzeko. Lorturiko giro berriaren adibidea «herri indigena» deituraren onarpena izan zen (Taller Internacional, 2005: 3).

Hurrengo urtean, 2006an, HIGEAri buruzko Lantaldearen presidente Chavez-k kontsentsu-dokumentu bat aurkeztu zuen. Proposamen honek Laugarren Munduaren onarpena eta gobernu askorena erdietsi zuen. Chavez-ek egindako dokumentu horren defentsak helburu zehatza zuen: CANZUS taldeko estatuek zuten mesfidantzak kentzea, eta argi uztea gorengo helburua estatuen eta herri indigenen artean harreman berri eta eraginkorra ezartzea zela

Nazioarteko lobby-ekimen handi baten ondorioz, 2006an Batzarrak onartu zuen zirriborroa aurkeztu zuen. Urte horretako ekainaren 29an Giza Eskubideen Komite berriak onartu egin zuen HIGEA: 30 boto alde, 2 kontra eta 12 abstentzio.

NBEn Mexikok duen ordezkariak Enrique Berruga Filloy-k HIGEAk ez zuela estatuen batasunaren aurka inolako mehatxurik suposatzen aldarrikatu zuen (Burchett, 2006).

Jarrera eta iritzi berbera zuten beste estatuek aldeko dokumentu bat sinatu zuten (Caucus Indígena, 2006). Antzeko ekimenak bultzatu zituzten Foro Iraunkorrak (Economic and Social Council, 2006) eta Stavenhanguen Errelatoreak. Hala ere, CANZUSek bere aldetik lobby gogorra egin zuen eta askoren ametsak huts-hutsean gelditu ziren 2006ko azaroaren 28an, askorentzat Batzar Nagusian onartua izango zen egun berean, Bostwana eta Namibiako gobernuek, Afrika ordezkatuz, onarpena atzeratzea lortu zutenean. Azkenean 82 boto alde, 67 kontra eta 25 abstentzio. Gauzak horrela atzeratu egin zen erabakia eta adostu zen 61. sesiorako aurkeztuko zitzaiola erabakia Batzar Nagusiari.

Herri indigenek tristeziaz hartu zuten erabaki hau. Maniobra honek oztopo serioa izateaz gain, leihoa zabaltzen zion debatea berriz irekitzeari eta HIGEA berridazteari. Horrek suposatzen zuen Kontseiluak onartu zuena baino testu ahulagoa izatea. Arriskua hortxe egonda ere, garaia zen lorturiko kontsentsuen gainean ekimen paradiplomatikoari berriz hasteko eta testuaren aldeko sostengu indartsua erdiesteko (Coulter, 2006). Azkenean nazioarteko testu indartsuago baten aldeko ekimen paradiplomatikoari ekin zioten. Indigenek kontaktuak izan zituzten gobernu-ordezkariekin, baina izandako «kontsultak ezin zirela HIGEAri buruzko lantalde berri bat ezartzeko erabili argi utzita». Kontsultak Laugarren Munduaren partaidetzarekin egin behar zirela, Giza Eskubideen Kontseiluak egindako lana indartzeko, eta ezin zirela 2007ko iraila baino gehiago luzatu (Indigenous Caucus, 2006) defendatu zuten. Kontsultak laguntzeko Batzar Orokorraren presidenteak Filipinetako enbaxadorea, Davide, izendatu zuen. Hori jarrera kontrajarriak zituzten estatuen arteko kontsultak laguntzen aritu zen, diferentziak gutxitu eta akordio batera heltzeko asmoz.

Afrikarren ustekabeko ezetzak Laugarren Munduaren paradiplomaziaren barruan bizi izan den garai inportantetariko bati hasiera eman zion. Erantzun horretan, Afrikako estatu batzuek, mundu osoko herri indigenen ordezkariek eta GKE-ek, Caucus Indigenaren koordinazio pean, Geneva eta New York-en

kontaktuak izan zituzten estatu afrikarrekin eta HIGEAren aldeko estatuekin, zeinak *«co-patrocinadores»* izenez ezagutzen ziren. Afrikarrek zituzten kezkei erantzuten aritu ziren, baina argi utzita ez zutela aldaketarik onartuko jatorrizko testuan. Giro horretan ekimen pedagogiko interesgarri bat burutu zen HIGEAren alde, sostenguak lortzeko eta zeuden oztopoak bidetik kentzeko.

Ahalegin paradiplomatiko honen alde jokatu zuen faktore inportante bat honako hau zen: ustez «afrikarren jarrera» ez zen estatu guztiena, Hegoafrikak, Kamerunek eta Zambiak aldeko botoa eman, eta Argelia, Ghana, Maroko, Nigeria, Senegal eta Tunez abstenitu egin baitziren. Debatea gertatu zenean, NBEko estatu batzuk HIGEAren alde agertu eta kontra zeudenen jarrerari aurka egin zioten. Baina horrelako asmoek ezin izan zuten nabari-nabaria zen gertakari baten eragina aldatu: ia Afrikako estatu gehienek ez zuten parte hartu HIGEAren inguruko eztabaida luzean, eta HIGEAren puntu batzuen inguruan zalantzak eta beldurrak zituzten. Beldur eta kezka hauek *Aide Memoire,* izeneko dokumentuan bildu ziren. Kezkak Batasun Afrikarren 2007ko urtarrileko biltzarrean batu ziren eta deia egin zien Afrikako estatuei onarpenaren kontrako botoa ematera. Egoera sakonki aztertu ondoren, Laugarren Munduak argi ikusi zuen afrikarren kezka asko ezjakintasunaren ondorio zirela. Aide Memoire delakoari erantzuteko asmoz, Afrikako 6 adituz osaturiko talde bat, IWGIAren laguntzarekin, New Yorkera joan zen 2007ko apirilean, 19 enbaxada afrikarrak bisitatzeko asmoz eta HIGEAri buruz eztabaidatzeko asmoz. Halaber. IWGIAk Foroarekin batera mahai-inguru bat antolatu zuen Afrikako estatuek zituzten ordezkaritza finkoekin eta beste estatu batzuetako ordezkaritzekin. Ekimen hauekin batera, Afrikako Herri Indigenen Koordinazio Komiteak (IPACC) antolatu egin zuen Aide txostenari erantzun kritiko bat, Afrikako estatuen kezkei erantzunez.

Indigenek antolaturiko presio arrakastatsu horren ondorioz, Giza Eskubideei buruzko Komisio Afrikarrak HIGEAri buruzko eztabaida izan zuen 2007ren maiatzean Ghanan egindako 41. saioan. Komisioak HIGEAren aldeko botoa eman zuen Afrikako Giza Eskubideen kartarekin bat zetorrela kontsideratuz. Gainera adituez osaturiko delegazio batek bisita egin zien Kameruni, Afrika Erdiko Errepublikari, Kongoko Errepublikari eta Burundiri HIGEAren aldeko jarrera sustatzeko.

2007ko maiatzean, estatu afrikarrek NBEko Batzar Orokorreko presidentari HIGEAri egindako zuzenketa sorta bat aurkeztu zioten, bertan 30 aldaketa baino gehiago agertzen zirelarik. Bai erakunde indigenek zein aldeko estatuek ezetz biribila eman zioten proposamen horri. Hauek, ostera, Kontseiluan onetsi zen HIGEAren onarpenaren aldeko proposamena egin zuten eta saiatu egin ziren afrikarrek estatuen batasunari buruz zituzten kezkak argitzen.

Gauzak horrela eta bizi zen blokeo-egoera kontuan izanik, argi zegoan 61. Batzar Orokorrerako adostasunik ez bazegoen, CANRZUS (CANZUS+Rusia) taldeak, berriz ere, HIGEAren inguruko eztabaida eraikitzeko aukera zuela. Horren aurrean HIGEAren aldeko estatuek (Guatemala, Mexiko eta Peru) iniziatiba hartuta

posibilista zen irtenbide bat aurkitu zioten egoera latz horri. Ez zen Laugarren Munduko guztien gustuko izan, baina posible egin zuen 2007ko irailaren 13an HIGEA onartzea. Azken fase horretan Laugarren Munduak ez zuen inolako partaidetzarik izan afrikarrek eta HIGEAren aldeko estatuek izan zituzten negoziazioetan, ezta Batzar Orokorrean izandako bozkan ere.

Hasierako egoera oso konplexua zen. Afrikako blokeak ezetza eman balu, HIGEAri ez esatea ofizialki suposatuko zukeen, indigenen ikuspegitik kontrolatzeko zaila zen egoera bati atea zabalduz. Estatu afrikarren eta *«co-patrocinadores»* direlakoen arteko negoziazioek lortu egin zuten 30etik 9 zuzenketara pasatzea: (4) aldaketa hitzaurrean eta (5) artikuluetan. Artikuluetan inportanteena estatuen batasunari erreferentzia egiten ziona zen. Horren truke, lurraldearen eta baliabideen gainekoak nahiz autodeterminazio zein berari loturiko aurretiaz emandako adostasun aske eta informatuari egindako zuzenketak bertan behera gelditu ziren (Comité Directivo del Conclave Mundial de los Pueblos Indígenas, 2007).

Halaber, HIGEAren aldeko estatuek baieztatu egin zuten adostuta zegoela bloke afrikarrak ezetza emango ziela Kanadak edota beste edozeinek aurkezturiko zuzenketei. Proposamen hau Caucus Indigenari aurkeztu zitzaion, eta saiatu egin zen bi zuzenketa sartzen, baina ez zen horrelakorik onartu. Estatuen arteko akordioak kinka larrian jarri zuen Laugarren Mundua: akordio-testuak 46. artikuluan onartzen zuen batasun-printzipioarekin oso ados ez bazeuden ere, ez zituen ukitzen autodeterminazioa, lurra, lurraldea eta natur baliabideak, aurreko adostasun libre eta informatua, eta, azkenik, hitzaurrean agertzen ziren paragrafoak non herri indigenei dagozkien berezko eskubideak eta berdintasuna onartzen zaizkien. Gainera, edozein aldaketa sustatzea dinamika arriskutsuan sartzea gerta zitekeen.

Egoera konplexu horretan, Laugarren Munduak hiru egun bakarrik izan zituen zirt edo zart egiteko. Asia, Europa eta Karibeko estatuen baietza eta orain afrikarrena izanik, onarpena segurtaturik zegoen. Testua Laugarren Mundua osatzen duten 7 lurraldeetara bidali zen eta kontsentsuz Asian, Asia Pazifikoan, Afrikan, Artikoan eta Errusian onartu zen. Ipar Amerikan eta Latinoamerikan ez zen aho batez onartu baina erakunde askok baietza eman zuten.

Finean, HIGEA onartu egin zen 143 estaturen baietzarekin. Aurka 4 (Kanada, AEB, Australia eta Zeelanda Berria) eta 11 abstenitu egin ziren (Azerbaijan, Bangladesh, Bhutan, Burundi, Kolonbia, Georgia, Kenya, Nigeria, Errusiar Federazioa, Samoa eta Ukrania). AEB, Australia, Kanada eta Zeelanda Berriaren ezetzak Laugarren Munduaren haserrea piztu zuen. Estatu horiek autodeterminazioa, lurra, lurraldea eta natur baliabideak, aurreko adostasun libre eta informatua (azken hau beto-eskubide bezala ikusten baitzuten), jabego intelektuala eta indigenen lege-sistema onartzearen aurka agertu ziren. Latinoamerikako estatu guztiak, Kolonbia izan ezik, alde agertu ziren. Afrikarren artean, Burundi, Kenya, Nigeria izan ziren abstentziora jo zuten bakarrak.

Onarturiko HIGEAk 46 artikulu ditu, indigenek dituzten erakunde, kultura eta tradizio propioak babesteko eskubidea onartzen du, baita garapen propioa euren behar eta tradizioen arabera bilatzeko askatasuna ere. Herri indigenen eskubideak babesteko gutxieneko ereduak ezarten ditu, eta bereizkeria eta bazterketa borrokatzeko, eskubide indibidual eta kolektiboez aritzen da. Gainera eskubide kulturalak, nortasuna, hezkuntza, osasuna, lana, hizkuntza eta beste asko lantzen ditu. Halaber, estatuekin harreman baketsu eta kooperaziozkoak edukitzea sustatzen du eta defendatu herri indigenen osoko partaidetza eurei dagozkien auzietan. Izan ere, autodeterminazio-eskubidea onartzen du dauden estatuen barruan «within existing Status», eta autogobernuarekin lotuta, barneko-arazoei mugaturik. Era berean gizon eta emakumeen arteko berdintasuna onartzen du. Ohiko lurren gaineko jabegoa eta bertan dauden baliabideen gaineko kontrola eta ingurumenaren kontserbazioa aintzat hartzen dituela. Orobat, euren lurraldeetan ekintza militarretik libre gelditzeko eskubidea onartzen dute, salbuespen bakarra eurek eskatuta edo egoera larrietan gertatzen denean. Azkenik, mugaz haratago dauden herri indigenekin harremanak izateko eskubidea aitortzen du.

Onarturiko testuak herri indigenen burujabetza onartzen du, barneko eta tokian tokiko auziei mugatuta bada ere. Osoko irakurketa batek erakutsiko digu autogobernurako tresna eta babesak daudela bertan, haientzat funtsezkoak diren gaiak haren eraginpean egon beharko lirateke: lurraldeen gaineko kontrola, eurengan ondorioak dituzten auzietan parte hartzea, kulturarekin loturiko auziak, hezkuntza edota ohiko jakinduriaren gaineko jabegoa, etab.

HIGEAren onarpena, Tauli-Corpuz-ek dioskun bezala (Indigenous Peoples Indigenous Voices, 2007), estatu eta Laugarren Munduaren artean, estreinakoz historian, lorturiko hizketaldi positiboaren ondorioa da. Laugarren Munduak suposatzen duen askotasunaren onarpenean eta nazioarteko zuzenbide justu eta iraunkorrago baten eraikuntzan aurrera emandako urrats bat.

4.1. Autodeterminazio-eskubideari buruz

Autodeterminazioa HIGEAren zein agenda eta ekimen paradiplomatiko indigenaren bihotz-bihotzean dago. Funtsezko auzi honen inguruan amaiera gabeko debateak eta ika-mikak gertatu dira. Zalantzarik ez, debate konplexu baten aurrean gaudela, nazioarteko zuzenbidearen izaera politikoa ageri-agerian uzten duen (McKay, 1999) horietakoa, hain zuzen.

Aurreko bi mendeetan autodeterminazio-eskubidea nazioen inspirazioa eta inperioen porrota izan dela ezin ukatu. XX. mendeko historia eta gaurko nazioarteko erkidegoa ezin da ulertu autodeterminazio-eskubideak izan duen garrantziari erreparatu gabe. Munduan dauden 194 estatuetatik ehunetik gora autodeterminazio-eskubideari sor diote existentzia (Ryser, 1992).

Castellino eta Gilbert (2003) autodeterminazioaren inguruko eztabaida arazoz beterikoa dela diote: batetik, arrakasta handia izan duen printzipio politikoa unibertsala delako, baina, bestetik, aldi berean haren aplikazioa, nazioarteko zuzenbidearen arabera, oso-oso konplikatua delako. Are gehiago, historikoki kontu handiz erregulatu izan dute estatuek (Sanders 1991), nori aplikatu zaion, noiz eta nola asko zaindu delarik (Clavero 2003). Orain gutxi arte autodeterminaziotik kanpo gelditu izan dira indigenak helburua izan delako haien estatuen lurralde-batasuna eta haiek osaturiko nazioarteko erkidegoaren baretasuna babestea (Del Arenal, 2002). Horretarako bi mekanismo nagusi erabili dira: 1) «herria» eta eskubide honen subjektu-kategoria nori aplikatzen zaion asko zaindu dute (McKay, 1999), eta indigenak «gutxiengo»en boltsa berean sartzen saiatu dira (Thornberry, 2002), eskubide kolektiboak daudenik ukatzen eta eskubide indibidualak bakarrik aplikatzen saiatu dira (Alvarez 2006; Oliva 2005); 2) eskubidearen erabilera nori onarten zaion ondo mugatzea «ur gazituaren printzipioa» aplikatuz. Clavero-k (1997) gogoratzen duen bezalaxe asko dira diotenak autodeterminazio-eskubidea kolonia diren herriei bakarrik aplikatzen zaiela, edota okupazio atzerritarra noziturik giza eskubideen bortxaketa izugarriak pairatu dituztenei (Daes, 2002). Horrela, herri indigenak dauden tokietan estatu independenteak sortzeko betarik ez zabaltzeko ahalegina (Clavero, 1994) burutzen da, autodeterminazio-eskubidearen ikuspegi mugatzailea nagusituz (Clavero, 1998).

Hari horri jarraituz, estatuek herri indigenen eta gutxiengo nazionalen autodeterminazioa gatazka eta estatu-apurketarekin lotzen saiatu egin dira (Brubaker,1998) euren jarrera ezkorra justifikatzeko. Horren arabera, herri indigenei autodeterminazioa onartuz gero, «domino-efektua» (Conversi, 1993) gertatu eta nazioarteko orekarentzat ondorio kaltegarriak izango lituzkeen «balkanizazioa» edota Moynihan-en «pandemonium» (1993) delakoaren atarian geundekeela iragarri dute. Errealitate hau kontuan harturik, argi dago autodeterminazio-eskubidearen aplikazioa oso zaila gertatzen dela, salbuespenak salbuespen, egun dugun nazioarteko erkidego honetan.

Indigenek ikuspegi hori azken bi hamarkadetan gertatutakoa ikusi ondoren bere horretan mantentzea zaila da, eta salatu egiten dute eskubidea ukatu egiten zaiela gertatu ez den balizko apurketa baten izenean. Praktika politikoak bere errealitateak sortzen ditu eta estatuaren parte izan zirenak gaur egun estatu berriak dira, hots, Mendebaldeko Timor, Kosovo. Horrexegatik indigenek burujabetasuna indarrean jartzeko eskubidea aldarrikatu dute, nahiz eta jakin aditu askoren ustetan burujabetasuna/subiranotasuna estatuek bakarrik dutela (Alvarez, 2008).

Estatuen ikuspegi mugatzailea eta katastrofista izateaz gain, gehiegikeria bat eta oinarri gabeko analisia dela uste du Conversi-k (1993), eta Laugarren Munduak beti kontsideratu dut traba egiteko ekimen baten aurrean gaudela, Laugarren Mundua, kreatibotasun handiarekin erantzunez, estatuak hezteko ahaleginean beldurrak uxatzen aritu da, eta benetan zer nahi duten erakutsi (Coulter, 2006).

Laugarren Munduak arrakasta izan du euren kasua deskolonizazioaren onuradunekin lotzen, hauek ere konkistatuak izan ondoren euren lurren kontrola galdu zutelako. Munduko beste edozein naziori aitortzen zaion bezalaxe, NBEren Kartan zein 1966ko Eskubide Politiko, Zibil, Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Itunean herri indigenei ere autodeterminazio-eskubidea dagokiela baietsi du Laugarren Munduak. Kontrakoa munduko herri edo nazioen arteko berdintasun-printzipioa haustea litzateke (Anaya, 1996) eta portaera horretan giza eskubideen aurkako jarrera eta historikoki pairatu duten arrazakeria indarrean dagoela erakutsiko luke (Daes, 2001). 1966ko Itunen 1. artikulua gogoratu eta herri guztiei dagokiena izanik, HIGEAren oinarria zelako printzipioari atxiki diote, bai 1 (a) erabakitze-eskubideari buruz bai 1 (b) baliabide naturalen kontrolari buruz.

Horrekin indigenek nazioartean nagusi den aurreiritzi estatuzalea eta eurozentrikoa salatu dute eta apustu globalista egin. Haien aburuz debatea ezin da estatuzale eta estatu-zatikatzaileen artean banatu.

Are gehiago, ikuspegi sezesionistaren sinplekeria eta faltsutasuna salatu dute indigenek. Hori horrela da herri indigenen oinarrizko gizarte-egiturak ez datozelako bat nazioarteko erkidegoan nagusi diren nazio eta estatuekin (Morris, 1992). Ikuspegi hori neurri handi batean arrotza egiten zaie euron oinarrizko giza taldeak eta gizarte-egiturak erabat ezberdinak direlako. Hala ere, euren talde-eskubideak defendatzeko nazioarteko erkidegoan aski ezaguna den herri/nazio deitura aukeratu egin dute (Buchanan, 1993) egokiena baina ez hoberena zelako.

Estatuek erabilitako argudio nagusiari buelta emanez, autodeterminazioa gatazka-sorrerarekin lotzea baino gatazka prebentzio eta konponketarekin lotu dute indigenek: hain zuzen, herri indigenak eta estatuak aurrez aurre jarri dituen hainbat gatazka konpontzeko eta prebenitzeko autodeterminazioa tresna eraginkorra dela diote indigenek (Tauli-Corpuz, 1999)). Indigenek euren estrategian burujabetasuna eta independentzia gauza ezberdinak direla erakutsi dute, eta euren kasuan, salbuespenak salbuespen, bilatzen ez dena. Jaso ditugun ebidendentzia guztiek argi uzten dute ez dela independentziari buruz. Bide beretik Clavero-k (2003: NET) HIGEAk ez duela independentzia bilatzen baieztatu du

Jarrera horren erakusle da 1994ko HIGEAren 45. artikuluan estatu-zatiketa sahiesteko den 1970 Nazioen Arteko Harreman Adiskidetsuen Hitzarmenari egindako erreferentzia. Gauzak horrela, ikuspegi indigena batetik, autodeterminazio-eskubidea duintasunezko (Anaya, 1991), benetako berdintasunezko eta diskriminazio ezari buruzko auzia da, iraupen kultural, etniko eta ekologikoarekin loturik dagoena (Tauli-Corpuz, 2001), estatu eta nazioarteko erkidegoaren zilegitasunaren oinarriak kuestionatu eta erabaki-eremu indigena baten sorrera proposatzen duena. Proposamenak estatua zentro duen mundu-sistema batetik nazioa zentro duen sistema batera pasatzeko iraganbideak eraikitzea du helburu. Hau *«consent of the colonized via nation-to-nation»* (Short, 2002) filosofian oinarrituz erdietsiko litzateke. Ideia hau HIGEAren bihotzean aurkitzen da (Clavero, 1994: 88).

Beraz, argi eta garbi, herri indigenen helburu protodiplomatikoa eta era berean barneko autodeterminazioaren aldeko estatu-jarrerak agertzen hasi ziren. Eiden-ek (2006: 52) zergatia esplikatzen digu: 1998-1999 tartean gobernu batzuek autodeterminazio hitza erabili zuten herri indigenekin zeuzkaten harremanak izendatzeko. Hori dela-eta, Batzordeak eskatu egin zien estatu horiei informazio gehiago barne-autodeterminazio politikei eta onuradunei buruz. Elkartruke horien bitartez, diosku aditu horrek, 1966ko konbentzioaren 1. eta 27. artikuluak lotzen zituen barne-autodeterminazioari buruzko kontzientzia zabaldu egin zen. Aurrerakuntza horretaz jabetzen ziren indigenak, baina ez zuten alboratu nahi estatu batek populazio indigena gizagabeki tratatzen duen kasuetan estatuarekin apurtzeko aukera. Gainera Daes-ek (2000: 67) beste arrazoi boteretsu bat mahai gainean jartzen du: autodeterminazioarekin negoziatzeko indartsua den posizio batetik heldu behar diotela estatuarekin duten harremanari uste dute indigenek. Posizio horretatik konfiantzazko harremana garatu dezaketela estatuekin pentsatuz. Baina ez dituzte ahazten estatuekin izandako harremanetan nagusi diren porrotak, eta ikasi egin dute estatuengan ezin dela konfiantza askorik izan. Gainera estatu batzuekin akordioetara heldu direnean, hurrengo gobernuak bertan behera utzi ditu. Ikasi egin dute gobernuak eta konstituzioak alda daitezkeela eta negoziaturikoak ezerezean gelditu. Horrexegatik nazioartean ospe eta oihartzuna duen autodeterminazioan bilatu dute euren interes eta posizioaren bermea. Funtsean estatuen blokeari aurre egiteko eta zinez eta borondate onez negoziatzera behartzeko tresna da autodeterminazioa. Horren bidez, nazioarteko bitartekaritza bilatzen da estatuaren hegemonia mugatzeko eta parekoen arteko paktua sustatzeko. Estatuak ez badu negoziaziorik nahi eta blokeatzen edota fede txarrez egiten badu negoziazioa, horrela ikusi eta horrela geldi dadila munduaren aurrean bilatzen dute indigenek.

Helburua, beraz, estatu naziobakarretik estatu nazioaniztunera pasatzea da. Hemen datza gakoa, Caucus indigenak argi erakutsi duen bezalaxe. Eztabaida osoa ezin da inolaz ere artikulu batean egin, HIGEAn agertzen diren artikulu guztiak bere osotasunean hartuta interpretatu behar dira. Are gehiago, autodeterminazio-eskubidea sailetan eta auzietan apurturik HIGEA osoan dago barreiaturik.

Honetaz jabetuta, herri indigenek proposamena egin diote nazioarteko erkidegoari aniztasun etnikoa kudeatzeko bide berriak proposatuz. Independentzia bilatzen dutela diotenei ko-dependentziaren debatea proposatu diete; hau da, estatuekin pareko gisa jokatuz, beraiekin batera munduak bizi dituen arazoei aurre egiteko eta elkarrekin bizitzeko marko berria eraikitzea. Proposamen horrekin indigenek besteekiko zer dependentzia-maila izango duten erabaki nahi dute, elkarren mendetasunaren ondorio ezkorrak kudeatu eta baikorrak sustatu (*mutual dependence*).

Estatuekin zein nazioarteko erkidegoarekin harreman berria hasteko eta azken 500 urteetako herentzia beltza atzean uzteko, ezinbestekoa zen autodeterminazio-eskubidea onartu eta sustatuko zuen marko berria zabaltzea (Franke, 2007). Harreman

berria adiskidetasuna berreraikitzeko eta geografikoki hurbil dauden herrien arteko adiskidetzera heltzeko bidea izanik.

Adiskidetzean aurrera egiteko ezinbestekoa da estatu barneko aldaketekin batera nazioen arteko itun berrira heltzea, herri hauen eskubide ekonomiko, politiko, sozial eta kulturalak onartu eta sustatzen dituen nazioarteko marko berria ezarriz (Menchu, 2000). Menchu-ren ustez, iraganeko gaitzak sendatuko dituen alternatiba nazioarteko legediari errespetua erakutsiz lortu behar da. Nazioarteko legediak adiskidetzerako markoa izateaz gain, lorturiko itunaren babes- eta zaintze-funtzioak beteko lituzke. Horrekin bat dator Morris (1980) eta autodeterminazioan oinarrituriko harreman berria lortzeko asmoa dagoela HIGEAn azpimarratu zuen Chavez-ek 2005ean bere testuaren defentsa egin zuenean (Regino eta Torres, 2006). Era horretan bakarrik amaituko delako estatuen baitan diren herri indigenek pairatzen duten barne-kolonialismoarekin eta nazioartean izan duten estalketarekin.

Harreman berria ezartzeko asmo honetan datza indigenek defendaturiko autodeterminazioaren benetako indarra. Beste eskubide asko garatzeko aurrebaldintza da eta haien oinarrian dago, eta horrela agertzen da Cobos Txostenean edo Sanders-ek 1981ean aurkezturiko proposamenean (Minde, 2008). Vatikanoak ere horren aldeko jarrera erakutsi zuen 1985ean (Barsh, 1986: 382) aurrekoekin bat eginez. Printzipio hau 1985ean hasi eta 1994an onartu zen HIGEAren zirriborroan dago.

Finean, autodeterminazioaren gibelean zera dago: tratatu zaharretan agertzen diren eskubideak berriz indartzea eta berauek ezartzen dituzten betebeharrak betetzea, batik bat, lurrari, ehizari edo arrantzari lotutakoak (Deloria, 1981). Eskubide hauekin batera herri indigenek euren kulturak iraunarazteko beharrezkoak diren bitartekoak maila ekonomiko, sozial, politiko eta kulturalean izatea eskatzen dute. Funtsean, autodeterminazio-eskubidea litzateke euren herriengan eta euren orainaldian zein geroan eragina izan dezakeen edozein prozesutan partaidetza izango dutela, berdinen arteko tratamendua jasoko dutela eta kaltegarri gertatzen den orori ezetz biribila emateko eskubidea dutela onartzea (Taylor, 1989).

Modu horretan, talde zein banakoen giza eskubideak hobeto babesteko, HIGEA onartzearekin batera, estatuaren eta berari loturiko egitura berriz aztertu beharko da (Stavenhaguen, 1998), indigenen partaidetzari tokia egiteko asmoz (Frank, 1998: 79).

Ildo posibilista hau gehiago jorratuz, eskubide honek bi alderdi nagusi dituela diosku Anayak (1996): (1) gobernua erabakitzeko ahalmena, eta (2) garapen ekonomiko, sozial eta kulturala gauzatzeko tresna izatea. Autodeterminazioa herri indigena bakoitzaren errealitate eta erabakitzeko gaitasunarekin lotuta dagoela onartuz, Laugarren Munduak azpimarratu du burujabetasuna erdiesteko modu asko daudela, eta bakoitzak errealitate zehatzari erantzuten dio: ezin baitira guztiak txapel beraren azpian sartu (Churchill, 1997).

Burujabetasuna gauzatuta herri indigena batek eskumen nahiko izango lituzke bere iraupena ziurtatzeko, bere premiei erantzuteko zein igurikimenak asetzeko beharrezko diren bitartekoak eskuratzeko.

Laburbilduz, urteetako lan latzari esker Laugarren Munduak erdietsi du estatuen beldurrak uxatzea eta heztea, informazio zuzena emanez (Coulter, 2006). Lortu egin dute autodeterminazio indigenaren inguruan iritzi-aldaketa sustatzea eta sostengu zabal bat lortzea nazioarteko erkidegoan. Autodeterminazioa «*within existing states*» formulak beharrezko atxikimendua lortu, blokeoarekin amaitu eta HIGEAri bidea libratu dio.

Laugarren Munduak bere malgutasuna erakutsi du, kontsentsu berria lortzeko asmoa izan eta estatuen beldurrak uxatzeko formulak onartzeko deliberoa hartzean (IWGIA, 2006). Onarturiko HIGEAk 1994koarekin konparatuta, 3. eta 4. artikuluek 1994ko 3. eta 31.a birformulatuz, autodeterminazioa autogobernuarekin lotzen du. Edonola ere, 46. artikuluan esandakoak ezin direla inolaz ere erabili herri indigenen eskubideak mugatzeko diosku Tauli-Corpuz-ek (2007b)

Autogobernua, beraz, ez da muga autoderminaziorako bera zehazteko modu bat baino. Hari horretatik tiraka, estatu afrikarrekin gertaturiko eztabaidak balio behar digu estatuen beldurrak behingoz uxatzeko. Era berean horrek zera erakusten digu, HIGEA onartu ondoren, Daes-ek (1993: 2) iragarri zuen bezala, autodeterminazio-subjektuen artean kategoria berri baten aurrean gaudela, eta, ondorioz, horrek dakartzan aukera berriez jabetu behar garela. Gainera, herri indigenen eskubideen aldeko aro berri baten eta adostasun oinarrizko baten atarian gaudela esan genezake (Anaya 1996). Adostasun berri honen erakusleen artean aipagarria da 2007ko azaroaren 8an Evo Morales-ek bultzaturiko erabakia, zeinaren arabera Herri Indigenei buruzko Legea izenarekin HIGEA Boliviako barne-legea bihurtu baitzen. Tauli-Corpuz, (2008) Foro Iraunkorraren presidentearen arabera, honelako kasuek, argi erakusten dute HIGEA nazioarteko «customary law» bihurtzeko bidean dagoela.

Herri indigenen ekarpenak garapen iraunkorraren erronkan

1. GARAPEN IRAUNKORRA ETA HERRI INDIGENEN NAZIOARTEKO AITORPENA

HIKEk azken hamarkadan serioski jorraturiko beste eremu nagusia ekologiarekin eta lurralde tradizionalen gaineko eskubidearekin lotuta dago. Lurraldea, kultura, jakinduria, gizartea, politika eta erlijioa estuki loturik daude herri indigenen munduikuskeran. Herri indigenen ustez, ez-indigenen definizioak eta kategoriak ez dute euren kulturek ekosistemari eskainitako garrantzia eta konplexutasuna islatzen. Indigenentzat biodibertsitatea bizidunen aniztasuna baino askoz gehiago da. Beren ustez dagoena zera da: gizakien, beste bizidunen eta ez-bizidunen arteko «bizitzaren sarea» (Rovillos, 1999). Kontzeptu honen arabera, guztien arteko elkarreragin estua dago eta partaide bakoitzak besteekiko betebeharrak ditu. Betebeharrek jatorri erlijiosoa dute. Beraz, naturarekiko harremana kulturala izateaz gain erlijiosoa ere bada.

Indigena ez direnek inoiz gutxi hartuko dituzte kontuan dimentsio hauek, gehienetan erabilera ekonomikoetan edo ekologikoetan gelditzen direlako. Aldiz, indigenen ikuspegian ez da horrela gertatzen eta gizakiaren eta lurraldearen arteko banaketa arlo askotan antzeman daiteke. Indigenen ikuspegian bat eta bera dena, ez-indigenen kategorietan banatzeko joera nabari-nabaria da giza eskubideen kasuan, horren isla HIGEA bera delarik. Eskubide politiko, kulturari loturiko ohiko jakinduria eta lurraldearen gaineko jabetza eta erabilera-eskubideak «native title» atal ezberdinetan zatikatuta agertzen dira (Corntassel, 2008). Denbora asko eta lan eskerga behar izan dute indigenek egin, gauzak euren aldera alda daitezen. Euren irudiaren aldaketa eta kontribuzioaren onespena posiblea egin duen kontzientzia-aldaketaren hasiera 1972an Estokolmoko Mundu Konferentzian proposaturiko eko-garapenean dago. Aurki proposamen berri horren mamiari heldu zioten indigenek. Ekintza-eremu indigena berri horren sorkuntzan eta garapenean funtsezkoa izan zen George Manuel. Manuelek konferentzia horretan parte hartu zuen Kanadako gobernuak bidalitako ordezkaritzan (Sanders, 1987). Esperientzi horrek biziki kolpatu zuen eta 1974an «Laugarren Mundua»ren ideia bota zuenean, naturarekin indigenek duten harreman bereziaren garrantziaz jabe zen. Bai bere proposamenean bai geroxeago egindako aldarrikapenetan ere, izadiarekiko harremana indigenen

benetako markatzaile etnikoa bihurtu da (Arregi, 1993), honetan aurkitzen dugularik Laugarren eta beste Hiru Munduen arteko ezberdintasun (Manuel, 1974) nagusia. Manuelen proposamenean herri indigenen nortasuna, iraupena zein autodeterminazioa euren lurrarekin eta lurraldeekin era estu-estuan loturik agertzen da. Auzien arteko harreman trinko hori Laugarren Munduaren agenda eta praktikan agertzen delarik.

Bosgarren kapituluan ikusi dugun bezala, 80ko hamarkadan indigenek protagonismo handia izan zuten politika ekologikoan. Ez dago ukatzerik ekologistekin egindako aliantzak ezinbestekoak izan direla HIKEren presentzia eta indarra esplikatzeko. Elkarlan hori 1970ean hasi eta hurrengo hamarkadetan sendotu egin zen. Indigenak «*environmental justice*» izeneko AEBko mugimenduaren sorreran aurkitu ditzakegu (Minde 1995) eta 1970eko hamarkadan hasita talde ekologistekin kontaktuak areagotu egin ziren. Hori dela-eta, gizon gorriaren ideologian funtsezkoa den izadiarekiko harremanak ekologisten interesa erakarri zuen. Adibidez, Laugarren Munduaren diskurtsoan, ingurumen-arrazismoak «*environmental racism*» eta ekozidioaren salaketak protagonismo berezia izan dute aspaldidanik eta horrela dirau gaur egun. Laugarren Munduak estatuaren ahalegin desarrollistarekin loturiko paradigma zibilizatzailearen okerrak eta mugak azpimarratu ondoren, honek eragindako miseria eta triskantza ekologikoa ekiditeko orduan zeukan ahulezia erakutsi zuen (Vickers, 1983).

GIren inguruan herri indigenak, ekologistak, giza eskubideen defendatzaileak eta garapen alternatibo baten aldekoak bateratu egin ziren. Gauzak horrela, Laugarren Munduko agenda ikertzaile, politiko, diplomatiko, aditu eta GKE-en (komunitate epistemologikoak eta *transnational advocacy networks*) mahaietara heldu da. Are gehiago, asko dira hasi direnak indigenekin batera GI gauzatzeko bidea jorratzen. Gizarte zibileko ordezkari hauek aldaketa defendatzen zuten gobernu eta nazioarteko erakundeekin bat egin zuten, honela GIren sustapenerako mundu mailako koalizio zabala sortuz. Indigenek garapen-prozesua, balioak, estrategiak, politikak eta praktikak birdefinitzeko deia zabaldu zuten, eta, zalantzarik ez, GIren agerpenerako bidea prestatu zuten. Ahalegin horren isla nazioarteko erakundean egindako diskurtso, estrategia, programa eta praktika politikoen aldaketan aurki dezakegu. Maila horretan paradigma-aldaketa batez hitz egin daiteke. Laugarren Munduaren partaidetza eta eragina handia izan da.

Giza eskubideen eremuan ez bezala, GIri esker posible izan da mendeetan baztertuta egon den herri indigenen ahotsa ozenki entzutea, euren presentzia antzematea, euren kulturaren balioa preziatzea eta gizateriari egindako kontribuzioa baloratzea. GIk herri indigenei eta euren kulturei garapenari buruzko nazioarteko diskurtsoan agertzeko aukera eman die, eta bidea eskaini die ere agenda globalean herri indigenek aspaldi defendaturiko ikuspegiak integratzeko (Arregi, 1993).

Halaber, nazioarteko zuzenbidean hainbeste iskanbila eta egonezin sortu duten gaien goritasuna epeldu egiten da GIren markoan, tokian tokiko autogobernuaz

eta natur baliabideen gestioaz ari garenean. Esparru horretan deszentralizazioa, partaidetza eta alderdi bakoitzak emandako onespenaren aldeko diskurtsoek bide errazagoa dute estatuentzat onargarriagoa den «tokian tokiko autogobernua»rekin lotzen direlako.

Beraz, GI izeneko paradigma alternatiboa, giza eskubideen eremuan gertatu den bezala, aldi berean, herri indigenen mobilizaziorako tresna, eta euren mobilizazioaren ondorioz eraikitako markotzat jo behar dugu.

Kapitulu honetan garapena eta ekologia lotzen dituen ikuspegi alternatibo honetan indigenek izandako partaidetza aztertu nahi dugu, baita eurek egindako kontribuzioak eta aurkituriko oztopoak eta lorturiko aurrerapenak ere.

1.1. Indigenen aldeko markoaren sorrera

Blokeen arteko gatazka desagertu ondoren, eta hari loturiko paradigma errealistak garai bateko toki hegemonikoa galdu ondoren, ekologiarekin loturiko gaiek aurrera egin dute nazioarteko agendan. Testuinguru horretan GI garatu eta iritsi zen nazioarteko paradigma alternatiboa izatera. GI izena estreinakoz 1980an erabili zen *The World Conservation Strategy: Living Resource Conservation for Sustainable Development* (IUCN, 1980) izeneko dokumentuan. Ordutik hona, anitz izan dira kontzeptu honi heldu dioten erakunde, talde eta ikertzaileak. Gaur egun 200 definizio omen daude (Bermejo, 2000), kezka, diziplina eta ikuspegi politiko anitzen pilaketa islatzen duelako, eta etengabeko eztabaidan dagoen kontzeptua dugu. Mundu mailan onarpen eta arrakasta gehien lortu duen definizioa WCEDek Brundtland txostenean emandakoa da.

Askoren ustez zehaztasun gutxikoa dugu definizioa; aldiz, beste batzuen ustez, horretan datza bere abantaila. Zehaztasun falta horrek joko politikorako aukera handiak eskaintzen ditu: gehienbat beharrak zein diren eta nola beteko diren ez delako esaten (Vivian, 1992).

Gainera Estokolmoko Biltzarrean nagusi izan zen ekonomia vs ekologia eztabaidari buelta emanez, ekonomisten eta ekologisten arteko akordioa posible egin duelako irabazi du horrenbesteko arrakasta. Kontzeptuak garapenaren muga ekologikoa onartu eta belaunaldien arteko berdintasunari erreparatuz garapen-prozesuaren berrantolaketa burutzeko beharra ezarri du.

GIren iturria den Brundtland txostena kontraesanez beteta agertzen bada ere, eta betiko negozioa itxura berde batekin askotan egiten dela onartuz, aitortu egin behar diogu lortu egin zuela GIren ideia nazioarteko erkidegoan zabaltzea, eta nazioarteko erakundeen nahiz banku multilateralen agendan egotea. GI definitzeko, ulertzeko eta lantzeko hamaika modu daude baina prozesua findu dutenen artean aipagarriak dira guretzat tokian tokiko kulturaren balioei erreparatu dietenak. Era horretan ingurumena zaindu duten kulturak daudela erakutsi da eta kultura horien

iraupena guztion mesederako izan daitekeela onartu ere. Horrela herri indigenentzat ezinbestekoa den kulturari leihoa zabaltzen zaio.

Kontzientzia berri honek asimilazioa eta kultura primitiboen desagerpena defendatu duen ikuspegi nagusiarekin haustura erradikala ekarri du. Horrela estatu etnokratikoaren izaera eta joera homogeneizatzailea errefusatu egiten da, herri indigenen balioa baietsi eta mundu estatuzentriko batetik naziozentrikoa den mundu batera pasatzeko atea irekitzen da.

Aniztasun biologikoa sostengatzen duten kultura propioak mantentzeko gonbitea Brundtland txostenean dugu, eta, gainera, ondoko hainbat testutan naturaren jagoleak, abisu-emaile *«gate keepers»* eta GIren aldeko lehen interbentzio-lerro gisa deskribatzen dira (WCED, 1987: 61).

1.2. Aitorpen instrumentalistaren argi-ilunak

Kultura indigenen eta euren kontribuzioaren aitorpena positiboa izan bada ere, kontuan hartu behar dugu GIren diskurtsoan eta praktikan nagusitu den ikuspegi instrumentalistak moldatu egiten duela nazioarteko erakundeek herri indigenekiko duten ikuspegia. Hau da indigenak garapen-prozesuan aldeko bitarteko edo kontrako oztopo gisa ikusiko dira.

Aipaturiko bitarteko-izaera are nabariagoa da, ohiko jakinduria ukitzen denean, sentikortasun handiko ingurumen-kudeaketarako, baso tropikalak batik bat, jakintza aproposa aitortzen zaielako indigenei (Holtdoil, 2005). Halaber, etika berria sortzeko orduan euren kulturetan inspirazioa bilatu delako hainbat kasutan (Deloria, 1999), indigena ekologikoaren irudia zabalduz. Oso hedatuta dagoen irudi horren eraikuntzan indigenek (Shepard, 1999) nahiz indigena ez direnek hartu dute parte, eta askotan herri indigenen irudi idealizatu eta esentzialistak zabaldu dituzte. Kultura indigenak berez kontserbazionistak direla dioen korronte esentzialistaren aurrean eszeptikoa agertzen da Smith (1999). Egile horrek gogoratu egiten du elkarreraginean bilatu behar dela herri indigenek garatu duten harremanaren benetako abantaila.

Mendeetan zehar ingurumenarekin elkarreraginean garaturiko harreman hau dela-eta, indigenen jakinduria ezinbestekoa gertatzen da produktu berri eta egokiak sortzeko balio digulako. Ohiko jakinduriak oso konplexuak eta hauskorrak diren ekosistemak kudeatzeko balio handia du, eta bereziki ingurumen-gestiorako duen balioagatik balioztatuko da (Lidgard, 2004), zer esanik ez bioteknologiaren garapenerako dagoen potentzialean, laugarren kapituluan deskribatu dugun bezala.

Indigenek GIrako daukaten garrantzia ia azken konbentzio eta aldarrikapen inportante guztietan aurkituko dugu. Horrela gertatu zen, estreinakoz, 1992an Nazio Batuetako Garapen eta Ingurumenaren Erakundeak antolatutariko Rioko Gailurra, non GI mundu mailan ezagutzera eman zen. Gailur horretan 176 estatuk parte hartu zuten eta gai ekologikoa indartsu sartu zuten nazioarteko gai-zerrendan. Gailur horren

ondorioz «Rioko Aldarrikapena», «Agenda 21», «Aldaketa Klimatikoari buruzko Konbentzioa, «Biodibertsitateari Buruzko Konbentzioa» (BBK), eta «Basoei buruzko Hastapenak» adostu ziren. Horiek indigenek duten izaera estrategikoa «major group» aipatzen dute eta haien partaidetza defendatu GI estrategiak egiterakoan. Ildo horretatik abiatuz, 2002an, Johannesburgon egindako Rio de Janeirokoaren osteko mundu-gailurrean *Johannesburg Declaration on Sustainable Development* delakoan agenda 21ekiko atxikimendua berretsi egin zen eta herri indigenen alde egindako aitorpen erradikalena egin. Bertan garapen iraunkorrerako herri indigenek duten erabateko garrantzia defendatu zen.

Aitorpen horretan gizateriaren ongizaterako beharrezkoak diren GI, herri indigenak eta haien ingurumenak, estu lotzen dira. Giza eskubideekin gertatu den antzera, indigenen ongizatea demokrazia-mailaren erakuslea den legez, indigenen partaidetza GIren erakusle bihurtu da ere. Harreman horren aztarna *World Summit on Sustainable Development. Plan of Implementation* delakoan dago: pobreziaren aurkako atalean indigenentzat euren ekosistemetan sarrera izatea zein garrantzitsua den aipatzen da (6.e eta 6.h); ekoturismoaren garapenean formazio eta partaidetza sustatzea beharrezko ikusten da; (41) BBKrekin loturiko partaidetza eta laguntza tekniko-ekonomikoa aipatzen dira, baita etekinetan indigenak partaide egiteko beharra ere; baso (43) eta meatzeei (44) buruzkoetan indigenen partaidetzaren beharra azpimarratzen da ere; indigenen osasun-sistema eta jakinduria (58) sustatzeko konpromisoa eta OJ errespetatzen duen ikerketa egiteko deialdia egiten da (103). Horrelako hurbilketa teorikoak praktikara eraman direla ikus dezakegu Mundu Gizarte Foroaren 2009ko Brasilgo Amazonian egindako biltzarrean, non herri indigenak, biodibertsitatea eta aldaketa klimatikoak lotu egin diren. Biltzarrean herri indigenak eta euren partaidetza gai nagusietariko bat izanik (Oxfam, 2009). Indigenei egindako berezko erreferentzien beste adibide interesgarri bat.

Zalantzarik gabe onarpen hauek indigenen agenda garatzeko aukerak indartu egin dituzte, baina ezin dugu ahaztu aitorpen instrumentalak bere alde iluna duela, eta mehatxu serioak ere planteatzen dizkiola Laugarren Munduari. Aitorpen instrumentala garrantzitsua izanik ere, bere arriskuak ditu: (i) errealitate indigenaren aitorpen mugatua eta zatikatua da, zientziak baiezta dezakeena eta praktikara eraman daitekeenari soilik ematen dio garrantzia (Chambers, 1983); (ii) aitorpena, gainera, gizarte modernoak aurredefinituriko alorretan gertatzen da, ezer gutxi aipatzen delarik indigenek jasandako errealitate historikoaz edo egungo egoeraz (Arregi, 2006), (iii) irudi ekologistak, Basati Onaren idealizazioa den neurrian (Dumoulin, 2005) gehiegizko igurikimenak sor ditzake (Hames, 2007); (iv) azkenik, herri indigenen ikuspegi esentzialista eta estatikoa zabaltzen du (Smith, 1999), zeinak goratzen dituen modernotasunarekin kontaktu gutxi duten kultura tradizional-primitiboak (Arregi, 2006). Izan ere, azken bi horiek bereziki arriskutsuak gerta daitezke. Herri indigenen aldeko laguntza ezerezean gelditu daitekeelako igurikimenak ez badira betetzen, edo herri indigenen errealitatea bestelakoa bada; hau da, zer gertatuko da herri indigenak ez direnean hain efizienteak, ez dutenean eskaintzeko ezagupenik

edo ekologikoa ez den herria agertzen denean? Kasu horietan lurralde zein kultura indigenen besterenganatzea gerta daiteke kontserbazioaren izenean, benetako indigena ekologikorik ez dagoela esaten delarik.

Garrantzitsua da gogoratzea, hein handi batean hemen egindako aitorpen instrumentala Lehen Munduan egindako agenda bati ondo datorkiolako egiten dela. Ezin ahaztu ikuspegi honetan arrotzen jomugak eta interesak direla nagusi eta indigenen kontribuzioa haien arabera egingo dela. Horrelako salaketa hainbat aitzindari indigenaren ahotan dago. Euren irudia, jakinduria, kultura eta erlijioa zuriek definituriko agenda bat bultzatzeko erabiltzen dira. Zuriek kultura indigenaren zer ezaugarri, usadio edo erakunde baliozkoak diren erabakitzen dute. Diskurtsoaren lapurreta ere burutzen dute herri indigenen ikuspegia eta ideiak bereganatzen dituztenean. Leonor Zalabata ordezkari indigenak salatu du oraindik ere zurien arazo, balio, behar eta mundu-ikuskerari lehentasuna ematen zaiela. Haren aburuz, indigenei ez zaie aukerarik eman eurena esplikatzeko, munduari zer-nolako kontribuzioa egin diezaioketen erabakitzeko edota zer eskatzen duten horren truke plazaratzeko.

2. BASOAREN PATUA, HIL EDO BIZIKO BORROKA

Herri indigenek modernotasuna eta industrializazioa helburu dituen garapenari egindako kritika aspaldikoa dela erakutsi dugu. Herri indigenek aspalditik mantendu izan dute (Cronon, 1983) euroamerikarrek basoa baloratzeko ikuspegi ekonomiko murritza erabili dutela eta ez dutela inoiz ulertu indigenek naturarekin duten harremana aberats eta askotarikoa, ez ulertu ezta onartu ere.

Herri indigenen ikuspegian ingurumena eta gizakia biziaren sarearen zati bat dira. Ikuspegi horiek alternatiba egiten die antropozentrismoari zein ekozentrismoari. Indigenek ingurumenaren ezagutza sakonean eta haren osagaien elkarreraginean oinarrituriko natur gestiorako sistema konplexuak sortu dituzte (Ramachandra, 1997). Konplexutasun horren aitorpena, berandu bada ere, heldu da eta ontzat ematen da herri indigenak dauden tokietan biodibertsitatea mantendu egin dela, baita ere, estatu-geografiarekin batera herri indigenek gorpuzten duten eta aniztasun biologikoa sustatzen duen nazio-geografia dagoela (Nietchsmann, 1994: 239).

Basoa dugu Laugarren Munduaren interesak GIren aldekoekin bat egiten duen eremua. Brundtland txostenean herri indigena eta baso tropikalen kasua erabili da harreman sakon honetan oinarrituriko ikuspegia eta haren antonimoa den desarrollismoak egindakoa erakusteko. Historikoki, basoek kolonialismo-uhin ezberdinen atzaparkada pairatu dute mundu mailan (Tucker, 1983) eta herri-autonomiatik herri-dependentziara pasatzeko prozesuan funtsezko ekintza-eremua izan dira (Manuel, 1974).

1990etik aurrera basoak, baina bereziki oihan tropikalak, munduko bizitza eta aniztasuna mantentzeko ahaleginean esparru estrategikoak dira, are gehiago XXI. mendean aldaketa klimatikoari aurre egiteko ahaleginetan. Garrantzi ekologikoaz gain, onartu egiten da basoak, herri indigenen iraupena bermatzeko (Burger, 1992) zein euren ongizatea edota etorkizuneko hazkuntza ekonomikoa mantentzeko orduan funtsezkoak direla. Gainera, baso tropikalen kasuak aukera ezin hobea eskaintzen digu indigenek desarrollismoari, estatozentrismoari eta zientifikokeriari (Ekins, 1992) egindako kritika erakusteko. Kritika horretan estatuak buruturiko konkistak, etnozidioa eta ekozidioa salatzen dira. Baita beste geografia batzuk daudela gogoratu ere, nazio-ingurumenak alegia, estatuak eraikitako horietatik ezberdintzen direnak (Nietchsmann,1994: 240).

Kinka larri honetan GIk herri indigenei egindako ekarpen eta baieztapen inportanteena, gure aburuz, euren kulturen balioari egindako aitorpenean datza. Indigenek irakatsi dute aniztasun kulturalik gabe ez dagoela aniztasun biologikoa mantentzerik. Halaber, ez dago bi horiek mantentzerik herri indigenen ohiko lurren gaineko gobernurik ez bada. Beraz, biodibertsitatea eta kultura-aniztasuna estatu gabeko nazioen iraupenari estuki lotuta agertzen da.

> … Biodiversity occurs in the nations claimed by the states not in the states; if biodiversity were under the control of the state if would be gone (Nietchsmann, 1994: 240).

2.1. Herri indigenak, nazio-iraupena eta ingurumen-segurtasuna

Indigenen historian zehar, kolonialismo mota ezberdinek, euren ekosistemak eta lurraldeak esplotatu eta larriki kutsatu dituzte. Horrek egoera larrian jarri ditu bertan bizi ziren herriak (McCuen, 1996). Indigenen esperientzia luzea da honetan eta euren kasuan besteetan ez bezala, lurrak, lurraldeak eta herriaren biziraupena loturik agertzen dira estu-estuki; horretan datza euren benetako nazio-segurtasunaren funtsa eta mamia.

> Indigenous peoples, however, consider themselves to be nations, and their conception of national security is intimately connected to their survival as nations. Thus, in addition to physical security-protection from violence and coercion, indigenous peoples struggle to protect their cultural security, their medium for preserving the Indian nation as a political, territorial, and societal entity. The most important security issue is not only retaining lands they have controlled for generations, but also the right to control that land communally. Land is not merely an economic resource to indigenous peoples (although for the majority of Indians who eke out a living through subsistence farming, it is vital to survival), land is also the material guarantee of indigenous self-government and autonomy. It provides the basis for the re-creation of the indigenous community as a social organization -the medium through which native peoples pass their culture and their identity to their descendants (Van Cott, 1996: 2).

Gauzak horrela, herri indigenenek segurtasun-teoria berriak aprobetxatu dituzte eta euren mesederako erabili. Mehatxu globala aipatzen badute ere, indigenek gehiago heltzen diete udal, bailara edo erregio mailako kasuei, eta prozesu globalek horietan dituzten ondorioei. Prozesuok saihesteko estrategia egokiak bultzatzeko estatuen papera funtsezkoa da. Estatuek kolonizazioari eta ondorengo kutsadurari muga jartzea zein herri indigenen lurraldeak eta ekosistemak errespetatzeko neurri positiboak hartzea, gatazka prebenitzeko bide egokia izan daiteke.

2.1.1. Segurtasuna, ekologia eta herri-iraupena uztartzen

Indigenek sustaturiko ikuspuntu honek bat egiten du giza segurtasunaren «human security» jarraitzaileekin. Idazle globalista batzuek arrisku ekologikoaren eta garapenaren arteko harremana aurreratu (Pirages, 1983) zuten 1980ko hamarkadan. Egun argi dago ingurumen-narriadurak eta hari loturiko krisialdi ekologikoak gizakiaren jardueran aurkitzen dutela zio nagusia. Gizarte-tentsioak areagotu eta gatazka nazioartekoa nahiz nazio barnekoa sortzeko gaitasuna duela mehatxu ekologikoak aurreratu zuten adituek. Are gehiago, Brundtland txostenak esan zuen aurrean dugun mehatxu ekologikoa behialako mehatxu nuklearraren parekoa dela.

Egun, lehen ez genuen informazio pila ikaragarria dugu eta egon badago zientifikoen artean masa kritiko nahikoa mehatxuaren existentziaz hitz egiteko (Gallart, 1998, Grassa, 1998). Jabetze horretan berebiziko garrantzia izan du aurrerakuntza teknologikoek, superkonputadoreen existentzia batik bat, ahalbidetu duten informazio-pilaketak (Cleveland, 1993). Modu horretan banakoen nahiz gizartearen arreta erakartzea eta mehatxua errealagoa, nabariagoa eta hurbilagoa egitea lortu da (Man, 1991).

GIk iragarritako katastrofeen artean bereziki aipagarriak dira klima-aldaketarekin eta urarekin loturikoak. Batetik, itsasoko urak igo egingo direlako eta kostaldeko lurrak nahiz Kirabati antzeko uharte-estatuak desagertu egingo liratekeelako; bestetik Artikoan bizi diren herriak gogor kolpatzen dituelako ingurumen-aldaketak. Arrisku hau salatzen dute *The Bonn Declaration. Third International Forum of Indigenous Peoples and Local Communities on Climate Change* aldarrikapenean.

Era berean, nekazaritzarako eta edateko ura agortu egingo litzatekeelako hainbat tokitan, gaixotasunak areagotu eta asko emigraziora bultzatu egingo lituzke klima-aldaketak. Agertoki honetan gatazka pizteko posibilitateak handiagoak dira Hirugarren Munduan, baina ondorioak Iparraldean ere sentituko direla iragartzen da.

Hirugarren Munduko estatu askok euren baliabide eta azpiegituren gaineko presioa nola handitzen ari den eta talde ezberdinen arteko tirabirak nola biderkatzen diren dakusate. Adituen ustez, emigrazioak ingurumenaren gaineko presioa areagotu egiten du (Hughes,1991), baita azpiegituren gainekoa ere. Zailagoa bihurtzen dute etengabeko hazkuntzan ari diren beharrak asetzea, etorkin eta bertakoen baliabide zein zerbitzu urrien gaineko gatazka areagotzen eta gaiztotzen delarik.

Ondorioz, garapenaren eta ekologiaren seguritizazioa gertatu da ingurumen-segurtasunari buruzko eztabaida segurtasunari buruzko debatean sartu denean. Hala ere, segurtasuna, teorian eta praktikan ulertzeko modu alternatiboak landu dira Giza Segurtasuna izenpean. Hurbilketa berriak leiho bat eskaini dio indigenei euren herri-segurtasuna besarkatzeko. Hurbilketa horrek segurtasun-mehatxuen biktimetan jartzen duelako lehentasuna eta euren partaidetza bilatu segurtasun-sistema alternatibo edota osagarriak tokian jartzeko (Ogata, 2001).

Beraz XXI. mendeko segurtasunak, segurtasun militarraz gain, arazo berriak aurreikusi behar ditu eta, hots, pobrezia, ingurumen-narriadura, giza eskubideen bortxaketa, demokraziaren osasunari zein zapalkuntza politiko nahiz tentsio erlijiosoei erreparatu.

Esandakoari jarraituz, indigenek euren ekosistemak mantentzeko ahaleginak munduko segurtasuna eta egonkortasun ekologikoa mantentzeko kontribuzio gisa aurkeztu dituzte. Ingurumen-segurtasuna nazioarteko segurtasun-agendan integratzeko ahalegin indigenaren testigantza eskaintzen du Langlais-ek (1996) Ipar Poloan gertaturikoa aipatzen duenean.

GIren barnean, ingurumenaren defentsa eta segurtasunari buruzko hurbilketa berriak uztartzen dituen diskurtso globalista honen garapenak leihoa zabaldu dio indigenen herri-segurtasunarentzat funtsezkoa den ingurumen-osasunaren eta lurraldeen gaineko eskubideen defentsari. Gatazka-giro honetatik urrunduz, GIk aitortu egiten du interes global bat dagoela, munduko gizaki eta nazio zein estatu guziak lotzen dituena. Interes global hori bat dator estatu gabeko herriek duten segurtasunari buruzko kezkarekin. Modu horretan, mundu mailako ingurumen-segurtasuna helburu glokala bihurtuko da interes globalak indigenen helburu lokalekin bat egiten duenean (Arregi, 1993).

Arrazoi hauek guztiak direla medio, herri indigenen eskubideei emandako tratamendua demokraziaren zabalkundearen zein GI egokiaren erakuslea izango da (Van Dyke, 1985; Urban eta Sherzer; Stavenhaguen, 1999; Tauli-Corpuz, 2000; Opllock, 1995; Varese, 1996). Horretaz jabetuta, 2002ko Johannesburgoko Ekintza Planak GIrentzat segurtasuna, bakea, giza eskubideen errespetua, aniztasun kulturala eta garapena gauzatzeko eskubidea funtsezkoak direla onartu du (WSSD, 2002: 5).

2.1.2. Bizitzeko basoa versus produzitzeko basoa

Indigenen kasuan, Laugarren Munduaren geografian eta estatu barnekoak dira protagonista (Morris1992, Ryser 1993, Bowen, Tauli-Corpuz 2000). Sills-ek (1993) dioenez, Laugarren Munduko geografian aurkitzen ditugun gatazka gehienetan estatuari oposizio egiten diotenak agertoki diren lurraldeetako indigenak dira, eta askotan natur baliabideez eta basoz osaturiko lurraldearen kontrola da auzian aurkitzen duguna. Bizirauteko indigenek behar-beharrezkoak dituzten baliabideen kontrola dugu auzian, hain zuzen.

Hori horrela da mendeetan zehar basoan aurkituriko eta berak emandako fruituak balio handikoak izan baitira munduko gizon aberats zein txiroentzat. Hazkuntza ekonomikoak eta biziraupeneko ekonomiak baliabide berdinen gainean burutzen dute euren lehiaketa (Tauli-Corpuz, 1999), eta aberatsek behar dituztenak txiroek behar dituztenen lepotik lortzen dira. Borroka, beraz, hazkuntza-eskakizunen eta bizirauteko eskakizunen artean; baliabideak erabiltzeko modu iraunkor eta ez-iraunkorraren artean eta zilegiak edo makurrak diren moduen artean (Shiva, 1989: 1.225) gertatzen ari da.

Hazkuntzaren garapen-modeloak aberastasuna gutxirentzat eta gehiengoarentzat bizirauteko ezinbestekoa duten ekosistemaren larrialdia ekarriko du (Parajuli, 1990). Talde ezberdinek eurentzat beharrezkotzat diren baliabideen gainean kontrola ezartzeko borrokak piztu du maila lokalean, erregionalean, nazionalean zein nazioartean gatazka. Gatazkaren muinean baliabideekiko harremana ulertzeko, beraiek ustiatzeko modu kontrajarriak egongo dira (Rodriguez, 2000): eskuratzeko eskubidea nork duen, zer baldintzatan, nola eta nor profitatuko den erabakitzeko orduan, gehienbat (Simpson, 1997). Weiskel-ek (1989) dioen bezalaxe, ez dago nekazaritza osteko mundu mailako gizartea egiterik, eta nekazari-herrien aurkako mundu mailako erasoa izan da hazkuntza-politikak egin duen akats handienetariko bat.

Desarrollismoaren predikamenduei jarraituz, garapen-bidean dauden estatuek muga barneko ekosistemen ustiaketa intentsiboa bultzatzean triskantza erraldoia eragin dute ingurumenean. Naturaren ustiaketa intentsiboa gauzatzeko eraikitako urtegi, arrantxo, meatze eta nekazaritza-enpresek ezer gutxi hobetu dute pobreen egoera, bai aldiz, lortu dutela eragindako triskantza ekologikoaren kaltetuenak izatea. Indigenen egoera hobetu beharrean, basoaren ustiaketa desarrollistak desjabetze eta pobreziazko zurrunbilo zoro baten gatibu bihurtu ditu. Brundtland txostenak, modernizazio, desjabetze, pobrezia eta ingurumen-narriaduraren arteko harreman argia dagoela erakutsi dute.

Ingurumenarekin izandako ohiko harremana mantendu ezinak gauzak larriagotu egin ditu krisialdi kultural eta soziologikoa piztuz (Parajuli, 1990). Gogoratu egin behar dugu munduko herri indigena eta nekazari askok inguruko natura eta basoetan aurkitzen dituztela bizirauteko behar dituzten hainbat jaki eta lehengai (Shiva, 1997b). Horretaz gain euren nortasuna, kultura eta erlijioa basoari lotuta egoten dira (Colchester, 1999).

Desarrollismoaren estrategiek sorturiko desjabetzeak eta ohiko ekosistemak gobernatzeko gaitasunaren galerak pobreek eragindako gainesplotazioa esplikatzen dute (Vivian, 1992). Are gehiago, krisialdia sortzen da desjabetzea eta herri-lurrak gobernatzeko eta kudeatzeko ohiko sistema aplikatzeko ezintasuna gertatzen direnean. Ohiko lurrekiko eta bertan dauden baliabideekiko sarrera debekatzen denean, ez dago lurrak eta ekosistema bere horretan mantentzeko pizgarririk, haien

jabetza eta etekina estatuari, industria pribatuari zein edozein aktore arrotzi eman zaiolako (Esteva, 1987 eta 1992). Hau da benetako zilegi lurren tragedia (*tragedy of the commons*). Beraz, bizi-kalitatearen txartzea eta jaistea gertatzekotan ingurumenak nozitu egingo luke jendeak bizirauteko ahaleginean egindako triskantzaren ondorioz. Era berean, ingurumen garbi eta sendo batek bere inguruan dituen populazioen bizi-maila bermatu eta hobetu egingo luke.

2.1.3. Herri-lurrak eta gobernu indigenaren garrantzia

Zilegi lurren sistemak mundu mailan duen garrantziari erreparatu dio GIk. Hirugarren Munduan egindako ikerketa askok baieztatu egin dute munduan zehar zilegi lurren sistema eta jabetza komunitarioa nagusi direla (Fahrenhortst, 1992: 71). Paradigma desarrollistaren ikurra izan den zilegi lurren tragedia delakoa baztertuz, GIren aburuz, zilegi lurren sistemak ez du inolaz suposatzen sarrera eta baliabideen eskuragarritasuna libre direnik, ezta gainesplotaziorako bide laburrena denik ere. Are gehiago, zilegi lurren tragedia sisteman honen krisialdi, besterenganatze eta pribatizazioa gertatzen direnean gertatzen da (Vivian, 1992). Hau aldatzeko eta indigenak GIn partaide eta kide bihurtzeko beharrezkoa da: (1) ingurumena gainesplotatzera behartzen duten faktoreak ezagutzea eta aldatzea; (2) txikizio ekologikoari buelta emango dioten pizgarri eraginkorrak identifikatzea eta aplikatzea (Chambers, 1983); (3) tokian tokiko egoera eta baldintzak ezagutzen dituzten udal-mailako instituzioak sustatzea, eta (4) tokian tokiko populazioaren partaidetza laguntzen duen planifikazio-prozesua bultzatzea.

3. GI INDIGENENTZAKO MARKO BERRIA

GIren arrakasta maila lokalean, edota hobe esanda mila maila lokaletan, gertatutakoaren ondorioa izango da. Maila lokala, beraz, erabakigarria gertatzen da GIren aldeko planifikazioan. Bertako jendea, bere indarra, sormena eta energia ez badira harrapatzen, ez dago GIri buruz hitz egiterik. Argi dago proiektuek porrot egingo dutela beharren identifikazioa eta garaturiko estrategiak komunitateen balioen, euren pertzepzio edo lehentasunen aurka egiten badira (Rodriguez, 2000). Hori dela-eta, deszentralizazioaren aldeko apustua GIren hastapen nagusien artean aurkituko dugu (Villena, 2000). Horren aldeko lege-marko berri bat egitearekin deszentralizazioaren eta komunitatearen partaidetzaren aldeko apustu zabala egin da. Gutxi ez balitz, nazioarteko mailegu- zein garapen-erakundeek bat egin dute honekin euren politikaren osagai ofiziala izanik.

Nazioarteko adituek tokian tokiko ekosistemak hobeto kudeatzeko orduan maila lokaleko komunitateak direla aproposenak argi dute eta hauek urruneko teknikoek baino hobeto egin dezaketela ere dakite (Warren, 1994). Partaidetzaren aldeko apustu honek aldaketa sakona suposatzen du garapenaren planifikazioaz arduratzen diren guztientzat. Goitik beherako planifikazioak, non boterea, jakintza eta baliabideak

kontzentratzen diren, tokia utzi beharko dio behetik gorako planifikazio eta politikari. Hurbilketa berri honek posible egin du ohiko jakintza zientifikoarekin konbinatzea (Colorado 1998; Grenier 1998) baita sorturiko ondorio positiboen gaineko kontrola indigenen esku mantentzea ere.

3.1. Burujabetasuna lantzeko leiho bat

Deszentralizazio, autonomia, indigenen ohiko ezagupenaren defentsa eta euren partaidetzaren aldeko apustuak erabateko haustura markatzen du *«Terra Nullius»* inspirazio zuen aurreko ideologia kolonialistekin. 169 Itunak eta HIGEAk horrelako printzipioak goratu dituztelarik. Modu horretan beta ematen da herri indigenen eskaera lokalak marko globalean kokatzeko, baita etnogarapena garatzeko ere (Arregi, 1993), eta horrela herri indigenen kontribuzioa baliarazteko.

Dezentralizazioa eta partaidetza kontribuzioa balioarazteko apustua bereziki lagungarri gerta daiteke komunitateek euren lurraldeak eta bizitzak ukitzen dituzten politiken eta proiektuen inguruko erabakitze-prozesuan parte hartu dezaten. Zalantzarik gabe, indigenen kasuan GIk bultzatu nahi dituen deszentralizazioa eta partaidetza ahalbidetzeko gakoa lurraldeen gaineko eskubideen aitorpenean aurkituko dugu. Hori da partaidetzarako, konfiantza sortzeko zein harreman berriari ekiteko pizgarri nagusia (Colchester, 2000). Printzipio honen arabera, ekologia sustatzeko ahaleginak herri indigenak errekonozituz, haien papera aitortuz, haien oniritzia bilatuz eta haien partaidetzarekin burutu beharko lirateke (Simpson, 1997; Stevens, 1997). Bi printzipiook argi eta garbi defendatzen ditu Igoe-k (2003) dioenean parkeen kudeaketan partizipatiboa egin behar dela eta herri indigenak kontuan hartu behar direla kontserbazioa mantentzen bada.

Indigenak behar-beharrezko baliabideak ustiatzeko eskubideak baldin baditu, bere eguneroko segurtasuna bermatzeko nahikoa badu, epe luzerako igurikimena eta ikuspegia hobetu eta ingurumenaren gainean presioa askatu egingo da. Beste abantaila bat honako hau dugu: herri-lurren sistema, ustiaketa eta jabego-eskubideak herri edo komunitate bati aitortuz gero, arrotzak ez direla sartuko eta talde barrukoek bakarrik erabiliko dituztela bermatuko da (Colchester, 1999). Hau herri indigenentzat eta tokian tokiko komunitateentzat positiboa da, onartu egiten delako ingurumen edo baliabide zehatz batekiko mendetasuna duten herriek interes komertzial soila dutenek baino ikuspegi luzeagoa dutela kudeaketa eta ustiaketa gauzatzeko orduan.

Arrazoi hauek direla medio, indigenak GI bultzatzeko estrategietan integratzeko beharra nazioarteko hainbat aktore esanguratsuk defendatu dute. Bosgarren kapituluan aipatu egin dugu nola Agenda 21ek 26. kapituluan indigenak lehentasunezko talde (*major group*) izendatu eta indigenen partaidetza aktiboa sustatzeko bitartekoak jarri behar direla ezartzen duen. Jarrera instrumentalista hau nazioarteko finantza-erakundeen kasuan argiago ikusiko dugu beste inon baino. Partaidetza eta herri indigenen aldeko apustua garapen-proiektuen helburua hobeto erdiesteko bidetzat aipatu dira; gainera, aurreko hamarkadetan erakunde hauentzat hain kaltegarriak

izan diren gatazkak ekiditeko eta beren inguruko kritika indargabetzeko bideak iradokiz. Horrek jarrera-aldaketa erraldoia markatzen du, esate baterako, Banco Interamericanok bere idazkietan zera defenditzen du: (i) herri indigenak kontsultatzeko beharra zein proiektuen identifikazio, diseinu, analisi, aplikazio eta ebaluazio faseetan integratzeko eta haien partaidetza bultzatzeko beharra; (ii) herri indigenen lurraldeak babestuko dituzten neurriak hartzea; (iii) herri indigenekin lan egiten duten eta laguntzen dituzten GKE agentzien eta erakunde indigenen sendotze instituzionala burutzea; (iv) ingurumena mantentzeko eta erabilera iraunkorra sustatzeko ahaleginetan herri indigenak aliatutzat hartzea (Deruyttere, 1997).

Indigenek lorturiko presentzia eta nazioarteko onarpenari erantzunez, nazioarteko GKE ekologisten artean oso garrantzitsuak diren IUCNk, 1995ean, eta WWFk, 1997an, kontserbazio eta herri indigenei buruzko aitorpenak eta politika jarri zituzten martxan. Ekimen horietan herri indigenen eskubideekiko errespetua eta euren partaidetza bultzatuko direla onartzen da. Blauert eta Guidi-k (1992) gai honi helduz, erabilera-eskubideak nahiko ez direla azpimarratzen dute eta hauek hutsean gelditukо direla jabego-eskubiderik ez badago. Nazioarteko erakunde (Munduko Bankuak, 1992) eta GKE ekologista askok (IUCN; WWF, 1991) bereganatu egin dute ikuspuntu hau: jabego-eskubideen aitorpenak ingurumenaren erabilera egokiagoa eta ondorio ekologiko baikorragoak ekarriko ditu (Martínez, 2006).

1996an IUCNk 169 Hitzarmenaren nahiz HIGEAren balioa onartu egin zuen, gainera lanerako erreferentziazko dokumentuak izendatu zituen, era horretan herri indigenen eskubidekiko errespetuaren aldeko jarrera erakutsiz. Erabaki horrek garrantzi testimonial nahiz erreal handia du IUCNk mundu mailan babes-zonak sortzeko eta kudeatzeko irizpideak ezartzen baitu. 1997an WWFk *Declaración de Principios sobre los Pueblos y la Conservación* onartuz herri indigenekin aritzeko prozedura ezarri zuen. Erabaki horrek bidea zabaldu die beste GKE eta gobernuei deszentralizazio eta partaidetza-bideari ekiteko.

Erakunde hauek guztiak bat datoz indigenen partaidetza egia egiteko ezinbestekoa dela ondoko puntuak kontuan hartzea: herri indigenen erabaki-eremua onartzea, haien egitura eta instituzio politiko eta sozialen aitorpena egitea, eta errekonozitzea zilegitasuna eta autoritatea dutela lege indigenak indartzeko eta ondare kulturala eta lurraldeak zein bertan dauden ekosistemak babesteko. Modu horretan posible da garapen-estrategia eta erabakiak bat etortzea bertako kultura eta beharrekin eta ez kanpoko eta urruneko norbaiten nahiekin. Hau lortuz gero, kolonialismo berdearen arriskuak uxatu egingo lirateke behin betiko eta benetako GIren aurrean geundeke (International Alliance of Indigenous-Tribal Peoples of the Tropical Forest, 1996: 14).

Deszentralizazioa eta partaidetza sustatzeak suposatzen du bakoitzaren kultura eta nortasunaz harro egonik autogarapena bultzatzen duten egitura eta politikekin modu koordinatu batean lan egitea, komunitateek eta munduak nozitzen dituzten

arazoak konpontzeko (Paz, 1991). Dena dela, aurreko kapituluan argi gelditu den legez, bai 169 Itunak baina are argiago HIGEAk horrelako printzipioak onartu eta bere testuan uztartu dituzte, autodeterminazio eta autogobernurako bidea zabalduz. Are gehiago, seigarren kapituluan erakutsi dugun bezala, XXI. mendean eraiki nahi den harreman berriak autodeterminazioan oinarria behar du, iraganeko akatsak ez badira errepikatu nahi behintzat.

4. GARAPEN IRAUNKORRERAKO PROPOSAMEN INDIGENA

Munduan nagusitu den GI proposamena osatzeko asmoz, Laugarren Munduak berau nola ulertzen duen eta praktikara eramateko proposamena egin du askotan. Kari Ocatik hasita 2002an Johannesburgon antolaturiko mundu-gailurrera arte, indigenek euren iritzia eta ikuspegia plazaratu dute nazioarteko goi-bileretan, espresuki bilduriko «Caucus Indigena»k erabakitako aldarrikapenak plazaratuz. Indigenen ikuspegia ezagutzeko ondoko dokumentuak kontuan hartu behar dira Laugarren Munduak GIri buruz duen jarrera ulertzeko: *the Draft Declaration on the Rights of Indigenous Peoples; the Charter of the International Alliance of Indigenous and Tribal Peoples of the Tropical Forests; the Mataatua Declaration; the Santa Cruz Declaration on Intellectual Property; the Leticia Declaration of Indigenous Peoples and Other Forest Dependent Peoples on the Sustainable Use and Management of All Types of Forests; the Charter of Indigenous Peoples of the Arctic and the Far East Siberia; the Bali Indigenous Peoples Political Declaration; and, the Declaration of the Indigenous Peoples of Eastern Africa in the Regional WSSD Preparatory Meeting*. Hauei gehitu egin behar zaie Johannesburgoko GI Gailurrarekin batera indigenek egindako biltzarretik ateratako *Kimberleyko aldarrikapena eta Indigenous Peoples´ Plan of Implementation on Sustainable Development*.

Johannesburgoko 2002ko gailurrean indigenek *Indigenous Caucus-en bidez Indigenous Peoples Plan of Implementation on Sustainable Development* aurkeztu zuten. Dokumentu horretan Agenda 21eko 26. eta 20. kapituluen garrantzia berretsi eta indigenen mundu-ikuskera eta espiritualtasuna; autodeterminazioa eta lurraldea, sinaturiko tratuak; haur eta gazteen ongizatea, emakumea, janari-segurtasuna; OJri egindako erreferentziak; lur sakratuen errespetua; meatzaritzaren aurkako jarrera; biopirateriaren aurkako moratorium bat; basoak; energia-iturriak; turismoa; kostalde eta arrantza; ur-gestioa; ingurumen-aldaketa; osasuna eta produktu toxikoak; desertifikazioa; hezkuntza; zientzia; teknologiak eta komunikabideak; segurtasuna eta gatazka-konponketa; bizimodu iraunkorren sustapena; multinazionalen erantzukizuna; gobernu-deszentralizazioa eta partaidetzarako mekanismoen beharra eta giza eskubideen errespetua GI erdiesteko aurrebaldintza gisa aipatzen dira.

Dokumentu horretan gaurkotasun handiko gaiak aitatzen dira eta indigenak XXI. mendeko agenda globalarekin duen lokarria erakusten dute. Proposamen hauetan betiko auziez gain, XXI. mendeko auziak agertzen zaizkigu. Gainera,

GIrekin loturiko garapen-erakusleen aldaketa defendatzen dutenekin bat eginez, erakusle sozialak eta kulturalak txertatu behar direla mantendu dute. Hurbilketa honek indigenentzat hain garrantzitsua den komunitateari eta haren sendotzeari garrantzia ematen die, eta demokrazia, giza eskubideen errespetua eta hobekuntza soziala lotu egiten dira. Era horretan, erakusle berriekin posible izango da GI oinarri diren esparruak (kulturala, soziala, ekonomikoa eta ekologikoa) besarkatzea eta erakusle ekologiko-ekonomiko soiletatik askatzea.

4.1. Autodeterminazioa kontserbazio-ahaleginaren muinean

Aurreko kapituluan ikusi dugun bezala, autodeterminazioa agenda indigenaren bihotza da. Seigarren kapituluan autodeterminazioa printzipio politiko bezala jorratu dugu, baina ezin dugu ahaztu askoz gehiago dela ikuspegi indigenan. Corntassel-ek (2008: 118) horrela dio GIri kritika eginez eta indigenen ikuspegian autodeterminazio iraunkorraz ari garenean zertaz ari garen argituz.

Baliabide eta lurraldearen gaineko kontrolaren garrantzia onartzen da EPZNK eta ESKNKren autodeterminaziori buruzko lehenengo artikuluaren bigarren zatian, lurralde eta baliabideen gaineko kontrolari egiten dionean erreferentzia (Castellino eta Gilbert, 2003). Gauza bera gertatzen da HIGEAren kasuan, non bere V. atalean (19.24. art.) garapena izateko eskubidea, partaidetza eta beste eskubide sozial eta ekonomikoak aipatzen diren. Era berean VI. atalean (25.-30. art.) lurralde eta baliabideak agertuko dira. Lurraldeek berebiziko garrantzia dute herri indigenentzat, herri indigenen biziraupenerako gakoa baitira. Indigenen ikuspegian herria, norbanakoa, ekosistema eta hauei loturiko kultura gauza bera eta bat dira.

Biziaren sarean partaide direnen arteko harremana eta haiekiko erantzukizuna indigenen sakoneko herri-izaeraren nolakotasunak dira (Corntassel, 2008). Ekosistemetan bizirik dirauen biodibertsitatea, lurralde eta ekosistemekin dituzten mota askotako harremanak nahiz horiekin guztiekin loturiko jakinduria ezinbestekoak dira Laugarren Munduaren etorkizuna bermatzeko eta euren autodeterminazio-eskubidearen eraginkortasuna ziurtatzeko. Hil edo biziko gai hauek ere XXI. mendeko autodeterminazio indigenaren muinean daude eta elkarrekin loturik antzematen ditugu.

Gauzak horrela, estatu eta multinazionalekin batera ekologia-gaietan lehen mailako aktoreak bihurtu diren GKE kontserbazionisten ikuspuntua birbideratzea lortu dute herri indigenek. Autodeterminazio indigenaren bitartez herri indigenek urrun dauden erakunde edo instituzio ez-indigenek GIren izenean oraingoan ere inposatzea burutu ez dezatela ziurtatu nahi dute (Stevens, 1997). Euren lurretan GI proiektuak hasi baino lehen euren partaidetza, euren ikuspuntuak, interesak eta iritzia kontuan hartzen direla ziurtatu nahi dute. Hau da, euren lurralde, herri edo kulturarentzat kaltegarri izan daitezkeen proiektuei ezetza emateko eskubidea eta gaitasuna (Rodríguez, 2003) azpimarratuz. Beraz, estatuek zein beste edozein

aktorek proiektu bat martxan jarri baino lehen, eurekin kontsultatzea, informazio osoa ematea, edozelango etekinetan parte hartzea, euren lurraldeetatik kanporatuak ez izatea eta horrelakorik gertatzekotan kalte-ordainak jasotzea, eta ahal denean euren lurraldeetara itzultzeko aukera izatea defendatuko dira. Autodeterminazioa, beraz, edozein harreman eta proiekturen oinarri, bihotz eta funtsean egongo da.

Horrelako eskaerak onarturiko HIGEAn zein 169 Itunean ageri dira. Seigarren kapituluan erakutsi dugun bezala, estatuek eta nazioarteko erkidegoak onartu egin dute herri indigenen autodeterminazio-eskubidea gara daitekeela estatuen mugen barruan. Autodeterminazioa eta harekin loturiko lurraldeen gaineko eskubideak onartzen dituztelarik HIGEA eta GI lotu egiten dira (Tauli-Corpuz, 2008). Horrela, eurengan eragina duten prozesuetan euren partaidetza bermatzen da «free, prior and informed consent» formulan oinarrituz. Etnogarapenak autodeterminazioari heltzeko bide posibilista eta ez-polemikoa eskaintzen du, estatuen errealitatea errespetatu eta edozein interpretazio protodiplomatikotik at dago, onartzeko askoz errazagoa den garapen endogenotik hurbilago egonik.

4.1.1. Esangura bereziko lurralde eta ekosistemen babesa

Hainbat lurralde, toki, ekosistema, animalia zein landare mota ezinbestekoak gertatzen dira birsorkuntza kulturala ziurtatzeko. Adibidez, Amerikako arranoaren lumak ezinbestekoak dira AEBko hainbat herriren erlijiorako. Kasu hauetan herri indigenek ondare horren babesa eta bertaratzeko/erabiltzeko eskubideak errespetatzea eskatu dute. Balio kultural handiko lurralde edo ekosistema hauen osasuna eta edertasuna mantentzea ezinbestekoa gertatzen da indigenentzat. Ondorioz, guretzat produktuak edo trukerako diren artikuluak, jabego intelektualaren objektua izan daitezkeenak, alegia, indigenentzat herri baten ondarearen parte dira. Beraz, banaezinak eta saldu ezinak.

Ondarearen parte dira baliabide genetikoak. Beraz, azkenean auzian duguna ondare kulturalaren gaineko kontrola eta autodeterminazioarekin loturiko gaia da: hau da, herri indigenak zer, noiz, norekin, zeren truke eta, nahi izanez gero, euren ondarea konpartituko duten. Kontrakoa egitea, Mendebaldeko kulturak hain gogoko dituen zatiketak inposatzea eta herri indigenen kultura kolokan jartzea litzateke.

Ondarea babestu baina modernotasunak eskaintzen dituen aukerez baliatzeko asko dira OJ eta zientziaren arteko elkarlana has daitekeela diotenak (RAFI 1994; Varman 1999; Colfer, 2008), hori bai beti herri indigenen eskubideei erreparatuz. Bide hori jorratuz, aipa dezagun International Society of Ethnobiology-k lana gidatzeko onarturiko *Codes of Conduct and Standard of Practice* (1997). Kode hori egiteko behar izaten dira 10 urte eta mundu mailako kontsulta, non indigenek eta zientifikoek parte hartu duten. Kode hori gidatzen duten hastapenak ondokoak lirateke: autodeterminazioa, gutxieneko inpaktua, besterentzeko ezintasuna, aurreko oniritzia eta betoa, partaidetza aktiboa, errespetua, babes aktiboa, borondate ona,

elkarrekikotasuna eta partitze igualitarioa (Posey, 1998: 52-53).

Bide honetan hasteko, indigenek eskatu egiten dute OJren aitorpen ofiziala eta hau babesteko, sustatzeko eta garatzeko instituzio indigenen bilakaera. Hau da, GKE, fundazio edo unibertsitate-departamentuen bidea izan daiteke (Melody,1994). Modu horretan, elkarlan eta kosmo-ikuskera ezberdinetan oinarrituriko ezagupena, tradizioen arteko elkarlana eta elkarrizketa hasi daitezke (Smith, 1999). Marko honetan zientzia eta OJren inguruko elkarlana eman daiteke eta zibilizazio bientzat onuragarria den kontribuzioak lortzeko bidea zabaldu (Shahidullah, 2007). Horrela etnoiraupena eta autosufizientzia bultza daitezke eta zientzia eta beste tradizioen arteko kidetza ukatzen duen diskurtsoari alternatiba eskaini (Arregi, 2006).

Horrelako ekimenak inportanteak dira ikerketa-munduan indigenen partaidetza eta interesa bermatzeko. Herri indigenek ikerketa-objektu izatetik ikerketa-subjektu eta partaide eraginkorrak izatera pasatu nahi dute (Posey eta Dutfield, 1998). Ikerketan parte hartuz, berau nola, zergatik, norentzat eta zer ondoriorekin egin daitekeen ikasten dute. Honelako sistemak bultzatzeko orduan, kunek aitzindaritza markatu egin dute atzerriko hainbat unibertsitaterekin (Arregi, 1993) ikerketarako akordioak sinatuz euren jendearen partaidetza eta bertan trebatuak direla ziurtatu dutelako. Hori oso garrantzitsua da edozein ikerketatan, baina are garrantzitsuagoa gertatzen da bioteknologiarekin loturiko kasuetan patente eta etekinen aukerari lotuta dagoelako.

Zentzu horretan prestakuntza areagotu egin behar da indigenen artean mundu mailan diren prozesuak uler ditzaten eta haiei erantzuteko estrategia eta diskurtsoak gara ditzaten. Borroka honetan herri-jabegoa onartzea, kulturalki esanguratsua diren ekosistema eta objektuen babesa, nazioarteko marko kooperatibo baten defentsa ezinbestekoa gertatzen dira. Nondik jo daitekeen ikusteko, hemen Brasilen lortutakoa. OJren gaineko sekretua mantentzeko eskubidea; OJrekiko sarrera ukatzeko eskubidea; OJren gaineko babes intelektuala eskatzeko eskubidea. Kasu honetan komunitateak emango luke baimena eta babesa; baimena emateko eskubidea informazio egokia jaso ondoren OJrekiko sarrera lortzeko eta beraren erabilera eta aplikazio egokia egiteko; ikerturiko datuen eta honetatik eratorriak diren produktuen gaineko jabetza partituarekiko eskubidea; euren jakinduriatik eratorriak diren patenteak indargabetzeko eskubidea (Simpson, 1997: 183).

4.2. Biopirateriaren aurkako borroka latza

OJk ondare kultural, autodeterminazio eta herri-iraupenarentzat duen garrantziaz jabetu ondoren, biopirateriaren aurkako borrokari helduko diogu: gai honek zuzenki eraso egiten baitio autodeterminazio indigenari. Bioaniztasunetik eratorriak diren produktuen gaineko jabego intelektualaren inguruan eta honi dagozkion eskubideen nahiz etekinen inguruan kokatzen da eztabaida hau. Izan ere, gai honen inguruan irudikatzen da, beste edonon baino hobeto, mundu-ikuskera eta zibilizazioen arteko

talka eta ondorengo gatazka latza, konplexu eta desorekatua (Tauli-Corpuz, 1999: 86).

Hori horrela da Munduko Merkataritza Erakundeak (MME/WTO) TRIPS bidez patente-sistema globala ezarri nahi duelako. Ondorioz, HIKEren ardatz nagusi bat herri indigenen eskubide, jakinduria eta baliabideen defentsan zentratu da.

Teknologiaren aurrerapenarekin eta jakintzaren jabegoarekin zuzenean loturiko auziak herri indigenei erronka berriak eta konplexutasun handikoak planteatzen dizkie. TRIP babes-sistema honek Mendebalde industrializatuaren tradizioa hartzen du kontuan, munduko herri indigenek zein nekazaritza-herriek garaturiko babes-moduak eta tradizioak ukatuz (Seini, 2003). Mendebaldeko tradizioan jabegoa diruari zein beste mota batzuetako etekinen lorpenari lotuta dago. Jabegoa eskuratzeko patentatu nahi den produktuak berria eta industrian aplikazioa duena izan beharko du. Babes-sistema honek, noski, kanpoan uzten ditu herri indigenak eta mundu osoko nekazariek mendeetan zehar eta era kolektiboan egindakoa (Shahidullah, 2007). Esate baterako, OJ egunero erabiltzen duten herrien errealitatean jakintza eta haziak libreki trukatu egiten dira. Hobekuntza modu dinamiko eta etengabe horretan burutzen da (Shiva, 1993). TRIPen bidea jorratuko balitz, horrelako trukeak debekatu egingo lirateke, gaur egun, ezagutzen dugun aniztasun biologikoa eta kulturala mugatuz, eta praktika kulturalak kolokan jarriz (Lidgard, 2004).TRIPen 27. artikuluak argi ezarri du produktu baten gainean patentea jartzeko derrigorrezkoa dela berau berria izateaz gain industri inplikazioa/aplikazioa izatea. Baldintza horrek kanpoan uzten ditu munduko herri indigenek zein nekazaritza-herriek mila urtetan garaturiko jakinduria eta berrikuntza zein elkartrukea gobernatzeko sistema. Bigarrenak babes-sistema modernoan eta industrialean ez du tokirik aurkitu oraindik.

TRIP biopirateriak egindako lapurreta zilegi egiteko sistema dela salatu dute askok (Magallanes 1999; Tauli-Corpuz 1999; Simpson 1997). Besterenganatze-prozesu honetan BBBk paper handia izan du. BKKk OJ gizateriaren jabegoa izatetik estatuen jabegoa izatera eraman du, eta defendatu informazioa publikoa egiteko eta partitzeko derrigortasuna (McKay, 1999). Modu horretan interes handiko ekosistemetan sarbidea mundu mailako beharra bihurtzen da, eta are errazago egin ekosistema hauei loturiko bioprodukturu berriak sortzea. Baina ikuspegi neoliberal honek, berriz ere, gizarte euroamerikarraren balioak inposatzen ditu eta herri indigenen espiritualtasunaren, eskubideen eta jakinduriaren aurkako erabateko erasoa burutu, justu euren kulturen balioa eta euren partaidetzaren beharra espazioa eta errekonozimendua irabazten denean.

TRIP jabego-sistemak herri indigenen ezagupen eta kontribuzioa ukatu egiten du modernotasunaren baitan garatu diren modu eta kontzeptuei lehentasuna emanez (Seini, 2003). Horrela, herri garatuak euren nagusitasun politikoa erabiltzen ari dira mundu-ekonomian duten abantaila konparatiboa eskaintzen dien teknologiaren gaineko fruituak babesteko (Lander, 1993/94: 53). Beraz puntako teknologia eta

horren erabilera izango da «gainbalioa» markatuko duena, eta jabegoaren ateak zabalduko dituena hain zuzen ere.

Egoera paradoxikoa beraz, jabego-eskubideen defendatzaileen iritziz informazioa Hirugarren Munduan harrapatzen denean, gizateriaren ondarearen zati bat da, ondare publikoa beraz, eta ez dago patentea egiterik (Daes, 1997: 99). Aldiz, informazio hori Iparraldeko laborategietan tratatu eta prozesatu ondoren bai bihurtu dela babesteko gaia. Beraz, benetako balioa prozesatu, berraldatu eta herri industrializatuetan tratatu eta merkaturatu ondoren soilik jasoko du (Grunwald eta Vogel, 1994). Prozesuak berak bihurtuko du berria ohikoa, mendeetan garaturiko *«prior art»* delakoa (Seini, 2003). Ondorioz patentea sintetizaturiko prozesuaren gainean egin ahal izango da.

Patente-sistema honetan gizabanako edota enpresa baten jabego indibiduala onartzen da, baina ez da antzekorik gertatzen herri indigenen artean nagusi den talde-jabegoarekin. Are gehiago, jabego kolektiboa ontzat emango duten indigenen saiakerek hutsaren hurrengo arrakasta lortu dute. Ondorioz, Posey eta Harry-k (1998: 49) *«Terra Nullius»*en espiritua, zientzia-maila eta bioteknologia sorturiko etekinen gaineko jabegora aplikatzen ari dela salatzen dute. Clay-k (1994) *«Intellectual Terra Nullius»* argi eta garbi kolonizazio berri baten aurrean gaudela dio. *«Intellectual Terra Nullius»* tokian tokiko landare eta baliabide biologikoak «basati» moduan definitu ondoren, kolonizatzaileek haietatik eratorriak diren produktuen gaineko jabegoa lortzeko erabiltzen denean gertatzen da. Aurreko jabegorik egon dagoela ez baita onartzen, ezta aurreko ezagupena (*prior art*) dagoenik. Finean bigarren kapituluan Cronon-ek deskribatzen zuen prozesuaren antzekoa gertatzen da, berriz ere, XXI. mendeko zientzia, teknologia eta zuzenbidea erabiliz ekosistema eta baliabide indigenen gaineko konkista bermatzeko.

TRIP modeloak biopirateria sustatu, euren eskubideak urratu, OJren talde-izaera ukatu, biodibertsitatearen narriadura eta pobretzea bultzatu, baliabide, lurralde eta ekosistemen krisialdia eragin, haiekin loturiko kultura eta herriak krisialdira eraman, eskuraerrazak izandako baliabideen kontzentrazioa ekarri, jateko gaien (*food security*) gaineko kontrola euren eskuetatik kendu eta, oro har, bizitza kalitatearen jaitsiera ekarri du.

TRIPei aurre egiteko saiakera franko burutu dute indigenek. Horren aurka herri indigenek euren burujabetza ezartzeko eskubidea defendatzen dute; eurek izan dutelako beren jakinduria zaintzeko, zabaltzeko, sustatzeko, berritzeko eta bortxaketak zigortzeko lege-sistema propioa (International Alliance of Indigenous-Tribal Peoples of the Tropical Forest, 1999: 40). Erresistentzia honen ardatz nagusia BBKk ahalbidetzen dituen aukera apurrak aprobetxatzea, eta berau erabiltzea TRIPei aurre egiteko. BBKren inguruan indigenek errekonozimendu eta errepresentazio politikoa ahalbidetzen duen nazioarteko plataforma bat lortu dute-eta. Horrekin batera TRIPek berak estatuei zabaltzen dien leihoa aprobetxatu dute indigenek:

TRIP *«sui generis»* sistemaren ideiari heldu eta estatuak sistema hau definitzea euren jabegoa babestu ahal izateko eskatu dute, baita nazioarteko foroetan, teorian eta praktikan, ganoraz defendatzeko aukera gauzatzea ere. Herri indigenek tokian tokiko gobernuaren laguntzarekin *«sui generis»* bezalako aitorpenik lortu ezean, Mendebaldeko ikuspegia errealitate hegemonikoa bihur daiteke (Sinngh, 1997) munduko nekazari eta herri indigenen egoera gaiztotuz.

Lurrarekin gertatzen den bezala, ekosistemarekiko harremanak, usadioak eta haiekin loturiko jakintza talde-jabegoa izanik banaezinak dira. Ezagutza izendaturiko jagoleen eskuetan egoten da eta debekupean dago informazioa ematea (Deloria, 1999). Hori dela-eta, indigenek sistema berri baten ezarpena, non euren eskubideak eta interesak hobeto islatzen diren, lortu nahi dute. Babes-sistema indigena horrek ondoko puntuak hartu beharko lituzke kontuan.

Honelako hurbilketa bat proposatzen dute Posey eta Dutfield-ek (1997) euren Ohiko Baliabideen gaineko Eskubideak (OBGE) defendatzen dituztenean. Definizio horretan, bildu egingo lirateke indigenek dagoeneko ezagunak dituzten kontzeptu eta printzipioak. Nahiz eta BBKk informazioa trukatzeko derrigortasuna ezarri, kontuan hartu behar da informazio hori kultura eta baliabide espiritualen erabilerari lotuta dugula. Beraz, hau gertatzeko beharrezkoa da: (1) herri indigenen eskubideak errespetatzen dituen negoziazioa burutzea; (2) euren baiezkoa izatea; (3) ordainak nolakoak izango diren ezartzea; (4) informazioa babesteko sistema bat izatea informazioak balio espirituala duenean; (5) talde-jabego intelektuala onartzea; (6) egindako ikerketaren kopiak, euren hizkuntzan badaude hobeto, ematea, eta (7) kultura eta ingurumena sendotzeko ahaleginak egitea.

Bide posibilistari helduz, TRIPek indigenak dauden estatuetan *«sui generis»* sistema baten garapena defendatzen dute. TRIP sistemak estatuek euren errealitateei ondo moldaturiko babes-sistema bereziak garatzea ahalbidetzen du.

Horrelako sistemak erabiliz baliabideen gaineko kontrola, kudeaketa moduak zein sarrera arautuko dituzten baldintzak eta baimenik gabeko biobilaketaren debekua bermatu egingo lirateke. Horrela, euren kulturaren iraupena eta balioa zein gizarte-egitura indartzeko balio dezake, etnogarapenerako faktore iraunkorra bihurtuz.

5. COP BILTZARRAK: GATAZKA ETA ELKARLANA BIODIBERTSITATEAREN INGURUAN

COP Biltzarretan indigenek parte hartzeko egindakoak ezerezean uzteko estatuek egindako ahaleginak etengabeak izan dira. Gauza bera gertatu da GIrekin loturiko beste hainbat prozesutan. Joera honen adibide gisa esan beharra dago GIrekin loturiko GIren Batzordearen partaidetza eskasa izan dela oso, indigenak posizio-dokumentu batzuk onartzera soilik heldu direlarik. Gainera hau posible izan da lehentasun handiko taldeak direlako (Garcia Alix eta Borraz, 2006: 236). Klima Aldaketa Hitzarmen Markoari buruzko batzarretan parte hartu izan dute baina GKE modura

eta inolaz ez herri indigenak bezala. Beste horrenbeste gertatzen da Basoei Buruzko Nazio Batuen Foroan. Garrantzi handiko eremu honetan gertaturikoa ikusirik, indigenen jarreraz jabetzeko *Alianza Mundial de los Pueblos Indígenas y Tribales de los Bosques Tropicales*-ek bultzaturiko 1996ko Leticiako aldarrikapenera jo behar dugu. Indigenek lortu egin zuten euren adiskide ziren estatuen bitartez aldarrikapen honetan agertzen ziren ondorio batzuk basoari buruzko batzarretan sartzea. Eragin eskasa arriskutsua gerta daiteke zenbaitetan: esate baterako, basoen triskantzari buruzko dokumentuetan bai indigenak bai nekazariak agertzen dira errudun nagusi bezala, ordea, oso txikia da, baita azalekoa ere, multinazionalei egindako aipamena. Horren aurka indigenek behin eta berriz jo dute Leticiako aldarrikapenera euren jarrera ezagutarazteko. Ahalegin honek lortu du hainbat nazioarteko GKErengan eragina izatea baina ez du lortu antzekorik hitzarmen-marko handiak negoziatzen dituzten gobernuen artean. Are gehiago aipaturiko NBE prozesuak estatuen artekoak diren neurrian, estatu ez diren aktoreen partaidetza oso nekeza gertatzen da. Kasu hauei erreparatuz gero argi dago planteatzen diren arazoei buruz ikuspegi indigenak zein proposaturiko konponbideek ez dutela behar zuten isla foro hauetan erabaki-hartze mailan bederen. Hamaika dira herri indigenen partaidetza, lana eta kontribuzioak oztopatzeko egindakoak (Garcia Alix eta Borraz, 2006: 242).

Ekologia-eremuan Laugarren Munduari ateak gehien zabaldu dizkion prozesua BBK izan da. Hemen indigenek batik bat OJri buruzko gaiak landu dituzte onespen instrumentala burutu duen hitzarmen honetan. Mendebaldeko tradizioan jatorria duten ondare kulturala babesteko sistemak nola erabil daitezkeen pentsatu baino gehiago, herri indigenek euren tradizio eta legeetan oinarrituriko sistema berezko bat garatu nahi dute. Sistema horretan zer babestu, nola, zertarako, eta nola erabili eta konpartitu erabakiko lukete indigenek. Euren ondare kulturalaren babes-sistema baten garapena, euren balioak, sinesmena, teknologia, jakinduria eta kudeaketa-sistemak islatzen duena burujabetza-prozesuaren osagarri eta ondoriotzat kontsideratu behar dugu. Halaber, etnogarapena eta GI erdiesteko baldintza

Hirugarren Munduko estatu asko euren ekonomiak hain egoera kaskarrean izanik baliabide hauetan dute ekonomia mundialean jokatzeko beta bakarra. Ondorioz, estatuek mugatu eta eragotzi egingo dituzte indigenek euren lurretan eskubideak errespetarazteko saiakerak. Estatu-jarrera hau nabaria da GI bideratu eta gorpuztu duten konbentzio eta foroetan.

1992tik hasita Rio de Janeiron iturburua izan zuten BBK-k (1992), GIri buruzko Batzordeak (1992), Basoei buruzko Gobernuen arteko Panelak (1992), Desertifikazioari aurre egiteko Konbentzioak (1992) eta bestelakoek HIKEren atentzioa erakarri dute. Honelako tresna juridikoen inguruan nazioarteko prozesuak zabaldu egin dira eta herri indigenek bertan egoteko ahalegin handia egin dute. Hala ere, diskurtso eta aitorpen mailan lorturiko presentzia indigenak ez du horrenbesteko islarik izan GI garatzeko nazioarteko foroetan eta hauei loturiko hainbat esparrutan

Estatuek maiz eragotzi egin dute estatu ez direnen aktoreen partaidetza eta hau indigenen kalterako gertatu da sistematikoki. Estatuek nazioarteko prozedurak erabili egin dituzte partaidetza indigena ukatzeko eurentzat estrategikoak diren gaietan eta lurralde zein ekosistemen gaineko kontrola kategoria honetan sartzen da. Gogoratu besterik ez dago HIGEAren kontra CANZUSen jarreran baliabideen gaineko kontrolaren ukazioak izan duen indarra.

Estatuen eta indigenen arteko tirabirak, gatazka eta elkarlana erakusteko BBKri loturiko COP sisteman gertaturikoa aztertuko dugu.

1994ko COP1, Bahamaseko Nassaun, lehenengo bileran indigenen partaidetza urria izan zen, ordezkari gutxi hurbildu zirelarik. 1995eko COP2, Indonesiako Jakartan egin zen bilera. Indigenen partaidetzak gora egin zuen eta 8J artikuluaren esanahi eta inplikazioei buruzko eztabaida informalak gertatu ziren. Indigenek eskatu egin zuten partaidetza librea izatea. Biltzarrak onartu egin zuen COP3k 8J artikulua azter zezala egindako eskaera.

1996ko COP3, Argentinako Buenos Airesen egin zen. Indigenek ordezkaritza inportantea biltzea lortu zuten, gehienak Hego Ameriketatik hurbildu zirelarik. Bertaratutakoak serioski organizatzen hasi ziren eta bultzatu egin zituzten erakunde indigenen errepresentazio ofizialak. COP3k erabaki zuen 8Jri buruzko tailer bat egitea. Ildo beretik, 8Jri loturiko lantalde bat sortzea. Lantaldeak sortzeko aipaturiko jarrerari jarraituz, berrikuntzen artean, lehenengo aldiz, Bioaniztasunari Buruzko Nazioarteko Foroa/International Indigenous Forum on Biodiversity (BBNF) egin zela aipatu behar dugu. Orduz geroztik, COPekin loturiko biltzarra egin baino lehen BBNFren bilera gertatu izan da COPen indigenek bultzatuko duten estrategia adosteko.

Bilera horretan adosturikoari lotuz, 1997an Biodibertsitateari eta Indigenen Jakinduriari Buruzko Tailerra egin zen Madrilen. Bera gertatu baino lehen estrategia komuna prestatzeko BBNF bildu zen. Madrileko bilera COPeko partaide diren estatuen eta indigenen arteko lehenengoa izan zen. Bertan biodibertsitatea eta OJri buruzko gaiak tratatu ziren. Onartu egin zen «COPeko presidentearen laguna» izeneko aholkulari-mekanismoa; berorren bitartez NBEren partaidetza indigena murrizteko arauak saihesteko eta ahalbidetzeko herri indigenen parte-hartze handiagoa biltzarren organizazio eta gestioan. Baietsi egin ere bai, herri indigenen papera BBK garatzeko orduan, handitu eta sendotu behar zela. Gainera, txosten bat egin zen, non indigenek BBKk kontuan hartu behar zituen 200 auzi bildu zituzten. Halaber, Caucus Indigena osatu zen COP aztertzen ari diren erabakiei jarraitzeko, estudiatzeko eta indigenen interesen aurka joanez gero, beraiei erantzun ahal izateko mekanismo bezala.

COP4 1998ko Slovakiako Bratislavan egin zen. Bertan egindako biltzarrean 8Jren garapena laguntzeko lantalde *«ad hoc»* bat egitea eta iraunkorra (*open ending*) baietsi zen. Lantalde horrek COP5i informatzeko agindua jaso zuen. Lantalde horrek

Madrileko txostenean agertzen ziren puntuen bidetik abiatzeko eta OJ babesteko mekanismoei buruz aholkuak eskaintzeko agindua jaso zuen. Gainera, herri indigenen partaidetzaren inportantzia azpimarratu zen. Halaber, WIPOri eskaera berezia egin zitzaion, bere jardueran, OJ kontuan hartzeko jabego intelektuala definitzeko orduan, baita honi loturiko eskubideak definitzeko ere, eta erabiltzaileentzat hauek dituzten inplikazioak zehazteko orduan. Puntu hau funtsezkoa da biodibertsitatearen erabilera, etekin zein jabego-eskubideak baldintzatuko dituzten protokoloak moldatuko dituelako. Scout-ek (2006) Lantalde honek ondoko mugarriak lortu dituela diosku: 1) Akwé: Kon Borondatezko ereduen sustapena; 2) 8Jrekin loturiko Lantaldean partaidetza indigena areagotzea; 3) Foro Iraunkorrarekin elkarlanean portaera etikoa bideratzeko eta indigenen kultura eta ondarea babesteko proposamena bultzatzea, eta 4) indigenen eta tokian tokiko komunitateen papera BBKren baitan azpimarratzea hauei benetako ahotsa emanez.

2000n Sevillan «8Jri Buruzko ad hoc Lantaldea»ren lehenengo bilera burutu zen. Bertan 8Jren garapena erdiesteko lan-programa baten proposamena burutu zen, Madrileko dokumentua abiapuntutzat hartuz. Baita ere, onartu egin zen bi azpibatzordetan buru ez-indigenekin batera bi buru indigena izatea. Are gehiago, erregio ezberdinetako 6 ordezkari indigena izendatu zituzten COP bulegoaren aholkulari bezala. Ondorioz, lan-proposamena egiterakoan indigenek lortu zuten partaidetza inoiz baino handiagoa izan zen. Horretaz gain, emakume indigenek lortu egin zuten emakumeei buruzko neurriak sartzea egindako proposamenean.

2000n Kenyako Nairobin egindako COP5 biltzarrean, 8Jri buruzko lantaldearen egin beharra luzatu egin zen. 8J aplikazioari buruzko ekintza-plana onartu zen ofizialki, nahiz eta honek terminologia eta inplikazio legalei buruzko eztabaida sutsua gainditu behar zuen. Hau Sevillako proposamenaren mamiari lotuz, proposamen egituratuago bat kontsideratu behar dugu. Halaber, BBNFk COPen aholkulari-izaera jaso zuen. Hau gutxi ez balitz, 8J artikuluarekin loturikoez gain, COPek harturiko beste erabaki batzuk, indigenen parte hartzearen aldeko eskaerak, onetsi ziren. Aipamen hauen bidez indigenen presentzia biderkatu egin zen. Amaitzeko, 8Jri buruzko lantaldeari beste lantalde bat gehitu zitzaion «Sarbide eta Etekinei Buruzko Lantaldea».

2002an «8Jri Buruzko ad hoc Lantaldea»ren bigarren bilera egin zen Montrealen. Ordezkari indigena azpibatzordeetan zein «zuzendaritzaren lagunak» delako aholkulari-mekanismoan izendatu ziren, OJ estatusa eta joera nagusiak deskribatzeko agindua eman zelarik. Halaber, inpaktu soziala, kulturala eta ekonomikoa neurtzeko irizpide eta prozedurak aztertuko zituen txostenaren eskema landu zen. Baita ere, partaidetza-mekanismoak eta bitartekoak definitzeko lana burutu zen.

Eztabaida gogorraren kapituluan aipatu beharra dugu indigenek eskaturiko «jakinaren gainean aurretik emandako baietza » (*free, prior and informed consent*). Horrek eztabaida sutsuak ekarri zituen, inpaktu ekologikoa, soziala eta kulturala baldintzatzeko prozedurak definitzen ari zirenean.

2002an COP6 Holandako Hagan gertatutakoak indigenen partaidetza eragin-korraren froga dira: COP6 harturiko 32 erabakietatik 17k erreferentzia egiten zieten herri indigenei, haien artean trebakuntza eta partaidetzaren garrantzia azpimarratzen direlarik. Gainera, OJri buruzko lehenengo eskema findu egin zen, onetsi eta bere faseari ekiteko prest utzi. Era berean, inpaktu-ikerketa kulturala, ekonomikoa eta soziala burutzeko gida-arauak «gomendio» bihurtu zituen COPek. Halaber, OJ babesteko bitartekoetan ikerketarekin jarraitzeko bultzada eman zen. BBNFk modu aktiboan parte hartu zuen Baliabide Genetikoetan Sarbide izateko Bonneko Orientabideei, eta gai izen ziren herri indigenak «eskubidedunak» bezala definitzeko eta ez «onuradun edota interes talde soila» bezala, ordu arte nazioarteko dokumentuetan egiten zen bezala. Amaitzeko, «Bioaniztasunean Sarbide Izateko Gaitasuna Handitzeko eta Etekinak Partitzeko Ekintza Plana» egitea erabaki zen.

Alde negatiboan, OJren erregistro zein data bankuak izateko beharrari indigenek egindako erreferentzia guztiak erabakietatik kanpo utzi zituen COP6k. Halaber, jakinaren gainean emandako informazio-printzipioak gatazka piztu zuen eta eztabaida sutsuak eman ziren alde zein kontra.

Baita ere, BBNFk aholkulari-estatusa jasotzea. OJri buruzko talde honek aholkulari-izaera badu ere, negoziazioetan parte hartzeko eta ikuspuntu indigena helarazteko balio izan du. Arrakasta honek HIKE sendotu eta euren bizitzetan ondorio larriak izango dituzten prozesuetan partaidetza segurtatzeko balio izan du.

8Jri buruzko Lantaldeak egindako lanari esker, 2005ean eta VII/16 E, 4(d) parragrafoan harturiko erabaki bati erantzunez, Idazkaritzak ahokulari-talde informala eratu zuen. Horren egitekoa COP8an berriztatu zelarik. Lantalde horretan herri indigenek zein tokian tokiko komunitateek ordezkariak zituzten, horrela egindako Txosten Trinkoan euren ikuspuntuak txerta zitezen. Ikuspuntu horiek betiere ohiko jakinduriaren zaintzari buruzkoak izanik. Era berean, onartu egin zen txostenaren azterketa kolegiatua egitea indigenen zein tokian tokiko komunitateekin batera (Comisión de Derechos Humanos del Distrito Federal, 2007). Laugarren Munduak Lantalde horren bitartez etengabeko lana egin du hitzarmenen negoziaketetan parte hartzeko. Egindako kontribuzioen artean aipagarria dugu, hezkuntzaren balioa zein indigenen ikuspegia erakusten duelako, borondatezko Akwé: Kon printzipioak, COP7an onarturikoak (VII/16 F Erabakia). Bertan argi uzten da beharrezkoa dela herri indigenen lurretan proiektu bat hasi baino lehen honen inpaktua maila ekologiko, kultural zein sozialean kontuan hartzea. Lantalde eta Konbentzioaren dinamikari jarraituz, biodibertsitatearekin loturiko gaiak jorratzen jarraitu du Laugarren Munduak, zeregin honetan hitzarmenari buruz Idazkaritzari komentarioak, ikuspuntuak eta proposamenak helaraziz, bereziki herri indigenei eragiten dieten asuntoetan.

2006an COP8 Curitiban, Brasilgo herrian egin zen. Indigenek hazkunde ekonomikoaren eta karbono-isurien trukaketaren alde egindako apustua gogor kritikatu zuten, baita biofuela lortzeko mundu mailako uzten hazkundea ere. Era berean, basoen kontribuzioa onartzen zen unean herri indigenek hauek mantentzeko egindakoa, euren eskubideak errespetatzea eta partaidetza areagotzea eskatu zuten. Indigenek OJren babesa hobetzeko eta hortik etorritako onurak partekatzeko eta euren eskubideak hobeto babesteko deia egin zuten. Kontuan hartu behar da Brasilgo gobernua bioprodukTuen jatorria erakusteko beharra eta onurak partekatzeko nazioarteko sistema baten bultzatzaile nagusienetariko bat dela. Asmoak asmo indigenek ez zuten askorik lortu. Erdietsiriko aurrerapenen artean honako hauexek aipatzen ditu Scout-ek (2006: 2): indigenak eta tokian tokiko komunitateak laguntzeko borondatezko funts baten onarpena. 8(j)ren Lantaldean nazioarteko erakundeen partaidetza sustatzeko deia, herri indigenen lege zaharrak kontuan harturik indigenen jakinduria babesteko *«sui generis»* sistema garatu dezaten 8(j)ren Lantaldeari emandako agindua; azkenik biodibertsitatearekiko sarrera eta bertatik sorturiko irabaziak partekatzeko nazioarteko erregimena sortzeko ahaleginean, indigenen partaidetza areagotzeko asmoz, gobernu-delegazioetan indigenen partaidetza gehiago egon dadin deialdia zabaldu zuten COPeko partaideek.

Dena dela, argi dago 8(j) artikuluaren gauzatzea posible egiteko oztopo ugari daudela, tartean borondate politikorik eza nagusia izanik. Zoritxarrez COPen partaideek oraindik uko egiten diete derrigorrezko neurriei, hala nola «ondo informatua izan ondoren osoko jakinaren gainean aurretik emandako baietzari» (free, prior and informed consent), eta OJ babesteko beharraz eztabaidatzen jarraitzen dute batzuek.

Sumak Kawsay: mundu gizatiarrago bat eraikitzeko proposamen indigena

Aurreko kapituluetan herri indigenek diplomazia-mailan egindakoak izan ditugu protagonista. Horrexegatik NBEko erakundeekin eta maila horretan ari diren aditu, teknokrata zein estatu-ordezkariekin izandako kontaktuak, bertan gertaturiko aurrerapenak eta oztopoak izan ditugu hizpide, batik bat. Baina zalantzarik gabe maila honetan egindakoa oso inportantea izanik ere, ez du herri indigenek egindakoaren kronika guztia erakusten. Hori dela-eta, epilogo modura doan azken kapitulu honetan herri indigenek gizarte-mugimendu eta sare altermundistekin egindakoa izango duzu hizpide. Preseskiago herri indigenen kulturan sortu, garatu, hedatu eta nazioarteratu den Sumak Kawsay (hemendik aurrera SMK) aztertuko dugu. Aurreko kapituluan, ekologia-garapena eta kultura uztartzeko egindako garapen iraunkorrari erreparatu diogu. Bertan, herri indigenei egindako erreferentzia eta parte-hartzea onartzen bada ere, ezin dira proposamen indigenak kontsideratu eta betiko garapena birpentsatzeko modutzat hartu behar ditugu. SMK, ostera, proposamen indigena garbi-garbia da.

1. DESKAHEH-REN BIDETIK

Liburu honen bosgarren kapituluan irokesen burua zen Deskaheh-k 1923an egindako ahaleginak ez zuela estatuen artean arrakasta handirik izan aipatu egin dugu. Kapitulu horretan nazioarteko erakundeen aurrean euren kasua aurkezteko egindako ahalegin aitzindaria aurkeztu dugu. Deskah-k sinaturiko itunak baliarazteko ahalegina burutu zuen, eta horren bihotzean kultura irokesaren defentsa eta iraupena zeuden. Huts egin bazuen ere, geroxeago mundu osoko indigenek jarraituko zuten bidea erakutsi zuen Deskaheh-k. Garai hartako nazioarteko gizartean hegemonikoa zen egituran ez zuen arrakasta handirik izan. Ostera bai izan zuela Suitzako gizarte zibilaren artean. Deskaheh-k denbora luzea eman zuen han-hemenka herri indigenen kasua defendatzen eta euren nortasuna zein agenda politikoa erakusten. Ordudanik Suitzan beti egon dira herri indigenen alde lan egin duten gizarte-eragileak.

Ordudanik indigenek asko zaindu eta jorratu egin dituzte munduko gizarte zibilekin izandako kontaktuak. Kontaktu horiek agenda paradiplomatiko indigenaren muina dira. Gobernuekin izandako harremanez gain gizarte-eragileekin, komunika-bideekin edo unibertsitate zein sindikatuetako partaideekin izandako harremanak funtsezkoak izan dira herri indigenen gaur egungo politika ulertzeko orduan.

Indigena eta estatu askotako gizarte-eragileekin sortutako hizketaldian funtsezkoa izan da herri indigenek garatu duten erresistentzia. Herri indigenak eta euren lurrak zapaltzen zituen sistema globalitario tekno-industrialari kritika zorrotza egin eta horrela jarraituz gero planeta guztiak jasango zituela ondorioak erakutsi zuten 80 eta 90eko hamarkadetan. Geroxeago, kolonialismo berriak salatzeaz gain, argi utzi zuten behar-beharrezkoa zela aurre egitea Guda Hotzetik garaile ateratako sistema neoliberal harrapariari. 1994an Mexikon matxinada zapatistak altermundisten interesa piztu eta aurpegi indigena jarri zion aldizkatzea helburu zuten ametsei. Geroxeago, Ekuador eta Bolivian lorturiko gobernuak gainera SMK eta indigenen protagonismo politikoaren lekuko izan dira.

Halaber, ordutik hona kapitalismo harrapariak buruturiko era guztietako triskantzak handitu eta biderkatu egin dira kontinente guztietan. Are gehiago krisia kolpatzen duen Europa honetan. Ipuinetako haurrak enperadorea biluzik dabil esan zuen moduan, indigenen garapen erauzitzaile eta menderatzailearen errealitate latz eta iluna erakutsi dute, baita honi zelan aurre egin eta iraun ere. Testigantza hau aurrez aurre gizarte-eragile banakoekin, unibertsitateetan edo mundu mailako gailur altermundistetan parte harturik zabaldu dute.

Aurreko kapituluan ikusi izan dugu indigenek ekologia-eremuan izandako partaidetzaren ondorioz garapen iraunkorrarekin izandako diskurtsoetan irabazi duten presentzia. Presentzia ez ezik, garapen iraunkorraren ardura duten hainbat erakunde eta aldarrikapenek herri indigenen garrantzia eta kontribuzioa onartu dutela ikusi izan dugu ere. Indigenen berezitasuna kontuan hartu bai, baina beti ez indigenen ikuspegitik, eta euren agendari erantzunez.

Gauzak aldatu egin dira 2007an HIGEA onartu zenetik, proposamen indigenek eta euren agenda politikoek presentzia eta indarra irabazi dutelako mundu mailan. Hori dela-eta, gero eta gehiago entzun eta erreparatu egiten zaie indigenek egindako proposamenei. Horien artean, akademiko eta GKE askoren artean azken bolada honetan sona handia irabazi duen «sumak kawsay»ri.

2. ERABATEKO PROPOSAMEN INDIGENA

GIrekin gertatzen ez den moduan, SMK dugu benetako proposamen indigena, indigenen hizkuntzan, herri indigenen borroka, tradizio eta esperientzietatik sortua eta Laugarren Munduaren arrakastari asko zor diona (Prada, 2012). Aurreko kapituluetan aipaturiko nazioarteko diskurtso, onarpen eta lege-markoei erreparatu gabe ezin izango genuke ondo ulertu SMKren protagonismo eta indarra gaur egun.

Ekuadoreko eta Boliviako ketxua eta aymaren artean sortu zen hasiera batean (Tortosa, 2009). Geroxeago Latinoamerikako indigenen artean lehenago eta gero bertako herrietan zabaldu da, NBEko areto eta Europako unibertsitateetara heldu arte. Kontzeptua Hego Amerikan sortu baina indigenen artean agudo zabaldu da. Eurek

izan badituztelako euren kultura eta hizkuntzetan antzeko izenak (Cunningham, 2010).

2000tik aurrera egin ziren gailur altermundista ezberdinetan indigenek parte hartu zuten beste mundu bat posiblea zela esanez. Gailurretan indigenek aukera izan zuten euren ahotsak entzunarazteko eta euren proposamen propioak plazaratzeko. Nazioarteko Erakundeetatik (Munduko Bankua, Nazioarteko Inbertsio Funtsa, zein Nazioarteko Merkataritza Erakundea) inposaturiko doiketa-programen kostua salatu eta bertatik zein estatuetatik inposatzen ari zitzaien eredua sostengaezina zela salatu zuten. Hori onartezina zela erakutsi zieten garapen iraunkorra helburu zuteneni. Are gehiago, gogoratu egin digute garapena, ongizatea, aniztasun etnikoa eta biologikoa, demokrazia, ekonomia eta autodeterminazioari loturik daudela.

Subjektu politiko berria diren indigenek SMK ikuspegi propioa zabalduz, utopia altermundista, kapitalismo globalizatuarekin kritikoa dena, sustatu dute (Prada, 2012). Ahalegin horretan indigenek pobreziaren globalizazioa eta honek sorturiko demokraziaren krisia salatu dute (Chuji, 2009). Euren ahalegin politikoak globalizazioa deitzen dugun prozesu bikoitz honek sorturiko maila askotako gatazka eta biolentzia erakutsi ditu. Baita ere, mendeetan zehar irabazitako herritarren eskubideen txikitzeak salatu ondoren gizarte-hitzarmen berria egiteko beharra defendatu dute. Tokian tokiz, maila estatal zein erregionalean, baita globalean ere burutu beharrekoa dugu SMKren bihotzean dagoen itun berria. Boterearen berrantolakuntza eta ordezkapena birpentsatzeko beharra sustatu dute. Gero eta gehiago indigenen proposamenek bat egiten zuten pobreen ekologismoarekin eta askapen-ekologia deitu denarekin (De Marzo, 2010).

Indigenek neoliberalismo basati eta harrapariari egindako kritikaz gain lortu egin dute euren eskaera lokalak kezka globalekin uztartzea (Arregi, 1993). Naturaren kontserbazioa, aldaketa klimatikoaren ondorioen kontrako borroka, krisia eta energia-arazoak, jaki-subiranotasuna, giza eskubideen urraketa, kultur aniztasuna, demokrazia eta partaidetza eta gobernantza partekatua eskaera globalak dira dagoeneko. Are gehiago, indigenak justizia unibertsala lortu nahi duten mugimenduen erreferentziazko adibide bihurtu dira (De Marzo, 2010: 100).

Euren arazoak toki-tokikoak badira ere, munduak ulertzen duen moduan hitz egiten dute (Arregi, 2010). Indigenek gizateriak dituen arazoen iturria bere globaltasunean kritikatzeaz gain, aldizkatzea garatzeko orduan sare eta aliantzak eraikitzea proposatu dute Era horretan, konponbide globalak sustatzeko gonbitea zabaldu dute. Justizi sozial eta ekologikoa euren mezuetan intimoki lotzen dutelarik. Horretaz gain, edozein abanguardismoren kontra egonik, aktore ezberdinen eta geografikoki urrun daudenen arteko lankidetza defendatzen dute: helburu berdinak eta justizia-espiritua dituztenen arteko aliantza, hain zuzen ere. Aliantza hori ez litzateke soilik enpatian oinarrituko. Honi komunezko igurikimen politikoa eta mundu mailan eman behar den garapen-modeloen aldaketa sakon baten beharraren

sinesmena eta horren aldeko lana gehitu beharko genizkioke. Honek guztiak herrien arteko aliantzaren itxura eman dio euren proposamenari.

Aldaketa eraikitzeko orduan indigenek argi utzi dute ez dutela berriro ere behialako abangoardismorik onartuko (De Sosa, 2010). XX. mendean anitz izan ziren pairatu zituzten horrelako esperientziak eta ez dute asmorik bide horretatik inolaz abiatzeko. Abangoardismoa eta honekin loturiko botere hierarkikoaren egitura errefusatu egiten dira euren proposamenetan. Honi aldizkatze egiteko orduan ahots, aktore zein geografia-kulturen aniztasuna defendatzen da, eta euren arteko hierarkikoa ez den harremana (Gudynas, 2010). Era berean ahots-aniztasuna ezin dela Mendebaldeko demokrazietan nagusi den ordezkapen-sistema klasiko soilean erori iragarri dute. Erabateko adostasunaren bila dabilen kontsentsuaren demokrazia defendatuko dute (Sander, 2010). Denbora luzeagoa eskatu arren hartutako erabakien legitimazio-maila goratzen duena hain zuzen. Ideia hau islatzen da Marcos komandanteak egin zuen proposamenean: «Mundu asko bere baitan dituen mundu bat» defendatzen zuenean. Proposamen hori egitean liburuko beste kapituluetan jorraturiko autodeterminazio eta ohizko gobernu zein kultura indigenen papera erreibindikatu eta goratu egin da.

Proposamen hauek altermundisten eta ezkerreko mugimenduen interesa harrapatu dute, batik bat Latinoamerikan. SMK erakargarri bihurtu da krisialdian eta kapitalismoaren aurrean proiektu argia ez duen ezkerrarentzat (De Marzo, 2010). Ezkerrarentzat agertu dira zenbait subjektu politiko berri Iparraldean zein Hegoaldean garrantzia irabazi dutenak. Horien artean herri indigenak eta SMK aurkitzen ditugu nabarmenak.

2.1. Kultura indigenetan erroturik

SMK indigenek buruturiko aldizkatzea eta utopia dela esan dezakegu, modernotasunarekin eta beroni loturiko garapenarekin kontrastean sorturikoa dugu, eta berorren bitartez indigenek pairaturikoa ikasteko parada dugu (Gomez, 2012). SMK delakoak estatuek eta euren aliatuek sustaturiko garapen-modeloaren kritikan eta oso-osorik aldizkatzea burutzeko gogoan arrazoitu du bere jatorria (Cunningham, 2010). Herri indigenen kultura, historia, errealitatea eta egungo borrokak kontuan harturik garatu da; Choqueuanak (2010) eta Huanacunik (2010) SMK garapenaren kontzeptu berari kontrajartzen zaion ikuspegi indigena, erradikala eta aldizkakoa dela diote. Ongizatea, jabetzarekin, ekoizpenarekin nahiz kontsumoarekin lotuta dagoena baztertu egiten du. Horrexegatik, SMK-k errotik kritikatzen du garapena. Garapena lortzeko beste gizaki batzuk edo natura zapaldu egin behar direlako. SMK delakoak ez du hobeto bizi nahi hobekuntza hori besteren lepotik lortzen delako. Lehia, esku apur batzuetan pilaturiko irabazia, norbanakokeria, besteekiko ardura falta eta indibidualismoa errefusatu egiten ditu indartsuki. SMK ez dator bat luxu, xahukeria eta kontsumismoarekin. Are gehiago, eurak dira gogor-gogor borrokatzen dituen etsaiak.

Lehen baino lehen, globalitarismoari aurre eginez SMK-k zer ez duen nahi argi utzi behar dugu. SMK erradikala da hobeto bizi nahi ez duela dioenean. Kontzeptu hau globalizaziorekin loturiko garapenaren ideologiarekin eta modernokeriarekin loturik dagoela salatzen dute (Chuji, 2009). Hobeto bizitzea ondo bizitzea baino gehiago omen delako diote hori. Eta egoera hori erdiesteko derrigorrez norbait edo zerbait esplotatu eta menderatu behar delako uxatzen dute. SMK-k ez du indibidualismoa, lehiakortasuna eta produktibitatea jainko hartzen, eta ez du kultura eta errealitate indigenen gutxiespenarekin bat egiten. Are gehiago, XX. mendeko borrokaren agenda gaurkotuz euren kultura eta nortasunen balioan oinarrituko dute aldizkatzea. Yanparak (2001) dioskunez, helburua konkistatzea baino beste gizaki eta izakiekin orekan eta harreman baketsuan eta osasuntsuan egotea da. Industralismo globalitarioak sustatzen duen homogeneizazio eta lehiakortasunari aurre egiten dio horrela, irtenbide indigena azpimarratuz. Europan sortu eta XX. mendean nagusi ziren ideologien aurrean Yanparak zera dio «gizon aymara ez da ez kapitalista ez sozialista» (Gudynas, 2011: 9), horrela ideologia biek duten kutsu industrialistatik ihes eginik.

Garapena ez da indigenentzat bizi-kalitatearekin lotzen, eta SMK delakoak ez du zerikusirik ondare materiadunaren pilatzearekin. SMK oinarrizko beharrak lortzearekin eta bizitza harmoniatsua izatearekin dago kezkatuta, bai gizabanako mailan bai talde moduan. Harmonia naturarekin, herriko bizilagunekin eta beste lagun hurkoekin. Harmonia ere gizon-emakumeen zein kultura ezberdinen artean. Honek kontra egiten dio natura zein gizabanako nahiz herrien esplotazioa helburu duen ideologia eta praxiari (Choquehuanca, 2010). Anaitasuna eta osagarritasuna izango dira oinarri-oinarrizko printzipioak (Chuji, 2009). SMK-k helburu duen munduan esplotatzaile-esplotatu, batzertzaile-baztertu antzeko dikotomiak gainditu egingo lirateke. Esan beharrik ez dago luxu, norberekoikeria, oparokeria, kontsumozalekeria eta xahutzearekin bat ez datorrela.

Proposamen honetan industriazaletasunaren meneko den garapenak sorturiko esperientzia ezkorra izan da eta bertan behera utzi behar da. Haren ordez bizidunekin eta euren ekosistemetan dauden guztiekin harreman osasuntsua, guztion onura lortuko duena aldarrikatzen dut, bertako kultura eta nortasunen sendotzea bilatzen delarik.

2.1.2. Kosmoikuskera indigena, kultura eta lurraldea

Kultura indigenan eta honek duen mundua ulertzeko irudian oinarrituko dira. Gizabanako zein talde indigenen ekintzen gibelean dagoen pentsamendu eta jarrera filosofikoa dugu. Herri indigenek gizaki, natura eta unibertsoarekin harmonia bilatzen dute euren harreman politiko, ekonomiko eta sozialak eraikitzeko orduan, errespetua eta berdintasuna funtsezko kontzeptuak direlarik.

Herri indigenek historia luzea dute, baita berezko erakunde politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalak ere. Eremu hauetan jorraturiko esperientzia luzea eta zabala da. Hau iraunkortasuna eta ezustezko erresilientziaren giltza izan da, baita nortasun indigenaren iturria ere. Nortasun indigenaren gainean eraikitzen da elkartasuna. Biak uztarturik aurkituko ditugu SMK delakoan.

SMK indigenak unibertso, gizateria eta naturaren arteko harreman sistemiko, hautsiezin eta elkarrekikoak hartzen ditu aintzakotzat (Cunningham, 2010). Horretan datza proposamen hau ondo ulertzeko kode nagusia. Harreman horretatik sortzen dira ingurumena zaintzeko, «bizitza osoa eta zoriontsua» erdiesteko eta euren ongizatea lortzeko. Hemendik sortuko dira aipaturiko helburuekin loturik dauden harmonia, errespetua eta oreka. Indigenen aburuz komunitarismoa, denboraren erregistroa, oreka eta harmonia, kontsentsua, elkarrizketa, errespetua eta zuzentasunaren bilaketa dira iparrorratz nagusiak.

SMK-k eraketa propioa eta honekin loturiko instituzioak hartuko ditu bereziki aintzat. Elkarrekikotasuna eta harreman hautsiezinak ditu goiburu. Ahalegin honetan azpimarratu egiten dute nortasuna eta herri-izaera bizi diren estatuak sortu aurretik zutela, eta ordudanik inposizio-ahaleginei aurre eginez, maila guztietan euren erakundeak mantendu dituztela (Choquehuanca, 2010).

Erakundeekin batera ekosistema da funtsezkoa. Euren lurraldeetan kokatuta dauden hauek ez dute soilik balio ekonomikorik, indigenentzako biziaren sarearen parte direnen tokia da eta guztiek dute arima. Maila espiritual hau bizidunak eta bizigabeak intimoki lotzen dituena ezin da ahaztu.

Faktore horiekin batera, ama lurrarekiko lotura herri-nortasun, gizarte-egitura zein ekosistemarekin ukan beharko harremanarekin baldintzatzen dute. Bertan aurkitzen dute iturria nortasun- eta kidetasun-sentimenduek (Jaramillo, 2010). Ama lurra bera eta banaezina da, herriarena eta ezin da zatitu ez saldu, talde-jabegoa da eredua eta ez jabego pribatua. Are gehiago lurraldea izango da gizaki eta ama lurraren arteko harremana gauzatzen duen esparrua. Lurraldea eraketa sozialerako agertokia da eta sistema juridikoa, ekonomikoa, kulturala zein soziala bertan garatuko dira (Prada, 2012).

Lurraldearekin lotuta garatu da herri indigenen OJ, ezagutza-sistema konplexu eta eraginkorra bihurtu delarik. Horri lotuta, indigenek elkarbizitza, osagarritasuna eta oreka, besteren artean, garatu dituzte. Eremu honetan hizkuntza, ohiturak eta usadioak, tradizioak, jantziak, elikagaiak, artisautza eta antzekoak lehenetsiko dira (Bamba, 2010). OJrekin eta autodeterminazioarekin loturiko beste eremu inportante bat jaki-segurtasunarena da: bertan produzitu eta ereiten ziren jakiak, euren haziak eta abar mantentzeko ahalegin handia egin dutelako indigenek. Osagarri kultural honek izugarrizko garrantzia du osasunarentzat eta bereziki haur-osasunarentzat (Corntassel, 2008).

Jakiekin batera, osasun-sistema propioa zein harekin loturiko usadioak mantentzea eta sendotzea da beste helburu bat. Hemen ere, hasiak dira WHOrekin lan egiten ohiko sendakuntza eta osasun zientifikoaren arteko elkarlana bultzatzeko (Chivian 2002; Colfer, 2008). Indigenen ustez, osasunak alderdi fisikoak, sozialak, espiritualak, ingurukoak zein ohiko lurraldeen eskubideekin lotutakoak besarkatzen ditu. Hori dela-eta, ezinbestekoa da euren ingurumena garbi mantentzea, osasun eta gaixotasunarekin loturiko ezagupena eta ingurumenaren errespetuan oinarrituriko natur kudeaketaren aldeko apustua sustatzea, funtsezkoak gertatzen baitira herri indigenen ongizatea bermatzeko (Colfer eta alia 2006; Health Council of the Netherlands eta alia 2004). Oreka honetan datza SMKren bihotza eta funtsa.

Gai hauekin ere lotuta aurkituko dugu euren ekonomia. Euren beharrak asetzeko prozesua baina euren erakunde eta jakindurian oinarrituta, gainera, jaki-segurtasuna erdiestea helburu duena (Cunninham, 2010). Hazkunde eta irabazi nahiz produktuen pilaketa baino gehiago biziaren erreprodukzioa bere eremu guztietan eta biziaren sarean partaide direnen arteko oreka da azpimarratzen dena.

Ondorioz, SMK delakoak ikuspegi propioa du, euren kultura, esperientzia eta jakintzetatik jaioa izanik. Gainera euren helburuei eusteko partaidetzak eraikitzea helburu izanik, elkarlan-sareak komunitatearen kontrolpean daudenak bultzatuko ditu. SMK kultura indigenetatik atera eta euren hizkuntzan garatu da, bai eta euren erresistentzia-esperientziaren poderioz ere. Indar deskolonizatzaile ikaragarria izanik, antropozentrismo eta ekozentrismoan oinarrituriko ikuspegiak apurtzen ditu (Acosta, 2008) eta eskubide zein eginbeharren zerrenda handitu egin ditu, bertan ama lurraren eskubideak eta berarekiko eginbeharrak aurkituko ditugularik.

SMKren giltza eta iturri nagusia tokian tokiko kultura indigenetan datza. Baina kulturak ekosistema eta lurralde zehatz batekin etengabeko elkarreraginean garatu dira. Lurraldea eta kultura ezin dira inolaz ere banatu (Cunningham, 2010). SMKren defentsa egiteko indigenek lurraldearen garrantzia jarri dute mahai gainean. Lurraldea faktore bateratzailea izango da, bertan bizi eta iraun nahi duten komunitateentzat. Bertan bizi eta hazi da aniztasun kulturala eta bertan loratuko dira aukerak. Lurraldean zentratu da borroka politikoa eta gizarte-aldaketa. Lurraldeari lotuta garatu dituzte indigenek euren proposamen alternatiboak. Lurraldean berreskuratu eta aplikatu dute OJ. Bertan garatzen ari dira ere hezkuntza-sistema antikolonialista, «*ayllu*» *quechua* eta aimarentzat euren kulturaren zentroa bihurtu dutelarik. Beraz, indigenen ustez, bizi dugun sistema globalitaristari lurraldetasun zehatz eta herri anitz nahiz solidarioen aldizkatzea kontrajarriko zaio: horrela bakarrik konponduko dira gatazkak eta bizi dugun krisia. Cunningham-ek (2010) gogoratzen digun legez, ezin da SMK garatu autodeterminazio-eskubidea onartzen ez bada, eta lurralde indigena mehatxupean bizi bada, ezta herri indigenen bizi-baldintzak gero eta kazkarragoak badira, edota biziraupena txikiagoa bada indigenen artean.

Aurreko kapituluetan ikusi dugun moduan, lurraldearekin lotuko da autodeterminazio-eskubidea eta lurralde zein herri indigenen etorkizunean eta herri-interesetan eragina duen edozer gertatu baino lehen eurekin kontsulta egiteko beharra (Arregi, 2010). Arrazoi honegatik autodeterminazioa gauzatzen duen autogobernua eta berari loturiko burujabetasuna funtsezko-funtsezko auziak dira. Autodeterminazioa garatuz, burujabetza izanik eta lurraldearen gaineko kontrola ezarrita has daitezke berregiten kultura, errekuperatzen edo gaurkotzen.

3. SMK ETA XXI. MENDEKO SOZIALISMOA. ELKARRIZKETA ALA BESTERENTZEA?

Ekuador eta Boliviako gobernu berriek euren herrietan mendeetan egondako gobernu autokratiko eta liberalen ondoren Europako mugimendu altermundista eta XXI. mendeko sozialismo berriaren erreferentea bihurtu dira (Gaudichaud, 2010). Erreferente izatea mesedegarria izan da indigenentzat, herri indigenek lorturiko protagonismoa handia izan baita. Hori dela-eta, konstituzio berriek aipamena egiten diote SMKri (Tortosa, 2009). Gainera, sozialista berriek defendatzen duten beste moduko gizarte berri horretan SMK aipatzen dute paradigma aldizkako gisa, proiektu ekosozialista eta indoamerikarra den neurrian (Gaudichaud, 2010). Are gehiago kontzeptuaz jabetu direla ere esan daiteke (Prada, 2012). Ahalegin horretan SMK indigena beste ikuspuntu, borroka eta tradizioekin nahastuta aurkituko dugu (De Sousa, 2012). Modu batean edo bestean proposamen zibilizatzaile aldizkako gisa aurkezten zaigu (Larrea, 2010) Beraz, XXI. mendeko sozialismoaren proposamenean SMK-k bere toki propio eta berezia izango du (Ramirez, 2010).

Sozialismo berriak onartu egiten ditu globalizazioaren eta estatu kriolloren periferiatik datozen proposamenak. Helburua, behialako abangoardismoa eta homogeneizazio erretoriko, politiko eta kulturala alboratzea da (De Sousa, 2012). Ildo horretatik abiatuta, SMK herri indigenen kontribuzioa izango da gizarte berria eraikitzeko orduan (Gudymas, 2010).

Sumak Kawsay kapitalismo globalitaristari erronka egiten diolako da maitea. Erresistentzia eta errebeldiaren ikurra dira indigenak kolonialismo luze, garratz eta gogor baten aurrean. Hori onartu eta goratu egiten da. Gainera, aldizkatze indigena honek bizidunen arteko harmonia, oreka eta elkarrekikotasuna aintzat hartzen dituen proposamen zibilizatzaile berria gorpuztu dio gehienbat ekosozialismoari. Balio hauek, gizakion arteko harremanak ez ezik, gizakiok naturarekin dugun harremana ere gidatuko lukete. Era horretan, gizarte modernoek goiburu izan duten antropozentrismoarekin amaituko litzateke. Baita talde altermundista erradikal batzuen ekozentrismoarekin ere. Oinarrian era guztietako bizidun zein bizigabeek gorpuzten duten aniztasuna dugu, eta lortu beharreko guztion arteko harmonia. Elkartasun berri hau maite du XXI. mendeko sozialismoak.

Era honetan SMKn nortasun kolektiboa eta indibiduala uztartu egiten dira gertu-gertukoa eta unibertsala konbinatuz modu berrian. SMK teoriko ezkertiarren ikuspegitik biziaren erreprodukzioaz arduratuko litzateke eta ez produkzio eta pilaketaz (De Marzo, 2010). Horrekin batera, produkzio-moduen aniztasuna errekonozituz, ekonomiaren funtzioa modu berritzailean ulertzeko leihoa zabaldu du: SMKrentzat subiranotasuna eta autonomia dira inportanteak. Hauek ekonomia, jaki-produkzio, energia-sorkuntza zein finantza eta integrazio politikoaren goiburu izango dira (León, 2010).

Maila politikoan ikuspegi honetatik estatu-birfundazioaren muinean nazio-aniztasuna eta indigenen propio diren arlo askotako egiturak eta gobernuak hartuko dira aintzakotzat eta aurkituko dira konstituzio berriaren muina. Estatu-nazio aniztuna herri indigenen errealitatea eta dibertsitatea kontuan dituena goratuko da. Konstituzioa natura, gizabanako zein taldeen eskubideekin solasaldian eta eurekin zein euren arteko elkarrizketei erreparatuz eraiki dela argudiatzen da. SMK-k kudeaketa konpartitu hutsa gainditu egiten duela diosku De Marzo-k osagarritasun eta elkarrekikotasunaren gainean eraikitako hurbilketa erlazionala lehenetsiz (2010).

SMK-k hazkuntza, ongizatea, kontsumoa, produktibitatea, lehiakortasuna eta errentagarritasuna jainko dituen modeloari kontra egiten dio. Lehen Munduak inposaturiko espezializaziotik urrundu ondoren, aniztasun ekonomiko eta produktiboan aurkitzen du oinarria. Sumak ikuspegian ekonomiak sorkuntza- eta birsorkuntza-prozesuetan zentratuz biziak sortu eta sortu egin dezan baldintzak eraikitzeko mandatua hartuko du. Natura zein gizakion beharretara makurturiko ekonomia izango da helburua. Horrela demokrazia eta ekonomia uztarturik agertuko dira (De Marzo, 2010). Baliabideak erabiltzeko eskubide-zilegitasuna onartuko da baldintza ekitatiboak ezarriz, antzinako euskaldunak egiten zuten legez. Horretaz gain, aktore ezberdinen, lurralde ezberdinen, prozesu zein harreman ekonomiko anitzen balioztatzea bilatuko da.

Sumak justizia eta oreka goiburu izanik, produkzio-harreman herritarrak defendatuz, antropozentrismotik bioaniztasunera pasatzea du lehen erronka. Horrekin batera gizarte berria ikuspegi hegemonikoaren kontra arituz, baldintza material eta sinbolikoak berrinterpretatuz, araudi berria ezarriz eta kontzeptu neoliberaletatik bereiziz burutu nahi da. Hau guztia partaidetza sustatuz burutu behar delarik. Prozesuak bost ardatz izango lituzke. 1. Iraultza etikoa. 2. Iraultza sozioekonomikoa. 3. Iraultza politikoa. 4. Aberri duina eta solidarioa. Azkenik, 5. Latinoamerika mailako integrazioa (Senplades, 2009).

3.1. Indigenek egindako kritika

Hasiera batean Ekuador eta Bolivian estatua birpentsatzeko eta berregiteko ahaleginean indigenak buru belarri sartu baziren ere, orain jarrera kritikoa dute. Erretorikan abangoardismoa iraganeko gauza zela behin eta berriz errepikatu behar

bada ere, estatuak SMK bereganatu egin du eta utzi egin dio gizarte-mugimenduekin lan egiteari, indigenek salatu dutenez (Prada, 2012). Iraganeko portaera batera itzuliz estatua izango da SMKren agenda markatuko duena (Gudynas, 2010). Era horretan, SMK estatu-zeregin bihurtu eta burokratizatu egin da (Sanchez, 2010).

Horrekin batera estrategia erauzitzaileekin jarraitzea leporatu egin zaie Bolivia eta Ekuadorreko, eta Brasilgo estatuei. Are gehiago, gero eta latzagoak dira natur baliabideak esplotatzeko egindako ahaleginak (Gydynas, 2010). Mehatzak zabaldu eta nekazaritza-lurrak bioerregaia lortzeko uztekin bete dira. Beraz, baliabideen gaineko gobernu-kontrolak eta gizarte-politiken sustapenak ez du eragin betiko produkzio-sektoreetan inolako aldaketa sakonik. Ondorioz, herri indigenen lurraldeetan dauden baliabideak ustiatzen eta bereganatzen jarraitzen dute (Torre, 2011). Hona heme Evo Moralesen hitzak:

> No puedo entender que hermanos indígenas del oriente, de la Amazonía y del norte paceño se opongan al desarrollo que requiere el pueblo boliviano. Si bien Bolivia es respetuosa del medio ambiente, no puede dejar de desarrollarse explotando racionalmente sus recursos naturales… Es una necesidad tener más petróleo, más gas, más caminos e industria (Barrosok, 2012 aip).

Portaera horrek zalantzan jartzen du SMKrekiko zinezko konpromisoa eta herri indigenekiko diskurtsoa (Tórrez, 2012). Estatu erauzitzailearen errealitateak gogor jotzen duelako berarentzat estrategikoak diren baliabideen gaineko kontrola eskuratu behar denean.

Horrekin batera indigenek sakoneko beste kontraesan bat leporatzen diote sozialismo berriari. Hain zuzen ere, herri indigenen aniztasuna gainditzeko eta irensteko joera historiko eta kolonialistarekin ez amaitzea:

> Al ser la construccion del Estado socialista (en el que desaparecerian las diferencias) el proposito central de toda organizacion de izquierda, las particularidades etnicas terminan siendo asuntos secundarios en las preocupaciones de obreros y campesinos. Serian movimientos pasajeros, y por lo tanto con dificultades para transformarse en sujetos sociales. Se ensalzan los levantamientos de origen etnico, como manifestaciones de rebeldia de los pueblos, pero las etnias estan condenadas a la inexorable disolucion en una sociedad sin clases. Son importantes en su transitoriedad, como fuerzas que hacen parte del caudal revolucionario (Jaramillo, 2010).

Erabilitako akronimoak

BBK. Bioaniztasunari buruzko Konbentzioa.

BBNF. Bioaniztasunari buruzko Nazioarteko Foroa.

CANZUS. Kanada, Australia, Zeelanda Berria eta AEBk osatzen duten ardatza, tinko borrokatu da urteetan zehar HIGEAren aurka.

COICA. Confederación de Organizaciones de la Cuenca Amazónica.

COP. Conference of the Parties. BBK-ko Kideen Biltzarra

ECOSOC. Economic and Social Council of the United Nations.

EPZNK. Eskubide Politiko eta Zibilen Nazioarteko Konbentzioa.

ESKNK. Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Konbentzioa.

ET. Erakunde Transnazionalak.

GKE. Nazioarteko Gobernuz Kanpoko Erakundeak.

GI. Garapen iraunkorra.

GIFI. Gai Indigenei buruzko Foro Iraunkorra.

HIFI. Herri Indigenen Foro Iraunkorra.

HIGEA Lantaldea. 1995eko HIGEAri buruzko Lantaldea.

HIGEA. Herri Indigenen Giza Eskubideen Aldarrikapena.

HIKE. Herri Indigenen Kanpo Ekintza.

HIMB. Herri Indigenen Munduko Batzarra.

IITC. International Indian Treaty Council.

IUCN. International Union for Conservation of Nature.

MME. Munduko Merkataritza Erakundea.

NBE. Nazio Batuen Erakundea.

NLE. Nazioarteko Lan Erakundea.

NZ. Nazioarteko Erakundeak.

OBGE. Ohiko Baliabideen gaineko Eskubideak.

OJ. Ohiko Jakinduria.

PIL. Populazio Indigenen Lantaldea.

TRIPS. Agreement on trade-related aspects of intellectual property rights.

UNDP. United Nations Environment Programme.

UNEP. United Nations Development Programme.

UNESCO. United Nations Educational, Scientific and Cultural Organization.

WIPO. World Intellectual Property Organization.

WWF. World Wildlife Fund.

Une garrantzitsuen kronologia

1919. NLE eratu zen.

1945. NBE sortu zen.

1946. NBE sistemaren kide bihurtu zen.

1948. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala onartu zuen NBEko Batzar Orokorrak.

1953. NLEk estreinakoz herri indigenei buruzko txostena argitaratu zuen: *Indigenous Peoples: Living and Working Conditions of Aboriginal Populations in Independent Countries*.

1957. NLEk Populazio Indigena eta Tribalei dagokien 107 Ituna onartu zuen.

1962. Arraza Bereizkeria Ezabatzeko Batzordea eratu zuen NBEk.

1965. Arraza Bereizkeria Ezabatzeko Nazioarteko Konbentzioa onartu zuen NBEko Batzar Orokorrak.

1966. Eskubide Politiko eta Zibilen Nazioarteko Ituna onartu zuen NBEko Batzar Orokorrak

1966. Eskubide Ekonomiko, Kultural eta Sozialen Nazioarteko Ituna onartu zuen NBEko Batzar Orokorrak.

1966-70. Hernan Santa Cruz diplomatikoak egindako txostenean indigenei propio zuzenduriko txosten baten beharra azpimarratu zuen.

1971. Martínez Cobo Errelatore Bereziari herri indigenen egoerari buruzko txostena idazteko agindua eman zitzaion.

1977. GKEek lagunduta lehendabiziko aldiz egin zen herri indigenen aurkako bereizkeriari buruzko nazioarteko konferentzia bat.

1978. NBEko Batzar Orokorrak maputxeen aldeko ebazpenak onartu zituen.

1979. Emakumeen kontrako Bortxakeriaren Aurkako Konbentzioa.

1982. Populazio Indigenen Lantaldea sortu zen Giza Eskubideei buruzko Batzordearen barruan.

1981-84. Martínez Coboren txosten trinko eta mardula argitaratu zen.

1984. Torturaren aurkako Konbentzioa onartu zen.

1985. Populazio Indigenak laguntzeko NBEren Borondatezko Funtsa eratu zen.

1987. Eskubide Kultural, Ekonomiko eta Sozialen Batzordea sustatu zen.

1989. NLEk Herri Indigenei buruzko 169 Ituna onartu zuen.

1989. Haurren Eskubideei Buruzko Konbentzioa onartu zen.

1992. Rio de Janeiron Lurraren Gailurra burutu zen eta harekin loturiko Agenda 21.

1993. PILek HIGEAren zirriborroa onartu zen.

- NBEk izendatu egin zuen 1993 Populazio Indigenen Urtea.

- Vienan Giza Eskubideei buruzko Mundu Konferentzia egin zen. Bertan Foro Iraunkorraren aldeko aldarrikapena egin zen.

- BBK onartu zen.

1994. Giza Eskubideei buruzko Batzordearen Azpibatzordeak HIGEAren zirriborroa onartu zen.

- NBEko Batzar Orokorrak izendatu egin zuen 1995-2004 Munduko Herri Indigenen Hamarkada.

1995. HIGEAri buruzko Lantaldea sortu zen Giza Eskubideei buruzko Batzordean.

2000. Gai Indigenei buruzko Foro Iraunkorra onartu zen NBEren egituraren barnean.

2001. Giza Eskubide eta GaiIndigenei buruzko Errelatore Berezia izendatu zen.

2007. PIL desagertu eta Herri Indigenen Eskubideen Gaineko Adituen Mekanismoa sortu zen.

2007. HIGEA onartu zuen NBEko Batzar Orokorrak.

Bibliografia

Acosta, E. G. A. (2008): «El "buen vivir": objetivo y camino para otro modelo», *ALAI*, *América Latina en Movimiento*, 1-9.

————————, (2008): *El buen vivir mas allá del desarrollo,* <http://es.scribd.com/doc/52609913/El-buen-vivir-mas-alla-del-desarrollo>.

Acosta1, A. (2008): «El Buen Vivir, Una Oportunidad Por Construir», *Revista Ecuador Debate,* **75,** 33-48.

Adams, W. M. eta Mulligan, M. (2003): *Decolonizing Nature Strategies for Conservation in a Post-colonial Era,* Earthscan Publications, Londres.

African Group (2006): *Aide Memoire* [2006-12-03an ikusia: ttp://wwwhttp://www.iwgia.org/graphics/Synkron-Library/Documents/InternationalProcesses/DraftDeclaration/AfricanGroupAideMemoireOnDeclaration.pdf].

African Union Organization (2007): *Decision on the United Nations Declaration* [2007-10-02an ikusia: http://www.iwgia.org/graphics/SynkronLibrary/Documents/InternationalProcesses/DraftDeclaration/AUDecisionOnUNDeclarationDec_2006.doc].

Aguirre, I. (2001): «Paradiplomacia : las relaciones internacionales de las regiones», in P. Aldecoa eta M. Keating (ed.), *¿Qué sentido tiene hablar de paradiplomacia? Una encuesta intertexual en torno a un neologismo polisémico,* ISBN 84-7248-806-3.

Åhrén, M. (2007): «The UN Declaration on the Rights of Indigenous Peoples. How was it adopted», *Galdu,* **4.**

Alfred, T. eta Corntassel, J. (2004): «A decade of rhetoric for indigenous peoples», *Indian Country Today* [2006-01-03an ikusia: http://www.indiancountry.com/content.cfm?id=1084285271].

Alfredsson, G. (1998): «Access to International Monitoring Procedures: choices between self-determination and the human rights groups», in M. Van Walt etaO. Seroo (ed.), *The Implementation of the Right of the Self- Determination as a Contribution to Conflict Prevention,* UNESCO Centre of Catalonia, Bartzelona.

Allen, M. H. (1988): «What Does "Third World" mean?», in J. eta A. Norwine (ed.), *The Third World: States of Mind and Being,* Hunwin Hyman, Boston.

Alvarez, N. (2004): «Nuevos Espacios para los Pueblos Indígenas en Naciones Unidas: Un reto para el discurso, el diálogo y la representatividad», in F. Mariño eta D. Oliva (ed.), *Avances en la Protección de los Derechos de los Pueblos Indígenas* Dyckinson, Madril.

Alvarez, N. (2008): *Pueblos Indigenas y Derecho de Autodeterminación: hacia un derecho internacional multicultural,* Universidad de Deusto, Bilbo .

Anaya J. (2006): «Los Derechos de los Pueblos Indígenas», in M. Berraondo (ed.), *Los derechos de los pueblos indígenas: esperanzas, logros y reclamos,* Universidad de Deusto, Bilbo.

————————, (1991): «Indigenous Peoples and Their Demands within the Modern Human Rights Movement», in Danieli, Y. (ed.) (1991): *The Universal Declaration of Human Rights,* Amityville, NY.

————————, (1996*): Indigenous Peoples in International Law,* Oxford University Press, New York.

————————, (1998) «Understanding the Contours of the Principle of Self-Determination and its Implementation: implications of developments concerning indigenous peoples», in M. Van Walt eta O. Seroo (ed.), *The Implementation of the Right of the Self- Determination as a Contribution to Conflict Prevention,* UNESCO Centre of Catalonia, Bartzelona.

————————, (2002): *International Developments Regarding Indigenous Peoples,* Judges Conference, Tucson.

————————, (2004): «International human rights and indigenous peoples: the move toward the multicultural state», *Arizona Journal of International & Comparative Law,* **21(1),** 14-61.

————————, (2004): *Indigenous Peoples in International,* Law [2. ed.], Oxford University Press, Oxford.

————————, (2003): «Los Derechos de los Pueblos Indígenas», in F. Gomez, *La Protección Internacional de los Derechos Humanos en los albores del siglo XXI,* Universidad de Deusto, Bilbo.

————————, (2004): «Pueblos Indígenas, Comunidad Internacional y Derechos Humanos en la Era de la Globalización», in F. Mariño eta D. Oliva (ed.), *Avances en la Protección de los Derechos de los Pueblos Indígenas,* Dyckinson, Madril.

Anderson. M. (2000): O*ur Children´s Heritage and Future Submission to 18th Session Working Group on Indigenous Peoples,* Sub-Commission on the Prevention of Discrimination and Protection of Minorities, Geneva.

Andrade, G. (2001): «Conservation through Confiscation», *Conservation Biology*, **15(5),** 1.467-1.469.

Arkonada, K. (2009): «No queremos estados que saqueen y militaricen nuestros pueblos», *Gara,* 2009-5-27, 22. or.

Arregi J. I. (1993): *Sustainable Development and Ethnodevelopment: A new Framework for the Resolution of a Centuries Old Conflict* (Master Thesis, University of Iowa).

————————, (1994): «Ez Ezazu Desagerturiko Indioen Mitoa Sinestu», *Larrun,* **23,** 21-31.

————————, (2006) «Oro Verde y Biopirateria. Cara y Cruz de un Reconocimiento Instrumental de los Pueblos Indígenas», in H. Bernal; M. Onaindia; A. Ibabe eta R. Bermejo (koor.), *Amazonia. Biodiversidad Sostenible,* Euskal Herriko Unibertsitatea - Universidad del País Vasco, Bilbo.

————————, (2011) *Laugarren mundua: herri indigenen erbeste ekintza, onespen eta aldaketa eragile nazioarteko harremanetan 1992-2007,* <http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Joseba_Inaki_Arregi_TESI.pdf>.

Bamba, J. (2010): *Indigenous Peoples Self-Determined Development & Lessons from.*

Barbe, E. (2003): *Relaciones Internacionales* (2. ed.), Editorial Tecnos, Madril.

Barie, C. G. (2003): *Pueblos Indígenas y derechos constitucionales en América Latina: un panorama,* Instituto Indigenista Interamericano, Mexiko DF.

Barrañeda, I. (ed.) (2006): *Alianza de Civilizaciones. Seguridad Internacional y Democracia Cosmopolita,* Editorial Complutense, Madril.

Barsh, R. (1986): «Indigenous People: An Emerging Object of International Law», *American Journal of International Law*, **80,** 369-385.

————————, (1990): *«*An Advocate´s Guide to the Convention on Indigenous and Tribal Peoples», *Oklahoma City University Law Review,* **15(1),** 209-236

————————, (1994): «Indigenous Peoples in the 1990s: From the Object to the Subject of International Law?», *Harvard Human Rights Journal,* **7,** 1-86.

————————, (1995): «The Aboriginal Issue in Canadian Foreign Policy International*», Journal of Canadian Studies / Revue internationale d'études canadiennes,* **12,** 105-134.

————————, (1998): «Indigenous Peoples and UN Commission on Human Rights: A Case of the Immovable Object and the Irresistible Force», *Human Rights Quarterly,* **18,** 782-813.

Barth, F. (1969): «Introduction», in F. Barth (ed.), *Ethnic Groups and Boundaries,* Norwegian University Press, Oslo.

Bengoa, J. (1992): «Servidumbres y Territorios: Españoles y Mapuches», in M. Gutierrez; M. Leon-Portilla; G. H. Gossen eta J. K. d. Alva (ed.), *De Palabra y Obra en el Nuevo Mundo,* Siglo XXI Editores, Madril.

————————, (2007): *La emergencia indígena en América Latina,* Fondo de Cultura Económica, Mexiko.

Berraondo, M. (2005): «Pueblos Indígenas y Recursos Naturales bajo el Sistema Interamericano de Derechos Humanos. Entre la privatización y el ejercicio de los Derechos Humanos», in A. Wilhelmi (ed*.), Caminos hacia el Reconocimiento,* Universidad de Girona, Girona.

————————, (2006): «Tierras y territorios como elementos sustantivos del derecho humano al medio ambiente», in M. Berraondo (ed.), *Los derechos de los pueblos indígenas: esperanzas, logros y reclamos,* Universidad de Deusto, Bilbo.

Biopiracy in the Amazon [2004-07-06an ikusia: http://www.amazonlink.org/biopiracy/].

Blauert, J. eta Guidi, M. (1992): «Strategies for Autochthonous Development: Two initiatives en rural Oaxaca, Mexico», in J. M. Vivian eta D. Ghai (ed.), *Grassroots Environmental Action,* Routledge, Londres.

Bobiwash, R. (2001): *Statement to the World Social Forum* [2001-12-02an ikusia: http://www.cwis.org/fge/swsf.htm].

Boff, L. (2009): «¿Vivir mejor o "el buen vivir"?», *ALAI. América en movimiento,* <http://alainet.org/active/29839&lang=es>.

Bose, T. (1996): *Definition and Delimitation of the Indigenous Peoples of Asia* [2002-04-15ean ikusia: http://www.iwgia.org/sw312.asp].

Bowen, J. (1996): «The Myth of Global Ethnic Conflict*».,Journal of Democracy,* **7(4),** 3-14.

Bravo, E. (2009): «Biopiratería o "buen vivir". El caso de Ecuador», *Papeles*, **107,** 69-76.

Breully, J. (1985): *Nationalism and the State,* University of Chicago Press, Chicago.

Brubaker, R. eta Laitin, D. (1998): «Ethnic and nationalist violence», *Annual Review of Sociology,* **4,** 423-452.

Bryant, R. (1996): *Asserting sovereignty through natural resource use. Resources, Nations and Indigenous Peoples: Case Studies from Australasia, Melanesia and Southeast Asia,* Oxford University Press, Melbourne.

Buchanan, A. (1991): *Secession: The Morality of Political Divorce from Fort Sumter to Lithuania and Quebec,* Westview, Boulder.

Bullard, R. (2004): *Environment and Morality Confronting Environmental Racism in the United States. Identities, Conflict and Cohesion Programme,* Paper Number 8, United Nations Research Institute for Social Development.

Burch, S. (2009): «La reinvención de los territorios», *America Latina en Movimiento,* (ekaina), 11-13.

————, (2010): «Por un bien común general dela humanidad», *America Latina en Movimiento,* **452,** 27-34.

Burchett, E. (2006): *A Perfect Opportunity for CANZUS States* [2006-12-11n ikusia: http://www.unobserver.com/layout5.php?id=2988&blz=1].

Burger, .J eta Martín, D. (2006): «Pueblos Indígenas en Naciones Unidas. Mecanismos de protección, agendas e instancias», in M. Berraondo (ed.), *Los derechos de los pueblos indígenas: esperanzas, logros y reclamo,* Universidad de Deusto, Bilbo.

Burger, J. (1990): *The Gaia Atlas of First Peoples,* Robertson McCarta, Londres.

————, (1997): «La Declaración de las Naciones Unidas sobre los derechos de los Pueblos Indígenas. Los Grupos de Trabajo y el Centro de Derechos Humanos», in L. Van de Fliert (ed.), *Guía para los Pueblos Indígenas,* Comisión Nacional de Derechos Humanos, Mexiko.

————————, (1999): «Indigenous Peoples and International Fora», in U. I. M. Pelayo (ed*.), La Cooperación internacional y los Pueblos Amerindios (2)*, U. I. M. Pelayo, Valentzia.

Calvet, J. L. (2005): *Lingüística y Colonialismo: Breve Tratado de Glotofagia,*: Fondo de Cultura Económica, Buenos Aires.

Carruthers, D. V. (1996): «Indigenous ecology and the politics of linkage in Mexican social movements», *Third World Quaterly,* **17(5).**

————————, (1996): «Indigenous Ecology and the Politics of Linkage in Mexican social Movements», *Third World Quaterly*, **17(5),** 1.007-1.028.

Cassese, A. (1999): *Self-Determination of Peoples: A Legal Reappraisal,* University Press, Cambridge.

Castellino, J. eta Gilbert, J. (2002): «Self-Determination, Indigenous Peoples and Minorities. Reconciliation, Assimilation, and the Indigenous Peoples of Australia», *Macquarie Law Journal Special Issue,* **5(1),** 24-49.

———————— eta ————————, (2003): «Self-Determination, Indigenous Peoples and Minorities», *Macquarie Law Journal,* **3,** 155-178.

Castro Lucic, M. (2005): «Challenges in Chilean Intercultural Policies: Indigenous Rights and Economic Development», *PoLAR,* **2,** 112-132.

Centro Internacional de Derechos Humanos y Desarrollo Democrático (2002): *Seminario Derecho a la Libre Determinación de los Pueblos Indígenas* [2003-04-12an ikusia: http://www.dd-rd.ca/espanol/commdoc/publications/seminarioLibreDeterminacionPRINT.html].

Chakma, S. (2000): «Foro Permanente sobre Asuntos Indígenas: Persiguiendo el Espejismo», *The Indigenous World 1999-2000,* IWGIA, Kopenhage.

Chambers, R. (1983): *Putting the Last First,* Logman, Londres.

Chandra, R. (1989): *The Unquiet Woods: Ecological Change and Peasant Resistence in the Himalaya,* UC Berkeley Press.

Chase, R. (1992): «The earth is our mother: struggles for American Indian land and liberation in the contemporary United States», in A. James (ed.), *The State of Native America: genocide, colonization, and resistance,* South End Press, Boston.

————————, (1993): *Struggle for the Land: Indigenous Resistance to Genocide, Ecocide and Expropriation in Contemporary North America,* Common Courage Press, Monroe, Me.

————————, (1996): «La Política de la Diversidad. COICA y las federaciones étnicas de la Amazonia», in S. Varese (ed.), *Pueblos Indios, soberanía y globalismo,* Ediciones Abya Yala, Quito.

Chavez, R. A. (1999): «A Deadly Mix for Indigenous Peoples», *Tebtebba,* **1(1),** 23-28.

Cheyfitz, E. (2001): «Doctrines of Discovery», Common-place, **2(1)** [2002-02-03an ikusia: http://www.historycooperative.org/journals/cp/vol-02/no-01/cheyfitz/cheyfitz-2.shtml].

Chicaiza, R. (1998): «El Parque Nacional Yasuni: Otra Amenaza de Explotación en Ecuador», *Ecología Política,* **(15),** 11-30.

Chief Oren Lyons discusses sovereignty [2007-12-10ean ikusia: http://www.youtube.com/watch?v=SOw6S_immM4&feature=related].

CHIRAPAQ Centro de Culturas (1997): *Indias Racismo, Prejuicio y Discriminación con los Pueblos Originarios,* Chirapaq, Lima.

Chivian, E. (ed.): (2002): *«Biodiversity: Its Importance to Human Health» Interim Executive Summary,* A Project of the Center for Health and the Global Environment, Harvard Medical School.

Chivian, E. eta Bernstein, A. (ed.) (2008): *Sustaining Life: How Human Health Depends on Biodiversity,* ISBN13: 9780195175097.

Choquehuanca, D. C. (2010): «Hacia la reconstrucción del Vivir Bien», *merica Latina en Movimiento,* **452,** 8-14.

Chuji, M. (2008): «El Estado plurinacional», *Yachaykuna: Saberes,* **8.**

Churchill, W. (1992a): *Fantasies of the Master Race: Literature, Cinema and the Colonization of American Indians,* Common Courage Press, Monroe, ME.

————, (1992b): «The earth is our mother: struggles for American Indian land and liberation in the contemporary United States», in A. James (ed.), *The State of Native America: genocide, colonization, and resistance,* South End Press, Boston.

————, (1993): *Struggle for the Land: Indigenous Resistance to Genocide, Ecocide and Expropriation in Contemporary North America,* Common Courage Press, Monroe, Me.

————, (1998): «The Tragedy and the Travesty: The Subversion of Indigenous Sovereignty in North America», *American Indian Culture and Research Journal,* **22(2),** 1-69.

————, (1999): «False Promises: An Indigenist Examination of Marxist Theory and Practice», *Fourth World Journal,* **4(1).**

————, (2003): *I am Indigenist: Notes on an ideology of the fourth world* [2004-12-02an ikusia: http://www.zmag.org/chiapas1/wardindig.htm].

Cirkovic E. (2006): «The Myth of the Inkarri: Colonial Foundations in International Law and Indigenous Struggles», *YCISS Working Paper 39* [2007-01-03an ikusia: http://www.yorku.ca/yciss/publications/documents/WP39-Cirkovic_000.pdf].

Clavero, B. (1994): *Derecho indígena y cultura constitucional en América, S*iglo XXI, Mexiko.

————, (1994): *Espacio Colonial y Vacío Constitucional de los Derechos Indígenas* [2004-02-29an ikusia: http://www.juridicas.unam.mx/publica/librev/rev/hisder/cont/6/est/est5.pdf].

————, (1998): «De los Ecos a las Voces de las Leyes Indigenistas a los Derechos Indígenas», in J. Legarreta (ed.), *Derechos de los Pueblos Indígenas,* Servicio de Publicaciones del Gobierno Vasco, Gasteiz.

————————, (2002): *Genocidio y Justicia. Destrucción de la Indias, ayer y hoy,* Marcial Pons, Madril.

————————, (2002): *Tratados con Pueblos o Constituciones de Estados: Dilema para América. Derechos Colectivos y Administración de Justicia Indígena* [2003-02-23an ikusia: www.uasb.edu.ec/padh/centro/pdf2/CLAVERO%20 BARTOLOME.pdf].

————————, (2003): *Multiculturalismo, Derechos Humanos y Constitución. Emergencia de los Movimientos Sociales en la Región Andina* [2004-05-04an ikusia: www.uasb.edu.ec/padh/centro/pdf2/CLAVERO%20BARTOLOME. pdf].

————————, (2006): «Derechos indígenas y constituciones latinoamericanas», in M. Berraondo (ed.), *Los derechos de los pueblos indígenas: esperanzas, logros y reclamos,* Universidad de Deusto, Bilbo.

————————, (2007): *Nota sobre el Alcance del Mandato Contenido en el Artículo 42 de la Declaración sobre los Derechos de los Pueblos Indígenas y el Mejor Modo de Satisfacerlo por Parte del Foro Permanente para las Cuestiones Indígenas.*

————————, (2008): *Naciones o Pueblos y Estados o Comunidades en Tiempos Constitucionales [*2009-04-10ean ikusia: clavero.derechosindigenas.org/wp-content/uploads/2008/10/aldaketa-clavero.pdf].

————————, (2009): *Foro Social Mundial: extravío ibérico ante pueblos indígenas* [2009-03-12an ikusia: http://clavero.derechosindigenas.org/wp-content/ uploads/2009/02/nacion-catalana-y-pueblos-indigenas.pdf].

Clay, J. W. (1988): *Indigenous Peoples and Tropical Forest: Models of Land Use and Management from Latin America,* Cultural Survival, Cambridge. Mass.

————————, (1994): «Resource Wars Nations and State Conflicts of the Twentieth Century», in B. Johnston (ed.), *Who Pays the Price?,* Island Press, Washington.

COICA (1997): «Encuentro Regional de COICA/PNUD sobre derechos colectivos de propiedad intelectual», in WATU (ed.), *Watu, Diversidad Biológica, Diversidad Cultural,* WATU, Madril.

————————, (1998): *Biodiversidad y Derechos de los Pueblos Indígenas,* COICA.

COICA/UNDP (1994): *Regional Meeting: Basic Points of Agreement on Intellectual Property Rights and Biodiversity,* Santa Cruz de la Sierra, Bolivia, irailaren 28-30ean.

Cojtí, D. (1997): *'Ri Maya' Moloj pa Iximulew - El Movimiento Maya – Guatemala,* IWGIA, Documento 20.

Colchester, M. (1995) «Indigenous Peoples Assert their Intellectual Integrity», *Indigenous Affairs,* **(4),** 5-7.

————————, (2000): «Self-Determination or Environmental Determinism for Indigenous Peoples in Tropical Forest», *Conservation Biology,* **14 (5),** 1.365-1.367

Colfer, C. (ed.): (2008): «Human Health and Forests. A Global Overview of Issues, Practice and Policy», P*eople and Plants International. Conservation Series.*

Colfer, C.; Sheil D. eta Kishi, M. (2006): «Forests and human health. Assessing the evidence», *CIFOR Occasional,* Paper 45.

Colorado, P. (1988): «Bridging Native and Western Science», *Convergence,* **2/3,** 49-68.

Comisión Brundt1and (1988): *Nuestro futuro común* (*El Informe Brundtland),* Alianza, Madril.

Comisión de Derechos Humanos (2004): *Discrimination against Indigenous Peoples. Report of the working group on indigenous. Chairperson-Rapporteur: Ms. Erica-Irene A. Daes [*2005-04-01ean ikusia: http://www.cs.org/publications/CSQ/csq-article.cfm?id=435].

————————, (2005): *Taller internacional sobre el proyecto de Declaración de las Naciones Unidas sobre los Derechos de los Pueblos Indígenas Pátzcuaro, Michoacán, México 26-30 de septiembre de 2005* [2007-4-5-2an ikusia: http://www.law.harvard.edu/students/orgs/hrj/iss12/wiessner.shtml].

Connor, W (1973): «The Policies of Ethnonationalism», *Journal of International Affairs*, **27(1),** 1-21.

————————, (1972): «Nation Building or Nation-Destroying», *World Politics,* **(24),** 319-355.

